


Ebaristo Bustintza
Kirikiño

ABERRIAREN ALDE

ARTIKULU POLITIKOAK

Sarrera:
Cesar Gallastegi



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Kirikiño idazle emokorraren artikulu hautuak gaika batu eta argitaratzeko bidean, aurreko hiru liburuei oingoan gai politikoak darabilezana gehitzen jake. Kirikiñok politikan bizi-bizi jardun eban eta eragin handia euki eban herriko jentearengan. Liburu honetan batutako artikuluetan argi ikusten da zelako jokabidea hartu eban eta zeinen bero bizi ebazan gertaera politikoak. Haren izaeraren beste alderdi baten erakusle ederra bene-tan.

Javier Perea behargin finari zor deusagu testu guztiak batzea eta aukeraketa egitea. Eta Cesar Gallastegik sarrera apropos-aproposa egin dau testuak euren kontestuan eta giroan ondo kokatzeko eta gaurko irakurleak idatziak ondo aitzeko, horretarako behar diran argibideak emonda.

EBARISTO BUSTINTZA *KIRIKIÑO*
Aberriaren alde
Artikulu politikoak

EBARISTO BUSTINTZA
KIRIKIÑO
Aberriaren alde
Artikulu politikoak

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO

Aberriaren alde

Artikulu politikoak

Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizinoa: Igone Etxebarria

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2005

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokomposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S.L.L.

Lege Cordailua: BI-2960-05
ISBN: 84-89816-21-2

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailaren edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

Sarrera. <i>Cesar Gallastegi</i>	11
1. Kirikiñoren bizitza eta lanak	12
1.1. Bizitzaren zertzeladak	12
1.2. Lanak eta idazkerea	21
2. Bilduma honetako testuak	29
2.1. Bilduma honen nondik norakoak. Testuen gai nagusiak	29
2.2. Hiztegia	33
2.3. Idaztankera eta baliabide estilistikoak	40
3. Testuen kokapen historikoa	42
3.1. Espainiako sistema politikoaren bilakaera	42
3.2. Alderdi politiko nagusiak	44
3.3. Abertzaletasunaren gorabeherak eta Kirikiñoren jarrera	47
3.4. Herri erakundeak eta horreek aukeratzeko hauteskun-	
deak	54
3.5. Kronologia	63
4. Iturriak eta bibliografia	67
Gure edizinoa. <i>Igone Etxebarria</i>	69

ABERRIAREN ALDE. ARTIKULU POLITIKOAK

Kazuelakadea!	73
Egiak eta... egiak	77
Lurdesera don Jaimegana	80
Don Jaime, Santiago Marín, foruak eta nahaste	85
Ez dogu konserbadore faltsozarrik behar	88

Lehenagoko abertzaleak	93
Karlistak Otxandion	96
Beste behin	100
Jaimetarrak Balmasedan	102
Barregarrikeriak	104
Gora deun Mikel!	107
Gogoratu!	110
Egin, ez egon	112
Arazo txarra	114
Gora JEL!	116
<i>Centro Vascon</i> bart	117
Jaungoikoa geugaz dabil	120
Guk be hitz	123
Atzo jaimetarrak eta gu parra	125
Anaiak? Bai, anaiak	127
Hauteskundeak	129
Geurea gurenda	130
Mungiako gudakaren gomutaz	131
1839ko urrilak 25	135
Hauteskundeak	137
Arana eta Coiritar Sabin zanaren aintzaz	140
Barriketak	146
Euzkadi Buru Batzarrak dino	149
Euskaldun abertzaleei	153
Abertzaleak, batu!	156
Batu abertzaleak EBBgana	159
Abertzaleak?	162
Entzun, bai, entzun!	165
Katalanak Bilbaon	169
Katalanak Bilbaon	171
Peru Dubako hil zan	174
Hauteskundeak	177
Hauteskundeak	179
Hauteskundeak	181

Heldu dok eguna!	183
Gora JEL! Gora Euskadi! Gora Deun Mikel Aralarkoa!	185
Nok askatu matazea?	188
Atzoko eguna Donostian	191
Jabea nora, txakurra hara	194
Zer eskatu dan	197
Noz edo noz...!	200
Aurrera euskaldunak!	203
Atzoko burrukearen ondorena	206
Seigarrena be bai?	208
Zegaitik urten diran	210
Gobernua hankaz gora	212
Hondino gobernurik ez	215
Gobernu barria	217
Hitz egin dabe	219
Seme deungak ama ukatzen	221
Barakaldoko diputadua	224
Txomin Epaltza, irabazle	226
Landaburutar Peli (G.B.)	228
Geuk be didar egingo dogu	230
Gobernua geure aldez	232
Hori zelan dok?	234
Mutil euskotarrak gudari	237
Aupa, mutilak, batzarretara!	240
Beste guztiei ez deutse bape ardurarik euskotarren autonomiagaitik	243
Hor jaukaguzak!	245
Ikasi, euskaldunak!	248
Zer da jazoten dana?	251
Prieto polita dalako?	253
Guztirako gertau!	255
Ointxe ezagutuko dira gizonak	257
Epaltzaren hitza	259
Gizonak a...	261
Horra Maura hankaz gora!	263

Matazea askatu barik	265
Benetan	267
Larrik ez onik	270
Urkiolan lehengo igandean	272
Gora Euskadi... ..	275
Ahal dagianak ahal dagiana?	277
Gogaketak	279
Mungia! 1470eko jorrailak 27	282
Gogortu, ez bigundu	285
Atzoko auzia	287
Harainegun Ondarretan	289
Gizon adoretzuak	291
Atzoko gaiztakeria handia	293
Sabinen hilobi aurean. Otoi bat, lora bat, eskintza bat	296
Eta zer?	299
Irakatsi egin behar da	302
Barrero dinogu	304
Geu bakarrik ete gara ba?	307
Herri-jagole ederrak	310
Egun gogoragarria	312
Gaur urteurren itzela. Askatasuna... alkartasuna	314
Gaur izan balitz!	317
Arerioak pozik. Anaiak gudan. Horretarako abertzale-partidu ba- rria? Gauzak argitu eta sendotu	320
Sabingaitik ez da	325
Dirua batzeko edozer abindu. Gauzak behar dan eraz	327
Eskatu leitekena eta ez leitekena	331
Esan dozu? Entzun behar dozu	333
Batasuna, indarra	337
Hautu zintzo	340
Ez gaitu kankarrekoak bildurtzen. Gertu gagoz beste baterako. Geure beharkuna bete dogu	342

SARRERA

Ebaristo Bustintza, *Kirikiño*, guztiz garrantzitsua da XX. gizaldiaren lehen zatiko euskal letretan eta abertzaletasunean. Gure pertsonaiak, mende hasiereagaz batera, bere ohiko bizimodua alde batera itxi eta euskeraren aldeko erabateko postura egin eban, mundu honetatik aldendu arte. Euskerarentzako aldi latz haretan, mañariarra hizkuntzaren behargin eta eragile nekaezina bihurtu jakun.

Errotiko ibilbide hori pizkundeko maisu biren itzalean gertatu zan. Alde batetik, Azkuek murgildu eban Kirikiño bidaia horretan, euskeraren alde lan egitera akuilatuaz; horretarako, *Euskalzale* aldizkariaren zuzendaritza opatu eutsan eta Bizkaiko Aldundiko Euskerako Katedran sarbidea emon. Bestetik, Sabino Aranak sakon eragin eutsan Kirikiñori: mañariarrak Aranaren planteamentu politiko eta linguistikoak bere egin ebazan. Edu horretan, Kirikiño abertzaletasuna zabaltzen ahalegindu zan, agerpen publikoetan —mitinetan— eta artikuluen bitartez. Horrezaz gainera, idatzietan erespide aranzaleak erabili eta bultzatu ebazan.

Eraginak eragin edo, hobeto esanda, eragin bi horreen gaintetik, Kirikiñoren lan itzelak behar dan beste baloratu behar doguz, euskal literatura aztertu daben guztiek onartuten daben lez. Egia esan, Kirikiño izen handiko idazlea izan zan, seguru asko, garai hareetako idazlerik irakurriena, alde batetik, *Euzkadi* egunkarian etengabe idazteagatik eta, bestetik, *Abarrak* ipuin-bildumeari esker.

Esku artean dozun liburu hau Kirikiñok *Euzkadi* egunkarian 1913-1923 bitartean (hain zuzen be, 1913an egunkaria sortu zan eta

1923an Primo de Rivera diktadoreak poderea eskuratu eta euskerazko orrialdea bertan behera geratu zan) politikaren inguruan idatzi ebazan artikulu aukeratuen bildumea da. Testu honeetan, abertzaletasuna oinarri hartuta, urte hareetako bizitza politikoaren zertzeladak eta gertakari publikoak jorratzen ditu idazleak. Beraz, sasoi hareetako alderdi politikoak atzera eta aurrera agertuko jakuz —abertzaleak, konserbadoreak, karlistak, etab.— hauteskunde, koalizio, mitin eta beste hainbat gertakari politikoren erdian.

Jarraian, Kirikiñoren idazlanak behar bezala kokatzeko hainbat datu eta argibide azalduko ditugu, testuok irakurri eta interpretatzeko lagungarri izango diralakoan.

1. KIRIKIÑOREN BIZITZA ETA LANAK

1.1. Bizitzaren zertzeladak

Kirikiñoren bizitzaren kontu nagusiak nahiko ezagunak dira irakurle euskaldunentzat, gure literaturako idazlerik famatuenetakoa da eta¹. Hori dala-ta, mañariarraren bizitzaren gaineko atal honetan egilearen bizimoduko datu batzuk errepikatuko doguz, batez be, bilduma honetarako interesgarriak direnean. Halanda be, Kirikiñoren bizimoduko eta beharretako alderdi batzuk iluntxoak dira gaur egun be, eta hurrengo lerroetan horreek argitzen ahaleginduko gara.

¹ Euskal literaturako historia orokorrez gainera, Kirikiñori buruzko artikulu monografikoak eta idazlearen liburuen argitalpenetako sarrerak be interesgarriak dira idazlea ezagutzeko. Susaren orrialdean, *Literaturaren zubitegia*, (<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00289.htm>) material horreetako asko ikusi daitezke: bategatik, Kirikiñori buruzko testuak (Joxemiel Bidador, Santi Onandia, Jesus Mari Agirre, Ibon Sarasola, Seve Calleja, Mikel Zarate, Enrike Zabala, Itziar Laka eta Karmelo Etxenagusiak idatzita) eta, bestetik, lotura asko dagoz, besteak beste, hurrengo honeetara jo ahal izateko: Igone Etxebarriaren liburutxoia (idazlearen biografiaren laburpena, argazki eta guzti, *Bidegileak* bilduman), Eusko Jaurlaritzaren web orrian, eta *Abarrak* liburuaren lehen argitalpena, Sancho el Sabio Fundazioak digitalizatu dauana.



Mañaria, Kirikiñoren jaioterria. Gaur egun bere izena daukan kalean, hirugarren etxean jaio egin zan, eta bosgarrenean aldi baten bizi eta hil egin zan.

Ebaristo Bustintza Lasuen, Kirikiño goitzenaz ezagutua, 1866. urteko urriaren 26an jaio zan, Bizkaiko Mañarian. Hamabi urte eukazala, Almansara (Albacete) bialdu eben, amaren aldetiko osabarengana, batxilleratoa ikasteko helburuarekin. Osaba hori injenerua zan eta, Mediterraneorako trenbideko beharrak zirala-ta Almansan bizi zan; han etxea ezeze, lurrak eta mahastiak be erosi ebazan. Gero-ago, Ebaristok Madrilerara jo eban goi mailako ikasketak egiteko. Unibersidadea eta lana tartekatuz, azkenean zientzia fisiko-matematikoetako titulua bikain kalifikazinoagaz eskuratu eban, 1895ean².

² Orduko *Ministerio de Fomentok* emondako titulua Abertzaletasunaren Agiritegian gordeta dago (DP-891-6), Bustintza sendiaren 20 argazkigaz batera (DP-202-11).

Horren ostean, Kirikiño Sigüenza aldean, Colegio-Seminario dalakotan, ibili zan zientzia irakasle.

Euskal Herritik kanpo bizi arren, familiaren barruan euskeraz berba egiten zan³, eta Kirikiñok euskeraren aldeko zaletasuna hartu eban. Halan bada, urte bi zaharrago zan Azkue katedradunari gutunak idazteari ekin eutsan —1896. urtean, ikasketak bukatu eta hurrengo urtean—, eta euskera sakontzeko orduan aholkua eskatu: “Esan eistazu, bada, ze liburu neugandu biar daudan, euskara ondo ikasteko daukatan guraria betetako”⁴. Bi-bien arteko hartu-emon horren frutua lekeitiarrak sortutako *Euskalzale* aldizkarian Kirikiñok 1899an idatzi eban lehenengo artikulua izan zan (*Zerutar bat*, geroago, 1918an, *Abarrak* liburuan jaso zana); guztira zortzi artikulua argitaratu ebazan, urte horretan bertan aldizkaria itxi aurretik. Sasoi horretan, Sigüenzan irakasle zala, bere burua eskaini eban euskarren alde behar egiteko: “Sólo digo (pero de veras) que V. para empresas como la de Euskalzale, y V. mismo u otros para las de otra índole que tiendan a emancipar a nuestra raza de la injusta agresión en que se halla, me tienen y me tendrán siempre e incondicionalmente a su disposición”⁵.

³ Azkueri zuzendutako eskutiz batean hurrengo dino: “En honra de los míos debo consignar que el idioma *oficial* del hogar nuestro ha sido siempre y continúa siendo el éuskaro, y sólo con esto comprenderá usted que no hay nada de particular en que yo haya resultado, a pesar de tan larga ausencia de esa tierra, un bizcainazo tan auténtico y tan castizo como el pastor que con más garbo zarandea las abarcas por entre los peñascales de Mañaria,” izan be, Kirikiñok bizitza osoan bere burua baseritartzat jo eban (Azkueren gutumeria, *Euskaltzaindiko Azkue Liburutegia*, 106-262; lekua: Almansa; data: 1900-IV-3; *Euskaltzaindiaren jabetzapeko dokumentuak*, Azkue Bibliotekan konsultagai; hemendik aurrera gutunok identifikatzeko, bidaltze lekua eta data jarriko dogu; *Euskaltzaindian badira, baita be, Paulino Bustintzak*—Kirikiñoren anaia gaztea, apaiza— Azkueri bialdutako bost gutun).

⁴ Almansa, 1896-VIII-25.

⁵ Sigüenza, 1900-II-3.

Azkuek berehalakoan lotu eban Kirikiño⁶ eta, egunak joan egunak etorri, 1901eko urtea hasita dagoenean (martia aldera), 34 urte eukazala, mañariarra Bilbora etorri zan bizitzera, urte asko eta asko euskal lurak bisitatu barik egon ondoren; hiriburuan bertan bizi izan zan erretiroa hartu arte, hau da, ia-ia hil arte. Urte horretarako, 1901erako, *Ibaizabal* aldizkaria kaleratutea aurreikusita egoan, baina lehenengo zenbakia 1902ko ilbeltza arte atzeratu zan.

Azkuegaz lankidetzat estu-estuan ibili zan. Kirikiñok, lehenengo *Euskalzale* aldizkarian eta gero *Ibaizabal* dalakoan (Azkuek agerkari horren zuzendari izentau eban⁷) argitaratuteaz gainera, Azkueri hiztegian be lagundu eutsan. Eta Bizkaiko Aldundiko Euskerako Katedran, hain zuzen be Azkuek 1888tik eukan horretan, parte hartu eban⁸; Kirikiño ordezkoa izan zan hasieran —1904an Azkue atzerrira joan zanean hiztegi beharrak egiten— eta, gero titularra, —apaiza Europatik bueltau zanean—, 1928an erretiroa hartu eban arte. Urte horreetan, ehundaka bilbotar euki ebazan ikasle.

1909an, 49 urte ebazala, Kirikiño Basili Bustintza Ozerin lobeagaz ezkondu zan (Mañarian aita lez hargina zan anaia zaharraren alabea), baina ez eben familiarik ekarri. Basiliren ahiztea (Kirikiño-

⁶ Kirikiñok esaten deutso ikasturtea bukatzen danean, aske egongo dala Bilbora joateko (Sigüenza, 1900-IV-3).

⁷ Kirikiñok apaltasunez jokatzen dau zuzendari kargua onartu orduko: “Si yo estuviera ahí podría servir quizás de aprendiz-redactor o auxiliar; estando por acá, de colaborador. En cualquiera de estos dos conceptos, cuente usted conmigo incondicionalmente” (Sigüenza, 1900-V-13) baina azkenean onartu eban: “zu lango gizon bati bigarren ezetza emoteko eztaukat biotzik, eta beraz, nazala nazala [sic], aurrera ioango naz” (Almansa, 1900-X-21).

⁸ Ikusi, Jose Antonio Arana Martija: “Euskal Katedraren lehiaketa eta eragina”, *Euskera*, XXXIII, 1998, 360-389 or.; Itziar Laka: “Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra”, *ASJU*, XXI-2, 1987, 409-424 or.; Bizkaiko Aldundiko espedientea be gordetzen da Bizkaiko Foru Aldundian (eta horren kopia bat Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan).

ren loba eta koinatea, aldi berean), Errose, ezaguna da bai idazle modura, bai abertzale modura⁹.

Kontua da Azkuek bere arrabea gura ebala mañariarraren emazte: “biotzean neukan sartuta anai izan bear genduala”; horrezaz gainera, jokaera filologikoak dirala bide, Kirikiño Azkuerengandik urrindu egin zan, mañariarra Sabino Aranaren jarraitzaile kartsua zalako¹⁰.

1913. urtean *Euzkadi* egunkari abertzalea fundatu zan eta Kirikiñok bete-bete hartu eban parte proiektu horretan, bizimodua ateratzeko ebazan bestelako bulegari beharrak alde batera itxita. Nazionalismoak egunkari bat sortu gura eban; izan be, 1899an *El Correo Vasco*-k egunkariak argia ikusi eban, baina arin desagertu zan, urtea amaitu orduko, eta abertzaleek ordutik aurrera ez eben egunerokorik izan. 1913an egunkari modernoa egin gura zan, Euskal

⁹ Kirikiñoren familiari eta Errose Bustintza idazleari buruzko datu gehiago gura izan ezker, honaxe jo daiteke: Xabier Kaltzakorta: *Errose Bustintza*, Bidegileak Bilduma, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 1999. Errose Bustintzak 1932an osabearen omenez *Euskalzale Bazkunak* sortutako *Kirikiño* kazetaritza-saria jaso eban Durangon; saria Lauaxetak emon eutsan, Kirikiñoren ondorengoa *Euzkadi* egunkarian. Sari hori Kirikiñori hil ostean egineko omenaldietako baten emon jakon (ikus Roman Berriozabal: *Nacionalismo vasco en Durango. 1893-1937. Notas para su historia*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1996, 220-221 or.).

¹⁰ Azkuek Kirikiñori egindako gutuna (Kolonía, 1908-II-8); Kirikiñok lobarekin dauen ezkontza-asmoa “indianu-ezkontza” deitzen dau eskutitz horretan bertan; halanda be, “Adiskide beti izango zara” eta “Beti zure laguna” idazten dau, eta, bizimodua ateratzeko laguntzen jarraituko dau. Kirikiñok be Azkue estimu handitan izan eban aurrerantzean; 1915ean, berbarako, “Azkue abade jaun jakintsua” esan eutsan (*Euzkadi*, 1915-II-22; testua liburu honetan ikusgai: Kirikiño: *Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1984, 94 or.; oharra: aurrerantzean aipatu gura dogun testua Labayruk ateratako liburu baten badago, bertan dagoena jasoko dogu, hau da, gaur egungo edizino hori erabiliko dogu eta ez orduko *Euzkadiko* testua). Bestalde, Azkue Kirikiñoren hileta-mezan egon zan 1929an. Kontuak kontu, euskerea arazoetan bere eredia baeban be, Azkue ideia politikoetan abertzaletasun moderatutik gertu ibili zan, hainbaten islatzen dan moduan.

Herri osorako eta bitarteko askogaz¹¹. Kirikiñok hasieratik hartu eban parte: *Sociedad Anónima Tipográfica General* —egunkaria martxan iminteko arduraduna— izenekoaren gerente izan zan, eta egunkaria martxan egoala be Kirikiño erredaktore-burua izan zan aldi baterako. Azken baten, Kirikiño oso gizon garrantzitsua izan zan EAJrako, *Euzkadi* egunkaria sortu eta garatzeko.

Egunkaria sortukeran, *Bizkaitarra* astekaria desagertu egin zan. Aldizkari horretan, Ebaristo Bustintzak hainbat eta hainbat artikulu argitaratuta zituan, jadanik *Kirikiño* goitizena erabiliaz. Baina *Euzkadi* egunkarian, Kirikiñok euskerazko atalaren ardura berezia hartu eban, soldata eta guzti; 15 urtean eginkizun horretan ibili zan, eta milaka barri idatzi ebazan. Haren ostean, Nikolas Ormaetxea *Orixe* etorri zan, eta gero, Esteban Urkiaga *Lauaxeta*.

1928an, Kirikiñok, makal egoala, helduaroko eginkizun biak bertan behera itxi ebazan: *Euzkadi* egunkariko artikulugintzea eta Aldundiko Euskera Katedrako irakasle lanpostua¹². Bilbo itxi eta

¹¹ "El periódico queremos que sea un modelo verdaderamente moderno, del tamaño de *La Vanguardia* de Barcelona, a ocho páginas; contendrá una información idéntica a la de *La Gaceta del Norte* y *El Pueblo Vasco*, pues hemos presupuestado las mismas cantidades para gastos de información telegráfica y telefónica y además para corresponsales en las capitales de Gipuzkoa, Araba y Navarra y un representante en los Estados de allende el Bidasoa.

Queriendo que el periódico sea muy superior en contenido a todos los de Bilbao destinamos una cantidad muy sólida para retribuir al personal de redacción para que cuente con Director, Redactor-Jefe, redactores euzkérico y erdérico, taquígrafo, reporteros y corrector de pruebas." *Proyecto de Publicación de un gran Diario Nacionalista*, Bilbao, 1912ko bagilearen 12a, Abertzaletasunaren Agiritegia, Fondo Hermanos Arana Goiri, CL-7-3, honek aitatu: Pablo de, Santiago, Ludger Mees eta Jose A. Rodríguez: *El pendulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I: 1895-1936*, Crítica, Bartzelona, 1999, 97 or.

¹² Erretiroa hartu ebanerako, bilbotar asko eta asko izan ebazan ikasle, besteak beste, Carmen Errazti, *Emakume Abertzale Batza* elkartearen lehenengo lehendakaria, Ceferino Jemeinen andrea, 23 úrtetik 26 urtera euskera ikasi ebana; Kirikiñok ipuin bat argitarazo eutsan *Euzkadi* aldizkarian 1911an (*Cabon'go gotzon bat*); horitik aurrera, Carmen Erraztik sarritan idatzi eban euskeraz euskal prentsan 1918 arte; geroago, 1919ko zezeilaren 15ean, Kirikiño irakaslea gogoratu eban *Euzkerea* aldiz-

Mañarira joan zan bizitzen emazteagaz batera, baina handik hile gixira, 1929ko ilbaltzaren 31n, azken hatsa emon eban, 62 urte ebazala¹³.

Kirikiño hil zanean, abertzaletasunaren giroko¹⁴ eta, orokorrean, euskal kulturako personaiarik ezagunenetakoa zan. Kontuan euki behar da bere lan eskerga: Aldundiko katedraren euskera irakasle eta prentsan idazle izateaz gain, hizlari trebea izan zan hainbat mitin eta berbalditan, beti be euskeraren alde.

Propaganda eginkizun horren adibide moduan, Balmasedako mitin baten esanekoak gogora ekarriaz *Euzkadi* egunkarian (1913-VII-21) argitaratu zan kronika jaso dogu; bertan agertzen dira Kirikiñoren bizitza osoko grinak (ikusi horren argazkia 43. orrian):

En correcto euzkera habló a los vascos amigos y contrarios.

Aconseja que sea la vasca la lengua usada con preferencia por los hijos de Euzkadi.

Pone de relieve lo poco patriótico que es preferir idioma extraño al nacional, y en párrafo vibrante, que arranca aplausos entusiastas, hace resaltar la necesidad de que todos cultivemos y propaguemos la última nota diferencial.

karian (ikusi Mercedes Ugalde: *Mujeres y nacionalismo. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1993, 84-89 or.). Kirikiñoren beste ikasle ezagun batzuk: Adolfo Urquijo, Ceferino Jemein, Manuel Robles, Manuel Irujo...

¹³ Ceferino de Jemeinek hurrengoa dino: "Murió en la paz del Señor el 31 de enero de 1919, en su casa de Zumelaga de Mañaria, víctima de una terrible arterioesclerosis que minó en pocos años su complexión hercúlea y su robusta naturaleza"; in *Alderdi*, 120 zk., 1957, 11-12 or.

¹⁴ Anekdotia lez, hurrengoa aitaturko dogu: 1923an, abertzaletasuneko *Comunión* adareko andrazkoek mobimentu bat sortu gura izan eben *-Emakume Azarri Bazkuna-*, eta Kirikiñori bandera pentsetako eskatu eutsien. (Mercedes Ugalde: *Mujeres y nacionalismo. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1993, 170 or.)

Aboga por el destierro del idioma extraño, y en bellísima comparación la pacienzuda labor de los que trabajan por hacer del idioma nacional de derecho, la única llamada a exteriorizar sus sentimientos.

No es fácil derrocar montañas; el esfuerzo constante lo consigue, sin embargo. Trabajemos en favor del fin propuesto, y lo que ayer nos pareció obstáculo insalvable será mañana cuestión de poco momento.

Para los vascos erderizados, para los vascos que no sienten como sentir debían..., no el odio, ni el desprecio; el ansia de atraerlos al campo en que por razón de ascendencia debieran figurar... Si otras razones más potentes no les obligaran a ello.

Terminó con goras a Euzkadi, a Jaungoikua eta Legi-Zarra, a las Encartaciones y a Balmaseda, goras que el numeroso público coreó con entusiasmo.

Fue ovacionado y muy felicitado.

Bukatzeko, Kirikiñoren gaineko eretxiren bat edo beste jaso gura izan dogu, personaiaren izaerea hobeto ezagutzearren. Lehenengoa Kirikiñok berak idatzia, *Euzkadi* egunkariaren hamargarren urteurrena dala eta, idazlearen karikatura edo marrazkia agertu zanean; hurrengoa dino umoretsu:

Horra hor, irakurle, izparringi hau egunero idazteko beharkuna daukagunok.

Hor gaukozuez geure arpegi itzelakaz. Eskerrak ez gabiltzala hor basorik baso eta biderik bide, bestelan amaika susto emongo geunke bazterretan, eta batek baino gehiagok poltsea hurrera botako leuskigu ta igesi joango litzake bilduraren bildurez basalapur ikaragarriren batzuk ete garan.¹⁵

¹⁵ *Euzkadi*, 1923-II-1; testua liburu honetan ikusgai: Kirikiño: *Egunekoa*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1981, 159-160 or. Kirikiñoren gatxizena bera, mañariarraren nortasunaren erakusletzat jo daiteke, bakartia eta baketsua baina aldi berean gogorra eta kementsua. Ikusi "Txakurra ta kirikiñoa" testua (*Euzkadi*, 1923-II-25; liburu honetan ikusgai: Kirikiño: *Egunekoa*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1981, 161-162 or.).



Zientzia Fisiko-matematikoetako lizentziatu-titulua. Madrildo Unibersidadea, 1895.

El Pueblo Vasco egunkarian, oster, beste hau argitaratu eben Kirikiño hil zanean:

Colocados en posiciones ideológicas irreductiblemente opuestas, no ha de ser obstáculo para que rindamos desde estas columnas el debido tributo a las condiciones de caballerosidad, de hombría, de lealtad y de modestía, que eran las características del Señor Bustinza. Porque el caballero que acaba de fallecer era sobre todo un perfecto cristiano, un hombre bueno, un cumplido caballero, servicial y modesto.

Debajo de su carácter aparentemente rudo encerraba un alma buena, sencilla, infantil. Era leal y cortés hasta con sus adversarios.¹⁶

¹⁶ Testua liburu honetan ikusgai: Kirikiño: *Edo geuk edo ñonk ez. Euskerearen alde*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1984, 10 or.

Kirikiñoren izaera dala-ta hurrengoia idatzi eban Azkuek Adolfo Urquijori bialdutako gutun baten:

este muy ilustrado y despabiladísimo joven, Licenciado en Ciencias con notas brillantísimas obtenidas en Madrid, trabajador vasco de la buena cepa, noblote y honrado hasta lo que cabe [...] me permito pedir a Vd. encarecidamente, y hasta me atrevo a suplicarle haga un esfuerzo por proporcionar a este hombre en san Francisco una ocupación regularcita. Con ello, no sólo prestará Vd. un buen servicio al país, sino que tendría un buen oficinista. Sin algo así, se iría de nuevo sin duda hacia Albacete... y después no sé si le volveríamos a ver. ¿Y donde encontraríamos vascófilos, uno solo, de su talla? Y usted sabe perfectamente que no andamos sobrados de personal para la constitución de nuestra futura Academia. [...] El secreto, el único secreto de que Bustinza no haya sido aún decentemente colocado, ha sido el de su cortedad, pues a pesar de su no común ilustración y disposición brillante y hablar aun el castellano como no lo hacen en Bilbao la mayoría de los hombres de carrera es, para pedir algún favor, romo de carácter como un pistolo.¹⁷

1.2. Lanak eta idazkerea

Kirikiñoren izena *Abarrak* liburuagaz lotuta jatorku. Liburu hori idazlea bizi zala argitaratutako bakarra da. Liburu horretan, herri-giroko ipuin batzuk agiri dira, umorea nagusi dala¹⁸. Halanda be, lan

¹⁷ Azkueren gutuneria, Euskaltzaindiko Azkue Liburutegia.

¹⁸ *Abarrak* liburua 1918an argitaratu zan lehenengoz, eta 21 ipuin eukazan; idazlea hil eta gero, 1930ean, *Bigarrego Abarrak* deitutako bildunea argitaratu zan (43 ipuin eta 3 poesia daukaz); 1966an *Abarrak... eta beste* liburuak argia ikusi eban (aurreko liburuen batuketa, gehi beste lantxo batzuk); horren ostean, beste argitalpen batzuk egin ziran, besteak beste, *Abarrak* eta *Bigarrego Abarrak* liburuak *Klasikoak*

ezagun hori aldizkari eta egunkarietan egineko beharragaz lotu behar dogu: *Abarrak* bilduman batu ziran ipuinen erdiak aurretik be argitaratuta egozan (*Euskalzale*, *Ibaizabal*, *Euzkadi* aldizkarietan eta *Euzkadi* egunkarian). Holan, ipuin sorta hori Kirikiñoren lan osoaren ehuneko oso txikia izango litzake. Baina antzeko idazleak gertatu dan lez, egunkarietan argitaratutakoa haizeak daroala emoten dau, eta liburuak, barriz, iraun egiten dau.

Lehenengo eta behin, Kirikiñok 1899-1903 bitartean Azkuek sustatutako aldizkarietan parte hartu ebala aitatu behar dogu. Aurrean be esan dogun lez, Kirikiño *Euskalzale* aldizkarian hasi zan idazten eta zortzi artikulua idatzi ebazan guztira 1899an, aldizkaria itxi zan urtean; horren ostean, *Ibaizabal* aldizkarian idatzi eban (ehun artikulua inguru) aldizkariak bizirik iraun eban bi urteetan.

Kirikiñoren eginbehar nagusia urte batzuk geroago etorri zan, *Euzkadi* egunkariko euskerazko atalaren buru eta dinamizatzaile izan zan eta. Halanda be, aurreko urteetan *Bizkaitarra* astekarian idatzi eban asko eta asko, dakigunez. Horrezaz gainera, Kirikiñok *Euzkadi* (bederatzi bat lan) eta aurrerago *Euzko-Deya* (hogeta hamar) inguru aldizkarietan artikulua idatzi ebazan eta bestelako argitalpenetan be baditu testuak¹⁹.

bildumearen barruan (1986an eta 1991n, hurrenez hurren). Amaituteko, aurrean be esan dogun lez, Labayruk oraintsu *Abarrak* liburua barrero argitaratu dau, Miren Atutxak egineko sarrera lagun dauala.

¹⁹ Jon Bilbaok *Bibliografian Euzkadi* aldizkariko bederatzi testu batu ditu, Azkueren aldizkarietan eta *Euzkadi* egunkariaren bitartean eginekoak (1903-1913); horrezaz gainera, beste testu batzuk ditu argitalpen honeetan: *Euskal-Eria*, *Euzko-Deya*, *Gure Herria*, *Hernani...* Dana dala, datu horreek, duda barik, osotubakoak dira (testu gehiago idatzi ebazan eta aldizkari batzuk ez dira aipatzen, *Hermes*, esaterako). Kirikiñok ez eban prosaz bakarrik idatzi, antzerkia eta poesia be jorratu ebazan (ikus olerkigintzaren gaineko barri zehatza: Miren Atutxa, in Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*, Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, Bilbo, 2005, 22-33 or.); zehat esanda, antzerkian, lan bat idazteaz gainera (*Anton Berakatz*), gaztelaniatik lan bat itzuli eta Gipuzkoako antzerki lan batzuk bizkaieraz imini ebazan; lan horreek jaialdi abertzaleetan antzezten ziran.

Euzkadi egunkariak 1913ko zezeilaren 1ean ikusi eban argia. Agerkaria euskal lurralde guztietan zabaldu zan eta entzute handia lortu. Bilboko eguneroko handiek (*El Noticiero*, *El Liberal* eta *La Gaceta*) beste ale ateratzen ebazan, gitxi gorabehera, hamar mila inguru.

Egunkariko orrialdeetan gaztelania eta euskera erabilten ziran²⁰. Hizkuntza nagusia gaztelania izan arren, euskerak atal garrantzitsua eukan egunero: “Gure euskera maite-maite honek ba dauko gaurtik aurrera nun agertu egunoro” —esan eban mañariarrak lehenengo zenbakian (*Euzkadi*, 1913-II-1).

Kirikiñok lehen orrialdeko *Egunekoa* atalean sinatzen eban, besteak beste. Gainera, barruko orrialdeetan beste atal bat gehitu zan, *Euzko Abendaren Elez* izenekoa, tokiko korrespondentzalek egineko testuak jasotzen zituana. Hori dala-ta, Kirikiñok, asko idazteaz eta irakurleak erakartez gainera, beste batzuk be idaztea lortu eban atal horren bidez²¹.

²⁰ Kirikiñoren kazetaritzaren inguruan, ikusi artikulua mamintsu hau: Xabier Altzibar: “Kirikiño kazetaria, I. Mundu-Gerraren kontalari”, in *Gerra eta Literatura (1914-1944)*, *Oihenart*, 14, 1997, 9-33 or. Euskerazko kazetaritzari jagokonez: Xabier Altzibar: “*Euskalzale* eta *Ibaizabal*, Bilboko asterokoak”, in *Bilbao. El espacio lingüístico. Simposio 700 Aniversario-Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza gunea. Simposioa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2002, 253-266 or.; Javier Diaz Noci: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995; “Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: *Euzkadi* eta *Euzko* (1913-1939)”, *Uztaro*, 15 zk., 1995, 81-95 or.; “Gerra aurreko kazetaritza eta hizkuntz-ereduak”, *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 791-835 or.; eta Jurgi Kintana Coiriena: “Euskarazko prentsaren hasiera eta garapena Bilbon (1815-1937)”, in *Bidebarrieta*, XVI zenb., 2005, 141-170 or.

²¹ Orain dala gitxi, Ander Manterolari egineko alkarrizketa baten, hau inoan bere aitaren gainean: “Idatzi ere euskaraz egiten zuen. Ez esku-titzak bakarrik, baita kronika txikiak ere *Euzkadi* aldizkarirako. Eta *Ekinen* ere bai. *Baserritar bat* sinatzen zuen beti. *Kirikiñoren* lagun handia izan zen, eta *Lauaxetarena* ere bai. Izan ere, *Kirikiño* hil zenean *Lauaxetak* hartu zuen *Euzkadi* aldizkarian agertzen zen zutabearen ardura eta berak zuzentzen zion gure aitari. Lehenago, *Kirikiñok*, eta gero, *Lauaxetak*. Ze gure aita ez zen izan euskaraz eskolatua”. (*Argia*, 2.001 zk., 2005, 16-17 or.). Kirikiñok, lankideak batzea gainera, giro aparta sortu eban haren artean, eta noizean behin alkartu egiten ziran. Adibidez, Zornotzan 1914ko urriaren 25ean egin zan bazkarian 32 idazle alkartu ziran. Ikusi data horren inguruko *Euzkadi* egunkariaren zenbakiak edo liburu hau: Miren Barandiaran Contreras: *Historia del Nacio-*

Euskeraz ez eze, gaztelaniaz be idazten eban Kirikiñok *Euzkadin*. Jaki-na, gure idazleak euskera hutsezko agerkaria gurago eban baina hori oraindino ezinezkoa gertatu zan (Gipuzkoan, barriz, zortzi urte geroago *Argia* astekaria sortuko da, euskera erreza eta herrikoia bultzatuko dauana; bertan, euskera dala-ta, mañariarrarekin astinaldi bat edo beste izan eban Gregorio Mujikak²² parte hartu eban).

Hona hemen euskerazko atalaren printzipioen adierazpena, programa eta helburuak, *Euzkadi* egunkariaren lehenengo zenbakitik hartuta (*Euzkadi*, 1913-II-1); euskeraren inguruko jarrera be ikusi daiteke bertan:

Hementxe, izparringi barri honetan, leku egokia egunean-egunean eukiko dogu euskeraz idatzi eta euskeraz irakasteko; hementxe egunoro erabilirik bizkortu eta sendotuko dogu, apur-apurka galdu eraginik auzoko erdera ziztrinetik generatu jakozan zetaka eta lohiak; hementxe gogor ekingo deutzagu hil ez daiten geure gurasoengandik hartu dogun euskotasun barru-barruko hori.

Etorri hona ba euskerea maite dozuen euskotar guttiok, hemengo atek zabalik daukazuez euskeraz idazteko.

Horren egunkariorren orrialdeetan, Kirikiñok, egunero-egunero, literatura-testuak, eretxi-testuak, euskeraren inguruko gorabeherak, poesiak... argitaratu ebazan luzaroan. Behar ikaragarri hori berreskuratzen ibili da Xabier Perea, Mañarian parroko egondakoa, Kiriki-

nalismo en Amorebieta-Elxano, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1999, 31-32 or. Gogoratu behar dogu 1918ko irailean erabagi ebela herri euskaldunetatik bialdutaiko barriak euskeraz egon ezkeru bakarrik argitaratuko zirala (*Euzkadi*, 1918-IX-25 eta 25); erabagi hori hurrengo urtean herritsi egin eben (*Euzkadi*, 1919-II-16).

²² Idazle horregaz, hain zuzen be, izan eban polemika bat Kirikiñok *Euzkadiko* orrialdeetan, Euskaltzaindiaren nagusitasunaren gainean; aurrerago esango dogunez, Kirikiñok Akademiaren arauak ez betetzeko askatasuna defendidu eban.

ñok egunkarian idatzitako milaka lerroak aztertu eta batzen, Labayru Ikastegiak argitaratu daizan²³.

Erabilitako euskerari jagokonez, ezaguna da Kirikiño helduaroan garbizaletasunaren eta herrikotasunaren artean mobitzen zana. Hain zuzen be, Sabino Aranak arlo ideologiko eta linguistikoaan egineko ekarpena dago. Mobimentu horrek euskeraren indarbarritzea aldarrikatzen eban; horrezaz gainera, hizkuntza garbia defendatzen eban, beste hizkuntza batzuetako maileguak baztertuta eta berba barriak sortuta, hori azkenori egitea beharrezko izan ezkeru. Erespide bereziak eukazan hizkuntzaren beste alderdi batzuetan be, esaterako aditzetan.

Halanda be, aurrean esan dogun lez, Kirikiño Azkueren eraginpean hasi zan euskera lantzen. Horregaitik, Kirikiñoaren ibilbidea aztertu behar da, Azkueren eredu berezian idazteari itxi ostein eredu aranazalea defendatuko dau eta²⁴. Zelan eta noz gertatu zan eboluzino hori? Aldaketea, antza, aldizkarietan behintzat 1906. urtean

²³ Labayruk honezkero hiru liburu argitaratu ditu Kirikiñok *Euzkadi* egunkarian idatzitako testuakaz: *Egunekoa* (1981ean argitaratu zan, egunkariko lehenengo orrialdean, *Egunekoa* izenekoaan, agertutako testuakaz; testuon gaia askotarikoa da), *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde* (euskera zabaldu eta defendatzearen inguruko artikulua bildu ziran; 1984an argitaratua) eta *Guda Nagusia. 1914-1918* (Lehen Mundu Gerraren gaineko artikulua; 1989an argitaratua).

²⁴ Egile batzuk 1899-1910 tartea aipatzen dabe baina aldi hori luzetxoa da. Itziar Lakaren berbetan: "Bustintza Azkueren laguntzailerik hurbilena izan zen 1899-1910 tartean: *Euskalzale* eta *Ibaizabalen* idatzi zuen; euskarazko Katedran irakasle izan zen, eta hiztegi lanetan ere lankide eta informatzaile. Garai honetako Bustintzaren idazkerak, garbi asko erakusten digu Azkueren zantzia." (*Abarrak* argitalpenaren sarrera, Eusko Jauriaritzako eta Euskal Editoreen Elkarteo Klasikoak Bilduman, Mensajero, Bilbo, 1986, 25 or.). Antzera idazten dau Miren Atutxak, *Abarraken* sarrean.

Kronologiagaz zerikusirik ez daukan arazoa da diskurtsoa inguruabarretara eta hartzailearengana egokitzea; horreri lotuta, Itziar Lakak hau dino (28 or.): "Bustintzaren herrikoitasuma, beraz, euskaldungo arruntari (hots, garaiko literatur eredu ezagutzen ez zuen euskaldungoari) zuzenduriko lanetan ageri da bakarrik; bere olerki, itzulpen eta euskalaritza artikuluek, ordea, garaiko idazlerik garbizaleenaren aurpegia erakusten digute".

datatu leiteke, hau da, Azkuek *Ibaizabal* aldizkaria itxi eta atzerrira joan ondoren, Kirikiño abertzaletasunaren munduan bete-betean sartzen danean²⁵.

Hainbat urte geroago, euskera-ereduaren arazoa puri-purian egoan. Arrazoa? Euskaltzaindiaren sorrera. Kirikiñok Euskaltzaindian sartzeko gonbitari uko egin eutsala badakigu²⁶; une horretan, 1919an, *Euzkadi* egunkarian, *Gure irakaslea* izeneko artikuluan, hurrengo hau idatzi eban:

“Sabinen euskalbide eder au geurea dogu abertzaleak eta maitero darabilgu. Ba dira abertzale ez diranen batzuk

²⁵ Honen barri zehatza, Jurgi Kintanak, Azkueren gaineko doktorego tesia egiten dabilanak, emon deusku: Kirikiñok *Euzkadi* aldizkarira bialdutako lehenengo testu bitan *-Asaben ogasunak* (euskerearen maisuak bardintasunez izendatuz: Mogel, Azkue eta Arana), 3 zk., 1905, 194-203 or. eta *Al dana egin bear*, 4 zk., 1905, 382-385 or. – Azkueren eredu agertzen da; hirugarrean, barriz, Kirikiñok Aranaren hizkuntz eradura salto egingo dau, *Azarijari azarija*, 7 zk., 1906, 231-234 or. 1901etik aurrera, behintzat, gutunetan *Centro Vasco* alkarte abertzalearen ikurra daroen papearak erabili ebazan Kirikiñok. Aurretik be, Sabino Aranaren gaineko mirespena agertu eban (ikus, *Ibaizabalen* Sabinoren heriotza dala-ta, idatzi ebana). Sabinok be 1901. urtean Kirikiño ezagutzen eban, Hendaiako Biltzar ospetsuaren inguruan idatzitako gutun baten ikusten dan moduan (Abertzaletasunaren Agiritegia, DP-969-1.14).

²⁶ Kirikiñok Akademiak adierazotako arauak ez betetzeko askatasuna defendatu eban. Agirrek itxitako aulkia eskaini eutseen, eta hau erantzun eutsan mañariarrak Luis Eleizalderi: “esan biarr dautzuket ni ezin nazala ixan Euzkeltzaindi orretakua, ta beraz, zeuben eskintze orri ezetza darantzutsodala” (*Abarrak* argitalpenaren sarreara, Eusko Jaurlaritzako eta Euskal Editoreen Elkarteok Klasikoak bilduman, Mensajero, Bilbo, 1986, 28 or.). Aurretik be, Eleizalde Broussaini idatzitako gutun baten, 1918ko zemendian, Euskaltzaindia osatu aurretik: “guk ez degu inolaz ere beste jesuitarik nai, Olapide eza’ dator. Olabide’ren utsunea betetzeko, guk prakadun (laïque), bizkaitar ta abertzalea autesteko asmoa degu: naiz Bustintza, naiz Urriolabeitia’tar Amantzi”. Garbi dagoenez, abertzaleen barruan, baziran Kirikiñoren ildotik ez joiazanak, Eleizalde bera edota Belaustegigoitia (ikus Idoia Ariznabarreta et. al.: *Koldo Eleizalde*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999 eta Lino Akesolo et. al.: *Federico Belaustegigoitia*, Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 1989). Dana dala Kirikiño euskaltzain urgazle izentau eben.

Bilbon - 1919 - Zarauz - 26

Ene adiskide maitea.

Lenago batere ikusi nolan Urizar, eta orain
austan arte ebala zure barlea, ta bigarren
irakalarin puntan erabagi ebala Fomenteko
edo Gobernazioa (urte gomuta) Comisiunak Dipu-
tatuon, eta orain Ogasun edo Hacienda-ko
comisiunak erabagi beaz dudela zerbait emen-
go jakin bigarrenari. Orrotarako zentz, irakas-
laria zarrak, esan hiru dautarala Diputari-
nari zelan bananduko duguan hiru artian
ikarlat; nik uste neutran eta zuri dirantzat,
orde badaridazu, nik erabilli nekereala larun-
go ta bigarren arteko nekak (multikara-
ranaren), ta zentz lenengo ta bigarren arteko
mutillak; baina orri zentz orain ~~zere~~ zentz
ta si orain egongo naitela jositik zentz
erabagiteko zentzazgar.

Azkueren orde Bizkaiko
Aldundiko Euskerako Ka-
tedran egoala, Kirikiñok
hari bialdutako gutumaren
zatia.

euskalbide hau txartzat daukenak, eta asmoak daukez
berau ahal badabe lurreratzeko²⁷.

Edozelan be, hemen jasotako artikuluen sasoian, 1913-1923,
Kirikiño aranismoaren jarraitzailea da. Baina irakurle arrunta jomu-
ga daukanez, hizkuntza erraztu egiten dau. Horregaitik, Kirikiñoren
herrikotasuna aitatu behar dogu.

Mañariarrak ez ditu irakurle barriak desanimatu gura, eta,
horregaitik, herri-berbakerea erabilten dau. Edu horretan, 1913an

²⁷ Euzkadi, 1919-XI-25 (Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1984, 204-205 or.).

idatzitako *Zelan idatzi?* artikuluan, hurrengo hau adierazo eban: “hondino euskera zehatza hartzeko bigun edo makal dagozan euskaldunei euskera erraza, euskera arina, euskera lohia, euskera mordoiloa emongo jake izparringi honetan irunsi ahal izan dagien”²⁸.

Halan bada, Kirikiñok erdibidea jorratuko dau. Abiapuntu moduan, irakurle euskaldun arruntak bereganatu gura dauz, apurka-apurka hizkuntza Aranaren eredura erakarteko. Baina lehenengo eta behin, irakurlearengana hurreratu gura dau: “batzuetan herriak ondo eta artez eta bape ezbai barik ulertu daistan, herriak berak lez erabili ohi dodaz hitzak, ba nik gura dot, hitz egiten dodanean edo idazten dodanean, lehenen-lehenen ulertu daistiela”²⁹. *Abarrak* liburuaren 1918ko argitalpeneko sarreran, honako hau dinosku (berbok lan osora zabaldu daitekez) idazteko daukan ereari buruz:

Euskera zehatzaren zalea bazara, hurrean, sarri musturra okertuko dozu irakurgaitxu honeetan aurkituko dozu-
zan erderatiko hitz ugariak ikusita; baina gogoratu eikizu
eurok ez dirala idatzi ehun urte geroagoko euskaldunentza-
ko, ezta gaur euskera zehatz-zehatza eta erdal antz apur bat
daben hitz bakoa jakin eta erabili ohi diren euskaldun
banakarentzako bakarrik be. Ez, eurok idatzi dira gaurko
euskaldun gehienak dakien euskeraz, gehienak irakurri eta
ulertu ahal dagien euskeraz³⁰.

Edozelan be, lehenetasuna beste bat da, ez idazteko modua. Kirikiñoren ardura nagusietakoa euskeraren benetako erabilera da: “Eta

²⁸ *Euzkadi*, 1913-II-10 (Kirikiño: *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1984, 21 or.). Idea hori *Ibaizabal* astekariaren zuzendari zala be baeukan, Azkuegaz izandako korrespondentzian ikus daitekeanez. Azkue (*Euskalzale* aldizkarian) bere euskera-eredua zabaltzen ahalegindu zan, ulergarritasunaren kaltean (ikusi gutuna Miren Atutxaren sarreran, in Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2005, 22 or.).

²⁹ *Euzkadi*, 1919-III-9 (Kirikiño: *Egunekoa*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1981, 105 or.).

³⁰ Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*, Labayru Ikastegia–Bilbao Bizkaia Bizkaiko Fundazioa, Bilbo, 2005, 62 or.

hemen gure artean, nortzuk euskeraz egiten dabe? Egia esan daigun: banaka batzuk aldendu ezker, erderaz ez dakienak bakarrik. [...] Euskeraz bakarrik egiten dan uri asko eta askotako Jel-batzokietan Espainiako erderatxua baino ez da entzuten gehienetan”³¹. Horregaitik, *Euskeraz, mordoilo bada ere* artikuluan, zorrotz kritiketan dauz sasi filologo sabindar erderazaleak, euskaldun arruntak maileguak erabiltzeagaitik zuzentzen dabez eta: “Horretariko hiru edo lauk aberriari kalte gehiago dakartsoe hiru edo mila maketok baino. [...] Bakotxak berak dakian lez hitz egin daiala, mordoiloz nahiz oster; behar dana da euskeraz egin. Egin, egin!”³². Kirikiñoren ardura gehiago da euskeraz egitea goi mailako euskera edo euskera garbia erabiltea baino; gurari horren eraginez, Kirikiño errealista da eta euskal hizkuntzaren inguruko idealismoa ñabartuta gelditzen da. Kirikiñorentzat, euskera euskaldunen izaereari berari jagoko baina gure hizkuntza bizirik gura dau. Hori dala eta, idazki eta lan guztietan euskeraren aldeko maitasun neurribakoa erakusten dau.

2. BILDUMA HONETAKO TESTUAK

2.1. Bilduma honen nondik norakoak. Testuen gai nagusiak

Kirikiñoren lanik garrantzitsuena *Euzkadi* egunkarian agertu ziran ehundazak testuek osatzen dabe. Testu horreetan, generoak nahastu eta gai ugari erabili ebazan mañaritarak. Argitalpen hone-tarako, zehatz esanda, gai politikoa daben 103 testuren bildumea aukeratu da, 1913 eta 1923 bitartean idatziak.

Beraz, irakurleak, prosazko testuen bilduma honetan, sasoi hare-tako Euskal Herriko egoera politikoaren gaineko kronikak eta iruz-

³¹ *Euzkadi*, 1923-I-21 (Kirikiño: *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1984, 253 or.).

³² *Euzkadi*, 1923-II-16 (Kirikiño: *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1984, 261-262 or.).

kinak aurkituko dauz, dan-danak ikuspuntu abertzaletik. Testugin-tza horretan Kirikiñoren egitekoa ez da bakarrik barriak emotea; irakurleuskaldunari ikuspegi eta eretxi aberkoia eskaini gura deutso.

Irakurlearen erosotasunerako, jarraian, testuak kokatuko doguz; horretarako, lekua eta denbora zehaztu eta, gero, gaien gainean zeozer esango dogu.

Lekuari jagokonez, Kirikiñoren testuak Euskal Herri osora zuzenduta dagoz, *Euzkadi* egunkariaren zabalkundeagaz bat etorriaz, baina gaien erreparatuta, Bizkaiko gertaerak aitatzen dira gehien. Izan be, inguruabar honeek kontuan hartu beharrekoak dira: Kirikiño Bilbon bizi da, *Euzkadi* egunkaria hiriburu horretan argitaratzen da eta, batez be, nazionalismoa Bizkaian jaio eta garatzen da sasoi horretan, eta bertan lortzen dauz lehenengo arrakastak.

Denborari begira, bildumearen hasierako urtea, 1913, egunkari nazionalista sortu zan urtea da, eta amaierako urtea, 1923, Primo de Riverak³³ poderea hartu ebanekoa. Azken horren ondorioz, jarduera politikoa asko murriztu zan eta *Euzkadin* euskera erabilteari aldi baterako itxi jakon: "La censura nos prohibió publicar cualquier cosa en vascuence, aunque fuese acompañada de su versión castellana, llegando en esto a prohibir las indicaciones bilingües de la cabeza del periódico (mes, día, franqueo concertado, apartado de correos, telégrafo)"³⁴.

Zeintzuk dira Kirikiñoren idazlanetan erabilitako gaiak? Irakurleak, testu honeetan, sasoi hareetako gertaera eta gatazka politikoak topauko dauz, alderdi politikoen gorabeherak eta liskarrak, mitinak eta hauteskundeak tarteko dirala.

Testu batzuetan zenbait gai nahastuta agertzen diran arren, sailkapen bat egin dogu, irakurleak testuok aurkitu eta kokatzeko gida orokorra euki daian. Hortaz, honeek dira artikuluen gai nagusiak:

³³ Kirikiño Madrilen ikasten izan zanean diktadoreagaz bizi izan zan apopilotxean. Hartu-emon hori gogoratu eutsen Kirikiñori Primo de Riverak poderea eskuratu ebanean, baina mañariarrak ez eban aurrerapiderik emon. Anekdotak hori Engracio Aranzadi *Kizkitzak*, *Euzkadi* egunkariko zuzendari eta abertzaletasunaren ideologok, gogoratzen dau Kirikiño hil ostean (*Euzkadi*, 1929-II-3).

³⁴ *Euzkadi*, 1929-II-3.

2.1.1. Hauteskundeak

Hauteskundeen gaia testuetan gehien errepikatzen dana da. Baztuetan, ospatu aurreko kontuak kontatzen dira (borrokak eta itunak) eta, besteetan, emaitzen gainean berba egiten da (datuak eta balorazioak). Testuak taula honetan sailkatu doguz:

1913-1923 bitarteko hauteskundeak

	Hauteskundeak Madrilgo Diputa- duen Kongresurako	Probintzia mailako Aldundietarako hauteskundeak	Udal hauteskundeak
1913	—	III-9 75-78 or.	XI-9 118, 122-124 or.
1914	III-8 125-128 or.	—	—
1915	—	III-14 131-132 or.	XI-14 139-141 or.
1916	IV-16 ez dogu testurik jaso	—	—
1917	—	III-11 176-189 or.	XI-11 205-207 or.
1918	II-24 208-211, 226-229 or.	—	—
1919	VI-1 255-259 or.	VII-6 263-264 or.	—
1920	XII-19 301-308 or.	—	II-8 277-278 or.
1921	—	VI-12 ez dogu testurik jaso	—
1922	—	—	II-5 ez dogu testurik jaso
1923	IV-29 ez dogu testurik jaso	VI-11 342-345 or.	—

Oharrak: — = urte horretan ez ziran maila horretako hauteskundeak egin
226-229 orrietako testuak Barakaldon egin zan bozketa berezi baten gainekoak
dira: hauteskunde-barruti horretan hauteskundeak errepikatu egin ziran, Barakaldo-
ko diputadu-akta deuseztatu zalako.

Madrilgo Senatua aukeratzeko ez zan hauteskunderik egiten, herriak ez ebazan
senatariak zuzenean aukeratzen.

2.1.2. Abertzaletasunari buruzko kontuak

Talde honetan, hauteskundeetatik kanpo, abertzaletasunaren gaia jorratzen daben testuak batu doguz. Testuotan, jarrera abertza-leak azaldu edo jarduera nazionalisten barri emoten da (orri haueta-ko testuak: 79, 109, 114, 129, 133, 148, 164, 221, 234, 236, 239, 250, 253, 261, 272, 274, 281, 287, 289, 291, 293, 295, 298, 304, 306, 309, 312, 314, 333). Tartean, Sabino Aranari egineko omenaldiak be kontatzen dira (119, 142). Gertaera historikoak ikuspegi nazionalistatik gogoratzen dira (95, 112, 133, 137, 284). Felix Landaburu jeltkidearen gorazarrea be irakurri geinke, haren heriotza dala eta (230 or.).

Atal berezia merezidu dabe nazionalismoak ebazan arazozen gai-neko testuek, 1915ean (151-160, 167-170 or.) eta 1921ean (316-328, 335-341 or.); zatiketa horreetan Kirikiñok beti alderdiaren alde egin eban, zatitzaileak gogor kritikatuaz.

2.1.3. Beste alderdi politiko batzuen ingurukoak

Testu honeetan, beste alderdi politikoak astindu eta horreek abertzaletasunagaz konparatuta eukiezan desberdintasunak azpimar-ratzen dira. Alor honetan, alderdi karlistari zuzenduriko testuak nabarmentzen dira (82-89, 98-108, 190, 223, 269 or.), beste alder-di politiko batzuei begira eginekoak (90-94, 196-198, 255-256 or.) baino askoz gehiago diralako.

2.1.4. Espainiako politika

Madrilgo Parlamentuko eta Gobernuko ibilbide politikoaren ingu-ruko informazioak eta iruzkinak daukezan testuak aitatu gura doguz puntu honetan (116, 202, 212, 214, 217, 219, 247, 265, 267 orrieta-ko atalak). Sasoi horretan ohikoak ziran gobernu krisiak, Espainiako alderdi politiko nagusiak (konserbadorea eta liberala) zatituta eta euren artean konpondu ezinik ibiltzen ziralako. Aurrerago dauka ira-kurleak Madrilgo Gobernuen barri zehatza Kronologia atalean.

2.1.5. 1917-1918ko mobimentu autonomista

1917an abiatutako autonomiaren aldeko mobimentuak atal berezia merezidu dau. Euskal Herrira Kataluniako ordezkariak heldu zantetik (171-175, 193-195 or.), mobimentu autonomista abiatu zan, eta hori *Euzkadi* egunkariko orrialdeetan irakurri daiteke (199, 232, 239, 242 orrietako artikulua).

2.2. Hiztegia

Kirikiñok gai arinen gainean idatzi, ipuinak batu eta herriak erraz ulertzeko moduko gaiak jorratu ebazan. Horrexegaitik da eza-guna. Baina Kirikiñok, prensako artikuluetan, euskera idatziarentzat gai barritzaileagoak edo modernoagoak be erabili ebazan. Modu horretan, *Euzkadi* egunkariko artikuluetan, Lehen Mundu Gerrari buruzko kronikak eta esku artean daukaguzan artikulua, politikaren gainekoak, be agiri dira.

Iparraldean, euskerazko testu idatzietan gai politikoak jorratzeko ohitura baegoan; gogoan hartu behar da ordurako euskerazko prensak bidea eginda eukala han (*Eskualduna* astekaria da horren adibiderik aipagarriena). Hegoaldeko prensan, barriz, jarduera politikoa ez da ohiko gaia izan. Izan be, euskeraren erabileran prensan askoz txikiagoa zan. Are gehiago, euskera baserritik kanpo erabili leiteken eztabaidatu zan, Kirikiñok "Euskereak dana adierazo leike. Gai gatz bat euskeraz" izeneko artikuluan esaten dauan lez:

Aspaldiko urteetan jabilkuz Unamuno (Mikel), Baroja eta euren atzean txakurra ugazabaren atzean lez dabilzan beste asko, esan eta esaten, gure euskera hau ez dala bestetako ezjakinen oldozpen apurrak adierazteko baino; eta horregaitik laga behar dogula, behin be ez dala izango ikasteko elea, behin be ezin izango dala adierazo euskeraz jakintza gauzarik, gure ele honek hazurrak

gogortuta dauzalako, biguntasunik, bihortasunik bape ez daualako³⁵.

Kirikiñoren erantzuna da, jakina, euskera gauza dala, baita tradizino bako esparruetan erabilteko be. Konponbidea Aranak emoten dau: Sabinori esker, edozeren gainean berba egin leike. Hauxe idatzi eban Kirikiñok artikulu berean:

Bera izan ez balitz, hondino hemen ibiliko ginan lehenago lez alkarri esaten edo norberak bere buruari esaten: “Erderazko honeek gauzok, eta horreek besteok, eta hareek eta, zelan ipiniko joaguz euskeraz?... Ezin leikek!”

Sabin aurretik holantxe ibilten ginan euskal idazleak, euskeraren lehengo bideetan urratsik ezin eginda, bidezku-netan zerbait gorantz hasi ezkerok; hori dala-ta, orduan esaten eben askok (eta orain be bai kirten batzuk) gure euskerea ez dala gauza, baserritarren eta arrantzaleen oldozkunik adierazteko baino.

Sabin adimen-gureak, horraiti, euskerea sakon-sakonetik aztertu eta argi-argi ipini euskun, eta berak harturiko bidetik jarraiturik, gaur euskeraz adierazo daikegu beste edozein erderatan adierazo leiteken guztia.

Gai politikoak aitatzen dabezan testuek hiztegi berezia behar dabe. Aranaren ereduari segiduz, Kirikiñok neologismo ugari erabiliko dauz gaztelaniazko idazkietan agertutako berba teknikoak edo bereziak adierazoteko.

Halanda be, aurrean be esan dogunez, Kirikiñok ez eban etorkizuneko irakurleentzat idazten, hemen eta orain irakurtea eta aitzea

³⁵ *Euzkadi*, 1923-I-5 (liburu honetan ikusgai: Kirikiño: *Elo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1984, 247 or.). Sabino Aranak euskera danerako erabiltzearen alde egin eban, esaterako, Hendaiko batzarrerako prestatutako berbaldian, 1901ean.



Kirikiño Euskera Katedrako 1908-1909 ikasturteko ikasleakaz.

gura eban; horregaitik, irakurlearengana hurreratzeko hainbat teknika erabili ebazan. Zeintzuk dira baliabide horreek?

2.2.1. Batzuetan, berba barrien zerrendea eta horreetako bako-txaren gaztelaniazko itzulpena gehitzen eban, seguru asko, irakurle-ak hizkuntza horretan kontzeptua aurretik entzun eta ezagutuko eban eta; hona hemen *Euzkadi* egunkariko 1913-III-12ko testuaren adibidea (testua ez dogu antologia honetan jaso):

Egumeko honetan jausi gara pekatu baten: hondino gi-txik ezagutzen dauzan hitz zahar eta barriren batzuk imini doguz. Hona batzuk: Lezama-Burdinbideko geldokia, esta-ción del Ferrocarril de Lezama; Deum Pantzeska, San Prantzisko; gorpu-burdia, carro fúnebre; Jel-Buru-Batzar, Junta Municipal Nacionalista; Lehendakari, Presidente; Batzarkide, vocales de la Junta; zenbatu, kontau; Zelai Biri-

bil, Plaza Circular; idazte-beharginak, eskribiduten behar egiten dabenak; hobiratze, entieru; erail, asesinar; gaizkabide, salbazino bide.

Edo beste adibide hau, antologiako testu batetik hartua (18. testua):

Lakin-Batzar, lagigin-batzar, lagiak egiten dabezanen batzarra. *Hauteskundea* oraingo ikasita daukazue guztiok edo bestela buru hori... ez dakit. *Aurrezka* da kontra. *Erkaltzale*, herri-ahal-zale, herriak ahala edo nagusitasuna edo aginbidea eukitea gura dabenak, espaineraz *errepublikano*. *Doibatz*, da kistar katoliko guztien batza, Eleiza. *Autarkia* da *votoa*. *Auterkia* da... hara: Bizkaiian dira sei *auterki* hauteskunde honetarako: Bilbao, Barakaldo, Balmaseda, Gernika, Durango eta Markina. *Urgazi*, zetan edo hatan norbaiti lagundu. *Haspena*, hasiera.

2.2.2. Halanda be, Kirikiñok, neologismoa edo berba garbia irakurlearengana hurreratzeko, teknika hau darabil gehienbat: neologismoa herriko berbeagaz edo maileguagaz batera dakar. Horretarako, bi sistema erabilten dauz, batzuetan letra etzanakaz konbinatuaz. Alde batetik, azalpena parentesi artean emoten dau. Horra hor adibide batzuk:

Hauxe da hauteskunde-agiria (elezinoko aktea) (75 or.)

Zegaitik irabazten dabe hauteskaldietan (elezinoetan) diruaren diruz baino? (93 or.)

Inoz izan ez dogun batasuna lortuteko irasi (fundau) zan Euzko Alderdi Jeltzalea eta bere Eralguntza (organizazioa). (162 or.)

Beste alde batetik, bi formak *edo* juntagaiuagaz lotuta agertzen jakuz. Hitz garbiak edo neologismoak lehenengo lekua hartu ohi dau:

Lagundu zeure anaiei zeure buruari lagundurik. Ez autarkirik emon erbestekoei edo erbestekoen aldekoiei. Autarki edo *voto*-a abertzaleei. (115 or.)

Espainiako legeetan erki edo *provinciak* baino gorago-ko herri ataltze guztietan, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Naparrak, beti atal bat eurak bakarrik egin dagien ahaleginduko dira Diputazioak. (180 or.)

Katalanak gura dabe, edo gura izan dabe, Gobernuak abindu daijala Legegintza edo Legislatura honetan eztabaidan ipiniko dala Norberetasun edo Autonomia emotea (212 or.)

Beste batzuetan, barriz, lehenengo mailegua agertzen da eta, ostean, neologismoa:

hasarratu egiten dira hemengo karlista asko eta erantzuten deuskue gu beste *fuerrista* edo lagi zaharzakak dirala eurak eta euren partidua (105 or.)

Dana dala, kontzeptua testuan aurrerago errepikatzen danean, izan leiteke neologismoa bakarrik agertzea, irakurleak horren barri izan dau eta. Beste kasu batzuetan, esangurea testuingurutik atera leiteke:

Eta ez bakarrik sakel-araketak (cacheos), baita etxe-araketak be. (312 or.)

Jakina, Kirikiñoren egitekoa ez da jarduera politikoaren terminologia osoa formulatzea, eta kontzeptu bakar baterako forma desbardinak topau geinkez. Egunkarian gai politikoaren inguruan idatzi

gura dau, baina herriak ulertzeko moduan. Hori dala-ta, erabateko eredu aranista barik Kirikiñoren errealismoa eta ulertuarazoteko gogoia dira nagusi.

Edozelan be, jarraian antologia honetan (izan be, artikulua gehiago dagoz *Euzkadin* politikaren gainean) jasotako testuen berbarik esanguratsuenak emongo doguz, hitz garbi ohikoenak eta orokorre-nak alde batera itxita, berbarako, *notin, izparringi...*

acta electoral: hauteskunde-agiri; administrador: banakari;
amenaza: zemakun; arma: izkilu; artículo: atalgi; asesinato: erailde; elección: hauteskaldi; autonomía: norberetasun; ayuntamiento: udal

cacheo: sakel-araketa; cacique: jauntxo; cámara de comercio: saleros-batza; candidato: aldungai; candidato a concejal: zinegotzigei; candidato a diputado: ekautegai; cárcel: espetxe; castigo: zigor; censo: ixentza; certificado: zin-agiri; certificado: ziurkai; civil (militarra ez dana): herri-gizon; comisión: batzorde; Concierto Economico: Ogasun-Egiune; consultor: itundari; contrario: aurretzar; contrato: egiune; contribución (impuesto): zerga; contribución extraordinaria: aldiz atako zerga; copia: agiri-berreiki, berreiki

defensor: aldezkari; delegado: ordelari; delincuente: gaizkile; diputación: aldundi; discurso: etxeikixun; distrito electoral: autu-erki; distrito: uri-atal

edad: adinera; ejército: gudarozte; elector: hautarle, hautesle; empleado público: herri-otsein; empleado: otsein; empleo: otseintza; escritura: egiune; escrutinio de votos: autarki-zenbatze; estado: laterri; extranjero: atzerriar

fiscal: salatari; fuerista: lagi-zarzale; fueros: Lagi Zaharra imperialismo: bakalduntza

jefe: agintari; juez: epaikari; jurado: epaikari-lau; justicia: zuzentza;

legislatura: legegintza; ley especial: lege berarizko; ley: lagi
 mancomunidad: alkar-batz; mancomunidad: batzaketa;
 mercancía: saloskai; mundo: gaudi
 neutral: batezbat; noticia: izpar
 ogasuna: hacienda; organización: eralguntza
 papel sellado: ikurtz-ingiri; papeleta: ingi; partido: alderdi;
 patria: aberri; persecución: jarraiketa; persona: notin;
 procesar: epaipian ipini; propaganda: zabalgunce; protes-
 ta: jarkite; provincia: erki
 recuento: zenbakunde; reglamento: araudi; revolución: itxu-
 laspen; revolucionario: itxulaskari
 sello: ikurratz; soldado: guda-mutil
 tribunal: epaikari
 universidad: ikastetxe nagusi; urna: autarkuntzi
 venganza: asperkuntza; votación: autarketa; voto: autarki

Berben hautaketa horren gainean, ñabardura txikiren bat edo beste egin behar dogu. Berba horreek ez dira hutsik agiri, testuinguru baten barruan baino eta, normalean, herriko berbeagaz edo mailleguagaz batera. Halan bada, berbea bete-betean ulertzen da. Horrezaz gainera, berba guzti-guztiak ez dira aranazaleak, Larramendiren eragina be agirikoa da berba teknikoak emoteko orduan. Kasurako *ekauta* berbea eta horren familiakoak darabilz aldundi edo diputazioa adierazteko, eta *bakalduntza* eta *araudi* modukoak be Larramendik irekitako tradizioaren bidetik datoz.

Amaitzeko, gogoratu behar dogu Kirikiñoren artikuluek tonu eta estilo desbardina izaten ebela, batzuetan serioa, eta besteetan barregarria, irakurlearen konplizitatea lortzearren. Horreri lotuta, adierazo behar dogu Kirikiñok gai politikoetarako jerga berezia sortzeko ahalegina egin ebala, bai herriko esaerak erabiliaz, bai beste batzuk asmatuaz. Adibide batzuk imintearren, honeek aitatuko doguz: *kasuelakadea* (gaztelaniazko *pucherazo* edo hauteskunde-iruzurra adierazteko), *txapel-okerrak* (polizia), *txarrantxadun* (militar), edo *ta piper-poteak* (alderdi monarkiko espainolisten jarraitzaileak).

2.3. Idaztankera eta baliabide estilistikoak

Kirikiñok idazlanetan eta zehatzago kazetagintzan erabilten dauen idaztankera behar bezala azalduta dago hainbat lanetan³⁶; hori dala-ta, labur-labur jorratuko dogu gai hori.

Duda barik, ezaugarriren bat aitatu beharko balitz Kirikiñoren idazteko estiloan umorea eta ironia aitatu beharko litzatekez³⁷; gure testuak, barriz, askotan ez dabe aukerarik emoten umorea sartzeko, kronika zehatzak, hauteskundeetako emaitzen barriak edo gertakari historikoen azalpenak diralako; ez da gauza bera bozketa aurreko egunean botoa serio-serio eskatzea (“Heldu da eguna. Gaur barrieketa gitxi eta egiketa asko”, 131 or.) edo karlistei adarra jotzea (“esan behar deutsut peregrinazino baten baino juerga baten ibili nazalakoan nagola hondiño be”; 82 or.). Halanda be, Kirikiño beti saiatzen da irakurlearenganako gertutasuna eta konplizitatea lortzen (“Egunkoa irakurri ohi dozuen euskaldun zintzook, zeuen eskua bihotzaldean ipinita, erantzum eistazue: Ez da egi-egia nik hemen dinotsuedana?”, 157 or.). Horretarako teknika desbardinak erabiltzen ditu mañariarrak.

Hika erabiltzen da, batzuetan idazlanari usain herrikoia eta umoretsua emoteko (“Gizajoa! Heure *Erre* horrek baino gehiago balio

³⁶ Ikusi, aurretik aitatu ditugun Jesus Mari Agirrerren sarrera *Egunkoa* liburuarri (10-18 or.) eta Xabier Altzibarren artikulua, *Kirikiño kazetaria, I. Mundu-Gerraren kontalari* (25-27 or.).

³⁷ Kirikiñoren alde hori ez da planta edo itxurakeria, bere izaeraren ezaugarria baino; esaterako, Azkue apaizari bidalitako gutun batetik hartu dogu pasarte hau: “Neure burua baino gehiago maite ez banen neure aberria eta bere gauzak, eta euskerea gehien, oraingo itxi izango nebazan bertan behera eskola, ikasle eta danak eta Jaunak bakarrik jakingo leuke non aurkituko nintzateken, hurren-hurren *Manchurian* edo haren baten; galga baten ez dagoz ba lana eta saria.

Inok ardaurik ez dau edan gura edo, han dagoz Almansan gure saldok inok erosten ez dauzela, igaztik oná ez jat heldu lauzirikorik, eta hemen nago Aizkorriko burua baino soilago. Eskuartean ezer badarabilzu eta bialdu gura badeustazu, euria Manchako lur sikuetan legez iseriko da nigan diru apur bat.” (Bilbo, 1908-II-20)

dok heuk, mutil!”, edo –“Neskak didar egiten eutsoen don Jaimeri agur egiteran arin ezkontzeko. / –Bai, lekutan jagok!” 85 or., karlisten inguruan), beste batzuetan gertutasuna lortzeko: “Ai erbestezaleak eta erbestekoak! hau joan dok zuentzako.” (118 or.); “Heldu dok eguna!” (185 or.). Erderazko berbak eta esaldiak be sartzen dauz, gehienbat barre eragiteko (106-108 or.).

Oso aipagarria da baita be, prensa-artikuluak askotan alkarrizketa modura antolatzen dituala, ipuin modura, umorea sartzeko gehienetan, baita testua, igarri barik, didaktikoa suertatzeko. Horretarako, kasu batzuetan personaia izendunak asmatzen ditu: Bizkai eta Giputx (79-81 or.; kasu horretan, bakotxak bere euskalkia erabiliko dau, hau da, batuk bizkaieraz egingo dau eta besteak gipuzkeraz), Pepianton (149 or.), Kosanton (179-184 or.) ... beste batzuetan ez daukie izenik: karlista bat (82-86 or.), konserbadore bat (90-94 or.), lagun edo ezagun bat (129, 236, 316, 322 eta 335 orrietako testuak).

Hori bai, artikulu askotan irakurleari egindako galderak agertzen dira (adibideak amaigabeak dira; laburpen modura hurrengoa: “Zer egingo dogu orduan?”, 137 or., edota, “Zelako gobernua da hori?”, 214 or.); galderok batzuetan zuzen-zuzenean egiten jakoz irakurleari (“Badakizu, irakurlea, egun horretan Mungian jazo zana?”, 284 or.). Galderak, askotan, artikuluaren bukaeran agertzen dira, irakurleari azken takatekoa edo emoteko (105, 141, 326 or.).

Beste batzuetan, testuak halan eskatzen dauanean, amaieran harridura-marka edo topatzen dogu, “Gora...!” moduko deiadarrak; beste batzuetan buru emoteko esakera edo esamolde bat agertzen jaku. Bertsoak be inoiz erabili egiten dira, nahi testua zabaltzeko (90 or.), nahi testu barruan (77, 109 or.), nahi bukacaran (111 or.).

Laburbilduz, esan Kirikiño oso abila dala hizkuntza erabiltzeko orduan; euskeraren baliabideak ezagutu eta egoki erabiltzen ditu. Hori dala-ta, Kirikiñoren testuak arrakastatsuak izan ziran eta gaur egun be atsegingarriak dira irakurtzeko.

3. TESTUEN KOKAPEN HISTORIKOA³⁸

3.1. Espainiako sistema politikoaren bilakaera

Borbondarrek Alfontso XII.agaz Espainiako koroa berreskuratu eta gero, Espainiako sistema politikoa 1876ko Konstituzinoaren bidez garatu zan eta alderdi politiko nagusi biak poderean txandakatu ziran: konserbadoreak eta liberalak, Cánovas eta Sagasta buru zirala, hurrenez hurren. Sistema horrek balio izateko, hauteskunde-sistema ustela, handikiek kontrolatutakoa behar zan.

1902an, Alfontso XIII.a adin-nagusitasumera heldu orduan, Espainiako politikan modu aktiboan parte hartzeko guraria agertu eban, Konstituzinoak emoten eutsazan podereak erabiliaz. Une horretan, alderdi politiko nagusi bietan arazoak hasi ziran, buruak hil ziralako, eta ordutik aurrera erakunde bien barruan zatiketak eta bururkak izan ziran nagusi.

³⁸ Oinarrizko bibliografia hirugarren puntu honetarako: Joseba Agirreazkuena: *Bilbao desde sus Alcaldes, II (1902-1937)*, Bilboko Udala, Bilbo, 2003; Mikel Aizpuru Murua: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923). Orígenes, organización y actuación política*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2000; Ignacio Arana Perez: *El monarquismo en Vizcaya durante la crisis del reinado de Alfonso XIII. 1917-1931*, Ediciones Universidad de Navarra, Iruña, 1982; Luis Castells Artech: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*, Siglo XXI-Euskal Herriko Unibertsitatea, Madril, 1987; Antonio Cillán Apalategui: *Sociología electoral de Guipúzcoa. 1900-1936*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1975; Jesus Egiguren: *El PSOE en el País Vasco. 1886-1936*, Haranburu, Donostia, 1984; Juan Pablo Fusi: *Política obrera en el País Vasco. 1880-1923*, Turner, Madril, 1975; José Luis de la Granja, Santiago de Pablo (koor.): *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX*, Biblioteca Nueva, Madril, 2002; Felix Luengo: *La crisis de la Restauración. Partidos, elecciones y conflictividad social en Gipuzkoa. 1917-1923*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1991; S. de Pablo, L. Mees eta J. A. Rodriguez: *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco, I. 1895-1936*, Crítica, Bartzelona, 1999; Javier Real Cuesta: *Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco. 1876-1923*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1991.



Abertzaleen mitina Balnasedan, Kirikiño hizlarien artean zala, 1913-VII-.

Sistema hori krisian sartu zan aztertzen gabilzan aldian (1913-1923), eta horren eraginez, sistema erabat suntsitu eta Primo de Rivera militarrek poderea eskuratu eban. Erregeak egoera barria onartu eta militarren poderea emon eutsan. Modu horretan, Konstituzinoa urratu eta hainbat urtetan luzatuko zan diktadorea ezarri zan.

Zein izan ziran hamar urte horreetako arazo handiak, Kirikiño-aren kazetaritzako idatzietan agertzen diranak? Lehen be adierazo dogunez, berrezarpeneko sistema politikoaren oinarrian alderdi politiko nagusi bi egozan. Halanda ze, alderdi bi horreen arteko txandaketea zalantzan imini zan, alderdi bi horreen barruko zatiketak ziralata (mende hasieran hasi eta hamarreko hamarkadan asko gehitu ziran zatiketok: aitatzeoak dira Maura/Dato bikote konserbadorea eta Romanones/García Prieto bikote liberala), izaera modernoko edo masen alderdi politiko barriak agertu ziralako, hauteskunde-iruzurren kontrakoak (alderdi sozialista eta alderdi nazionalista), eta herritarrak, politikan gero eta gehiago sartu ziralako. Horretara, gobernu eta parlamentu egonkorak eratzea ezinezkoa gertatu zan.

Horrezaz gainera, Espainiak gizarte-arazo handiak pasau eban, eta horrek ezegonkortasun-giroa eta grebak ekarri ebezan, besteak beste, 1917ko udako greba. Bestetik, Marokoko okupazinoa

dala-ta sortutako arazoak be aitatu behar doguz (Annualgo hondamendia 1921ean) eta Militarren Defensa Batzordeen aldarrikapenak.

Amaitzeko, batez be Kataluniak eta Euskal Herriak egineko autonomia-aldarrikapenak aitatu gura doguz. Holan, zenbait ahalegin egin ostean eta presino politiko garrantzitsua egitea lortu eta gero, 1914ko martian Kataluniako mankomunidadea eratu zan, Espainiako estatu liberalaren zentralismorako lehenengo arrakalea. Euskal Herrian horrek autonomiaren aldeko mogimendua eragin eban, eze-lango arrakasta barik baina, Madrileko ezetzagatik.

3.2. Alderdi politiko nagusiak

3.2.1. Sarrera

Aztertzen gabilzan aldian, liberalen eta karlisten arteko aspaldiko zatiketea gauditü eta erespide barriak agertu ziran politikagintzan, kasurako erlijinoa, gizarte-arazoak eta euskal autonomiaren gaia.

Euskal Herrian lau bloke politiko handi bereizi daitekez, eta horreen barruan, barriz, beste talde edo joera batzuk: monarkismo dinastikoa (konserbadoreak, liberalak eta hautagai katoliko eta independienteak), karlismoa (eta horren barruko zatiketak: integristak eta tradizionalistak), ezker errepublikano-sozialista eta abertzaletasuna.

Gainera, Bizkaian eta Gipuzkoan talde horreek ez euken ezarpen maila bera eta jokabide desbardinak euki ebezan (lurrealde biok dira Kirikiñok bere artikuluetan gehienbat aitatzen ebazanak).

3.2.2. Alderdi dinastikoak

Berrezarpen erregimeneko zutabe izan eta Espainiako gobernuan txandakatzen diran alderdi biak aitatu behar doguz: alderdi konserbadorea eta liberala. Alderdi bi horreek ez eben indar handirik lortu euskal probintzietan.

Gogoan hartu behar da XIX. mendeko alderdi horreek jende goren edo eliteen alderdi lez antolatuta dagozala, hau da, persona gutxi kontrolatzen dabezala. Persona horreek hauteskunde-garaian mobitzen dira bakar-bakarrik, hauteskundeok irabazteko eta erakunde publikoak kontrolatzeko, mota guztietako manipulazioak eginda eta botoak erosita. Modu horretan, ez da harritzekoa Berrezarpenaren lehenengo urteetan benetako alderdi konserbadore edo liberal sendorik ez egotea.

Monarkiaren aldeko alderdiak Unión Liberal taldearen inguruan batu ziran, 1897an (*La Piña* esan jakon talde horrerri). Horren ostean, alderdi konserbadorea fundau zan Bilbon 1909an, eta liberala 1910ean³⁹. 1913an, alderdi konserbadoretik Antonio Mauraren jarraitzaileak aldendu ziran⁴⁰ (ikusi 116-117 or.). 1917an nazionalistek Bizkaian garaitu eben, eta horrek alderdi dinastikoak hankaz gora ipini ebazan: konserbadoreak, mauristak, liberalak eta beste handiki batzuk alkartu eta Liga de Acción Monárquica sortu eben. Alderdi horrek mota guztietako neurriak erabili ebazan nazionalistak garaitzeko, sozialistakaz hitzarmenak eginda be bai, eta, azkenean, abertzaleek Bizkaiko Aldundian poderea galdu eben. Are gehiago, Alfontso XIII.ak Liga de Acción Monárquica lagundu eban; talde horren buruzagiak Madrileran joan eta erregeak babeska eskaini eutsen (hori da 251 orrian aitatzen dan zurrumurru edo barria).

Kirikiñoren testuetan Espainiako politikari batzuk aitatzen dira, batez be Maura eta Dato, Gobernuko presidente konserbadoreak; gutxiagotan bada be, beste presidente batzuk be agertzen dira, besteak

³⁹ Ybarraren berbetan, 1910eko urtarrilaren 9an alderdi liberala eratu zan Bizkaian (143 afiliatu ebazan), eta egun horretan bertan alderdi konserbadoreak oturuntza bat antolatu eban (150 persona egon ziran); J. Ybarra: *Política nacional en Vizcaya*, Instituto de Estudios Políticos, Madril, 1948, 327-328 or.

⁴⁰ Ybarrak dionez, Mauraren aldeko botoak 281 izan ziran, eta 125 kontrakoak (J. Ybarra: *Política nacional en Vizcaya*, Instituto de Estudios Políticos, Madril, 1948, 400 or.).

beste, Romanonesgo kondea, liberala, eta ministroak, barbarako Juan de la Cierva konserbadorea. Hemengo arduradunei jagokenez, aitatze-koak dira José Félix Lequerica, Gregorio Balparda eta Ramón Bergé.

3.2.3. *Errepublikanoak eta ezkerreko alderdiak*

Errepublikanismoa karlismoaren aurkako sektore politiko aurre-rakoiena zan. Alderdi dinastikoen moduan, hiriburuetan eta hirigune batzuetan ezarri zan, Bizkaian eta Gipuzkoan. Errepublikanismoaren ezaugarri bat alderdiaren batasunik eza zan, barruan hainbat eretxi eta joera biltzen ziran eta. Arazoetako bat hauteskundeetan norengana hurbildu zan, liberalengana edo sozialistengana, eta arazo horrek hainbat urtenbide euki ebazan urterik urte. Beste arazo bat zan euskal foru edo autonomia aldarrikapenaren aurrean ze jokabide hartu, lider errepublikano batzuek foruak aldarrikatzen ebezalako, batez be Gipuzkoan, eta beste batzuk horren aurkakoak ziralako.

Sozialismoa Bilbon eta inguruetan garatu zan, hortxe kokatzen ziran-eta industria eta meatzeak. Gipuzkoan, sozialismoa hiriburuan eta industria-jarduera eukien herri batzuetan zabaldu zan. Hasierako urteetan, sozialismoak muturreko mezua eban, baina 1909an, isolamendua apurtu eta errepublikanoengana hurbildu zan, diskurtsoa baretuaz. Horretara, 1914an, Indalecio Prieto moderaduak alderdiaren zuzendaritza hartu eban Bizkaian, sozialismoak Bizkaiko Aldundian 1911tik aurrera ordezkartitza lortu eban, Bilbon eta Eibarren alkateak izentau ebezan, biak 1920an, eta Prietok Bilboko barrutitik Madrilgo Gorteetarako diputadu-akta eskuratu eban 1918 eta 1923 bitartean.

Kirikiñoren testuetan, Indalecio Prieto sozialista bost testutan agertzen da.

3.2.4. *Karlistak eta alderdi horren barruko zatiketak*

XIX. mendean porrot militarrek izan arren, karlismoa oso zabaldua egoan gizartean, batez be herri ertain eta txikietan. Garrantzi

hori handiagoa zan Gipuzkoan Bizkaian baino eta, horregaitik, zenbait aldiz probintzia horretako Aldundiaren buruzagitzan egon zan. Nahiz eta sistema politikoan parte hartu, matxinaden bidea zabalik itxi eban eta, horregaitik, erakunde paramilitar bat sortu eban, erre-ketea, Kirikiñoren testuetan agertzen dan legez.

Integrismoa 1888an karlismotik bereizitako taldea zan, eta alde erlijioso beste guztiaren gainetik bultzatzen eban. Alderdi horrek karlismoak baino garrantzi gitxiago eukan, baina Gipuzkoako zenbait lekutan zabaldua egoanez, lurralde horretako erakundeetan eta udal erakundeetan parte hartu eban.

Karlismoa 1919an bigarrenez zatitu zan: On Jaime erregegai karlistaren jarraitzaileen aurrez aurre (hortik zetorren urte horietan karlistei iminitako *jaimista* izena), Juan Vazquez de Mellaren jarraitzaileak egozan (*tradizionalista* izenarekin). Euskal Herrian, joera horretan Victor Pradera aitatu behar da. Geroago, horreek Partido Social Popular eratzen parte hartu eben.

Testuetan gehien aitatzen dan personaia On Jaime erregegia da, sei testutan agertzen da eta. Bigarren mailan beste buruzagi batzuk be agertzen dira, adibidez, Martin Asua, Santiago Marin, Prudencio Iturrino, Barrueta, Pagoaga, Melgar, Cerralbo, Vazquez Mella, Esteban Bilbao, Victor Pradera eta *Zarrontzale* (Pablo Zamarripa apaiz eta euskal idazlearen izengoitia).

3.3. Abertzaletasunaren gorabeherak eta Kirikiñoren jarrera

3.3.1. Arrakasta politikotik krisira eta zatiketara

Abertzaletasunak 10eko hamarkadan izugarritzko arrakasta lortu eban eta, gainera, alderdi politikoaren mugak gainditu eta gizar-te-esparru, guztietara zabaldu zan. Hain zuzen be, nazionalismoa apurka-apurka gorantz joan zan XX. mendearen lehenengo urteetatik aurrera, eta jatorritzko ortodoxia independentistagaz batera, jokera politiko autonomista be indartu zan. Politika posibilista horrek emaitza bikainak izan ebazan ondoren adierazoko dogunez.

Bizkaian lehenengo indarra bihurtu zan eta Bizkaiko Diputazioa, Bilboko Udala eta beste batzuk kontroletea lortu eban, eta Madrilgo Gorteetarako diputadu batzuk be eskuratu ebazan. Gipuzkoari jagokonez, nazionalismoak lehenengo diputaduak lortu ebazan Madrilerako eta Probintzia Diputazinarako, eta Donostian boto gehien eskuratu ebazan alderdia izan zan.

Halanda ze, arrakasta laburra izan zan. Bizkaiko Aldundiak bultzatutako ekimen autonomistak Madrilen geldiarazo ebezan, eta Bizkaian alderdi politiko guztiak alkartu egin ziran nazionalismoa podere barik ixteko. Gainera, alderdiaren barruan, politika autonomista zatiketarako errazoia izan zan; muturrekoenek EAJ aspaldiko izena berreskuratu eta Luis Arana, urte batzuk lehenago zatiketa txiki baten kanporatua, presidente imini eban.

3.3.2. Nazionalismoak poderean egoala egineko politikea

Bizkaia erdigune hartuko dogu. Lurralde horretan, 1917an, nazionalismoak Diputazioa kontroletea lortu eban eta horrerri esker, euskal nazionalisten egitarau politikoaren atal garrantzitsua garatu ahal izan zan (egitarau hori hauteskunderi begira azaltzen da 181-184 orrietan, eta euskerari jagokonean 185-186 zenbakietan). Mogimendu autonomista moderatu bat martxan imini zala azpimarratu behar da: beste alderdi politiko batzuek gobernaturako euskal lurraldeak atzetik eroan ebazan. Edozelan be, Madrilen erantzuna ezezkoa izan zan azkenean, eta ahalegin horrek guztiorrek ez eban ezertarako balio izan.

Dana dala, Bizkaiko Diputazioaren jarduna garrantzitsua izan zan euskal kulturaren eta hizkuntzaren arloetan. Urte asko eta askotan erabagi aitagarririk hartu barik egon eta gero, zenbait manu egin ziran gure hizkuntza indartzeko: eskoletan euskera irakasten hasi zan, lanpostu publiko batzuetan sartzeko euskera jakitea eskatu zan, administrazizinoaren testuak euskerara itzultzen



Bizkaiko Foru Aldundiko diputadu abertzaleak, erakunde horretan nagusitu ostean. Gernika-Lumo, 1917-V-13.

hasi ziran⁴¹... Neurri horreek eragin handia euki eben Bizkaian eta, azken finean, beste alderdiak nazionalismoaren aurka batu ziran⁴².

3.3.3. Kirikiñoren jarrera

Aurrean be esan dogun lez, Kirikiño abertzalea zan 1901ean Bilbora etorri zanetik. 1913an EAJk *Euzkadi* egunkaria sortu ebanean mañariarrak pisu handia euki eban. Horrezaz gainera, 1917-1920 hirurtekoan Bizkai Buru Batzarreko kidea zala be badakigu⁴³.

Testuetan ikusi daikegunez, Kirikiñok abertzaletasuna kemenaz bizi dau, baita zailtasunen aurrean be. Jokabide hori mañariarraren esaldi honetan laburtu daiteke: “Gora aberria eta ekin lanean!” (138 or.). Izan be, azkenean, euskaldun ona abertzalea izango da: “Banekian nik zu ibili eta ibili jausiko zinala gure alderantza, euskaldun zintzoa zaralako” (80 or.).

⁴¹ Ikusi C. Gallastegi, G. Lobera eta A. Urrutia: “Euskarazko testugintza juridiko-administratiborako osagaiak: Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zirkularrak. 1917-1920”, in *Karmel*, 228 zk., 1999, 3-19 or.). Diputazioak itzultzaile lanpostua sortu eban eta bertan ibili zan Juan Luis Biziola abertzalea eta Kirikiñoren ezaguna (horren ostean Mikel Arruza etorri zan, nazionalismoaren aurkako probintziako agintariek itzultzaile lanpostua kendu eben arte; ikusi C. Gallastegi: “Mikel Arrutza (1890-1966), Bizkaiko Aldundiko euskarazko itzultzaile” in *Revista de la Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia. Aldizkaria*, 6 zk., 2005, 59-70 or.). Apur bat geroago, Gipuzkoako Diputazioak antzeko neurria hartu eban, Gregorio Mujika itzultzaile izentau eban eta. Hori dala-ta, euskerazko testugintza juridiko-administratiboaren kasuan bi estilo sortu ziran, eta gai hori Oñatiko Euskal Gaien Kongresuan eztabaidatu zan.

⁴² Luis Salazar politikari bizkaitarrak erakundeen buruzagitzan egozan nazionalistei buruzko satira bat idatzi eban (*Historia futura de Vizcaya*). Lan horretan, Diputazioak euskeraren alde hartutako neurriak barregarri itxi ebazan.

⁴³ Datu hori Abertzaletasunaren Agiritegiko arduradunek emon deuskue. Data zehatzak emon gura izan ezkeru, 1917-IV-29tik 1920-III-7ra izan zala esan behar dogu.

Kirikiñok, bere sinismenak eta alderdiaren doktrina beteaz, aberriaz gainera erlijino katolikoa be defendiduko dau, eta hori dala-ta, hau aldarrikatuko dau: "Orain arte lez, edo orain arte baino hobeto, Jaungoikoaren aldez eta geure aberri Euskadiren aldez. Gora Jell!" (345 or.); are gehiago, nazionalismoa Jainkoak babesten dau ala adierazten dau (109, 228, 265 orrietako artikulua), nahiz eta nazionalismoak lurreko eleizeagaz arazoak euki (274-276 or.). Gainera, sinismen horreen guztien erdian, behin eta berrero, euskeraren aldeko maitasuna inintzen dau. Kirikiñoren idatzietan gizarte-gaiak ez dauka ia-ia lekurik, bere alderdiaren jarrera be nahiko arina da eta. Euskal Herriko iparraldearen euskaltasuna argi eta garbi agertzen da, hain zuzen be, karlismotik desbardintzeko (79, 112 eta 129 or.).

Garrantzitsua da Kirikiñok *Euzkadi* egunkariko kazetaritza-beharren bidez eukan eginkizuna nabarmentzea. Alde batetik, behar hori euskeraren aldekoa zan, prestigioa emoten eutsalako eta hizkuntza horretan irakuri eta idaztea bultzatu ebalako. Baina, beste alde batetik, gogoan hartu behar da garrantzi bako gai ei buruz idazteaz gainera, Kirikiñoren testuek informazioa emon eta abertzale euskaldunengan eretxi jakin bat sortzen ebela; hori dala-ta, batzuetan testu guztiz didaktikoak dira (hauteskundeen gaineko azalpenak, alderdiaren barruko funtzionamendua, etab.). Eginkizun horrezaz gaztelaniaz idatzitako idazlanak be arduratzen ziran, baina Kirikiñoren euskerazko idazlanak hor dagoz.

Bestalde, Kirikiño alderdiaren joera ofizialarekin bat etorri zala esan behar dogu, Bizkaian 1915ean (151-170 or.) eta 1921ean (316-332, 335-343 or.) izandako zatiketetan. Hain zuzen be, joera ofiziala *Euzkadi* egunkarian Engracio Aranzadi *Kizkitzak* ordezkatzen eban. Kirikiñok Aberri taldekoen erasoak izan ebazan, baina idazleak espainolismoaren salaketak eta halakoak baztertu eta zatiketearen arrazoi-tzat personalismoak jotzen dauz, beti be, batasunaren alde eginez.

Kirikiño, hizkuntzan lez, politikan be idealista da, baina erre-alismoaz ikututa. Mañariarrak nazionalismoaren egitekoa hur-hurre-tik ezagutu eban Bizkaiko Diputazioan, eta joera moderatu horretan borroka egitearen aldekoa zan, emaitza ikaragarriak emon ahal eba-

zan eta, adibidez, euskeraren arloan; *Euzkadi* egunkariaren orrialdeetan, Diputazioak euskeraren alde hartutako neurrien gainean informazio osoa emoten eban.

Horren guztiorren adibide bat emotearren, Kirikiñok 1917. urtearen amaieran sortu zuen Diputazioaren Herri Instrukzioaren Batzordea osatu eban. Batzorde horren helburuetako bat zuen: "Igualmente será de la incumbencia de esta Junta, no sólo procurar la conservación de la lengua vasca (euzkera), sino también hacer, poniendo en práctica para conseguirlo los medios que estime más apropiados, que esta lengua se vigorice y su conocimiento y su uso se extienda por toda Bizkaya"⁴⁴; Kirikiñoren *Abarrak* liburua be eskoletan erabili zuen 1922an Bizkaiko eskoletan euskerazko testuak erabiltea galarazo aurretik. Kirikiñok Diputazioan eta alderdiko egunkari nagusian behar egiten eban, baina Bizkaian nazionalistak buru zizala sortutako aukerak ez ziran bape gaxegarriak izan.

3.3.4. Aitatutako izenak

Gehien aipatzen dan izena Sabino Aranarena da (104, 119, 133, 142, 210, 265, 269, 274, 295, 298, 301, 306, 314, 319, 322, 339 orrietako artikuluetan). Gainerako izen abertzaleak honeek dira: Aizkibel, 173-175 or.; Amezola, 125, 151 or.; Arana-Goiri (Luis), 151 or.; Arantzadi, 221, 223, 322 or.; Arroyo, 230 or.; Azkue (apaiza), 230 or.; Belaustegigoitia, 76 or.; Bikuña, 125, 127, 158 or.; Bilbao, 187, 267 or.; Chalbaud, 210 or.; Eizagirre, 208, 344 or.; Egileor, 173, 187, 230, 267 or.; Eizagirre, 208, 344 or.; Elgezabal, 187, 267, 274 or.; Enbeita (bersolaria), 274 or.; Epaltza, 226, 228, 261 or.; Eulea (bersolaria), 274 or.; Gortazar, 158, 230 or.; Guiard, 119 or.; Jaunmartiñeña, 187 or.; Landaburu, 230 or.; Laskibar, 187 or.; Maguregi, 230 or.; Rotaèche, 187, 267 or.; Rugama, 187, 291 or.; Sota Aburto, 187, 322 or.; Torre, 151, 187 or.; Urrutia, 187 or.; Zulaika, 187 or.

⁴⁴ G. Arrien: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia. Escuela y autonomía. 1898-1936*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987, 137 or.

3.3.5. Gainerako alderdi politikoaren tratamendua

Atal hau amaitzeko, aipamen labur bat egingo deutsegu gainerako alderdi politikoakaz lotutako gai batzuei. Euskerazko testu honeetan karlismoa modu berezian jorratzen dala ikusten dogu. Kirikiño irakurri ezkeror, badirudi Sabino Aranak 1894an egineko eskemea bizirik dagoala⁴⁵. Aurkako talde bi bereizten dauz: batetik, katolikoak, karlistak, integristak eta foruzaleak barruan hartuta, eta bestetik, liberala, errepublikanoek eta monarkikoek osatua. Azken talde horri ez eutsan kasu handirik egin, horren barruan bizkaitar gitxi ei egoalako, nahiz eta etorkinen artean garrantzitsua izan. Lehen be adierazo dogun lez, alderdi horreen benetako jardueria hiriburuan garatzen zan, eta oinarri eta ideologia eskas samarra eukienez, Kirikiñok dinastiko konserbadoreei⁴⁶ iminitako izena (*piper-pote*) erabili eban guztientzat. Halanda be, karlistak erakarten ahalegindu zan, horreen planteamenduak hurkoak ziralako eta Kirikiñok euskaldunago ikusten ebazalako.

Azkenik, erabilitako hizkerea apur bat gogortxo dala pentsau geinke; baina abertzaleakaz be antzeko berbak erabilten ziran. Hori dala-ta, Kirikiñok bere testuetako personaien ahotan berba honeek iminten dauz nazionalistak izentetako: *bizkaitar txoroak* (80 or.), eta *euskotar kirtanak* (178 or.).

⁴⁵ "La ceguera de los bizkaínos", *Bizkaitarra*, 15 zk., 1894ko irailaren 30a.

⁴⁶ 14. testuan, adibidez, konserbadoreak eta liberalak bereizten dauz: "Honeek, orain arte agintzen egon diranak, liberal izena daroe. Euren ordez erregek deitu dauz piper-poteak"; beste testu batzuetan, barriz, dinastiko guztiak modu orokorrean aittatzen dauz; gogoan hartu behar da Bizkaian talde bi horreek ez ziralako bereizten, liberalak ahulak ziralako eta koalizioak egin ebezala (lehenengo La Piña, eta gero Liga de Acción Monárquica).

3.4. Herri erakundeak eta horreek aukeratzeko hauteskundeak

3.4.1. Hauteskunde sistemaren ezaugarriak

Herri erakundeak eta horreek hautatzeko hauteskondeen emaitzak azaldu aurretik, Espainiako hauteskunde sistemaren ezaugarriak emongo doguz, hauteskondeen benetako ibilbidearen barri izateko.

a) Hauteskunde barrutiak

Hauteskundeak egiteko sortu ziran barrutiak aztertu ezker, alkarren artean desbardinak zirala ikusi daiteke, hau da, ez eben proportzionaltasunik. Berrezarpenean barrutien mapan egindako eraldaketan bidez desbardintasun hori ez zan zuzendu, horren ordezt hauteskunde-sistema Madrilen agintean egozan alderdien interesen menpe egoala frogatu zan bakar-bakarririk; beste horrenbeste gertatu zan Bizkaian 1919an nazionalismoaren kontra egindako eraldaketan (250-252 or.).

b) Boto-emoileak

Hauteskundeetan, gitxi gorabehera herritarren %20k emoten eben botoa. Xehetasunak alde batera itxita, emakumezkoek (1933 arte ez eben botorik emon) eta gazteek (25 urtetik beherakoek) botorik emoten ez ebela esan behar dogu. Edu berean, abstentzinoen chunekoak eta errolden manipulazinoa aitatu behar doguz (250-252 or.).

c) Lehia

Batzuetan, hautatzeko aukerak urriak ziran, hauteskundeetan hautagai gitxi egoan eta. Barruti batzuetan, behin eta barriri alderdi berberak irabazten eben, ia-ia oposizino barik. Hauteskunde-arau aipagarri bat baegoan: horren arabera, barruti baten hautagai bakarra aurkeztu ezker, modu automatikoan hautetsi

izentetan eben, hauteskunderik egin barik (122-124, 277-278 or.)⁴⁷.

d) Botoen askatasuna

Hauteskunde sistema beste faktore batzuek desitxuratzten ebela jakin dakigu: besteak beste, botoak erosi egiten ziran eta boto-emoileei presino egiten eutseen, adibidez, ugazabek langileei edo jabeek errentariei (75, 239, 245, 263, 301, 304 eta 342 orrietako artikulak). Eginkizun horreek gauzatzeko, argi eta garbi, bitarteko edo baliabide handiak euki behar ziran. Jokabide horreek tradizino handia euken Berrezarpenaren urteetan, eta indar politiko barriek (nazionalismoa eta sozialismoa) horreen kontra borroka egin eben.

e) Alderdi politikoak

Lehen be esan dogenez, lau bloke handi bereizi daitezke, eta horreen barruan, talde edo joera desbardinak dagoz: monarkismo dinastikoa (konserbadoreak, liberalak eta hautagai katoliko eta independenteak), karlismoa (eta barruan egindako zatiketak, integristak eta tradizionalistak), ezker errepublikano-sozialista eta nazionalismoa. Horrezaz gainera, garrantzitsua da talde horreen ezarpen maila eta lurralde bakotxaren araberrako jokabideak adierazotea⁴⁸. Amaitzeko, askotan, indar politikoak alkarregaz aurkezten ziran; itun horreek, batzuetan, alderdi desbardinaren artean be egiten ziran, horrerri esker ordezkarietzea lortzea posible izan ezkerri, alderdi hurkoagoen kaltetan izan arren.

⁴⁷ 1907ko agorrrilaren 8ko hauteskunde legearen 29. art.

⁴⁸ Batez be Bizkaia eta Gipuzkoa aztertuko doguz, Kirikiñoren idatzietan lurralde bi horreek aitatzen dira eta, Probintzia bi horreek, nazionalismoari jagokonez, dinamika desbardina daukie: Bizkaian gainerako taldeek nazionalismoaren kontra egiten dabe, batez be 1917tik aurrera, urte horretan arrakasta lortzen hasi zan eta; Gipuzkoan, barriz, abertzaletasunak arrakasta apurka-apurka lortu eban, giro adeitsuagoan.

3.4.2. *Madrilgo Gorteak: Diputaduen Kongresua eta Senadua*

Berrezarpeneko sistema politikoak erregeari eginkizun garrantzitsua emoten eutsan, Parlamentuaren gainetik. Erregeak gidatzen ebazan gobernu-aldaketak eta berak emoten ebazan Gorteak desegiteko dekretuak. Egia esan, denborari erreparatu ezkerro, lehenengo gobernuia izentetan zan eta gero hauteskundeak egiten ziran, gobernu-aldaketa hauteskundeetako emaitzen bidez berresteko. Espainiako Gorteetan bi ganbera bereizten dira: Diputaduen Kongresua eta Senadua⁴⁹. Lehenengo ganbera baino ez dogu aitatu, bietatik garrantzitsuena eta herritarrek zuzenean hautatutako bakarra dalako.

Jakina, euskal parlamentariak Madrilen eragina izateko aukerak txikiak ziran (horregaitik, Aldundietarako hauteskundeak, gero aztertuko doguzanak, garrantzitsuagoak ziran eta horreetan gehiago borrokatzen zan). Jarraian, hauteskundeetako emaitzen laburpena imini dogu, antologia honek hartzen dauan aldi alderdi politikoek Bizkaian eta Gipuzkoan euken indarra ikusteko⁵⁰:

⁴⁹ Senatarien hautaketa 1877ko otsailaren 8ko Legearen arabera egiten da. Talde honek hautatzen dabez senatari batzuk: eleiz agintariak, agintari akademikoak, unibersidadeak, etab.; bestalde, beste senatari batzuk probintzian hautatzen dira, hiru probintzia bakotxeko; hautesleak Probintziako Diputazinoa, udalak eta auzokorik aberatsenak dira. Beraz, senatariak ez dira hautatzen herritarren botazino zuzenean bidez.

⁵⁰ José Luis de la Granja, Santiago de Pablo (koor.): *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX*, Biblioteca Nueva, Madril, 2002, 51-55 or.

Madrilgo Kongresurako diputaduak Bizkaitik (1913-1923)

	Abertzalea	Konserbad.	Liber.	Errepublik.	Sozialista	Karlista	Katol. ind.
1914	—	4	—	1	—	—	1
1916	—	3	—	1	—	1	1
1918	5	—	—	—	1	—	—
1919	1	—	1	—	1	—	—
	(beste 3 deuseztatuta)						
1920	—	4	1	—	1	—	—
1923	—	4	1	—	1	—	—

Madrilgo Kongresurako diputaduak Gipuzkoatik (1913-1923)

	Abertzalea	Konserbad.	Liberala	Karlista	Integrista	Katol. ind.
1914	-	1	2	-	1	1
1916	-	1	1	1	1	1
1918	1	-	1	1	1	1
1919	-	2	-	2	1	-
1920	-	2	-	2	1	-
1923	-	2	-	2	1	-

3.4.3. Probintzia mailako erakundeak eta hauteskundeak

a) Sarrera

Probintzia mailan, erakunde nagusia Diputazioa da, diputaduek osatua. Lau urterako hautatzen da eta kideak modu partzialean aukeratzen dira bi urterik behin egindako hauteskundeetan. Diputazioak betearazpen-organo iraunkorra eukan, Probintzia Batzordea, diputadu batzuek osatzen ebena.

Diputazioak presidentea eukan, diputaduek euren artean izen-tauta. Batzorde Nagusiaren kasuan, presidentea gobernadore zibila

zan, baina presidenteordeak gidatzen eban benetan organo hori; presidenteordea probintzia diputadu bat zan.

Diputazioek euskal lurralde baktxaren bizitza politiko eta ekonomikoa gidatzen eben. Diputazioek, foruak galdu ostean, Espainiako lege erkideak hartu ebezan, baina ekonomia-itunei esker, autonomia maila handiagoa eta eskunen gehiago eukezan.

Probintzia hauteskundeak egiteko, probintzia barrutietan zatitzen zan. Horreetako baktxean lau diputadu hautatzen ziran; hautesle baktxak hiru hautagairi emon ahal eutsan botoa. Hautatuak lau urtez egoten ziran euren karguan, eta erakundeak bi urterik behin zati bat barriztetan eban, aurretik esan dogun moduan.

b) Bizkaia

Bizkaiak bost barruti honeek eukazan: Balmaseda, Bilbo, Durango, Gernika eta Markina. 1919an, hori aldatu egin zan: Durango eta Markina barruti bakarrean alkartu ziran, eta Bilbo bitan zatitu: erdialdea eta zabalgunea. Madrilen hartutako erabagi horren errazoa nazionalismoa ahultzea izan zan (Zientzia Politikoan *gerrymandering* esaten jako fenomeno horrerri). Ondoren, taula baten, Bizkaiko Diputazioaren eraketea inini dogu, bi urterik behin egiten zan barriztapenaren ostean:

Bizkaiko Diputazioaren eraketea (1917-1923)⁵¹

	Abertzalea	Dinastikoa	Errep.-soz.	Ind.	Karlista
1913	5	8	4	-	2
1915	5	8	4	1	2
1917	8	7	3	1	2
1919	9	8	3	-	-
1921	9	8	3	-	-
1923	4	15	1	-	-

⁵¹ Javier Real Cuesta: *Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco. 1876-1923*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1991, 64 or.



Kirikiño loba bigaz, bere eskuman Errose, *Mañariko*, eta ezkerrean Irene.

Taulan ikusten denez, alderdi dinastikoez gehiengoa izan eben 1917 arte. Urte horretan, egoera aldatu egin zan, nazionalistek arrakasta izan ebelako; horren eraginez, dinastikoez erreakzionau egin eben, eta sozialisten laguntzeagaz abertzaleen garrantzia murriztea lortu; sasoi horretan karlistek Aldundian ordezkarietza galdu eben.

c) Gipuzkoa

Gipuzkoa bost barrutitan zatitzen zan; aurrerago adierazo dogunez, Aldundia bi urterik behin barriztetan zan. Hau da, batetik Azpeitiak eta Bergarak botoa emoten eben (1913, 1917 eta 1921ean, 8 diputadu hautatuaz) eta, bestetik, handik bi urtera, Donostiak, Tolosak eta Irunek (1915, 1919 eta 1923an, aldi bakotxean 12 diputadu hautatuaz). Jarraian, hauteskunde-deialdi bakotxean alderdi politikoez lortutako ordezkariak taula baten bidez laburtuko doguz:

Gipuzkoako Aldundirako hautatutako ordezkariak (1913-1923)⁵²

	Abertza- leak	Konser- bad.	Mauris- tak	Libe- ralak	Errepu- blikak.	Indep.	Karlis- tak	Inte- gristak
1913	-	1	-	1	-	-	3	3
1915	1	2	1	3	2	1	1	1
1917	1	-	1	-	-	-	3	3
1919	1	3	1	1	1	-	3	2
1921	2	-	1	1	-	-	2	2
1923	3	1	1	2	-	-	3	2
guztira	8	7	5	8	3	1	15	13

⁵² Mikel Aizpuru Murua: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923). Orígenes, organización y actuación política*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2000, 413 or.

Ikusten denez, aztertutako aldian, probintzia diputadu gehienak karlista-integristak dira. Nagusitasun hori diputaduek Aldundiko presidentea hautatzeko egindako botazinoan ikusten da: 1913, 1915 eta 1917an, Ladislao Zabala integrista, eta 1919, 1921 eta 1923an, Julian Elorza karlista (azken horrek, adibidez, 1919an aldeko 15 boto lortu ebazan, 1921ean aldeko 15 boto, eta 1923an, aldeko 19 boto, 20 bototik). Azken baten, nazionalismoak ez eban oposiziorik egin, Bizkaian ez bezala.

3.4.4. *Udal mailako erakundeak eta hauteskundeak*

a) Sarrerea

Udalerrriaren gobernua eta administrazioa udalaren esku dagoz. Udala zinegotziek osatzen dabe, eta hauteskundeetan modu partziallean barrizatutun dira. Zinegotziek euren artean hautatzen dabe alkatea, probintziako hiriburuetan eta hiri garrantzitsuetan izan ezik, horreetan Madrilgo Gobernuak erabakitzen dau eta (alkatea izentetako modu berezi hori 1917 eta 1922 bitartean eten egin zan). Udal hauteskundeetara buruzko datu batzuk emongo doguz, abertzeleek lortutako emaitzak aipatuaz.

b) Bizkaia

Abertzaletasuna 1899an Bizkaiko udal batzuetan sartuta egoan (5 zinegotzi Bilbon, beste 5 Bermeon, eta beste batzuk Arteagan eta Mundakan; azken horretan alkatetza be lortu eban). Hurrengo urteetan, nazionalismoak emaitzak hobetu ebazan, baina 1920ko hauteskundeetan abertzaleek behera egin eben udal erakundeetan.

Bilboren kasua aztertu ezkeror, abertzaletasunak ordezkari garrantzitsua eukan, eta Mario Aranek alkatetza be lortu eban (1916-1917)⁵³. 1917 amaieran, alkatea zinegotziek hautatu behar

⁵³ Lehenago be birritan gertatu zan, Madrilgo Gobernuaren aginduz, Gregorio Ibarrechegaz 1907an, eta José Hornegaz, 1909an.

ebela erabagi zan (41 zinegotzitik 21 nazionalistak ziran), eta Bilbo-ko lehenengo alkate demokratikoa Arana abertzalea izan zan barrero. Gobernuak Arana kargutik kendu eta gero, nazionalismoak alkatezeari eutsi eutsan 1920 arte, Gabino Orbe buru zala (39 zinegotzitik 27 nazionalistak ziran).

c) Gipuzkoa

Abertzaletasunak 1905ean lortu ebazan zinegotziak lehenengoz. Gero, apurka-apurka aurrera egiten hasi zan, baina 1913an gitxiengoaren alderdia zan hondino (lurrealde horretako zinegotzi guztien %5). Hurrengo urteetan, nazionalismoa indartu egin zan eta 1920an zinegotzi asko ebazan: Gipuzkoako bigarren indarra zan.

Urte horretan, Donostian, nazionalismoak, bost zinegotzi barri lortuta, zortzi zinegotzi eukazan, eta, beraz, udaleko lehenengo indarra bihurtu zan; 1922an hamaika zinegotzi eukazan guztira. Gogoan hartu behar da Bizkaiko 1919ko nazionalismoaren krisia ez zala Gipuzkoara ailegau, eta 1921eko alderdiaren zatiketeak be ez ebala Gipuzkoa ikutu. Hona hemen datu batzuk laburbilduta:

Gipuzkoako abertzaleen indarra udal hauteskundeetan (1913-1923)⁵⁴

	Donostian lortutako zinegotziak	Lurrealde osoan lortutako zinegotziak	Abertzaleen edo hurkoen esku egozan alkateak
1913	2	25	1
1915	1	25	-
1917	3	35	-
1920	5	64	13
1922	6	65	11

⁵⁴ Datuak liburu honetatik atera dira: Mikel Aizpuru Murua: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923). Orígenes, organización y actuación política*, EHU, Bilbo, 2004, 419-440 or.

3.5. Kronologia

Ondoko lerrootan, urtez urte, 1913 eta 1923 bitartean jazoriko gertaera politiko garrantzitsuenak aitaturko doguz. Orain arteko moduan, parentesi artean, gai horregaz lotuta dagoan bildumako testua adierazoko dogu.

1913

Martia: probintzia mailako hauteskundeak; abertzaleek hiru ordezkari lortu ebezan Bizkaiko Diputazioan (75 or.).

Apirila: Alfontso XII.a erregearen aurkako atentatu anarkista; onik urten eban. Karlitek "Leialtasunaren Peregrinazioa" antolatu eban Lourdesera, On Jaime ondrazeko (82 or.).

Urria: Eduardo Datoren gobernu konserbadorea eratzen da; horren ondorioz, Antonio Maura alderdi konserbadoreko buruak bere alderdia itxi egin eban (116 or.).

Zemendia: udal hauteskundeak; jeltzaleek zortzi zinegotzi Bilbon (118, 122 or.).

1914

Martia: Madrilgo Corteetarako hauteskundeak (125-128 or.).

Apirila: Kataluniako mankomunitatea osatu eta Enric Prat de la Riba lehenengo presidente izentau eban.

Garagarrila: Lehen Mundu Gerra hasi zan; Espainiak bere burua neutral aitortu eban.

Gabonila: EAJren antolaketa barria, Zumarragako batzarrean onetsia.

1915

Martia: probintzia hauteskundeak; EAJk lehenengo ordezkaria lortu eban Gipuzkoako Diputazioan (131-132 or.).

Zemendia: udal hauteskundeak (Hauteskundeak); Bizkaiko gobernadore zibilaren eta Luis Arana jeltzalearen arteko ezkutuko ituna, EAJk jakin barik.

Gabonila: Luis de Arana EAJtik bota eben udal hauteskunderen inguruko tratuakaitik (151-170 or.). Datoren gobernuja jausi eta gero, Romanones kondearen gobernu liberala ezarri zan.

1916

Urtarrila: EAJren zatiketa; Luis Arana Goiriren jarraitzaileek *Bizkaitarra* aldizkaria argitaratu eben (167-170 or.). Mario Arana Mendibil jeltzalea Bilboko alkate izentau eban Madrilek.

Apirila: Madrilgo Gorteetarako hauteskundeak.

Bagila: Bartzelonan Defensarako Junta Militarrak agertu ziran, armadako ofizialen interes ekonomiko eta profesionalak babesteko eta politikan esku hartzeko.

Gabonila: EAJk Comución Nacionalista Vasca izena hartu eban modu ofizialean; izendapen hori 1913tik erabilten zan.

1917

Urtarrila: Cambó buruzagi katalanaren bisita Bilbora (171-175 or.), eta hiru hile geroago, Donostiara (193-195 or.); autonomiaren aldeko eta Madrilgo gobernuaren kontrako giroa.

Martia: probintzia mailako hauteskundeak; nazionalisten arrakasta handia Bizkaian: Diputazioan gehiengoa eskuratu eta Ramón de la Sota Aburto presidente izentau eben maiatzean (176-189 or.).

Apirila: krisia Romanonesen gobernuan; horren ostean, Manuel García Prieto etorri zan, hau be liberala, baina hiru hile baino ez zan egon, bagilera arte. Gero Dato etorri zan urrira arte, eta, azkenean, García Prieto poderera itzuli zan, gobernu anizkumagaz, ministro katalan bi tartean ebazala (202 or.).

Garagarrila: euskal Diputazioak autonomia lortzen ahalegindu ziran alkarregaz (199 or.). Gobernuaren aurkako parlamentarien batzarra Bartzelonan.

Agorrila: greba orokorra; hori dala-ta, gerra-egoera aldarrikatu zan; hogeit hildako Bilbon.

Zemendia: udal hauteskundeak; abertzaleek lehenengoz zinegotziak (hiru) lortu ebezan Iruñean (205 or.).

1918

Urtarrila: Bilboko alkatea lehenengoz bertako zinegotziek aukeratu eben; Mario Arana izentau eben alkate.

Zezeila: Madrilgo gorteetarako hauteskundeak; abertzaleen arrakasta handia, lehenengo diputaduak eta senatariak lortu ebazan eta; bost diputadu eta hiru senatari Bizkaian; Gipuzkoan eta Nafarroan, diputadu bana (208-211 or.).

Martia: krisia Gracia Prietoren gobernuan; aurretik, ministro katalanak gobernutik kanpo (212 or.) eta armadagaz arazoak (214 or.).

Maiatza: zalantzaldiaren ondoren (217 or.), konzentrazino nazionaleko gobernu, Maura buru zala eta Cambó ministro (219 or.).

Bagila: Barakaldoko hauteskunde-barrutian zezeilako hauteskundeak errepikatu ziran; hautagai abertzalea irabazle (226-229 or.).

Iraila: Oñatiko kongresua; hortik Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu ziran.

Urria: diputadu eta senatari abertzaleek Wilson Estatu Batuetako presidenteari telegrama bat idatzi eutsien autodeterminazino eskubidea zala-ta.

Zemendia: Maurak dimisinoa aurkeztu eban eta García Prieto itzuli zan hiru asterako; gabonilan, Romanonesek hartu eban gorbernuaren ardurea.

Gabonila: Kale-agerraldia Madrilen Kataluniako autonomiaren kontra (232 or.). Bizkaiko udalerrien batzarra Bilbon, mobimentu autonomista berpizteko; horren ondorioz, istiluak sortu eta Arana abertzaleari alkatetza kendu eutsien (234 or.).

1919

Urtarrila: Bizkaian Liga de Acción Monárquica eratu zan, abertzaletasunak eukan arrakastari zelan edo halan aurre egiteko.

Zezeila: zatiketa karlismoan, Juan Vazquez de Mellak gidatutako sektorea banandu egin zan eta. Autonomiaren aldeko mitinak,

Euzko Gaztediak eratuta; zezeila-martia bitartean sei domekatan 71 mitin egin ebezan Euskal Herriko herrietan (242-246 or.).

Apirila: Romanonesek poderea galdu eta Mauraren gobernu konserbadorea eratu zan, aldarrikapen autonomisten aurkakoa (247 or.).

Bagila: Gorteetarako hauteskundeak: alderdi guztiak abertzaleen aurka; Indalecio Prieto diputadu, eskunako alderdiei esker; euskal nazionalismoak senatari bi eta lau diputadu lortu ebazan Bizkaian, baina diputaduen hiru izendapen deuseztatu egin ziran (255-260 or.).

Garagarrila: probintzia mailako hauteskundeak: Bizkaian Liga de Acción Monárquica alderdiak irabazi eban (263 or.). Mauraren krisialdiaren ondoren (265-268 or.), Sanchez Tocaren gobernu barria, bost hile iraun ebana.

Gabonila: Sanchez Tocaren gobernuaren krisia eta Allendesalazarren konzentrazinoko gobernu, bost hile iraun ebana.

1920

Zezeila: udal hauteskundeak; lehenengo zinegotzi jeltzaleak Gas-teizko udalean (277 or.).

Maiatza: Manuel Allendesalazarren dimisinoa eta Datoren gobernu konserbadorea.

Gabonila: Gorteetarako hauteskundeak; nazionalismoak diputa-du bakarra lortu eban Nafarroan (301-308 or.).

1921

Martia: Dato anarkistek erail eben autoz etxera joiala (312 or.); Allendesalazarren gobernu konserbadorearen hasiera.

Bagila: probintzia mailako hauteskundeak; Gipuzkoan abertza-letasunak emaitzak hobetu ebazan.

Garagarrila: Espainiako armadaren hondamendia Annualen (Maroko). Elias Gallastegui eta beste batzuk CNVtik bota ebezan.

Iraila: abertzaletasunaren zatiketa: EAJ barriz fundau eben *Aberrri* argitalpenaren jarraitzaileek (garagarrilean kanporatuak) eta Luis Aranaren taldekoek (1915ean botatakoak) (319-332 eta 339-343 or.).

Agorrila: Mauraren konzentrazino nazionaleko gobernua Marokoa bideratzeko (333 or.)

Zemendia: Espainiako Alderdi Komunista eratu zan.

1922

Zezeila: udal hauteskundeak; EAJk Bilbon, bere babesleku nagusian, CNVk baino boto gehiago.

Martia: Sanchez Guerraren gobernu konserbadorea.

Zemendia: Gobernuak Defensarako Junta Militarrek desegin ebazan.

Gabonila: García Prietoren gobernu liberala, Primo de Rivera poderera heldu aurretik egon zan azken gobernu. Partido Social Popular alderdiaren sorrerako batzarra Madrilen, karlismotik banandutako personak tartean zirala.

1923

Apirila: Madrilgo Gorteetarako hauteskundeak; nazionalismoak diputadu bakarra lortu eban, Nafarroan.

Bagila: probintzia mailako hauteskundeak; abertzaleek Gipuzkoan emaitzak hobetu ebezan, eta Bizkaian, barriz, txartu (242-245 or.). Soldevilla kardinal eta senatari ohia hil Zaragozan, atentatu anarkistan.

Iraila: Primo de Riverak poderea indarrez eskuratu eban, ia oposizino barik.

4. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Artxiboak eta liburutegiak: Artxibo eta liburutegi honeek kon-sultau dira: Abertzaletasunaren Agiritegia, Bizkaiko Elizaren Histori Arki-bua, Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia, Euskaltzaindiko Azkue Liburutegia eta Labayru Ikastegiaren Liburutegia.

Bibliografia: Erabili diran liburu eta aldizkarien gaineko datuak xehetasun guztiakaz oin-oharretan aitatu doguz; errepikapenik ez egiteko, irakurlea kasuan kasuko oharretara igortzen dogu.

Alkarrizketak: Persona batzukaz alkarrizketak egin doguz, eta horreei eskerrak emon gura deuseguz. Bustinza familiari jagokonez, Errose Bustintza Ituartegaz berba egin dogu (Kirikiñoren anaia baten biloba eta, aldi berean, Kirikiñoren andrearen lobe), baita Iratxe Bustintza Vivancogaz be, aurreko horren lobe. Horrezaz gainera, Almansatik Miguel-Juan Pereda Hernándezen laguntzea jaso dogu. Eskerrak baita be honeei: Andres Urrutia euskaltzainburua eta Jose Luis Lizundia euskaltzaina; Gotzon Lobera Bizkaiko Foru Aldundikoa; Jurgi Kintana historialaria, eta Eduardo Jauregi eta Luis de Gezala Abertzaletasunaren Agiritegiko arduradunak.

Irudien argibidea: Unibersidadeko titulua, Balmasedako mitina eta Gernikako arbolapeko argazkia Arteako Abertzaletasunaren Agiritegikoak dira. Kirikiñoren gutuna Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan dago. Kirikiño ikasleakaz dagoan irudia 1910. urteko *Euskal Esnalearen esku-egundiya* argitalpenetik hartuta dago.

Cesar Gallastegi

GURE EDIZINOA

Sutondoan sortako liburuetan ohi dogunez, testuak gaurko grafia eta idazte-moldeetara ekarri ditugu, irakurleentzat gozatsuago eta eredugarriagoa dalakoan. Idazlearen ezaugarriak, estiloa eta euskera-mota kontuan hartuta eta ahalik eta gehien jagon-da, dana dala.

Erispideak Labayru Ikastegiak berak argitaratutako *Hiztegia* eta *Bizkai euskeraren jarraibide liburua* I eta II lanetan oinarritzen dira, gure jokabidea hor araututako bidera jotzea dan ezkerero.

Liburu honetako testuetan, arlo zehatzak aitatzekotan, era honetako aldaketak egin ditugu:

Grafia guztia gaurkotu dogu gaurko moldera ekarrita: asken>azken, menbian>menpean, paltso>faltso, jauntxubak>jauntxuak, azpijan>azpian, geyago>gehiago.

Berba amaierako fonetismoak kendu egin ditugu, eta -uba>-oa/-ua, -ija>-ea/-ia bihurtuta.

Berbak aparte eta osotuta idatzi ditugu, ezezkoetan batez be: eztauke> ez dauke, ezta>ez da.

Aditzak bizkaieraz idatzirako bultzatzen dan eredura ekarri ditugu: dautsozube>deutsazue, daroye>daroe, bua>beioa.

Hiztegian, berbak idazteko modu bat baino gehiago darabil idazleak sarri. Bai holangoak bai beti bardin idazten dituanak eredu idatzira ekarri ditugu: botu, boto>boto; kontserbadore, konserbadore>konserbadore; paltso>faltso; eskar>esker; euskel>euskal.

Leku-izenak bardindu eta gaurkotu egin ditugu: Prantzi, Parantze>Frantzia; Apirka>Afrika; Pilipanetatik>Filipinetatik. Sabin persona-izena mugatuta deklinatzen dau, egon dagoan tradizioaren bidetik segurutik. Guk gaurko sistemara ekarri dogu: Sabinagaz>Sabinegaz, Sabinari>Sabineri.

Hiztegian behin eta berrero errepikatzen dauz sinonimoak, berba barriak edo teknikoak darabilezanean irakurleari lagundu eta irakasteko. Idatziok berez banazean argitaratu dira, eta hor lekua dauka berba baten esangura behin eta berrero errepikatzeak. Libururako, oster, lehenengoz agertu danean ipini dogu eta ganerakoetan kendu. 'Hautesle (elektore)', esaterako, behin aita-tu dogu. Egileak berak, gainera, batzuetan parentesi artean ipinten dau esangura eta beste batzuetan 'hautesle edo elektore' formulara jotzen dau. Lehenengoa danean oin-oharrera eroan dogu, kako artean ipinita, idazlearen oharra dala bereizteko. Bigarrena danean dagoan dagoanean itxi dogu.

Artikuluok egunkari baten agertutakoak dira, horregaitik zatituta datoz, *** ikurraren bitartez. Guk testuak jarraian ipini doguz osorik, mozketak horrek aparteko bereizketarik ez dakarrelakoan.

Joera handia dauka esaldi, esaldi-zati, parrafo eta dana-dalako testu amaitu bakoak hiru puntugaz (...) dingilizka ixteko. Gure joera izan da halakoak benetan suspense-esanahia daukenean baino ez ixtea, hortik gorakoak kendu egin ditugu, koma, puntua edo lekuan-lekuan jagokona ipinita.

Igone Etxebarria

ABERRIAREN ALDE
ARTIKULU POLITIKOAK

KAZUELAKADEA¹!

Ez genduan atzo esan? Kasta txarrak dirala jauntxuak? Gurata be, ez dauke horreek gauza onik.

Hara, irakurlea: hauteskundera egiten danean herri baten, han jazo danaren agiria egin behar izaten da, hau da, zenbat autarki edo boto sartu diran ontzira, nortzuentzako izan diran, zeinek gehien euki dauzan, honen hurrengo zeinek, eta halan, eta gero, mahaiko izan diranak euren izen-abizenak azpian iminirik². Hauxe da hauteskunde-agiria³.

Hauteskunde-agiri honen berreiki edo kopia bi atarata⁴, bidaldu⁵ behar jake bana gobernadoreari eta zentsu probintzialeko batzar-buruari, eta hori egin behar da hauteskundera amaitu eta berehala.

Hauteskunderan bakotzak zenbat autarki edo boto euki dauzan erakusten dauen ingia edo papela⁶ be emon behar dabe mahaikoak, inok eskatzen badau kandidatuen aldetik.

Herri guztietatik zentsu probintzialera datoz hauteskunde-agirien berreiki edo kopiak, azalpean ondo zarratuta, eta hurrengo eguean, atzo, batzen da zentsu probintzialeko batzarra guztien aurre-

¹ Kazuelakada: hauteskunde-iruzurra, *pucherazo*.

² *E. j.* ipini.

³ [Elezinoko aktea].

⁴ *E. j.* atera.

⁵ *E. j.* bialdu.

⁶ *E. j.* paper.

an⁷, eta hantxe idigiten dira azal zarratuak, ezarri barruan dakarrezan zenbaki edo numeroak kandidatu bakotxari bereak, eta iragarri zenbat daukezan eta nok gehiago atara dauzan, eta beraz, nortzuk izan diran irabazi dabenak.

Zenbakunde edo kontatze hau be idatzi ingian eta agiria egiten da. Zentsu probintzialeko batzar-agiri honetan be ipini behar dira kandidatuak edo euren ordeazkoak euki leiezan zeresanak hauteskundeezaz: edo autarkiak erosi egin dirala, edo amenazuaz inori eragin jakola, edo hautesle⁸ ez danak botoa emon dauela, edo hilda dagoanen baten autarki edo botoa agertu dala edo, honako zeresanak hartu behar dabez eta idatzi zentsuko batzar honetan. Eta gero guztia bidaldu diputazinora, hantxe erabagi behar dabe azkenez eta.

Hauxe zenbakunde edo kontatzeauxe egiteko batu zan atzo ba zentsu-batzar zorionekoari.

Eta gizonak, kazuelakadea! zentsuko batzar-buruak eukan Arrankudiagako kopian Belaustegigoitiak eukazan 73 autarki.

Herrian gelditu dan hauteskunde-agirian daukaz 76, eta bardin lehengo domekan eskaturiko ziurkai edo zertifikau guztietan.

Belaustegigoitiari ezarri ezkeru 73 autarki Arrankudiagan, parra gelditzen dira bera eta Bidasolo. Hari ezarri ezkeru 76 autarki herri hartan, berak irabazten deutso hirugaz Bidasolori.

Zentsuko batzar-buruak hasarre⁹ biziaz ez eban aitu¹⁰ gura izan 76rik, eta bere agiri-berreikian¹¹ 73 eukazala eta hareexek ipiniko utsazala eta kitu.

Eta biak bardin ipini ebazan, eta biak diputadu iragarri ebazan, eta biak joango dira diputazinora, eta hantxe erabagiko da zein geldituko dan.

⁷ [Publikoan].

⁸ [Elektore].

⁹ *E. j.* haserre.

¹⁰ *E. j.* aditu.

¹¹ [Kopian].

Kopia bat baino ez da herriko hauteskunde-agiriarena; azkenengo hauxe da besteen iturria; beronek balio dau, eta ez besteak. Beste hau, oker dago, kopia atara ebenean oker bat egin eben; ostantzean¹², ziurkai edo zertifikauetan be 73gaz egongo litzateke; baina ez, 76gaz dago.

Lehen esan doguna. Hauteskunde-agiri herrikoan, eta zertifikau guztietan, 76 agertzen dira; zentsuko batzar-buruak daukanean bakarrik 73.

Kazuelakadea! Kazuelakadea! eta Kazuelakadea!

Zentsuko batzar-buruak euki dauen berreikia atzo arte idigi barik egon da; egon behar eban behintzat. Lagiak halan agintzen dau. Agintzen dau, agintzen dau.

Harainegun eta harainegun-aurretik, eta astelehenean, entzuten izan jake kontserbadoreei parra dagozala Belaustegigoitia eta Bidasolo.

Zelan ekien?
Ene demonie
Hau dok istorie
Zabaldu baino lehen
Guztia dakie.

Honetarikorik jazoten zanean, lehenagoko euskaldunek esaten eutsen alkarrri polito:

—Hemen e... iratxoak edo dabilta.

Oraingo euskaldunok ez dogu sinistuten iratxorik, ez sorginik; baina sinistu behar iratxo, sorgin eta alde gaiztoko guztiak baino txarragoak, sinistu behar jauntxuak. Bai, gizonak, sinistu behar.

Gaurtik aurrera, edozein deabrukeria jazo daitenean, zuzen-zuzen esan beharko dogu:

¹² E. j. osterantzean.

—Gizonak a... hemen e... deabrua berbera ez bajabik jauntxuak jabizak.

Jauntxuak, euren diru batek badaki zelan egindakoaz, nahikoa ez daukela, euren azpian, euren aberetzat, euren gauzatzat euki gura gaitue, nahiz gura dogula nahiz gura ez dogula; gura ez dogulako inorenak Jaunarenak baino, Jaunaren menpean geure buru izan gura dogulako, gorroto bizia hartu deuskue, eta egun baten geure anaia bati bizia kentzen deusie, beste egun baten geure-geurea, geuk irabazirikoa, ostu egin gura deuskue, eta espetxerako¹³ bideak gertetan hasi dira bihar egunerako.

Guzurrak urtengo deusue ba, jauntxu zantar bihotz gogorroi, guzurrak urtengo deusue; ez gozuez egingo zuenak ezetara be, ez lapurretan, ez kartzelara sartuta, ez tiroka hilda, ezta hauts eginda be.

Bideetatik urtenda geu galtzen hasteko asmoetan bazabiltze, jauntxu aberats harrook, jakizue geu be bideetatik urtengo garala, eta orduan *ahal dagianak ahal dagiana!*

Inoz¹⁴ ikusi izango dozue, harri bat jaurti txakur bateri, eta txakurra joaten bizi-bizi eta hasarre harriaren atzean, eta honeri haginak ezarten. Kirtenkeria!

Itxi bakean harriari eta heldu gogor berna-maminetatik harria jaurti dauenari. Horixe egiten dau txakur *dezente* batek.

Kartzelarako bideak gertau daitezanean, gertau beharko dira ortusanturakoak.

Ulertzaile onari hitz gitxi.

1913-III-14

¹³ [Kartzelarako].

¹⁴ *E. j.* inoiz.

EGIAK ETA... EGIK

Atzo goizean ogetik jagi eta lastertxu joan ginan san Antonera meza entzutera, eta gero jarri ginan Plaza Zaharreko arkupe baten, zigarro bat astiro hiribilduaz han batera eta bestera ibiltan dan jenteari begira, eta honetan gengoza, hara geure ondo-ondoan gizon bik alkarriz zelako abegi eta txerea egin eutsen:

—Kaixo Bizkai? Nola gabiltza?

—Hara aspaldiko Giputx, zer dinozu?

—Honera etorri beharra izan det, eta gaur igandea dala-ta etorri naiz, lan-egunik ez galtzarren.

—Asko poztuten naz zeu ikustez. Tira guazan txikito bana zuri hartzera.

Arkupeetako ardanetxe batera joan ziran, eta berehala etorri ziran atzera geure ondo-ondora, eta han ekin eutsien barriketan sendo. Azterkatu ebezan inon diranak, baina ez eben aitatu politikarik, izparringi saltzaile bat ondolik igaro jaken arte didarrez¹⁵:

—*Euskadi! Notisiero! Gasetak! Pueblo Vasco! Liberal!*

Didar honexetara burua bihurtu eban alhora gipuzkoarrak, eta gero barriri begiraturik bere lagunari irribarreka esan eutsan:

—Orain periodiko berri horrekin harro egongo zerate.

—Harro ez, baina bai pozik, daukagulako non azaldu barruan doguna, euskeraz nahi erderaz.

¹⁵ E. j. deadar.

—Poliki dator.

—Irakurten dozu ala?

—Egunero. Hara, hemen det sakelean gaurkoa, trenean irakur-
tzen etorri naiz gozaro.

—Banekian nik zu ibili eta ibili jausiko zinala gure alderantza,
euskaldun zintzoa zaralako.

—Ez nuen uste neronek, baina kanpotik ibiltzeak zabaldu zizki-
dan begiak.

—Zelan izan zan?

—Hara, ibili beharrak izan nituen Espainia aldetik eta Frantzia
aldetik, eta Frantzia aldeko euskaldunak ezagutu nituanean esan nion
nere buruari: Habek euskaldunak dituk, geron anaiak dituk, eta nola
dek berak frantsesak izatea eta nerau espainiarra? Ez al gera anaiak?
Eta gero Soria aldetik eta Zamora aldetik eta ibili nintzanean.

—Ene mutilak! Lekutatik ibili zara!

—Bai gizona, leku hoietatik, eta hango jentea ikusirik esaten
nion nere buruari: habek omen dituk geron anaiak eta ez omen dituk
Uztaritz, Baigorri, Hazparren, Atarratz, Ziburu eta haietako euskal-
dunak. Nola dek hau? Nere bihotzak, nere gogoak ezetz esaten zidan,
ez dirala anaiak espainiar haiek eta bai Frantziako euskaldunak, eta
nahiko euskaldunak. Eta hontatik hasi nintzan gogoketan handitiko
eta hemetiko euskaldunak aberri bat egiten degula guztiak, eta erdi-
biturik arkitzen dala aberri hau. Orduantxen oroitu nuen: haiek, *biz-
kaitar* txoro haiek esaten dute ez dutela beste aberririk baizik Euskal
Herria, eurak Euskadi deitzen diotena, eta ikusten detanez egi haun-
dia diote.

—Bai, ba, egiak esateko uneak eta zoroak.

—Gogoketa honexekin nebilala hizketa bat eduki nuen trenean
nere herrialdeko zaldun batekin, *bizkaitarren* etsai izugarria dan
batekin, eta esan zidan euskaldunen herri hau oso antzinakoa zala,
Espainia eta Frantzia oraindik munduan izango ziranik inok ere ez
zekitenean Euskal Herria hemen zala; eta hau entzunik esan nion:

—Beraz, Espainia eta Frantzia sortu orduko euskaldunak bazu-
ten euren aberri edo patria, ez da hala?

Baietz erantzun zidan zaldunak, eta galdetu¹⁶ nion:

—Eta, zer egin zuten euskaldunak aberri harekin? Nola aldatu dute aberria, batzuek Espainia dadukatela eta besteak Frantzia dadukatela, eurena galdurik, utzirik, edo batek badaki zer eginik? Aldatu lezake inork bere aberria, bere gurasoa, bere anaia, bere odola? Norbere eskuan al dago hori egitea? Ez al da egia izango, orain ere euskaldunak edukitzea orduan eduki zuten aberri berbera?

—Eta zer erantzun eutsun zaldun harek?

—Ez zien erantzun nere galderai; esaten hasi zitzaidan hasarre xamar: “Zu ere uste det...”.

1913-IV-14

¹⁶ [Itandu].

LURDESERA DON JAIMEGANA

Guk daukagu ezagun bat oraintsu-oraintsura arte karlista zintzoa izan dana, karlistak eurak be ez dakiela abertzale egin danik. Ezagun honexek, trenen merketasuna zala-ta, bere oraintsura arteko lagunakaz Lurdesera joateko guraria agertu euskun Lurdes ikustearren, eta guk orduan esan geuntsan baietz, joateko, eta horretara jakin geinkezala peregrinazino horretan jazoko ziranak.

Ez goaz esaten nor dan karlista izandako hau, bestelan burukominen bat erakarri geinkio, hain dira gizon-hiltzaileak *erretar* eta *erreketetarrok!*

Harainegun goizetik hasi eta atzo gabereinoko bitartean hitz egin dogu ezagun horregaz leku ezkututxu baten, gugaz ikusi balebe be susmoa hartu eikien nor ete dan eta.

Hara gure hizketaldia:

—Ta? Zelan ibili zarie?

—Ondo; baina esan behar deutsut peregrinazino baten baino juerga baten ibili nazalakoan nagola hondino be.

—Zer ba?

—Hainbeste neska buruan txapel zuria ebela, eta mutil asko txapel gorriakaz, ez neutsan erexten peregrinazinoa zanik be, erromerien bat baino; *Viva D. Jaime* hemendik hortik handik, han gogo guztiak beragaz bete-beterik ikusten ziran, ez zan besterik entzuten bere izena baino, Ama Birjineagana ginoiazanik igarri be ez.

—Egiak esan eiskuzuz gero.

—Egi-egiak.

—Zuek hara heldu eta biharamonean Lurdeseratu ei jatzuen
Erre.

—Bai, eta jentea estuan eguna noz¹⁷ etorriko ete zan; oraintxe esan deutsudan lez, han ez eukan inok gomutan D. Jaime baino.

—Zeresan ez dago txalo eta *viva* handiak izango zirala.

—Ikusi baino lehen zarataka ebiltzan eta, zer izango zan orduan!

—Gero eskumunak izango ziran.

—Bai, eskuok garbitu eutsiezan zati baterako. Gabean andrak bakarrik joan jakozan eskumunak egitera.

—Ondo pozik egongo zan mutilzaharriori, hainbeste emakume bere aurrean ikusita.

—Egongo zan bai.

—Nobiarik ez eban eroan *Errek*?

—Ba dauka ala?

—Hainbat bidar iragarri dozue karlistak badaukala eta laster ezkontzen dala, eta...

—*Dozue* hori kendu egizu, arren.

—Kenduta.

—Horren ezkontzea izango da idiak hegaz ibiliko diranean.

—Biharamonean hamar mila komunino izan ei ziran hemengo izparringiak imini ebenez.

—Bai zereko hamar mila! Nik ez dakit zenbat izango ziran, kontetan ez nintzan ibili eta, baina tira, bardin deusku hamar mila, guzurra esaten hasi ezkeru handia esan edo ez esan.

—Eta *Errek* komuniorik hartu eban?

—Ez neuskizu esango! Jenteen artean beste edozein izan balitz lez hartu ez baeban, ez. Eta uste dot neuk, hartzekotan aurrenengo edo, agiri-bidean hartuko leukeala. Horregaitik ezetzera nago, ziurrik ezin nei esan baina.

—Horregaitik ez daukagu zeresanik hartu ezta be. Horretan bakotxak daki zer egiten daben.

—Inoz entzun dot ez dala elizatiko bero-beroa, eta egia ete dan nago.

¹⁷ *E. j.* noiz.

—Zegaitik?

—Han egin ziran eleizkizunetan ikusi nebalako kokolo bat lez, nondik nora ebilen be ez ekiela lez, holako gauzetan ohitura gitxi baleuko lez. Hori alde batetik; eta bestetik, kastillano batzuei entzun neutsen berbeta barregarria.

—Zer entzun zeuntsen ba?

—Agotan erabilen Don Jaimereren eleiztasuna eta azkenean batek esan eban: *¡Qué rediez! ¿Que no es beato? Mejor. Así no nos tendrán tanto asco los que dicen que somos el partido de los sacristanes.*

—Erregalo handiak egin ei ebazan *Errek*, hemengo izparringi batek inoanez.

—Ken zaitetz, gizona! Handikiei bere erretratu bere firmeaz, eta txikikiei, zabarreriarri, eskukada batzuk txakur-dirutan.

—Txakur-diruak?

—Bai, entzuten dozun legetxe. Automobilean Lurdestik joan zanean, txaloka eta *vivaka* egoan zabarreriarri, txakur-diruak jaurti eutsazan.

—Mutilak! Eskekoren batzuk zirala uste eban ala? Ereispen ederra dauka *Erre* horrek bere jenteena.

—Gauza itxusia izan zan hori bai. Baina hondino hori baino hobeaz ez dana. Ikusten dozu hor doan mutil gaztetxua?

—Zein? Hori? Bilbaon bizi dan durangotar baten semea da, badakit nor dan. Zer jazo jako horri ba?

—Beste askori jazo jakona. Joan zan gizajoa entusiasmorik handienagaz Don Jaimegana eskuan mun egitera, eta ikaratu zaitetz! Don Jaimek atara sakeletik txakur handi bat eta eskini eutsan mutilari!

—Mutlizar horrek eskekotzat hartu dauz gure mutilak. Horrek min egiten deust; ba, karlistak izan arren, geure anaiak dira hemendik joan diran mutilak eta txakur-diru eskintze horrek irainak, inñultuak, dira. Neuri egin baleust egin!

—Zuk ezagutzen dozun mutil gizajo horrek lotsatuta esan eutsan ez ebala behar dirurik, ez ebala gura berari eskuan mun egin baino.

—Gizajoa! Heure *Erre* horrek baino gehiago balio dok heuk, mutil!

—Itsututa daukez. Berari, Don Jaimeri be, eroan eutsiezan erregaluak.

—Hola! Berari be bai?

—Durangoko konfitero batek pastel handi bat eroan eutsan. Harroago joan zan beral, prakak be ezin eben hartu.

—Pastela, mutilak! eta Durangotik! Azkenengo elezinoetan kontserbadoreakaz egin ebena izango zan hori hurrean.

—Ba, nik uste dot eroango eutsala ia gozo horregaz zaletu eta honantzako bidean iminten daben.

—Bai ete?

—Orain urte bi edo dala be, Donibane Lohitzun (San Joan de Luz) Don Jaime egoala eroan eutsiezan abarketa zuri batzuk, eta orduan esaten eben hareek zirala laster etorri eiten *erreketisten* aurrean, edo atzean, jarri eta mendira urteteko.

—Arin ekarri gura badabe ez dauke hauxe egin baino: *Anís del Mono* botila bat erakutsi urrinetik, eta seguru da, kangrejuak tripa-kira baizen seguru.

—Ez egizu holakorik esan.

—Hori ez da iraina. Neuri be gustetan jat *Anís del Mono*, eta nori ez? Nik esan dot hori, eurak, karlistak, inoz esan dabelako izparringietan euren *Erreri* asko gustetan jakola aguardinta klase hori. Ez da egia?

—Bai, egia da.

—Eta zer gehiago?

—Neskak didar egiten eutsien Don Jaimeri agur egiteran arin ezkontzeko.

—Bai, lekutan jagok!

—Honantzakoan be harantzakoan lez didar hemendik, didar hortik, Don Jaime gora eta Don Jaime behera, bazterrai gogait eragiten, zarataka eta uluka, hori ez da izan ez peregrinazinoa eta ez ezer, *juerga* bat baino.

—Peregrinazino hori Don Jaímerentzat izan da, ez Ama Birjinearentzat.

—Bai, Ama Birjinearen akordurik izan da hor!

—Honako gauzarik ez dala esan behar batek baino gehiagok esango dau; baina ez dala ondo isilik¹⁸ ixtea deritxogu.

—Gero ez nagizue agertu, errebolberdunak dira eta.

—Igual joango ziran hara be errebolberrakaz?

—Ez ba! Komunera be armauta joaten dira eta!

—Horixe dok itxura ederra, errebolberrezko erlijinoa. Mahomaren erlijinoa izango dok hori, ez Kristorena. Hona jarabilek eurok erlijinoa; eta beste zeresanetan aurrekoagaitik.

1913-IV-28

¹⁸ *J. t.* ixilik.

DON JAIME, SANTIAGO MARIN, FORUAK ETA NAHASTE¹⁹

Atzo goizeko *Gaceta* hartu eskuetan eta, ikusirik bertan Don Jaime etorteko izan zala lehengo hileko 28an Gernikara Bizkaiko foruen juramentua egitera, eta harrিতa atzerantza subila lez jausita etxeko trasteren bat apurtu ez genduanean, Jaungoikoari eskerrak.

Egon, gizonak, egon hotz-hotz, eta azterkatu ondo, begiratu ondo alde guztietatik izpar edo notizia barregarri horri.

Juramentu egitera etorteko izan dala. Baina juramentu hori nok hartuko eutsan? Santiago Marínek beharba? Bizkaiko karlista nagusi-nagusien batzuk? Eta enparadu bizkaitarrak, zetarako gara ba?

Honeek karlistak barregarriak dira. Uste dabe, gau baten edo, automobilean sartuta etorri bost edo sei Don Jaimegaz, inok ezer ez dakiela juramentu egin Gernikako Haretxaren ondoan eta kitu; ordu-tik aurrera Don Jaimek eskubidea daukala, horrexegaz bakarrik, Bizkaiko jaun izateko, geure errege eta jabe²⁰ izateko.

Ez da barregarria? Itxuraz eskubideok norberagantzen errazagoa da bost txakur txiki norberagantzen baino.

¹⁹ [ESKARI BAT. Karlista euskaldunei dirautsegu benetan jainkotarrak badira, benetan egizaleak badira, hemen euskeraz ipinten doguna erderara bihurtu dagienean, euren lagun erdeldunak jakitun ipinteko, ez dagiela guzurrik asmau; dagoan lez esan dagiela ezer ganeratu barik. Zuzen ibili gaitzean, eta alkar aituko gara, errebolber barik be.]

²⁰ *E. j.* jaube.

Erraz datorren gauzea erraz doa. Erraz irabazten diran eskubi-deok ez dabe bape balio.

Nahiz juramentu bat egin, nahiz ehun juramentu egin, beti izango da Don Jaime bizkaitarrentzat erbesteko gizon bat, hemen ezetarik faltarik egiten ez deuskuna.

Gu gorabehera etorri daitela etorri Don Jaime berak gura dauenean Gernikara eta egin dagizala juramentuok. Lehen bestean geldituko da; ez deutso horrek ezarriko euskaldunen odol tantatxurik, gaur baizen atzerritar²¹ izango da Euskal Herrian, eta karlista ez garan euskaldunei (gehienak gara) ardura izango deusku *bost* haren juramentuagaitik.

Bai ba. Edonor etorri gabez eta isilean, geuk jakin barik, eta Haretxaren ondoan Foruen juramentua egiten dauela eta haxe jauntzat, erregetzat, ezagutu beharrean bagengoz, onak gengokez!

Merketuko litzatekez jaunok, erregeok, arkakusoak sastegian baino gehiago ugarituko litzatekezalako.

Ez, ez gizonak. Bizkaiak berberak deituta etorriko balitz Don Jaime edo beste bat, eta behar dan moduan juramentu egingo baleu, ez leuke horregaz irabaziko eskubiderik eta guk ez geunke obligaziorik hartuko; obligazinoa berak hartuko leuke foruak jagoteko, guk ez bera jauntzat eukiteko; juramentu egiten dauenak, berak hartzen dauz obligazinoak alde guztietan, baina ez eragiten deutsanak.

Bizkaiko historian ikusten dogu behin baino sarriago jazo zala, bizkaitarrak juramentu eragin euren jaun bati, eta jauntzat hartu, eta geroago ikusirik ez jakela komeni ha gizona jauntzat, kendu egiten ebela jaun izatetik eta beste bat ipini. Ez euken beraganako obligaziorik eta.

Eta hori zan, Bizkaiak deitu barik, isilean eta ezkutuka eta otozotoan etorri eta juramentu egiten dauenaz?

Ezebez, juramentu hori eta bapez bardin-bardin.

²¹ [Extranjeru].

Baina hemen beste gauza bat dabil.

Igarri dabe karlistak Euskal Herrian geroago urriago doazala, erreketeko mutil gazte sutsuak errebolberrakaz eta soldau moduan ipini arren, eta etenbako gitxitze hori zelan gelditu ez dakiela, orain asmau dabe foruen juramentu hori, ia jenteari eutsiten deusien, eta ia euren artekoak ez garanok eurakanatzen gaituezan.

Asmakizun horrek ez deusue ondo urtengo, ezin deusue ondo urten, o karlistak.

Honez ganera, lehengo udagoiengan hondino, Santiago Marínek esan eban gure foruak *txotxolokeriak* dirala eta bere eskuan balego, euren gomutea be kenduko leukela luma zarrastada bategaz; eta hau esan eban, Don Jaimegaz aurreragoko egunetan alkar ikuste bat euki eta gero.

Iturrinotar Prudentzik, bere bizian karlista zintzoa gastau zan euskaldunak, argitu eban Santiago Marínen kontu hau; eta harrezke-ro, honek ez dau behin be guzurtau Iturrinoren esana. Egia da ba.

Iturrino foruen alde eta Santiago Marín foruen kontra egozan. Bata alde batera eta bestea bestera.

Nok irabazi eban? Santiago Marínek. Don Jaimek eta karlista partiduak Santiago Maríneganako adiskidetasuna agertu eben eta agertuten dabe; eta Iturrino baztertu eben, eta baztertuta dago ordutik hona.

Eta orain zelan da ba foruen juramentua ataratea? Santiago Marínen adiskideak, Santiago Marínen esanak ontzat hartu ebezanak datoz orain horregaz?

Foruak ez dira ba *txotxolokeriak*? Ez litzatekez kendu behar gure gomutatik, ahal balitz, luma zarrastada bategaz?

Edo ez dakie zetan dabiltzan be, edo jentea foruen izenaz engaitetearren dabilz.

Ai, gizontxuak, jenteak asko ikasi dau lehengo karlistadatik hona.

Igazko habietan aurten ez dago txoririk.

EZ DOGU KONSERBADORE FALTSOZARRIK BEHAR

Ez dogu behar geure artean faltsozarrik,
Gitxi izan arren guri ez deusku ardurarik,
Gitxi nahiz asko gure betiko didarra
Gora Jaungoikoa eta Lagi Zaharra.

—Kantaizu kantau.

—Eta gogotik kantau be gero.

—Bai, katuak be garrasiak egiten dauz, buztana ate baten edo harrapetan jakonean.

—Eta astoak, barriz, askan pentsua jaten dagoanean, belarriak atzera botata, ostikadea jaurtiten deutso edonori.

—Oraingoan hartu dozuez zeuenak.

—Ardura gitxi guri horregaitik.

—Orain horixe esan behar zuek, ardurarik ez deusuela; baina Diputazinoko goiak harrapau gurarik ibili, eta hainbarik gelditu zarie, ahobete haginegaz.

—Eta zer horregaz?

—Zer? Zuen partiduari baja handia etorriko jakola hortik.

—Baietz uste dozu?

—Usteko ez dot ba? Igarriko deusazue. Indar asko galduko dau.

—Zagoz isilik, gizontxua. Gure alderdiak irabazi egin dau; gure alderdia indartu egingo da; Diputazinoan beste guztiak alkar hartuta egin deusien *hiruzaku* horregaz.

—Neuk ezin dot aditu horixe zelan izan leiteken.

—Ez ba. Zelan adituko dozu, buruagaz oldoztuten edo pentsetan ez badozu?

—Zegaz pentsetan dot ba nik?

—Urdailagaz. Urdailean daukazu zuk zeure gogo guztia. Aska ona ipini ezkeru, zuri ez deutsu arduraz burugeletik²² lotuta egon arren, eta bastea²³ bizkar ganean ipini arren.

—Orduan zuk astotzat naukazu?

—Hara gizonaren ikarea! Zertzat eukiko zaitut ba, zareanatzat baino? Kontserbadorea ez zara ba?

—Eta kontserbadoreak astoak dira ala?

—Guztiak ez, baina bai zu lakoak, dirurik ez dauken kontserbadoreak. Zuk jakin arren kontserbadoreak geu guztioi, Euskal Herriari, kalte handiak ekarri deuskuezala, eta gehiago ekarteko asmoetan dabiltzala, eurakaz zabilz aberatsak diralako eta askea beteten deustuelako, askan jaten dozunaren ordean eurari laguntzen edozetan, eta zeure herriari *hiruzaku* egiten deustazula.

—Ez, ni kontserbadorea banaz, *ordenako jentea* eta *jente formala* diralako da.

—Eta dirua daukelako. Nik lehen esan deustut gure alderdiak Bizkaian irabazi egin dauela Diputazinoan jazo danagaz, eta argituko deustut.

Gure alderdikoak azpiratu balebez geure arerio guztiak eta Diputazinoan nagusi egin balitzaz, berbertatik abertzale egingo ziran *askatar* asko, esan gura dot *askea* baino besterik gogoan ez daukenak, *urdailarrak*, *urdailean* daukezanak euren erlijinoa eta euren aberria eta euren maitetasun guzti-guztiak; zabarrerria asko sartuko jakun geure alderdi honetan, geure diputaduakandik zeredozer eskuratzeko itxaropenaz; geure alderdi maite eta garbi hau lohikutu jakun eta *faltsoz* beteko jakun.

—Bildur horregaz bazabiltze, ez jatortzue ondo inoz irabazterik orduan.

²² Burugel: buruko ugel.

²³ Basta: zaldi ganean ibiltzeko silla.

—Alderdia bere adinera²⁴ heldu daitenean, eta sendo eta indartsua izan daitenean, orduan *faltsoen* bildur gitxi izango dau. Gizon sendo eta osasun handidunari mikrobioak ikara gitxi eragiten deutsien lez. Behar dan baizen sendo izatera heldu daitenean, *faltsoak* gorabehera egingo dau bere bidea.

Eta orain jazo danagaz ez dogu bakarrik lortu²⁵ faltsook gugana ez etortea; beste esker edo mesede bat be bai, eta bera da: geure artean bizi diran, geutartzat ezagutzen diran beste faltso askok alde egingo deuskuela, eta joango dirala kontserbadoreen askara.

Honetara, garbialdi on bat eukiko dau gure alderdiak Bizkaian eta osasundu, gogortu eta indartu egingo da gehiago; zindo-zindo geldituko da ezetariko zeren barik.

Eta gure arteko *saskara*²⁶ horreek sartuko jatzuez zeuei eta lehen be *faltsoz* beterik dagoan kontserbadore partidu barraban hori, hondino gehiago *faltsotuko* da; eta gaur makal badabil, gehiago makalduko da eta lurra joko dau.

Lagun gitxi edo lagun asko eukitetik ez dator alderdi baten indarra, lagun horreen zindotasunetik baino.

Zindoak badira, urdaildarrak barik bihoztarrak badira, eta honez ganera alderdi horrek oin onak eta egizkoak badaukaz, gureak daukazan lez, ez ardura izan arerio asko daukazalako eta zartada asko hartzen dauzalako.

Geure asabak, Bizkaiko burdinoletan, ezagutzen zan burdinarik onena egiten eben; eta hori zan, burdin agoia²⁷ gabi²⁸ handiaren azpian zartadaka eta zartadaka, bere lohi eta saskara guztietatik ondo garbitzen ebelako, eta burdinea ixten ebelako batu-batua.

Antz horretara dator gure alderdia be, zartadearen zartadeaz bere lohi eta saskarak, faltso guztiak, atararik, eta geroago batuago eta zindoago egiten dala.

²⁴ [Edadera].

²⁵ [Konsegidu].

²⁶ Saskara: hondakin.

²⁷ Agoi: totxo, burdinurtu.

²⁸ Gabi: mailu handia.

Zindotasuna da gauzarik atsegingarriena; gizonari begiak, bihoztza eta gogoa joakoz gauza zindora. Zindoak gizonari gogoa irabazten deutso, berak igarri barik eta berak gura ez dauela be.

Hauxe jazoten da oker dabiltzan alderdiakaz eurakaz be; oker baina zindo badabil irabazi egiten dau. Zer jazoko da ba zuzen eta zindo, egiagaz eta zindo dabilan alderdiagaz?

Gure alderdia gaur Bizkaian gelditu dan erea, ederra da; faltso-rik etorri ez, daukazan faltsoak galdu, zindotu, eta zindotasun honegaz gizon zindoak irabazi eta beraganatu.

—Zeuk halan dinozu; baina kontserbak be gehitu dira.

—Partidu horren buru eta ugazaba diran hiru-lau aberats handiok estu dagiela euren zisku edo poltsea²⁹, eta ikusiko geunke zetan geldituko litzateken *faltso-partidu* hori, hiru-lau aberats horretan bakarrik.

—Baina zuk *faltsotzat* botaten dozuz zeuetarrak ez diranak.

—Kontserbadoreak bai, bota behar. Edo bestelan esan egidazu: Zegaitik irabazten dabe hauteskaldietan³⁰ diruaren diruz baino? Dirurik ez baleuke, edo dirurik emongo ez balebe, edozeinek irabaziko leuskie horreei. Honetantxe da ezagun *faltsoa* baino besterik ez daukela euren partidu horretan.

Eta buru daukazuezan aberats horreek be, zeuen antzeko *faltso* handi batzuk dira.

Hor dabiltz beti esaten eta geuri arpegira jaurtiten Espainiaren arerioak garala Espainiagaitik eurak ardura handia baleuke lez.

—Eta bagara izan espainiazaleak.

—Gizona, zeure burua ez egizu sartu, zu ezebe ez zara eta; baina beste horreek, aberatsok, ez dira espainiazaleak, euren *poltsa*-zaleak baino. Horreek Espainiari koipea ataraten deutsie, aduanetako deretxoak gauza batzuk ondo kargauta daukezalako; baina eurak ez deutsie emoten koiperik Espainiari, emoteari itxita dagoz horreek, *emon* hitz honegaz hasarre dira, *hartu* da horreen hitzik maiteena.

²⁹ E. j. boltsa.

³⁰ [Elezinoetan].

Espainia larri aurkitu izan danean, Kubako eta Melillako gerretan edo gudetan, ikusi dozu horreetarikorik joaten fusilaz lan egite-
ra?

Garaunik be ez. Eta ostera, guretarren semeak eurrez joan dira guda horretara.

—Eroan dabezalako.

—Alde egin eikien Ameriketara edo nora edo hara; baina ez eben alderik egin, eta joan ziran behintzat, Espainiaren aldez lan egin dabe. Zuen nagusi horreek Espainiaren aldez ez dabe egin, Espainia-
tik jan baino; eta gero asko gura deusiela, bai, horreek baino aldez-
kari edo defensore hoberik ez baleuko, ondo legoke.

Alderdiori, kontserbadoreori, *faltsoa* da goitik hasi eta beherai-
no; horixe da *faltsotoki* edo *faltsotegi*, eta horraxa joko dabe oraintxe
hemengo *faltso* guztiak; antzekoak antzekoa bila.

Hor *faltso* handi guztiok! Alkartu zaiteze! Ez etorri gugana gure artean ez dago askabeterik nekea eta lana baino eta! Alde egizue gure artean zabiltzen *faltsook*! Ez deusku ardurarik zuek barik gelditua-
rren, asko poztu baino, saskararik ez dogu behar eta. Gitxiago izan-
arren ondrauagoak izango gara.

Ut hortik!

1913-V-19

LEHENAGOKO ABERTZALEAK

Irakurki hauxe, *Jadarkarena*, aspaldi baten euki dogu hemen, hilabete eta erdi bai gitxienez, geldi.

Bere egileak oraingo esan izango dau beharba: Zer arrano dok hau? Nire idazkaia behin be ez joek argitaltzen *Euzkadiko* horreek.

Geldi euki dogu gaur arte badakizue zegaitik? Gaur, orrilaren 24garrenean, urteak diralako, 279 urte, heriotzea emon eutsiela bizkaitar zintzo-zintzo eta azartuak izan ziran Ajarabide, Morga eta Puentetar Jon, espetxe edo kartzela barruan, eta biharamonean, 25garrenean, Larrabaster eta Bizkaigana anaia bieri; azkenengo hirurok urkatu ebezan Bilbaoko Plaza Zaharrean biharko egunez.

Zegaitik bizia kendu eutsien? Ez gaizkileak³¹ ziralako, Bizkaia-
ren alde eta Bizkaiko jaunaren aurrez jarri ziralako baino; honeexek
ziran orduko abertzaleak, orduko jeldarrak, orduko *nazionalistak*.

Bizkaiko jaunak, era batera Espainiako errege eta ahal handidun errege zanak, Bizkaia ostikopetu gura izan eban, Bizkaia-
ren *Lagi Zaharra* hausi gura izan eban, Bizkaia-
ren bere burua erabilteko edo gobernetako beti euki eban ahal eta eskubidea ondotik jo eta lurrera eratzi gura izan eban.

Eta orduko bizkaitarrak, prakak ondo lotuta erabilten ekielako, gogor jarki³² jakozan Bizkaiko jaunari, bildurra sartu eutsien, eta atzeratu eban lagi auzia. Jarkite edo *protesta* hartan aurrenengo ibi-

³¹ [Kriminalak].

³² [Plantau].

li ziran *Jadarkak* aitatuten dauzan hamabi bizkaitar zindo-zindo horreek.

Atzeratu eban bere oker-lagia Bizkaiko jaunak, eta haize baltzak itxaso gora-goraka eta irakiten lez iminten dauen antzera egoan Bizkai hasarrea eta irakina, hasi zan baretuten; eta guztiz bare edo geldi egoanean, orduantxe otsoak bildotsari lez zaunk egin eta oratu gura izan ebazan aurrenengo ibiliriko hamabi bizkaitar zindo horreek; hamabietarik seik igesi egin ahal izan eben, Bizkaiko baserritarak lagun egin eutsiela horretarako, eta beste sei gizajoak harrapau ebezan otoz-otoan gaurko egunez goizaldean, hondino ohian lo egozala, eta arin, astirik galdu barik, bizia kendu eutsien, lehen esan dogun lez, hiruri harrapau ebezan egunean bertan, eta beste hirurai biharamonean.

Erailde³³ deunge eta itzala!

Nortzuk lagundu eutsien Bizkaiko jaunari heriotza ikaragarri horreek egiten?

Orduan be baegozan Bizkaian Jaungoikoaren zigorrez³⁴ aberats handiki zitalak, Bizkaiko jaunaren inguruan ibiltzen ziranak, nondik eta zelan atzeak garbituko ete eutsiezan asmau ezinik ibili ohi ziranak koipe atarako ebelakoan; eta horreexek, euren Aberria maite ez ebenak, euren Aberriaren ardurarik ez eukenak euren ona edo komentzia egin ezkeru, horreexek lagun egin eutsien Bizkaiko jaunari.

Horretarikoak beti egon dira hemen eta egongo dira, gauza txarra ezin lei inoz kendu eta. Gaur be horretariko bedarra ugari dago; igarriko dozue nortzuk diran guk esan barik. Geu ez goaz esaten badaezpadan, Morga eta lagunei lez kendu ez deiskuen bizia, edo bizia ezin badabe guraria bada baina, *poltsea* kendu ez deiskuen.

Bizkaitarrak, ikasi egizuez buruz eta euki egizuez beti bihotzean, aldi hatan, 1634garren urteko orrailako 24 eta 25garren egunetan bizia Bizkaiaren alde galdu ebenen izenak; baita igesi egin ahal izan eben beste seirenak be.

³³ [Asesinato].

³⁴ [Kastiguz].

Aberriaren aldez bizia galdu dauenak eta Aberriaren aldez bizia galtzeko zorian jarri danak, irabazita dauka abertzaleen gomutakundea; hor, kale eta plazetan ikusten doguzan izenak baino gehiago.

Kale eta plaza musturretan ikusten diran izenen jabe izandako gizonak, zer egin ete eben Aberriaren aldez? Batzuk, banakak, gauza gitxi; beste batzuk, gehienak, bapez; eta beste banaka batzuk kaltea.

Ahalegina egin behar dogu Euskadiren edesti edo historiako abertzaleen izenak argitara atarateko, eta eurai jagoken gurena edo ondrea emoteko.

1913-V-24

KARLISTAK OTXANDION

Harainegun eta atzo uste genduan norbaitegandik etorriko jakuzala Otxandion igandean karlistak egindako batzarraren izparrak.

Inondik ez ziran heldu baina. Harainegun *Gazeteak* esaten euskuna bakarrik dakigu. Izparringi horri ezin leio asko-asko sinistu berez guzurtia dalako, eta aspaldi honetan karlistei lagun egiten deuselako.

Baina beste biderik ez daukagun lez jazo zana jakiteko, bide hori hartu beharrean aurkitzen gara.

Itxi daiguzan alde batera *txotxorrilokeria* guztiak: txapel gorriakaz joatea, launan sartzea Otxandion soldauak lez, eta horrelakoak; eta gogoan hartu daiguzan *Gazetan* ikusi genduzan gauza bi.

Lehenengoa da, *Gazeteari* eta karlistei ez jakela atsegin izan (ez jakela gustau) Otxandion bertan eta harako bidean *gordazibil*³⁵ asko ikustea. Horrek zer dauka? *Gordazibilek* ez eutsen galazo batzarra egiten; *gordazibilek* gorabehera, lagien edo legeen azpian egin ahal leiken guztia egin eikien. Zegaitik erakusten dabe atsekabea horregaitik? Beste asmoren bat euki eta dabe, *gordazibilakaitik* egin ezin izan dabena? Hurrean.

Aspaldi honetan gorroto itzalak darabilz otsoak lez odola eta hiltza baino besterik gogoan ez daukela. Euren arteko gazte gizajoei

³⁵ *E. j.* guardia zibil.

erakutsi deutsee bide txarra, Jaunaren legea alde batera ixten irakatsi deutsee.

Jaunak agintzen dau: *Inor ez dozu hilgo*. Eta karlisten mutil gazteak beti dabilz hilteko izkilu edo armeagaz, eta bideetara gabez urteten dira bake-bakean dabilanari tiroka; eta hau txartzat hartu beharrean euren buru eta irakasleri diranak, ontzat hartzen deutsee, sutu egiten dabez hondino gehiago bide gaizto horretan, mundu honetan presiliora eta bestean infernura zuzen-zuzen daroan bide deunge horretan.

Otxandion bakean egin eben euren batzarra eta, *Gazeteak* esaten ebanez, ederto eta jente askogaz. Horraitino pozik ez dagoz. Hareexek, *gordazibil* hareexek, ilundu deutsee euren poza. Esan leike odola gura izan dabela; esan leike, sakeletan eroan izango ebezan errebolberrak erabili barik atzera ekarri beharrak, atsekabetu dauzala.

Hori ez dago ondo. Gizonaren biziari lotsa edo errespeto handia izan behar jako; eta irakasleri diranak, benetan badira Jaungoikoza-leak, ez beitez atsekabetu odolik jausi ez dalako poztu baino; eta esan begioe mutil adimen gitxiko horreeri, errebolberrakaz arduraz ibili daitezala. Hoben edo pekatu dala inor hiltea, baita inor hilteko gurari edo desioa eukitea be.

Honez ganera ez dagiela ahaztu: Aurrekoa neurtzen dozun neurriagaz neurtuko zaitue.

Ezta beste hau be: Gizonak gizona aurkitzen dau. Errebolberrari errebolberrak bidera urten leikio.

Bakea ez al da hobea?

Bai behin. Zorionduak bakeginak eta bakezaleak, esan deusku Jaunak.

Bigarren gauza begigarria izan da batzar horretan Furoen alde hitz egin dabela bik, Barruetak eta Pagoagak, *Gazeteak* dinoskunez; besteak ez eben aitatu izen hori.

Izan leiteke, Barrueta eta Pagoaga, uste oso-osoan egotea karlisten partiduak *Fueroak* gura dauzala; eurak hauxe sinistutea, eta uesterik onenagaz besteei guzur handi hauxe esaten ibiltea.

Guk uste dogu karlisten artean, batez be herri txikietakoen artean, asko dagozala hondino atzipetuta edo engainauta gauza horrezaz³⁶.

Eta nok atara eurenetik? Ez dabe irakurten, ez dabe entzuten euren aldekoak idatzi eta esaten deutsena baino eta.

Eta ganera, ahaleginik be ez dabe egiten egia bilatzeko. Uste osoan dagoz karlista izan beharrean dagozala euren bizitza guztian; eta hagaitik, argia ez ikustearren begiak ixten dauzanak lez, ez dabe ezer irakurri gura, ez dabe ezer entzun gura.

Ezagutzen dogu guk karlistea. *El Partido carlista y los Fueros Vasco Navarros* idaztinoa eskini jakona irakurteko, eta hartu gura izan ez dauena; ekin barrero esanik zuzen badago edo arrazoiaz badago ez deutsala ardurarik izan behar, eta ezetz, ezetz eta ezetz, zegaitirik emon barik. Zer zan? Bildur izan irakurten; arrazoari begiak eta belarriak zarratu eta itxi.

Barruetak eta Pagoagak eta herri txikietako karlista uste onekoak, gure eretxian, ez dakie *Fueroak* zertzuk diran; ez dakie *Fueroak* edo Lagi Zaharra ez dala besterik Euskal Herri osoak edo Euskadik, eta beronen zati bakotxak, esaterako Bizkaiak, eukan ahala eta eskubidea berarentzat behar ebazan lege guztiak egiteko Bizkaian bertan, Gernikan; baita be, Bizkaiak berak eukan ahala eta eskubidea berarentzako *gobernua* hautatu eta izentetako bizkaitarren artean. Hauxe da *Fueroa* edo Lagi Zaharra, euskaldunek euren legeak egiteko eta euren *gobernua* haututeko eukan ahala eta eskubidea.

Hau balekie eta egiaren bila hotz-hotzik ibiliko balira, eta honegaz batera balekie karlisten partiduak dinoala *Centralización política y Descentralización administrativa*, eta hitz honeek esan gura dabela han Madrilen egingo dirala legeak guretzako (oraintxe lez) eta han Madrilen egongo dala gure *gobernua* (oraintxe lez); guztiau balekie eta, esan dogun lez, hotz-hotzean gogoan erabiliko balebe, orduan beharbada igarriko leukie bide okerretik doazala.

³⁶ J. t. Horretzaz.

Bide okerra guk ez dakigu zelan igarten ez daben Santiago Marínegaz eta Iturrinogaz jazo zanagaz, euren begien aurrean jazo zala.

Honi erantzungo deusie, beharba, oraintsu Don Jaimek agindu dauela *Fueroen* zin edo juramentua egingo dauela. Baina horregaz ez dago ezer, Don Jaimek ez daki zer diran gure *Fueroak* eta. Bestelan oraingo zuzendu izango eban berak karlista partiduaren *Centralización y Descentralización* hori. Ez dau txitik atara horraitino. Ez ba, hak ez daki hemengo barririk eta. Ha euskotarrentzako (*vasco-entzako*) ez da besterik atzetar bat baino eta.

Gauza oharkarria³⁷ da horraitino Otxandioko hitz egileen artean euskaldun biak bakarrik *Fueroak* aitatutea. *Gazeteak* dino Pagoagak beti lez euskeraz hitz egin ebala, eta Barrueta hasi zala euskeraz eta gero erderara jo ebala.

Otxandio lako herri baten erderaz hitz egitea ez da *Fueroen* aldez egitea.

Fueroen edo Lagi Zaharraren aldez egitea da euskaldunen gauza on guztiak maitetutea, eta euren artean aurrenengo geure euskerea, geure gurasoak eta gurasoen gurasoak, geure asabak beti-beti erabili izan daben ele edo berbeta garbi eta ederra.

Gero guk esaten badogu karlistak dirala euskerearen hiltzaileak, hasarratuko jake.

Baina nahiz hasarratu nahiz adiskidetu, egia, egia da; eta Otxandion karlistak egin dabena izan da euskerea baztertu eta ezetsi³⁸.

Eta ganera asti ederra alperrik galdu.

Hemen karlisten partiduak egingo ebana eginda dauka.

Jaungoikoari eskerrak.

1913-V-28

³⁷ [Notable].

³⁸ [Despreziau].

BESTE BEHIN

Jaunaren esana:

“Kain, non da Abel zure anaia? Zer egin dozu beragaz? Zure anaiaaren odolaren ahotsak dei egiten deust lurretik.

Madarikatua izango zara ba ordu honetatik, bere ahoa zabaldu da zeure anaiaaren odola zeure eskutik hartu dauen lurraren ganean.

Deslai eta igesti bizi izango zara lurraren ganean”.

Beste behin berrero be odolak lurra gorritu dau; beste behin berrero be Abelen odolaz Kain gaiztoak asetu dau bere bihotz otsotarra; beste behin berrero be Jaunaren boskarren agindua ostikopetu dabe Jaunaren aldezko bakartzat euren buruak daukezanak; beste behin berrero be karlisten errebolber madarikatuak egin dau bere lana, bere beharra, ume bat, ume samur bat, hamabi urteko mutiko bat bizi barik itxi dabe luze.

Gaiztakeria gorrotogarri hau egiteko errebolberra erabili dauen eskua, beste gazte batena izan da, hamazazpi urteko mutilarena.

Baina nok ipini dau errebolber hori mutil horren eskuetan? Nor izan da hegoak emon deutzazana gaiztakeria-bide horretan, bere aurrean sarri esanik erderaz: *¡Qué valiente es! ¡Qué fino! ¡No hay bizkaitarras para él!* eta odol-jausterik izan danean orain baino lehena-go, txaloka eta pozarren ondo egin dauela esan deutzana?

Erreketeko mutil gaztetxuak sutu eta berotzen dabezanak gaiztakeria-bidean, horreexek dira errudunak. Euren batzoki barruan, ezetariko bildur barik, ezetariko burukomin barik, mutil gazte adimen gitxikoei errebolberrak emon eta esaten deutzienak: *Bizkaitarristak hil arren ez deutzue ardurarik*, horreexek, doilor horreexek dira erru-

dunak. Eurok ez dira etorten ez, koldar prakabako horreek, ez dauke adorerik errebolberra eskuan hartu eta aurrera urteteko; eta horregaitik, eurak gauza ez diralako, eurak narrua galtzeko bildur diralako, mutil gazte gizajo horreei erakusten deutsee bide txarra, gizonak hiltzeko bidea.

Eta inoz honeek, euren gaztetasunean hondino asko igarten ez dabelako, gaiztakeria bat egin dabenean, orduan txaloak joten deutseez, orduan poztuten dabez esanaz atzarriak³⁹ dirala eta.

Errudunak diran koldar atzetiko horreek, nasai-nasai aurkituko dira gaur, Martzilla mutil gaztea espetxean dagoan artean, beharba-da bihotzean gaizto eginaren harra daukala.

Martzilla, errurik gitxien daukana, jausi da gizonen Zuzentza-⁴⁰ren azpian; besteak, bere eskuetan errebolber madarikatua ipini dabena ez dira jausiko gizonen Zuzentza-⁴⁰ren behean, nasai eta asaro biziko dira, txapela erantziko deutse kalean jenteak, gizon ontzat igaroko dira munduaren aurrerako.

Baina beste Zuzentza bat dago, Jaunarena, Jaun bakarrarena, eta Beraren eskuetara jausi behar dogu guztiok, eta Berak emongo deutso bakotxari berea. Jaunaren aurrean, Jaun *bakarraren* aurrean, harainegungo heriotza ikaragarriagaitik, hamabi urteko mutiko samurraren odol-isurtzeagaitik, Martzillak baino gehiago erantzun beharko dabe Martzillaren eskuetan errebolber deungea ipini dabena eta Martzillari gaiztakeria-bidea erakutsi deutesenak.

Guk ondo dakigu, horreek, Martzillaren atzetik egon diranok, barre egingo deutseela hemen guk egiten dogun deiari Jaun Zuzenaren aurrerako.

“Barre egin beie gura daben beste. Jaunaren eskuetatik ez dago alde egiterik” erantzungo dabe bat edo batzuk Bere aurrean Espartza mutiko gizajoaren heriotzeaz.

1913-VI-12

³⁹ [Valiente-ak].

⁴⁰ [Justiziaren].

JAIMETARRAK BALMASEDAN

Harainegun bildu ziran han mila eta bostehumen bat.

Eguerdi aurretik erabili ei ebezan erreketero zentzubakoak hango pelotatokian atzera eta aurrera: *un-do, un-do, un-do*.

Umeen gauzak!

Hor konpon. Orain gu ez goaz han egin eben guztia hemen ipinten. Baina bai hartu gura doguz eta agirian jarri hitz egitaldian esan ebezan gauza batzuk.

Balmasedan dago Gernikako Haretxaren landara bat; eta landara honen aurretik igaro ziran jaimetarrak harainegun, euren ikurri-nakaz, landareari agur egiten eutsiela.

Egipen honegaz adierazo gura eben eurak be badirala *Fueroen* edo Lagi Zaharraren aldezkoak, Gernikako Haretxak be, horixe dikur⁴¹ edo sinifiketan dau, Lagi Zaharra.

Landara hareri, edo Lagi Zaharrari agurra egin ondoren, Asuatar Martin izena dauen balmasedatar eta jaimetar batek, arratsaldeko batzarrean esan eban:

Unas mismas leyes regirán en todas las provincias edo, probintzi guztientzako lagi berberak izango dirala.

Jakina da jaimetarrentzat Euskadiko erkaldiak, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Naparra, Espainiako probintziak dirala, Zamora eta Leon eta Cuenca eta lez.

Beraz, lagi bardinak guztientzako. Lagi horreek non eginda eta nortzuk eginda? Madrilen eginda eta hangotarrak eginda.

⁴¹ Dikur: Ikurri aditzaren forma trinkoa. Adierazten dau.

Beraz, Gernikako Haretxaren azpian bizkaitarrak ez dauke zetan lagirik egin.

Lagi Zaharraren aldian, edonok daki, han batzen zirala bizkaitarrak eurentzako lagiak eurak egiteko. Lagi horreek egin eta lagi horreekaz eurak erabili edo gobernau euren aberria, horixe zan Fuerua edo Lagi Zaharra.

Aspaldi da karlista eta jaimetar guztiei ondo argi ipini deutsegula Sabineek eta bere ondorengo abertzaleak, karlisten partidua ez dala Furoen aldezkoa, Furoen aurreztarra edo kontrarioa baino.

Hau, guk esaten doguna entzunda, hasarratu egiten dira hemengo karlista asko eta erantzuten deuskue gu beste *fuerista* edo lagi zaharzaleak dirala eurak eta euren partidua.

Honeek, hasarratuten diran honeek, harainegun Balmasedan entzun eben zer dan jaimetarren lagi zaharzaletasuna. Han zegaitik hasarratu ez ziran?

Horra, ibili eta ibili, uko eta uko ibili diran arren, jaimetarrak etorri dirala adierazoten gu zuzen gagozala dinogunean euren alderdi edo partidua ez dala Lagi Zaharraren aldezkoa.

Guk ez dogu Asuatar Martinen beharrik izan hau jakiteko; baina bere autorkuna edo konfesinoa ondo dator jaimetarren ezpankeriak ezerezean ixteko.

Ezpankeria handia da jaimetarrak esatea Fueruak gura dabezala, eta azaluskeria handiagoa Gernikako Haretxaren landara hareri agur egiten ibiltea, eta "Gernikako Arbola" jotzen danean burutsik jarri eta txaloka ibiltea.

Hau egiten dau alderdi edo partidu erbesteko horrek hemengo semeak atzipetu edo engainetako; baina bihotzean dagoana ahora urteten dan lez, noz edo behin baino ez bada be, Asuatar Martinen bidez, beharba uste barik, urten jake barruan daukena.

Hondino lehengo egunean ekarren jaimetarren izparringi zikin higuingarri lotsagaldukoak *Don Carlosen* zin egitea Gernikan, Furoen edo Lagi Zaharraren zin egitea. *Don Carlosek* (goian bego) zin egin ebazan *Fueruak, unas mismas leyes* horreek izan ete ziran?

1913-VII-8

BARREGARRIKERIAK

Esango dozue, hurrean, karlistak betartean sartu jakuzala eta beti darabilguzala hemendik zirri hortik zirri, eta, beharba, oraingo gogait eginda egongo zarie, beti-beti gauza batek asetu eta larritu egi-ten dauelako.

Zer gura dozue-ba! Gaurkoa, behintzat, esaten itxi eiguzue, eta gero aginduten deutsuegu ez garala karlistakaz behingo-behingoan sartuko.

Badakizue karlista gizajoak (bai, gizajo batzuk baino ez dira gehienak) aspaldion gogotik dabiltzala soldauen *ekertzizioak* ikasten, sinistu erazo⁴² deutseelako *denpora* gitxi barru barru *gerrara* urten behar dirala-ta.

Guk uste genduan harainegun arte, horretan ebiltzanak mutil gazteak zirala bakarrrik, *gerran* zaharrak ez diralako gauza agintari edo *jefe* izan ezik; baina harainegun esan euskun geure ezagun batek, berak ikusi dauzala karlisten *cérculo*⁴³ aurreko etxe batetik ekertzi-zioak egiten, fusilen ordez makila luze batzukaz, katilutxu bete salda hartuta hero-berotan eta geldi egon behar leukien agure zahar makal-lak, hanka bat eta erdi ia *sepultura*n daukien agure motxolinoak.

⁴² *E. j.* sinistarazo, sinistuazo.

⁴³ Euskeraz *círculo*, *casino*, edo *club* esaten da *batzokia*, nahiz dala karlistena, nahiz dala jeltzaleena, nahiz sozialistena, nahiz edozetarikoena; baina askok aituten dau *batzoki* izen hau jeltzaleena bakarrrik dala, eta okerren bat izan ez daiten deituten deutsegu karlistenai gaur *cérculo*, lehengo baten karlista bateri entzun geuntsan lez:

—*Amonos al círculo, ¡qué porra! á ver si mus dan los reguélveres.*

Gure adiskide horrek *kontau* euskun ez ebela urteten *ekertzizioak destrutorearen gustura*, eta didar egin ebala:

—*Lo que es de esta forma el enemigo nos derrota ¡qué carafre! Ay que aflicar la ordenansa militar a tabla raja. ¡Ojo muchachos!*

Hasi zan *destrutorea*, biboteai tirekada batzuk eginda gero, *tatikako* didarrak egiten: *¡Tertzien! ¡jarm! ¡Apunten! ¡Fuego!* eta honeetariko tentelkerietan ebiltzala astia eta zentzun apurra galtzen, horra non hirurogei urte inguruko agure koitadu batek erratu eban *ekertzizioa*, eta otso gosetuak lakoxe begiak jaurti eutsazan *destrutoreak* eta esan eutsan:

—*¿Qué es eso, siento catorse? Derrodillas y en crus inmediata-mente hasta que yo diga.*

Eta agure gizajoa han euki eben belaunbiko eta besoak zabalik minutu batzuetan, besteak *ekertzizioetan* eragoioen artean.

Egia esateko, ez genduan sinistu guztiz gure adiskide horrek esan euskuna, barre batzuk egin genduzan baina. Nok sinistu horrenbesteraino heldu leitekela gizona?

Honetan gengozala heldu zan gure artera beste ezagun bat, bere etxean otsein lez *erreketero* mutil gaztetxu bat daukana, eta jakin ebanean zer gerabilan esan euskun:

—Egia da agure zaharrak horretan dabiltzala eta belaunbiko ipini ebela lehengo baten hirurogei urte dauzan bat; neuk etxean daukadan mutil erreketeroak esanda dakit hori.

Beraz, egia da.

Hirurogei urteko gizona belaunbiko ipini eta mutil sosterren aurrean!

Agureai lotsea hartu behar jakela agintzen dau Jaumak.

Agure hori berori be gizajo-gizajoa izan behar, lar gizajo, osterantzean botako ebazan *haraxe*, *destrutoreagandik* hasi eta Don Jaimerainoko guztiak.

Ez darabilezala horretan karlista aberats eta handikiak? Ezetz ipini belaunbiko horreetariko txoririk? Bai zera!

Beti lez, orain be, karlisten artean hojalateruak ugari. Ia ba, makileaz *cérculo*-an *ekertzizioak* egiteko, arriskurik ez dagoan

lekuan, *hojalateruak* dagozanean, zer izango litzateke benetan balitz?

Ekertzizio tentel horretan zarabilezan mutil gazte eta agure zahar euskotarrak, zeuen zintzotasunaz olgetan dabiltzala, zabaldu egizuez gogo-begiak igarteko zelako burlea egiten deutsuen.

Karlistak zarien arren geure anaiak zarie; zuek eta gu, abenda batekoak, odol batekoak gara; eta horregaitik min hartzen dogu, harainegun entzun genduana lakoak entzunda.

Ez egizue jasan⁴⁴ horreetariko burlarik.

Guganako gorrotoa zuen bihotzetan sortu eta gehitu dabelako horixe ondo jatorkenak, uste dogu ez dozuela entzun gurako hemen dirautsueguna.

Baina, Jaungoikoarren, hauxe egizue: ahalegindu zaitzeze uste izateko ez zariela ez euskotar ez espainiar ez karlista; urrinekoak zariela ustea egizue, gauzak hotz-hotzean hartu eta erabilteko goguan, zeuei ardurarik ez baleutsue lez ia orduan ezer ereizten deutzazuen *ekertzizio* horreek egiteari eta agureak belaunbiko ipinte horreri.

Hori egingo bazendue igarriko eta ikusiko zeunkie zein lotsagariak diran barregarrikeria horreek.

1913-VIII-7

⁴⁴ [Sufridu].

GORA DEUN MIKEL!

Orain dira lau urte, 1909ko urrilaren 10garren egunean, Euzkadi Buru Batzarrak, jeltzale abertzaleen Buruak, Aralar mendi handiaren ganean, antzinetik deun Mikelen izeneko txadona dagoan lekuan, agertu eban hartzen ebalá ordutik aurrerantz Alderdiaren Zaindaritzat deun Mikel Gongotzona.

Erabagi hau guztiz pozik eta atseginez hartu zan Eusko abertzaleen artean. deun Mikelganako eraskuna⁴⁵ zabal da antzinetik euskotarren artean. Hainbat eta hainbat herritan ospatuten da bere eguna, gaurkoa, jaiakaz.

Geroago, orain urte bi, bagilaren 24garren egunean, egin genduan ikerkundera Aralarko deun Mikelera abertzaleak. Bilbaotik joan ginan geuretzako bakarrik tren bategaz. Han, mendi tantai haren ganean bildu ginan Arabako, Gipuzkoako, Naparrako eta Bizkaiko abertzale asko eta asko, eta abestu genduan gogo-gogotik:

Mikel, Mikel, Mikel geurea
Zaindu, zaindu abertzalea.

Caur, deun Mikel egun honetan, horixe bera dirautsogu geure zaindari on honeri. Berak daki guk maite dogula Jaunak berak emon deuskun Aberria, gura dogula eta ahaleginetan gabiltzala hil ez dai-

⁴⁵ [Debozinoa].

ten geure Aberri hau, eta berau izan daitela Jaunarentzat. deun Mikel daki gure gurari edo nahia dala, aberri-maitasuna bide dala euskotarra eroatea Jauna maite izatera.

Ez deusagu, ba, bere laguntasuna eskatzen gauza txarrerako, onerako baino, eta ondo dakigu ez deuskula ezetz egingo, badakigu eukiko dogula deun Mikelen indarra, orain arte lez.

Orain urte bi guztiok Aralarren bildurik eskatu geuntsana *Mikel geureari* ez deusku huts egin. Ordutik hona gure Alderdi hau izugarriro indartsutu da, izugarriro zabaldu da Euskadiko bazter guztietan; ezagun da, bai, Goitiko indarra dabilala gugaz, Goitiko indar hori barik ezin leike ezetara sinistu, ba, gure Alderdi honek egin dauen aurrerea, munduko indar guztiak geure kaltez amurru bizian daukaguzala.

Esker ona erakutsi behar deusagu deun Mikeli, geure zaindariari. Honetarako, asmo bat gaur agertu gura dogu, ia Alderdi jeltzaleak ontzat hartzen dauen, ia abertzaleak zer ereizten deuten.

Asmoa da, orain urte bikoia lez, *joakunde* bat egitea Aralar mendira deun Mikeli, hantxe bertan berari geure eskerra egiteko.

Jarten dogun *joakunde*a egin leike datorren udabarri edo udan, jaiegun bi erreskan datoza baten.

Bide batez, gure anai napartar sutsuak, orain urte bi baino ehun bidar gehituagoturik aurkituko geunkez, Euskadiko alde eder hartan, ba, guztiok dakizuen lez, abertzaletasuna zabaltzen doa otadui baten udagoieneko haize erre bategaz sua zabaldu ohi dan lez.

Gauza ederra izango litzateke *joakunde* hori Aralarrera. Ez deritoxozue?

Horra asmoa agertuta, abertzaleak, Deun Mikelen zainpean zagozenok.

Ondo hartzen badozue berau, erakutsi egizue, poztu eta adoretu egizue Alderdiko nagusiak egipidean jarri dagien asmo hau, ganera datorrigun negua behin igaro daitenean.

Edozein be, nahiz goazala nahiz ez, izan dagiogun bana-bana ko eraskuna Deun Mikel handiari. Gabiltzan bide zuzenetik eta bere laguntasunak ez deusku hutsik egingo.

Aurrera geure bidean. Deun Mikel lagun dogula ez gara gu inoren bildur.

Betoz, betoz nahi badabe, ludi honetan gure Alderdia hil nahirik ahaleginik handienetan dabiltzanak; betoz horreek, ezker-ezkerretik hasi eta eskuma-eskumarainoko guzti horreek, gorrotoa deuskuenak geure Jaungoikoa eta geure Aberri bakarra autortzen dogulako eta beste Aberririk ezagutu nahi ez dogulako; betoz eta lurra jota geldituko dira, deun Mikelek zainduko gaituelako; zainduko gaitu, egon eskier, gauza ona dalako Jaungoikoa eta Aberria maitatzea, *Jel* maitatzea.

Mikel, Mikel, Mikel geurea
Zaindu, zaindu abertzalea.

1913-IX-29

GOGORATU!

Hirurogeta hamalau urte dira gaur, Bidasoz honantzako euskotarrak euren buru izatea galdu ebela.

Ordura arte, Gernikan bizkaitarrak, eta euren aldeetan geure anai maite gipuzkoar, arabar eta napartarrak, eurak euretara batuta, eurak egiten ebezan eurentzako lagiak, eta eurak euren artean izendatzen ebezan lagi hareekaz herria erabili behar ebenak.

Horixe da Forua, horixe da Lagi Zaharra. Lagiak egin ahal izatea, eta lagi honeekaz herria erabili ahal izatea.

Ahal izate hau, geure buru izate hau, zer zala-ta galdu genduan?

Guda⁴⁶ odoltsu luze kaltegarri bat izan zan hemen; euskotarrak alkarren gorrotoz bata bestearen kaltez ibili ziran; ez euren arteko gauzeagaitik, ez, erbestean zein errege eta zeintzuk lagi izango ziranagaitik baino.

Guda madarikatu hartan, ahulduta, indarge, adore barik gelditu zan gure Euskadi aberria; eta halan gelditu zanean, erbesteak kendu eutsan beronen buru ahal izatea, ezarri eutsan lagi barria, 1839garren urteko urrilaren 25garren eguneko lagia, eta ordutik gehiago, gure aberria ez da izan bere buru, harrezkero inok egin deusoz lagi guztiak eta inok agindu dau bertan.

Eta zergaitik sartu ziran euskotarrak guda hartan?

Sartu ziran, ia aspaldi baten ahaztuta egozalako euren buruez, euskotarrak ezagutzen ez ebalako bere aberri bakar eta benetakoa,

⁴⁶ [Gerra].

euskotarrak uste ebalako ez zala euskotarra, erbestea zala uste eban, eta hawaitik nahastuten zan erbestekoen atzera-aurreretan; ez eukon bere gogoa hemen bere aberrian, bere gogoa han beste aldean ebilen, eta hango gauzak, hango arazoak estutu, sutu eta igituten eben, eta behar ez eban nahasteetan sartu erazo⁴⁷.

Aberria ez ezagutzeak ekarri ebazan, beraz, guda hori eta bere kalte guztiak.

Aberria ezagutu eta autortu daigun ba, eta aurrerantz ez gaitetzan sartu inoren arazoetan, bat egin daigun guztiok eta geure gauzak begiratu eta zaindu, eta hau eginaz geure aberria sendotu, eta sendotuz imini bere buru izateko bidean.

Gaur lako egunetan, ez daigun negarrik atara, ez gaitetzan ibili tamalkeriak egiten; gaur lako egunetan hasarratu gaitetzan barru barruraino, gogoratu daigun euskotarrak garala, gogoratu daigun geure aberria Euskadi dala, gogoratu daigun euren buru beti izan ziran gizonen odolekoak garala eta geu ez garala geure buru.

Hauxe gogoratu daigun ondo eta...
Besterik ez dogu behar.

1913-X-25

⁴⁷ E. j. sartuarazo.

EGIN, EZ EGON

Gudurako⁴⁸ semea daroatsuela, batek badaki nora, eta hor zagoz negarra dariola zeresanik askogaz.

Geroago eta kontribuzino gehiago jatortzula eta gogait eginda zabiltzala, hor zagoz hasarre baten.

Otoki⁴⁹ bat, enplio bat, gura izan dozula eskuratu zeure alde honetan, zeure aberri honetan, eta urrundik etorritiko motz bateri emon deusiela zu ahobete haginegaz itxirik, eta hor zagoz didar baten.

Euskalduna zarala, hemen beti-beti egin dan eta bertakoa dan euskerea bakarrik dakizula eta erderaz ondo ez dakizula, idaztola edo ofizina batera joateko ez zarala gauza zeure arazo bat zuzenduteko, erdeldunak, eta batek badaki nondarrak, aurkituten dozuzalako, hor zagoz hau eta hori eta bestea esaten.

Geure herrirako ondo datorren erabagi bat hartzeko ez dogula eskubiderik, gaur guretzako guztiak han erdalerrian hartzen dabezalako, erdalerria geure ugazaba dalako, hor zagoz gogoratzen Euskal Herriko *fueroak*, euskaldun *Lagi Zaharra*.

Ekandu lohi eta deungak, *chulokeria* eta *nasaikeria* eta esakun zantarra eurrez sartu eta zabalduen dirala gure Euskal Herrian erbesteko haizeagaz batera, eta zeure alabatxu garbia, habiatik urtendako usotxua lakoa, etxetik inora bidaltzen bildur zaralako, hor zagoz purrustada baten.

⁴⁸ [Gerrarako].

⁴⁹ Otoki: ogitoki, beharleku.

Hemen ia erdalkeriak zapaldu dauela euskotasuna, eta gure Euskal Herri honek ez daukala bere antzik be eta, hor zagoz tamalka.

Gatx⁵⁰ kaltegarri guzti honeek zeure ganean ikusita bazagoz negarka, hasarreka, didarka, esaka, purrustadaka baina... egon... egon bakarrik.

Egotetik urten eta *egitera* sartu behar da.

Begiratu eta gogoan hartu lehenengo ia gatx guzti honeek zetatik datoza.

Honetan ez dago buruhauste handirik. Ondo dakizu zeuk, eta beti esaten dozu, gatx horren zuztarra eta iturria dala euskotarrak erbesteko partiduetan sartu eta alkarren kaltez ibiltetik, batu-batu eginda egon beharrean euren herria begiratu eta zaindurik.

Erbesteko partidu horretan bazabiltz eta eurai laguntzen badeutezu hauteskondeetan, horixe izango da lehengoan *egotea*, horixe izango da gatx horren zuzenbiderik ez hartzea. Orain arte lez gatxok zabalduaz joango dira, eta hilgo dabe guztiz gure aberri hau.

Zer egin? Erbesteko gauzak erbestekoentzat itxita, guk euskotarrak bat egin, alkartu, eta ahalegindu gatx horreek atzeratuten.

Hori egiten hasita gagoz. Alderdi abertzalea horretarakoxe da, euskotarrak batzeko, eta batuaz, erdelkeria kentzeko hemen, eta erdelkeriaz batera berak ekarririko gatxak.

Ez *egon* ba negarka eta didarka.

Lagundu zeure anaiei zeure buruari lagundurik. Ez autarkirik emon erbestekoei edo erbestekoen aldekoiei. Autarki edo *voto*-a aber-tzaleei.

1913-XI-8

⁵⁰ *J. t. gaitz.*

ARAZO TXARRA

Harainegun aurretik hasita ikusi, eta beharba, irakurri izango dozuez izparringietan izpar luzeak, azaldurik Madrilen dabilen nahastea Espainiako nagusien artean.

Orain arteko nagusi edo *ministro*-buru izan danak, itxi egin deutso bere lekuari, lagunen artean arerioak agertu jakozalako, eta guztiak ondo alkar hartu barik ezin litekelako aurrera jarraitu.

Honeek, orain arte agintzen egon diranak, liberal izena daroe.

Euren orde ez erregek deitu dauz piper-poteak. Honeen buru edo aurrendari Maura dala badakizue; eta beronek ez dau hartu gura izan ministro-buru izaterik, ez dakigu zegaitik.

Bere orde ez emon deutso erregek buru izate hori Dato izena dauen beste bateri, Mauraren laguna berau; eta honexek atondu dau gobernu barria.

Errepublikano eta sozialistak hasarre baten gelditu dira liberalak gobernutik urten diralako eta piper-poteak sartu diralako agintzen.

Liberalak be, jakina, ez dira adiskide gelditu.

Eta ganera, piper-poteen artean be guztiak ez dagoz pozik. Dinoo batzuk, izan ezkeru Maura partiduko nagusia berari jagokola *ministro*-buru izatea be; eta beste batzuk osteru, Dato gorriskatxua dala, eta gorritutera baino zurizkatzera jo behar dala.

Katalanak be hasarre dira, eurak hainbeste gura daben Batzake-ta lagia⁵¹ dingiliz gelditu jakelako, oraintxe ia esku-eskuan euki

⁵¹ [Mankomun lagia].

dabenean, liberalen gobernua gertu egon da ba lagi hori aurrera atarateko eta.

Politikoen artean hasarrea dabil.

Badauka erregek buruko mina, eta ez txikia gero.

Batari emoten dadeutso agindua, beste guztiak hasarre, eta zer egin? norbaiti emon behar, nahitaez.

Arazo txarra, oso txarra, dauka Espainiak bere politikoen txikitasun eta alkar ikusi ezinakaz.

Gobernuak aspaldi baten geroago makalagoak dira; ezkertarrai aurre egiteko adorerik ez dauke; itxuraz igarri egiten dabe gogorrean ibiltea txarragoa dala, eta geuk be horixe uste dogu.

Gogor egin ezik, barriz, besteok, ezkertarrok indarra hartuaz doaz, eta indarraz batera ausardia orain zutunik dagoan guztia itzuli eta hankaz gora botateko.

Beraz, gogor egin ezker txarto eta egin ezik txartoago.

Horra, Espainiaren etorkizuna.

Arazo txarra, txarra gero.

Gu ez gaitezcan estutu. Gagozan baino txarrago ez gara egongo. Bardin deusku guri batzuk nahiz besteak.

Inok esango dau gure irakurleen artean hori ez dala egia, politiko espainiarren artean be badirala batzuk, besteak baino hobeak diranak; eurretari batzuk, erlijinoaren adiskideagoak dirala besteak baino.

Eta guk erantzungo deusagu:

Hori, harako, egia izan leike. Honako, gu abertzaleentzako inok ez dauka on izaterik ez erlijinorik; ikusita eta berrikusita daukagu hori beti.

Han, on-ospea eta erlijino-ospea daukenak, guri edozein okerkeria egiten deuskue, gorroto bizia deuskue, areriorik zitalenak doguz.

Haugaitik be, ez gara estutzen hango arazo txarra ikusirik, han estu aurkitzen diranak geure arerio txarrenak dirala.

Geu estu-estuan beti garabilezanak estu ikusi, eta arduratan jarriko al gara?

Hor konpon bakotxa, bere aldia jatorkonean.

1913-X-28

GORA JEL!

Bilbao honetan bizi garanok ez dakizue zelako poza daukagun. Ez da gitxiagorako. Zortzi ipini atarateko, eta zortzirak atara.

Eta ez hor atzazkalak urratuta lez, bai helduko ez helduko. Zortzirak atara doguz aurrera⁵² handiaz, erakusten dogula hau geurea dala.

Atzo abertzaleak hemen zintzo jokatu eben. Goizean goizetik kalera jo, eta ernai-ernai jarri ziran ahalegina egiteko.

Ederto lan egin eben, suz beterik Jelen alde, eta Jaunak lagundu deusku.

Jaungoikoa geugaz dago. Ez daigun itxi bere biderik, eta beti lagunduko deusku orain arte lez.

Gaur geure poz handi honetan sartu, eta barrero lanera, beti ekitera geure arazoari. Ez gagizala loak hartu.

Bilbaon lez Donostian eta Bizkaiko herri asko eta askotan irabazi dabe jeltzaleak, eta Iruña eta Gasteizen, hondino barriak dirala, hondino atzokoak dirala, irabazi ez arren, hasi dira mailak igoten gorantza, eta gaurtik urte gitxira, Euskadi geurea izango da, egunoroko lan eta ekinari ixten ez badeutsagu.

Ai erbestezaleak eta erbestekoak! hau joan dok zuentzako.

Jaungoikoa eta Lagi Zaharrarenak gara, eta eurenak garala hilgo. gara geure ekinean.

1913-XI-10

⁵² Aurrera: alde.

CENTRO VASCON BART

Urtean-urtean egiten dan lez, hemengo *Centro Vascon* bart ospatu zan batzarra geure irakasle Aranaren goralbenez.

Bik hitz egin eben, lehenengoak euskeraz, eta honen hurrengo Giad-ar Topil-ek, berak daukan erraztasun eta suaz.

Euskeraz hitz egin ebanari eskatu deutsalagu bere hitzegikizuna⁵³, eta hemen argitaltzen dogu euskerazko alde honetan. Hara:

“Anaiak:

Hamar urte dira gure irakasle maitea hil jakula.

Beren gomutaz bildu gara gaur Bilbaon gagozan euskotar abertzaleok.

Goizean eleizan bildu gara, guztiok batera Jaunari otoi egiteko irakasle maitearen alde; bera Kristotarra zan ba, zintzoa izan be, inon eta inor zintzorik bada; eta geu be Kristotarrak gara, izan gaitzanik ez dabe gura baina.

Geure Aberria, eta Aberri bakarra, Euskadi dala dinogulako, eta hori dinogu halantxe dalako, egia dalako, besterik esango bagendu guzurra esan behar geunkeala, ahaleginetan dabiltzala esan lei geuri gogait eragin eta urten erazoteko Kristo geure Jaunaren artaldetik.

Alperrik; beti guk autortuko dogu Kristo geure Jauna, eta beronek galazoten deuskun lez guzurrik esatea eta agintzen deuskun lez egia esateko, beti autortuko dogu geure Aberria, geure Euskadi maite eder eta gaixoa; eta haugaitik inoz zarratuko baleuskuez txadone-

⁵³ Hitzegikizun: hitzaldi.

tako ateak eta kalean itxiko baginduez, gaurko abertzale handi bategaz esango deusuet "hantxe, kalean, belaunikatuko gintzakezala, eta handixek gur egingo geunskiola geure Jaungoikoari, goietan eta behetan izan diran eta diran eta izango diran gauza guzti-guztien egile eta jabeari, guztiz handia, guztiz ahalsua, guztiz jakintsua, guztiz zuzena, guztiz ona, guztiz errukitsua dan Jaun maiteari". Eurakandik aldendu gaikiez horretan dabiltzanak, Jaungoikoagandik ez!!

Orain, gabez, hemen bildu gara, gure batzokirik zaharrenean, hementxe alkarregaz hitz egin eta geure irakasle maitea gogora ekarririk, adorea eta indarra hartu daiguzan aurrerantzean gogor ekiteko berak, aurrenengo jarririk, erakutsi euskun bide latz aldapatsuan.

Bide latza da benetan guk darabilguna. Alde guztietatik dabiltz geure kaltez, ezker-ezkerretik hasi eta eskuma-eskumarainokoak. Bape ardura barik edozer esaten dabe gure kaltez; ezjakinak, atzertuak, basatiak, zoroak, gaiztoak, orain arte ludian agertu diran gizonnik okerrenak garala. Esatea bakarrik balitz hutsa litzateke; baina inondik kendu ahal badeuskue geure irabaztea, bizi izateko behar dogun geure eguneroko ogia, itxiko deuskuenik ez uste; guzur bat asmauta espetxean sartu ahal bagaitue, ez uste asko geldituko garanik; erea eskura bajatorke, guri narrua zulatu eta bertan hilotzik ixteko, ez uste bizirik iraungo dogunik.

Gorrotorik biziena, amurruena, ikaragarriena erakusten deuskue; eta gauza mingarria, gizon guztientzako maitetasuna baino besterik euki behar ez leukienak, pozez beterik ikusten doguz gutariko- ren bati ogia kentzen deusienean, espetxera daroenean, hilda edo zaurituta jausten danean.

Honeetariko gauzak ikusita, bai eta euskotar askoren epeltasuna ikusita aberri arazoetan, ez jatzue inoz hotzitu bihotza, ilundu gogoa? Ez jatzue sortu berez esakun hauxe: *Ezin joagu?*

Gogoaren jausialdi honeek berez-berezkoak dira nekean dabillanarentzako, aldapan gora harrizta eta sasitzan zehar doanarentzako.

Honelako jausialdietan gure gogoa jasoteko hor daukagu geure irakasle on eta zintzo, Arana Goiritar Sabin azkarra. Gogoratuta bakarrik bera zelakoa izan zan, zein gogor eta zein adoretu lan egin

eban eta ekin eutsan bide zuzenari arnasa barik jausi arte, gure gogoa argitzen da, gure bihotza berotzen da, eta jarten gara barriro bizkor-bizkor geure lanari ekiteko, ardurarik ez deuskula arerio guztiakaitik. Dabiltzala, dabiltzala, gugaitik txarto esaten; dabiltzala bide bila guri ogia nondik kenduko; dabiltzala guzur bila gu espetxeko ilunpean sartzeko; dabiltzala mutil buru gitxidun bila guri heriotzea ekar-teko; dabiltzala, dabiltzala.

Guk geure begiradea ipinirik Jaungoikoa eta Lagi Zaharrear, geure irakasle eta anai nagusi Sabin maitea harturik eredutzat, bagoz aurrerantz, jazo daitena jazo daitela.

Arana Goirik, bizi zala, erakutsi euskun Aberri-bidea eta Aberri-bideaz Jaungoiko-bidea, bera bide honetan aurren jarri zala; berak hortik hurratu eban lehenengoz. Hil zan, galdu genduan; hilda be, berak garoaz aurrerantz bide horretatik, bere gomuteak adoretu eta bizkortzen gaitu eta.

Ez daigun ahaztu behin be, eta holan helduko gara berak gura eban eta guk gura dogun lekuraino: Gure Aberri bakar Euskadi bere buru eta jabe egiteraino.

Aintza irakasleari! Gora Sabin! Gora Jel!"

1913-XI-27

JAUNGOIKOA GEUGAZ DABIL

Behintzat halan dirudi.

Edo irakurri.

Otxandion, azkenengo hauteskunde aurretik zotz egin zan (suertera bota zan) zeintzuk *kontzekal* urten behar ziran.

Bederatzi ziran guztiak; bost urten behar ziran, eta lau geratu.

Bederatzi horreetatik bost jeltzaleak ziran, eta beste laurak jaimetarrak.

Alkatea jeltzalea zan.

Zotz egin zan ba, eta ontzitik urten ziran izenak izan ziran lau jaimetar eta alkatearenak. Aurrerantzako geratzen ziran ba lau *kontzekal* jeltzaleak.

Jaimetarrak, hau ikusirik, zotz egitorduan ez eben esan ezer, baina *gubernadoreagana* jo eben eske zotz egite ha ezereztzat botateko; honek ontzat emon eban zotz egitea, baina jaimetarrak, hiruzaku edo *tranpea* egin jakela-ta, jo eben *Komisino Probintzialera*, eta honek, jakina! (han zetarako dagoz ba Zuazulatzu eta Bengoa!) ezereztzat bota eban, eta agindu eban barrero zotz egitea.

Honetan, hauteskundeak heldu ziran, eta eurretan, igarririk jaimetarrak galdu behar ebela, autarkuntzi edo *urna* apurtu eben, eta goitik agindu eben barrero hauteskundea egiteko datorren igandean, urtarrilaren 4an.

Harainegun, igandean, zotz egin behar zan jakiteko zeintzuk bost *kontzekal* urten behar ziran Udaletxetik. Hau zan zotz egite barria.

Udaletxera heldu ziran ba jaimetarrak ugari, eta zuhur, hiruzakurik egiten ez ixteko asmoaz. Begira egozanetarik, guztiak ziran euren darrak, jeltzale bi izan ezik.

Kontzekal jeltzaleak esan eutsien jaimetarrai eurak egiteko zotz egite guztia zeresanik izan ez dagien.

Eta jaimetarrak atondu ebezan bederatziz ingi-txatal bederatziz *kontzekalen* izenakaz; eurak biribildu ebezan eta eurak sartu *bolatxuetan*; *bolatxuak* eurak sartu ontzian; eta azkenez, euren arteko mutiltxu batek atara ebazan bata bestearen ondoren bost *bolatxu*.

Eta gauza ikaragarria!

Bost bolatxu horreetan urten ziran izenak izan ziran lau *kontzekal* jaimetarrenak eta alkatearenak.

Egin-eginean honeexek dira lehenagoko zotz egikundean urten ziranak.

Lehenagokoan *hiruzaku* izan zala, eta oraingoan zer dinozue ba? Zeuek guztia egin dozue, jeltzaleak ez dabe eskuirik ipini zotz egite horretan.

Jaungoikoak adierazoten deusuela esan leike jazopen horregaz ez zoazela bide onetik. Kokote gogordunak zarie, eta hau gorabehera lehengo bideetan jarraituko dozue. Ekin ba, akuiluari ostikadaka.

Zotz egite honen ondorena ikusi ebenean, isil-isilik eta gogo barik lez gelditu ei ziran jaimetarrok, ezer esateko adore barik, zer esan behar eben ba?

Zeubek igarriko deusazue inoz.

Datorren igandean hautetsi behar ziran bost *kontzekal*, zotzean urten ziran bosten orde.

Adore barik hauteskundera joateko, jaimetarrak etorri eta adierazo eutsien jeltzaleei alkar hartu behar ebela bitzuek, eta *kontzekalak* izentau 29garren Atalgitik⁵⁴, hauteskunderako zarraparretan sartu barik.

⁵⁴ [Por el artículo 29].

Jeltzaleak erantzun eben baietz, adinon izan ezker⁵⁵; eta hone-
tara erabagi eben izendatzea hiru jeltzale eta jaimetar bi; eta hauxe
egin eben.

Beraz, etzitik aurrera Otxandioko Udal edo Aiuntamentua egin-
go dabe zazpi jeltzalek eta jaimetar bik.

Guretarrak bide artezetik urtetan ez badira, hil da betiko jaimet-
tasuna Otxandion.

Otxandioko zelaian bizkaitarrak apurtu ebezan behinola atzerri-
tik Bizkaiari buztarria ipinteko etorri ziranak, eta ederrak emonda
bidaldu ebezan hara bestalderantz.

Gaur be, Otxandion, bizkaitarrak itxi dabe lurra jota jaimetasun
atzerritarrori, Euskadiri hondamendia ekarri deutsan okerbideori.

Gora Otxandio!

Gora otxandioar jeltzaleak!

1913-XII-30

⁵⁵ [*Adinon* proporzinoan].

GUK BE HITZ

Orain egunekorik egunekoena hauteskundeak⁵⁶ dira.

Notin guztiak ez darabile besterik mihinean horixe baino.

Oraingoak lako hauteskundeen zale-zaleak ez gara geu. Badakizue hauteskunde honeek dirala Espainiako Lakin-Batzarrera⁵⁷ norizuk bidalduko diran izendatzeko. Guk, euskaldun abertzaleok, hondino han zeregin gitxi; han egin daiken lanak baino hemen egin daikenak onura gehiago ekarriko deutso gure aberri lurra jota dagoan honeri. Honeotariko hauteskundeetan erabilten diran indarrak eta ahaleginak eta ogasunak erabiliko balitzaz abertzaletasuna sartzen euskotarren bihotz eta buruetan, aurrerakada handiak egingo leukez gure aberri honek bere gaizkakunde-bidean.

Baina gauzak hartu behar eurak diran lez eta ez geuk gura geunkean lez; beraz, hitz dagigun guk be hauteskundeez.

Gure Alderdi Jeltzaleak hementxe Bilbaon bakarrik ipini dau eukatagei edo diputadugei abertzalea, Bikuña eta Epalzatar Erramun gazte argia. Honen aurrezka⁵⁸ dago abertzale ez dan euskotar bat, espainiar erkaltzaleen⁵⁹ adiskidea. Espainiar erkaltzaleak ezagunak

⁵⁶ [*Hauteskunde* oraingo ikasita daukazue guztiok edo bestela buruori... ez dakit.]

⁵⁷ [Lakin-Batzar: lagigin-batzar, lagiak egiten dabezenen batzarra.]

⁵⁸ [*Aurrezka* da kontra.]

⁵⁹ [Erkaltzale: herri-ahal-zale, herriak ahala edo nagusitasuna edo aginbidea eukitea gura dabenak, espaineraz *errepublikano*.]

dira Jaungoikoaren aurkariak⁶⁰ diralako; ez dauke besterik gogoan eleizak erre, abadeak hil, lekaideak zuzitu... horren erkaltzaletasuna horixe bakarrik da.

Beraz, aurrez-aurre dagoz bi; bata Doibatzaren⁶¹ aldezkaria, bestea Doibatzaren aurkaria. Hemen Billbaon kistar katoliko asko dira, esaten denez, hemengorik gehienak dira; euren autarkia⁶² gure lagumentzako izan behar leuke. Ez da halan? Bai arean. Hori egingo ete dabe? Hori bihar ikusiko dogu.

Beste auterkietan⁶³ ez da ipini eukatagei abertzalerik, eta Alderdi Jeltzaleak leku batzuetan agindu deutse beretarrai geure antzekoenai autarkia emoteko, baina beti katoliko diranai; horixe jazoten da Markinan eta Durangon.

Markinan arazo hau erabagita dago, gure alderdiak urgazten⁶⁴ dauena bakarrik gelditu da ba-ta, bere aurrezka egoanak alde egin dauelako auskatik⁶⁵.

Durangon hondino ikusteko dago. Jaimetarrak badabilz bizkor, baina entzuten denez, urrian galduko dabe. Gugaz hasarre ei dira mutilok Amezolari autarkiak emoten deusguzalako. Horregaitik hasarratu ostera? Inoz uste izan ete dabe ba abertzaleak eurai autarkirik emon leioenik, guri eurak deuskuen gorrotoaz? Ahal balebe berehala botako gindukiez betiko sutara eta, eurai autarkiak emon?

Haspenan⁶⁶ esan dogun lez ez jakuz atsegin hauteskunde honek, baina eurretan sartu behar izan ezkerro, zuzen eta gogotik ekin behar da, Alderdiko Nagusien esana bete-betean eginik.

Ia ba, abertzaleak, beti lez bihar be egin dana, eta Jaungoikoak urgaziko gaitu orain arte lez.

1914-III-7

⁶⁰ [Kontrarioak].

⁶¹ [Doibatz da kistar katoliko guztien batza, Eleiza.]

⁶² [Autarkia da *votoa*.]

⁶³ [Auterkia da... hara: Bizkaian dira sei *auterki* hauteskunde honetarako: Bilbao, Barakaldo, Balmaseda, Gernika, Durango eta Markina.]

⁶⁴ [Urgazi: zetan edo hatan norbaiti lagundu.]

⁶⁵ Auska: borroka, lehia.

⁶⁶ [Haspen: hasiera.]

ATZO, JAIMETARRAK ETA GU PARRA

Bilbaon galdu genduan hauteskundera.

Ez da ardura.

Edo, ardura bada, min egiten dau; baina esan gura doguna da atzoko galtzea gorabehera, gu aurrera goazala geure Aberri maite-maite honen alde, harainegun geunkan lako su eta garraz; atzoko galtzeak ez deuskula ikararik txikienik eragin geure abertzaletasunean; berau geure abertzaletasun hau gelditzen da, harri sendo gogorra ur bolada bat bere ganetik igarota gelditzen dan lez, lehen baizen zutik.

Gero be Bilbaon hauteskundera galtzea ez da inor ikaratzeko.

Bikuñatar Erramun abertzaleak euki dauzan autarkiak, geutarrenak bakarrik izan dira, abertzaleenak; beste lagunik ez dau izan.

Etxebarrieta, eleiza-erretzaile eta abade- eta fraile⁶⁷-hiltzaileen eta Josu-Kristo geure Jauna birautzen daben guztien aurkeztaria dan horrek, izan ditu hemen bizi diran motz guztien autarkiak, bertakoak izan eta katolikoak ez diran guztien autarkiak, eta hau ondo hartu gogoan, irakurleak, bertakoak izan eta katolikoak dira, eleizan beti sartuta dagozan asko eta askoren, gehienen autarkiak be izan ditu bere alde Etxebarrietak; hondino gehiago, egunean-egunean euren eskuetan ogia Jaunduten daben abade askok emon eben autarkia Etxebarrietarentzat.

⁶⁷ E. j. fraile.

Guztiak euki doguz geure aurrezka. Guztiak batera gu baino gehiago izan dira. Autortu daigun hauxe artez-arte eta apal: hondino ez gara guztiak bat eginda azpiratzeko.

Bagoaz baina bide horretan, eta Jauna lagun, helduko da eguna guztiak bat eginda be azpian sartuko doguzana.

Gora Euskadi! didar eginik jarrai gaitazan geure betiko lanean, euskotarra euskotu eta euskalduntzen, euskotarrari bere Aberria erakusten, ezagutu eta maite dagian.

Durangon jaimetarrak galdu dabe hauteskundera, hainbat diru eta hainbat erreketero eroan arren. Bilbaotar Estepan, urrezko pikudun txori abeslariari mozoilotuta gelditu da.

Horraino, jaimetar odol-egarridun horreek, gizon bat hil dabe Lemoan. "Kain, kain, non da zure anaia?" "Ezpataz hiltzen dauena ezpataz hilgo dabe". Jaunaren boskarren agintza: "Inor ez dok hilgo".

Arabian, Gasteiz eta Laguardian, jaimetar biak galdu dabe hauteskundera.

Gipuzkoan Tolosan euki daben ekautagei⁶⁸ bakarra, auskan edo burrukan hasi baino lehen atzeratu zan.

Eta Azpeitian euki daben euren laguna, Argueso markesak be beste hainbeste egin dau.

Beraz, jaimetarrak Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban ez dabe atarra ahal izan diputadu bat.

Eurak eta gu, parra.

Baina gu gorantz goaz, eta eurak beherantz, Jaunari eskerrak.

1914-III-9

⁶⁸ [Candidato].

ANAIK? BAI, ANAIK

—Zertan zabilta, Kirikiño?

—Hemen nabil ba zeozer idazten biharko.

—Eta zer jartzen dezu hor, Bidasoz beste aldekoak eta alde hon-takoak anaiak geradela? Kontuak atera itzazu gero, gezurtizat bota-ta zaude orain baino lehenago eta.

—Zaharrontzaleak⁶⁹! Haren esanen eta neuk dakidan baten arrantzea! Baina, aditu egizu gizona: nik dinot Bidasoz handiko eta hemendiko euskotarrak anaiak garala.

—Baina haiek frantsesak dira eta gu gera espainolak, nola izan gindezke anaiak? Patria bat al degu bitzuek?

—Egon, egon piska bat. Zuk ezagutzen dozu Iriberry murko-saltzailea, ezta?

—Asko maite detan adiskide haundia ere badet Iriberry, huraxe bai euskaldun jatorra! Eta zer degu horrekin?

—Itxoin piska bat oraindik. Zuk ezagutzen dozu noski Pardales piper-saltzailea.

—Demoninoa! Bai, ezagutzen det baina ezagutu ez banu ere ez nuen asko galduko. Ezin izaten gerra alkar ententitu ondo, eta beti ibilten da gaizki esaka eta ernegatzen, zibilizatu gabe gaudela oraindikan, eta hobeki egingo lukela Gobernuak hemendik *esterratuko* balitu erderaz ez dakiten guztiak. Huraxe bai gizon zakarra eta begira ongi ez datorrana!

⁶⁹ Zaharrontzale: Tradizionalista.

—Orain esan egistazu: Iriberry eta Pardales horreetatik, zein dezu zerorren anaitzat?

—Hori ere galdetu? Iriberry da nere anaia, euskalduna dalako jatorriz nerau bezela; Iriberry da bera eta ni naiz Irizar, hortxen ere ezagun da bere eta nere asabak anaiak zirala, mintzo bat zedukatela; eta berriz, Pardales arrano ura ez da Euskal Herrikoa, erdeldun jatorra da, ez da nere anaia.

—Horraitino, Iriberry dozu Bidasoz handikoa.

—Holaxen da! Eta nola dira nahaste horiek?

—Ez dago nahasterik. Hara: Espainia eta Frantzia sortu baino milaka eta milaka urteak lehenago herri bat egoan, Euskal Herria, orain Euskadi deitzen deusaguna; euskaldun guztiak anaiak ziran Bidasoz handik eta hemendik. Gero, ludiko edo munduko gauzak itzulika eta okerka ebiltzalako erdibitu eben Euskal Herria, zati bat Espainiapean eta beste zati bat Frantziapean; gure herria baino askozaz geroago sorturiko erdal herri gazte bi horreen azpian gagoz gaur euskaldunak; baina anaiak gara lehen lez hori gorabehera, anaitasuna ez dogu galdu.

—Oraintxen argi ikusten det. Bidasoz handiko Iriberry guztiak eta Bidasoz hemendiko Uribarri guztiak anaiak gera; baina Bidasoz handiko *monsieu Casseroles* guztiak eta Bidasoz hemendiko *señor Pardales* guztiak ez dira gure anaiak.

—Hori gizona, hori!

—Ekatzu bostekoori, eta berehala nijoa karlisten etxera; esan behar diet ez detala nahi ezer aurrerantzean *señor Pardales* horiekin, ez diralako nere kabiakoak eta gaurtik gero ibili nahi detala nereki-koekin, Iriberry eta Uribarrikin.

—Hasarratuko jatzuz eta...

—Hasarretzen badira bi lan izango dituzte ganean eta, berriz, zuk esan dezun *eta* hori aitzen det, neronek ere badakit *eta* egiten gero, makilarekin.

HAUTESKUNDEAK

Heldu da eguma.

Gaur barriketa gitxi eta egiketa asko.

Gizonak, goazan guztiok autarkia emoten, baina hainbat goizen hori.

Atzo esan genduan lez, aurrez aurre gagoz gaur hemen katolikoak eta katolikoen arerio gogorrak.

Gure diputadugeiak katolikoak dira eta alderdi katoliko batek ipini dauz.

Beraz, katoliko guztiak eurai emon behar leuskie autarkia, eta holan txirikilan atarako geunkez; baina asko gorrotoak darabilz eta...

Gure aurkarkiok⁷⁰ jabe bat dauke, dirutza ikaragarriduna, eta hauxe dala eta ez dala laguntasun handia izango dabe eurok agintarien aldetik eta diruari, erlijino bakoarena izan arren, agur gozoa egi ten deutsien aldetik.

Honexek emoten deutse *ezkertarrai* irabazteko itxaropen apur bat; honexekaitik ez balitz gutarren gurendea eskier⁷¹ litzake.

Edozelan be ikusi egingo dogu.

Geure beharkuna bete ahal dogunik ondoen eta enparadua Jaungoikoaren eskuetan itxi.

Euskaldunak! Aurrera Uzkuartzaren alde! Aurrera Aberriaren alde! Gora Jel! Gora Euskadi! eta lanera!

1915-III-14

⁷⁰ [Kontrariook].

⁷¹ [Seguru].

GEUREA GURENDEA

Atzoko burrukea ederra izan da abertzaleentzako.

Bilbao auterkian, izparringi honetan irakurriko dozuen lez, abertzaleak goitik jarri dira. Lerro honeek ikasten gagozanean dinoskue 12 autarkigaz irabazi deutsegula *ezkertarrai*, zer dinot ezkertarrak? irabazi deutsegu horreei eta horreen lagun atzo izan diran agintari, aberats, eta *katoliko* askori. Bai, izan dira gizonak atzo, goizean-goizetik Jauna hartu eta gero, autarkia Josu-Kristoren arerio agiri-agiriai emon eutsienak Josu-Kristo agirian eta banan autortzen dogun Alderdi honeri ostikadea jaurtirik. Erruki doguz!

Gernika auterkian Gandariasek hiru atara dauz eta guk bat, Alzagatar Jon. Nahikoa egin da; ez geunkan uste gehiago. Diruz idiak lez saltzen diran gizonen artean, zer gura dozue egitea? Zati bat atarata be pozik. Ondoren edo erresultado honek dino Gernika auterkian ez dagozala gizon-idiak bakarrik, badagozala gizon zintzoak be, gizon-gizonak. Zorionak eurei.

Donostian gure aberkide zintzo Urretak irabazi dau askogaz.

Gaur ez daukagu astirik gehiago luzatzeko, eta amaitzen dogu zoriona opa izanik diputadugei irabazleei eta autarkia emon dabean abertzale guztiei.

1915-III-15

MUNGIAKO GUDAKAREN GOMUTAZ

Goizean. Jagoba deunaren txadonan bildu ginan atzo abertzale mordo galanta, gizon, emakume eta ume, eta Meza entzunaz otoitz egin genduan Aberriaren alde hil diran guztiak Jaunak donokian euki dagizan, batez be Mungian jausi ziranak.

Igaz baino gehiago izan ginan, eta aurrerantz urtean baino urtean gehiago izango gara.

Gabean. Bederatzietatik laster Eusko Gaztediko areto⁷² handia abertzale gaztez beterik egoan. Igon ziran hitzegitokira lehendakari eta hitzegikariak. Lehenengo euskeraz esan eban zerbait Mungia-ko gudaketaz gure adiskide barru-barruko Bustintzak, eta *Eguneko* honetantxe ipinten dogu berak esan ebana.

Gero gure lagun Imanolek irakurri eban, ezin hobeto, Sabin handiaren antzerki *Libe* deritxona, txalo-jote izugarria entzun ebala amaieran eta ondo irabazita. Lau atal daukaz antzerki horrek, baina uste dot beste lau euki baleuz be gozaro entzun izango genduzala.

Honen hurrengo “Kendu kendu”, “Zetara hator hona” eta beste hots politikak abesau ebezan guztien artean.

Jai egokia eta ederra izan zan. Geure zorion-agurrak Eusko Gaztediko Bazkintza Artekariari.

Hona hemen gitxi gorabehera bart euskeraz esan zana Eusko Gaztedian:

⁷² [Saloi].

“MUTILAK:

Aldi baten, mila eta laureun eta hirurogetaka urteetan, beste askotan lez, bizkaitarrak alkarren hasarre ziran; aldra edo alderdietan bananduta ebiltzan, ahal ebezan kalterik handienak alkarrerik egiten, gorroto bizian. Jauntxuak egozan orduan be, batzuk jauntxu nagusiak ahal handia ebenak, besteak jauntxu txiki doilorrak, zantar hutsak, nagusien aberaski-usainera, sagua gaztaera⁷³ lez, hurreraturik, edozetarako gertu egon ohi diranak, nahizta txakurkeriarik handiena egiteko be. Bereburu ziran bizkaitarrak nahikoa zeregin eben jauntxu guztitarikoak Aberriari ekartsoezan kalte handiai aurre emoten.

Baina, gauza harrigarria! antzinatik alkarren arerio itzelak ziran bizkaitar oker guztiok adiskidetu ziran eta bapat egin bereburu ziran beste bizkaitar onakaz, jakin ebenean Bizkaiko jaun atzerritarrak hemengo lagiak hausirik Bizkaiari askatasuna kendu gura eutsala. Orduko bizkaitarrak ez ziran danak onak, okerrak asko ziran, baina hau gorabehera, Aberria maite eben, abertzaleak ziran.

Bizkaiko jauna zan aldi hartan Gaztelako errege Endika IV.a, *Givalgea* deitua, eta gizon honek, uste izanik (edo gura izanik) Bizkaia bere gauzaren bat zala, saldu edo emon eutsezan bere hango handikiai Bizkaiko uri eta lurretarik. Hau jakin ebenean bizkaitarrak, suak hartu ebazan, eta gertatzen hasi ziran gogor egiteko eta inori ez ixteko holako gauzarik egiten.

Igarri eban Gaztelako Endika IV.a *Givalgeak* bizkaitarrek ez eutsiela amen egingo, eta orduan hartu eban asmoa, gudaroste sendo bat bidaldu hona, eta gura eta ez Bizkaia ostikopean sartzea. Eta halantxe egin eban. Etorri zan hona gudaroste handia oinezko eta zaldizko gudaritan, burutzat ekazala *Conde de Haroren* anaia bi eta *Conde de Salinas*.

Bizkaitarrak bapat eginda danak, Abandañotar Kepa eta Muxikatar Jon buru ebezala, gertau eben euren gudaroste txikia baina zaila.

⁷³ E. j. gaztai.

Atzerritarrai sartzten itxi eutsien Bizkai barrura, leku egokian harrapetearren, eta euren atzerabidea, behin hausi ezkeru, luzeago eta gatxagoa izan ekioen; eta honan, Mungiako zabaletaraino ekarri ebezan atzerritarrok, eta hantxe, 1470eko jorrailaren 27an, gaurko egunez, orain 445 urte dirala, alkar jo eben gudaroste biak, bizkaitarrena eta atzerritarrena.

Gudaka edo bataila ikaragarria. Goizeko argiaz batera hasi zan, egun oso guztian iraun zan, eta iluntzea etorreanean lortu eben bizkaitar sendoak apurtzea arerioen gudarostea. Gaztelatik etorriko zaldun gudari urtenak han gelditu ziran gehienak luze, bizirik baga, Mungiako zabaletan; enparaduak espe hartu ebezan, *Conde de Haroren* anaia bata eta *Conde de Salinas* buru ziranak be bai; atzerritar gudarostea birrinduta geratu zan, bizirik urten ziranak igesi abiaurik ahal ebanak ahal eban lekutik, eta bizkaitarrak atzean erraikezala; gixik ikusi eban barriro Gaztelako lurra; hilda edo espe, gehienak hemen geratu ziran.

Bizkaia, ordura arte beti lez, aske, bereburu, inoren menpean barik geratu zan.

Egintza ederra da Mungiako gudukea, ederra da ba Aberriaren askatasuna jagotea; baina hondino ederragoa deritzot bizkaitarrak orduan egin eben batzea, alkarreganako euren hasarre, ezinikuste eta gorroto guztiak itota. Abertzaleak ziran hareek! Ez daigun behin be galdu euren gomutea. Goraldu daiguzan beti gure asaba hareek. Eredutzat hartu daiguzan, eta ahalegindu gaitzean eurak lakoak izaten.

Inok esango dau: Ai ni bizi izan banintz aldi hartan, neuk be egin izango neban ahalegina Aberriaren alde, neu be Mungiako jote hartan aurkituko nintzan, baina orain ez dago halako eretirik eta...


Ba, neuk dinotsuet eretia bai dagoala oraintxe be, gaur be Aberriaren alde gudatu beharra baidago.

Gaur, erbesteko gudarosteak ez dira sartu Mungiako zabaletaraino bakarrik, gaur gudaroste horreek sartuta daukaguz geure buru eta bihotzetan, geure gogoetan; hementxe geure barruan doguz. Erbesteko erderea, erbesteko ekanduak, erbesteko jakintzak erbestetasuna dogu gogoan, eta ez gara geure buru.

Geure gogo honetan ba, guda gogorra egin behar deusagu erbestetasun horrerri, jo eta birrindu eta atara daigun geugandik arerioa, eta geure gogoa aske itxi daigun, Mungian gure asabak atzerri-gudarostea jo eta birrindu eta atara eben lez Aberria aske itxirik.

Mungiako zabaletan euren odolaz Aberria gaizkatu ebenen jatorria dogu, euren odola diraki hemen gure zanetan. Euskaldunak! Odol honeri erantzun dagiogun, aitaren semeak garala erakutsi daigun. Gora euskotasuna! Behera erbestetasuna! Jo eta aurrera!”

1915-IV-28



1839KO URRILAK 25

Gaur betetzen dira *hirurogeta hamasei* urte Bidasoz hemendiko Euskadi laterriei kendu eutsiela ordurarte beti-beti izan eben ahala bere lagiak egiteko eta eurak euren burua lagi horren araupean erabilteko.

Egun hartatik honantz Bidasoz hemendiko euskotarren lagiak erbestean egiten dabez eta euren buru edo nagusia erbestean da. Lagiz, ordutik gehiago, beste herri baten zatia dira.

Ahal hori galtzeak oker handia ekarri eutsan gure herri honi; ba, ordurarte bere burua ezagutu barik eta bere gogoia erbestearantz begira ebala bizi zala egia izan arren, ordutik gehiago erbestetasuna lehen baino sakonago eta arinago sartuten izan jako, eta abenda-izakundea bera galtzeko zorian aurkitu da, heriotza ilun eta lotsagarritzkoaren hur-hurrean dagoala etorri gara gu ludira.

Gure Eusko Alderdi Jeltzaleak gura dauen eta eskatzen dauen gauzetarik bat da, ahal hori hil euskun lagia kendu daitela, eta bere orde argitaldu daitela beste bat, euskotarrei ezagutu eta ixten jakula geure lagiak egiteko eskubidea eta guk geure herria erabiltea geure lagiz.

Horixe ez da behingo-behingoan lortuko, horretarako ba espainiarrik gehienai jakin erazo behar deutsegu eskatzen dogunaren zuzentasuna, eta zeregin hori hondino hasteko dago, hareen artean ia danak uste dabe oker gagozala gure eskakizun horretan. Zer dinogu, espainiarrak hori uste dabela? Euskotarrak daukaguz eurrez eta eurrez hondino zuzentasun hori ezagutzen ez dabenak!

Beraz, urrin dago gaur gomutatzen dogun lagi kaltegarria kenduko dan eguna. Zer egingo dogu orduan?

Gogor lan egin lagi horren kalteak atzeratzen, lagi horrek ekarri dauen eta dakarren erbestetasunari aurrera urten eta abertzaletasuna erein eta landu alde guztietan; ele, ekandu, erti eta jakintza guztiak indartu, eta honan geure Aberri hau sendotu, heriotzatik aldendu.

Gaurkoa lako egunak gomutatzean alper-alperrik da negarka eta tamalka ibiltea, *jazoa jazo*; egin behar dana da gogoa sutu eta asmoak gogortu aurrerantzean be euskotasuna lantzen ekiteko.

Aberria bereburu izan daiten, lehenengo Aberria behar da. Biztu daigun ba berau, bere gogoa indartu daigun, eta gero berez etorriko da bereburu izate hori.

Gora Aberria! eta ekin lanean!

1915-X-25

HAUTESKUNDEAK

Datorren igandean dirala-ta, urduri eta ernai dabilz gizonak, bakotzak bere alderdiko zinegotzigeien aldez ahal dan autarkirik gehien zuzentzen.

Abertzaleak ez dabe guk esan beharrik autarkia nori emon edo autarkiak zelan bilatu, honetan ondo bizkorak dira ba gure alderdi-tarrak, orain arteko hauteskunde guztietan erakutsi izan daben lez.

Beste euskotarrak, gure alderdian ez dabilzkanak bai, beharri-za badabe jakiteko nor Udalera bidaldu euren autarkiakaz; baina honeek ez dabe gure idatzirik irakurten, eta hemen eurentzako ezer adieraztea alperreko zeregina dirudi.

Honeei, gure anai itsutuoi, hitzez edo berbaz jakin erazo behar jake, eta ez hauteskunde-aldietan bakarrik edonoz baino, Udalera bidaldu behar dirala gizon egokiak herria gorabidean jartzeko.

Hauxe esan behar deutsezue abertzaleok anai horreei erea dozue-
nean, eta bape hasarre barik, onean-onean, ezetza emongo baleutsue
be txartzat ez hartzeko eta lehen beste adiskide geratzeko gogotan.

Udal-gizonak, herriaren ogasuna⁷⁴ zaintzeaz gain, beste ardura batzuk be badaukez, diruaren sartu-urtenak baino askozaz gehiago diranak: herriaren ekandu onak eta garbiak, umeen irakaskuntza zindoa, herriaren osasuntzea, eta Euskadin geure euskotasuna zain-
tzea, euskotasun honexeri eskerrak ludiko alde guztietakoak dinoe

⁷⁴ [Hacienda].

aho batez gure Aberri hau guztizko begikoa eta maitegarria eta ederra dala, eta euskotasun horregaitik gure anaiak abegi onagaz hartzen ditue edonon.

Itandu egiezue Amerikatik, Australiatik, Filipinetatik, Europako edozein laterritatik datozen euskaldunei zetara hartu dituezan, eta danak erantzungo deutsue bardin: abegi ezin hobea egin deutsiela, maite-maiterik ikusi dituela edonon. Hori da Eusko izategaitik, euskotasunagaitik.

Horra ba, euskotasuna zaintzeaz zelan onura handia ekarten jakon hemengo semeari.

Atzoko euskal idazki bitan irakurri izango dozue Elorrioko alkate zindoak dauzan asmoak tokien-biltzea eta beste eusko arazoez; Zamudioko *Euskaltzalek* inotsena hango zinegotzietei euskal abesti ederren irakasteaz eta jolas garbiez. Gaurko idazki baten be Arakaldoko *Biver-Baltzek* dino hango alkatearen ardurea dantza garbiaz.

Holantxe, geure elari eta geure ekandu on guztiei, geure euskotasunari, bideak edegi eta zabaldu, galdu barik geroago eta biziagoa izan daiten, eta gure anaiak izango dira euskaldun oso-osoak, ekandu garbidun zindo-zindoak, beharginak, indartsuak, edonora urten beharra badabe euren Aberritik maite-maitero hartuko dituela. Ia ba zelako onurea ekarri leien eusko semeei herrietan euskotasuna indartzen ahalegindu leitezaz zinegotziak.

Ba, euskotasun horri begiratzeko ardurea dauke zinegotzi jeltzaleak, behartuta dagoz honeek hori egiteko, euren alderdiak halan aginduta. Beste alderdietako zinegotziak ez, ez dabe hori lako agintzarik euskotasunaz, honen ardureak ez darabilz.

Beraz euskotasuna gura dauenak bere autarkia emon behar deutse jeltzaleci.

Orain, jazo leike (eta jazoten da zoritxarrez behar baino sarriago) zinegotzi jeltzaleak euren beharkuna ez betetea, euskotasunaren apurrik ez izatea; baina orduan euren kaltez hitz egiteko eskubidea dogu danok, eta ekiten deutsegu jeltzaleak ezeze ez diranak be bai, eta zuzen edo txarto hitz egin ahal izatea euren kaltez, euren ospe ona galtzea zapaldu dabelako euren ikurrina, horixe da euren zigorra. Eta

zigor hauxe da zio⁷⁵ bat bide zuzenean ibilteko, maitasunak ezin dauena bildurrak sarri eragiten dau eta.

Jeltzale ez diranen kaltez, ostera, inok ez dau hitzik egiten horregaitik, ez dabe ospe onik galtzen, euskotasuna ez dalako euren zeregina.

Euskotasuna zaintzeko beti izango dau ardurea, gitxi-asko, jeltzaleak, inoz ez *legi izan* baina. Jeltzalea ez danak ez dau izango euskotasunaren ardurarik, inoz *izan legi* baina.

Batak ez *legi*, besteak *legi*. Horra zelako aldea batagandik besteagana. Euskotasuna maite dozun euskaldunori, norentzat dozu autarkia?

1915-XI-12

⁷⁵ [Motivo].

ARANA ETA GOIRITAR SABIN ZANAREN AINTZAZ

Atzo goizean. Abandoko deun Bingen eleizan iragarri zan lez, goizeko zortzi eta erdietan Jaupa eta Otoizketak ospatu ziran Sabin eta orain arte hil diran eusko abertzale guztien gogoen aldez.

Urtero lez eleizea bete-beterik aurkitu zan, Gaztediko mutilak ederto abestu ebela.

Horrenbeste lagun Sabin zanaren aldez otoi egiten ikusteak bihotza atseginez beteten dau, hortik agiri dalako abertzaleak ez dirala ahaztuten Aberriaren ezaugarria emon euskunagaz. Horrela Sabini esker ona erakustea gorallbena da Bilbao-Abandoko abertzale-entzat.

Gabean. *Centro Vasco* Batzokian ospatu zan Sabinen aintzazko batzar gomutagarria. Bik hitz egin eben, batak euskeraz, besteak erderaz.

Lehenengoa, euskalduna, geure arteko bat da; eta eskatu deusagu bere hitzegikizuna eta hementxe hurrengo damingu⁷⁶:

Euskaldunak:

Hemen gara barriro, urtean-urtean egin ohi dogun lez, alkarregaz batzartuta⁷⁷, geure anaia nagusi Sabin zanaren gomutea biztuten geure gogoetan. Honelako batzarretan alkarri esaten deusagu Sabin zelako gizona zan; gogoratzen doguz bere adimen argi-argia eta bere

⁷⁶ Damingu: iminten dogu.

⁷⁷ [Batzauta].

bihotz sutsu-sutsua, ikarutzen gaitue, ikaragarriak diralako benetan, berak idatzita itxi euskuzan irakaski ederrak, eta berak hainbeste bidar, edo hobeto esateko, beti, erakutsi eban azartasuna Aberriaren alde, ezek bildurtzen ez atzeratzen ebala, ez adiskideakaz hasarrazteak, ez bere ogasun ugaria hondatzeak, ez bere osasuna eta bakea eta ondo bizi izatea apurtzeak, ez bere askatasuna galtzeak, ezta heriotza itzel berberak be.

Harrituta gelditzen gara Sabinen handitasunari begiratuta; gero-ago eta harrituago, bera hil zan ezkeroztik berari urrik emoteko gizonik inon ikusten ez dogulako gure Aberri honetan; eta bera baino lehenagoko gizonen artean be, edestiak esku artean adiz erabili arren, ezin dogu bat idoro bere alderakorik.

Sabin ez da bakarrik handia euskotarrai Aberria dogula irakatsi euskulako, aberridunak egin ginduzalako eta Aberri ezeztu hau zelan maitetu behar dogun hitzez eta egitadaz erakutsi euskulako. Sabin ez da bakarrik abertzale nagusia, abertzale eguzkia, beragandik etorri jakula guri Aberria ezagutzea eta maitatzea. Sabin, horrez ganera, jakintsu berezkorra da; gogai edo oldozkun bere-bereak izan dauzana, inorgandik beragana igaro ez diranak; bere adimenean berez sortu jakozan oldozkun eder eta egitarren jabea zan Sabin, erderaz *jenio* hitzaz adierazo ohi dana, eta nik euskeraz zelan esan hondino ez dakidana.

Gizon jakintsu, adimen argi eta indartsudunak, ikasteko nahi handiaren jabe izanik jakidi edo *ciencia*ko adar bat edo bi edo gehiagotan goi-goirengo gailurretara heltzen diranak, askotzarik ez dira izaten, baina beti dagoz hainbat edozein alditan, eta edozein aldetan. Asko jakitera heltzen dira, eta dakiena bakotzak bere erara argitaltzen dau, bakotzak bere antzera. Lehenengo begiradan uste izan lei honectariko jakintsuak adierazoten deuskuena euren adimenetan sortua dala, eurak asmau edo aurkitu edo idoro dabela berez euren jakitasuna; baina arduraz eta hotzez ondo begiratu ezker, igarten da horraitino, horreek dakiena inogandik hartua dala, lehenagoko jakintsuakandik ikasirikoari eurak era edo taiu barri bat emon deusiel. Esan leike, jakintsu honeek, inok ekarri deuten oldozkun edo

gogaiei era berarizko bat damotsela euren lanagaz, zeinda hargin edo arotz batek, inok gertau deutsan harrian edo zulean⁷⁸ bere lanagaz eralben barriak egiten dauzan lez. Geia edo *materiala* inok damotse, eta gei honegaz eurak egin daroez lan handi, eder eta politak. Beraz, jakintsuak izan badira, baina ez asmaleak edo *jenioak*.

Nire aburu apalez gure Sabin handia bai, asmalea zan, jakintsu berezkorra. Oldozkum barriak izan ebazan, inogandik ikasi ez ebazanak, bere adimen indartsu eta bizkorrean berez sortu jakozanak. Gauzen bere ikuskerea, edozetan, berezkorra da. Argi-argiro agiri da horixe berak idatzita itxi deuskuzan gaietan. "Gure Aita" edo *Pater Noster* otoiaren azterkudean, egundo inok uste izan ez dauen eraz azaldu euskun; orain arte otoi horren azterle guztiak uste izan dabe zazpi eskakizunduna dala, eta gure Sabinok ostera dino, eta argi jarten dau, lau eskakizun baino ez dirala, eta lehenengo hirurak, eskakizuntzat hartu diranak, Jaunari deiak dirala. Azterkunde honetan agertzen da Sabin oldozkum bere-beredun gizon azkarra.

Bardin-bardin jazoten da berak idatzirik Oguzkudean⁷⁹; Euskal zenbakudean⁸⁰, Euskal itxorkuntzan, Euskal hitz barrien eralgunde; Ertitzazko⁸¹ bere lan guztietan, gomutan dogula bere adialguna⁸² Gotzonak irudikereaz. Bere lan bat ez dozue idoroko beretasuna ez daukanik; beti darakusku bide barriren bat, eta guztiok harritzen gaitu zabaltzen eta agertzen deuskuzalako inok ez inoz uste ez genduzan leku eder eta argitsuak oldozkuntzan.

Aberriazko bere oldozkuna da gehien ezagutzen dana; bera etorri arte inori be ez jakon bururatu gure artean Aberria zer dan eta zelan aurkitzen dan eta zer egin behar jakon heriotza ustel lotsagarritik aldentuteko. Arazo honetantxe Sabin heldu zan lekurik gorenera, arazo hauxe zehatz eta oso-osoa amaiturik itxi eban, bazterrik

⁷⁸ Zul: zur.

⁷⁹ [Fonética].

⁸⁰ [Numeración euskérica].

⁸¹ [de Arte].

⁸² Adialgun: azalpen.

ukutu eta aratu eta argiztau barik itxi ez ebala; hak esan eban baino gehiago ezin esan leike; agortu eban iturria. Horregaitik, bere atzetik datozen guztiak aberriaz adierazoten dabezan oldozkun guztiak Sabinenak dira; berak itxi euskun geia edo *materiala*, eta jakintsu aberkoiak gei honetzaz eraldu eta argitaldu behar dabez euren lanak.

Adimenez handi harrigarria, oldozkun edo gogai barriduna, jakintsu asmale eta berezkorra zan Sabin; bera lakoak banaka, eta inoz, agertzen dira gizonen artean. Baina ez zan hori bakarrik. Ez euskun bakarrik irakatsi guztiz argiro Aberria zer dan eta Aberriaganako zer zorra dogun; ez eban bakarrik izan adimeneko argi bizi eta bere-berea. Gehiago zan Sabin. Jakintsua, eta jakintsu asmalea izateaz ganera, gizon maitekorra zan; bere adimena baino hondino handiagoa zala uste dot bere bihotza, oso-osorik ba, ezetariko zalantza edo ezbai txikarrenik baga, berak ahal eban guztia, bere burua, eskeni eta emon eutsan Aberriari, beronen aldez hausi ebazala bere ogasunak, bere adiskidetasunak, bere osasuna, bere askatasuna, bere bakea, bere bizikerea⁸³, bere dana, azkenean ezebe-ezebe barik aurkitu zala, ahulduta eta ezereztuta heriotzaren aurrean. Ez eban izan gizon harek ez esaterik, ez idazterik, ez egiterik, ez ibilterik, Aberriarentzako ez zanik; bere gogo guztia bete eban Aberriaganako maitasunak. Arazo honetan gizon handia, zindo-zindoa, ederra, bete-beteko koa zan Arana Coiritar Sabin.

Anaiak, begiratu dagiogun ondo berari; arduraz adialdu⁸⁴ dagiogun ez bakarrik bere adimena, bere bihotza eta izakerea be bai. Eredua da guretzat. Berak beste ezin izango dogu egin, ez; baina gure ahaleginak izan behar dau bere bideak hartzea, berak egin ebanaren aldera jotea, bere antzekoak izatea. Adimenez, bera lakoak izatea ezeze gitxiagorik be geure eskuan, geure guratasunean ez dago, adimena ba ezin gehitu daikegu; ondo begiratu ezkerro, behar izanik be ez dago adimenez bera lakoak izateko, berak, lehen adierazo deusuedan lez, argi guztiak emon euskuzan Aberriaz eta. Dinot, Aberria

⁸³ E. j. biziera.

⁸⁴ Adialdu: aztertu.

zehatz ezagutzen dogula berak irakatsita, Aberriaren barri ez dakienak, gitxi, oso gitxi, izango dira gaurko euskotarren artean, ezer entzun edo ezer irakurri ez daben baserritar bazterturen bat ez bada. Behar dana da, behar doguna da, Aberri hau maite, berak maite izan eban lez; eta hauxe badagoala geure eskuan, geure ahal pean. Adimena emon jakuna; guramena geuk gura dogun beste. Guramenaren beharrez aurkitzen gara, gizonak, Aberriaz, jakin badakigu behar dogun beste; maite ez, behar dogunaren txatalik be.

Maitasuna da lehenengo; maitasun bagako jakitea ez da ezetarako. Euskotar guzti-guztiak ondo eta zehatz jakitera helduko balitzaz be euren Aberria zein dan, berau maite izango ez balebe, jakiteagaitik gorabehera bardin-bardin hilgo litzateke. Ez daukazuez hainbat euskotar, geuk lez Aberria dazabenak, eta horraitino, Aberria maite ez dabenak, Aberria jasoteko bape ahaleginik egiten ez dabenak, edo txarrago, berau hiltako ahaleginetan dabilzanak? Ez dot izenik aita-tu gura, baina zuek danok dakizue honetariko gizon baten barri, entzute handiduna bera, batez be han Ebroz harantz; eta bere antzekoak ugari hemen. Ez daukazuez atzerritarrak gure Aberriaren barri ondo dakienak eta beronen arerio amurratuak diranak, aldi bateko Canovas del Castillo izan zan lez, eta gaur bere ondorengoak diran lez? Horra ba Aberria ezagutzea ez da nahikoa, Aberria maitatzea da gutzia. Maite ez badogu ezagutu arren, hilgo jaku, geuk hilgo dogu.

Horregaitik, handiagoa da Sabin bere maitasunaz, bere adimenaz baino.

Eta zetara maiteko dogu Aberria? Nor da Aberria? Aberria geu gara, bizi garan euskotar guztiok, geure asabakandik hartu doguzan gomuta, irakaste, odol, izakera, ele, ekandu, biztoki⁸⁵ eta guztiakaz batera. Beraz, Aberria maite behar dogu, maite behar doguz geure jatorria, geure odola; maite behar doguz geure izakerea, geure elea; maite behar doguz geure ekanduak, geure biztokia asaben hazurrak daukazan eta geu jaio garana, eta bai asabakandik etorri jakuzan gomutagai eta irakasteak.

⁸⁵ Biztoki: bizitoki.

Ezer maite izaten danean, geugandu gura izaten dogu eta geugaz cuki beti; eta hauxe lortuteko ez da eragozpenik igarri ez ikusten, bete-betea ezaren ardura barik joaten da bihotza gauza maiteagana, atzeratzen ez dabela ez burlak, ez nekeak, ez buruhausteak, eta sarri ez bizia galtzeko zoriak berak. Horretantxe igarten da maitasuna.

Horixe egiten ez bada maitasunik ez dago, maitasun bizirik behintzat. Eta hementxe, anaiak, apal-apalik autortu dagigun, Aberriaganako maitasun handirik ez dogula, Sabinen antzekoak ez gara; hor daukaguz geure odola edo abendea, geure elea, geure ekan-duak, geure ertiak, geure eusko jakintzak, erdi lagata, atzerritasunaren azpian azkenak egiten dagozala. Hau da tamala! Gatx lotsagarri honek ez ete dau osabiderik? Badauka!!

Arana eta Goiritar Sabin geure anaia nagusia izandako irudi honen aurrean, zin egin dagigun zintzoro! maite izango dogula geure abendea, eta beraz, geure hartu-emon eta saldu-erosi eta enparadu arazo guztietan, euskotarra eta batez be euskalduna inor baino behinago izango dogula; geure ele garbia, euskera kutun hau, maiteko dogula, eta beraz, beti geugaz erabiliko dogula, ez bakarrik etxean, baita kalean, batzokian, dendan, edonon; maiteko doguzala geure ekanduak, eta beraz, alde egingo dogula atzerri-ekandu gaizto usainik sumatzen dan tokietatik, eta ahal badogu, toki horreek garbituko doguzala horreetariko zikinkeriaz; maiteko doguzala geure ertiak, geure asaben irakasteak, eta beraz, atzerriko gauzak baino lehenago geureak ikasten ahaleginduko gara, hau egitea eskuan dago, eta beraz, badauka osabidea gure Aberriaren gatx sakon honek!!

Zin egite hauxe da, gaur goizean eleizan bere gogoaren alde Jaunari zuzendu deusagun otoi beroaren hurrengo, geure Sabini eskini gineion gomutagairik egokiena, berari pozik gehien emongo leuskiona barrero burua jasoko baleu.

Bete dagigun ba zin egite hau, eta egon eskier, inoz, berak gura eban eta guk gura dogun lez, lortuko dogula Euskadi Aberri maitea, gogoz lehenengo eta gero lagiz, gaizkatuta ikustea. Holantxe.

BARRIKETAK

Atzo, inora ibiltzen joateko eguraldirik ez egoalako aterrune bagako eurite handi haregaz, urten gara idazkola honetatik Plaza Barriko arkupeetan hankak luzatu eta berotan sartzeko asmoz, eta ezker alderantza dagoan bazterrean aurkitzen dogu Josebandon geure adiskide baserritarra, hormara begira, geldi-geldi, ahoa zabalik eta eskuak eperdi ganean alkarri helduta daukazala. Ondo adi dago bera.

—Kaixio Pepianton aspaldikoa! Zer egiten dozu hemen horren geldurik? —dinotsogu.

—Zeu zinan? Horra ba, hortxe dagozan liburu dotore horreei begira nago, eta ezin dot igarri ondo eurek agiri dabena. Hor dakusuz euretan hori-gorri koloreak, Espainia-koloreak, eta gizon-irudiak be bai, eta honeexek nortzuk ete diran pentsetan nago. Hara, batek dauka *El Barquero*. Nor da edo nor zan hori?

—Lapur bat.

—Ene! eta liburuan ipini dabe? Hara beste hori: *Los siete niños de Ecija*. Eta honeek?

—Horreek be basalapur eta gizon-hiltzaile gaiztoak izan ziran.

—*Nino* ederrak ziran eurok liburuetan ipinteko. Eta beste hau, *Jaime el Barbudo*?

—Hori be lapur handi bat.

—Mutilak! Eta hau: *José María ó el rey de Sierra Morena*?

—Bardin, lapurtzar ikaragarri bat.

—Eta *Luis Candelas*?

—Beste lapur handi bat.

—Itxura ederra da, horreetariko *presonajeak* holako liburu dotoretan ipintea! Eta ganera Espainiako banderearen koloreakaz.

—Zer gura dozu Pepianton? Eurak ipini ditue eta hor konpon.

—Bai ba, hor konpon; niri be ez deust ardura, baina espainiarrai ardura izan behar leuskie liburu-azaletan alkartuta ipintea horreetariko lapurtzarrak eta aberriko banderea. Nik ez dakit zelan protestetan ez daben hori espainiarrak eta hemetiko espainiazale zentzundun guztiak. Hori ez dago ondo, hori Espainiarentzat ez da besterik iraina baino.

—Eta zuri zer? Zagoz isilik, Pepianton, behar ez dan gauzaren bat esan eta burukominen bat etorri ez dakizun.

—Nik esan dodanagaitik?

—Ez asko fiau. Hara, guk horreek liburuok argitara atara bagenduz dagozan moduan oingo irabazita geunkan hurrean zati baterako aterpea eta gerizpea, ezarriko euskuen ba Espainia iraindu gura izan genduala. Guk ez doguz atara, eta hor dagoz nasai, eta eurokaz dirua irabazten dabe egileak eta saltzaileak. Baina, gu hasten bagara esaten hori txarto dagoala eta ez litzatekela itxi behar eta Espainiarentzat lotsari bat dala eta abar, beharbada orduantxe be hasarre jarriko jakuz espainiarrak, hor irainik ez dagoala esanik eta geu gabiltzala iraina dalako hori agertu gurarik.

—Gizona, baina...

—Horregaitik onen-onena da, begiratu, ikusi, igarri, pentsau, eta norbere pentsamentua isilik euki, edo gehienez be, hurrengo lagunari belarrira esan ahopean. Inoren gauzetan ez sartu.

—Egia da hori, eta eskerrik asko.

—Hara, Pepianton, nire txiki-alditan atso bizi-bizi bat zan gure baserritxuan, eta inoz bere gizonagaitik edo bere semeren bategaitik edo etxeko besteren bategaitik inon diranak esaten ebazan, txakurrenak, eta gero entzuten egoanari esaten eutsan: "Horra, nik esan dodaz honeek, ia zeuk esaiezuz! sudurra ebagi eta ahora dator odola".

—Aitzen dot horregaz esan gura ebana: norberagaitik, edo norbere etxekoakaitik, edo norbere herriagaitik, batek esango dauz han-

diak, baina beste inok esan badaiz horreexek, orduantxe hasarratzen jako gogor, eta hortik dator esakerea senideak alkarregaz musturtzen diranean ez haien artean sartzeko, burukominik gura ez bada.

—Horregaitik, guk ez daigun ezer esan hori-gorri koloreko banderean dagozan *Jaime el Barbudo*, *Los siete niños de Ecija*, *El rey de Sierra Morena*, *Candelas* eta horreetariko liburuakaz. Begiratu, ikusi, igarri, pentsau, eta aurrera. Hor konpon eta hor konpon.

1915-XII-19

EUZKADI BURU BATZARRAK DINO

Bilbaon lehengo hilean izandako hauteskundeak eta euretatik sorturiko zeresanen eta jazopenen azterkunea.

Hauteskunde hareetan abertzaleak alde batetik, eta bestetik ezkertarrak jaimetarrakaz batuta, jarri ziran alkarren aurka; deun Bingen uri-atalean⁸⁶ San Pelayo deritxon zinegotzigeia be jarri zan, berau izanik Gobernuaren aldekoa, eta alkatetzakoa zana irabazten baeban; zinegotzigei honi lagunduko eutsala eskeni eban Bizkai Buru Batzarrak.

Hauteskunea egin zan, eta deun Bingen uri-atal horretan irabazi eben abertzale biak eta jaimetar bakarrak, lurra jota gelditurik San Pelayo gobernutarra.

Hau jakin ebenean Arana Goirik, Torrek eta Amezolak, Bizkai Buru Batzarrean bata lehendakari eta beste biak batzarkide ziranak, alkarregaz itunduta gero, aurkeztu ziran Arana Goiri eta Torre gobernadorearen aurrera lehenengo, eta geroago Torre Bizkaiko *jauntxuen* aurrera, eta esan eutsien gertu egozala abertzale bata zinegotzitzatik kentzeko, bere ordez San Pelayo jartzeko.

Eskeintza hau eginda gero, Bizkaiko Gobernu Zibilean hauteskondeez emoten zituezan izparrak edo datuak izparringietan argitaltzeko, ez etozan batera deun Bingen uri-ataleko mahaietan idatzitako zin-agiri edo zertifikauakaz; azkenengo honeek inoen abertzale

⁸⁶ [San Bixente distritoan.]

bik eta jaimetar bakarrak irabazi ebela, Gobernu Zibilekoak, ostera, inoen, abertzale bata ito zala eta San Pelayok irabazi ebala.

Arana Goiritar Koldobikak, EBBko lehendakaria zala-ta, agindu eutsan *Euzkadi* izparringiari, biharamonean ez argitaltzeko Gobernu Zibileko izparrak edo datuak baino hauteskundeez, eta halan egin zan.

Bizkai Buru Batzarrak Gobernadoreagaz eta Bizkaiko *jauntxuakaz*, Alderdiaren baimen eta barri barik, izan ebazan hartu-emon eta nahaste honeckaitik, hasarre bizia sortu zan abertzaleen artean, lurra jota ikusirik halan Alderdi Abertzalearen ordurarteko ospe eta izen ona.

Jazopen honectzaz jakitun jarri zanean Euzkadi Buru Batzarra, igarri eban Euskadi guztiari, Bizkaiari ez ezik, ukutzen eutsiela bihotz-bihotzean jazopen astun eta ezezagari horreek; eta Bilbaon, hil honen 5ean batzarturik, erabagi eban berari, EBBri, jagokola arazo hau aztertu, argitu eta zuzentzea. Honetara ba, ezereztu eta atzeratu eban Bizkaiko UBBen Erki Batzarra, hil honen 12rako eta goizeko 10:30etarako deituta eukena Arana Goirik, Torrek eta Amezolak BBBko lehendakari eta batzarkideak hirurak, eta euroi jakin erazo eutsen behar dan lez harturiko erabagia, eta ganera, Alderdiaren izparringian argitaldu zan hil honen 6an erabagi hau.

Hau guztiau gorabehera eta EBBren erabagiaren aurka garbi-garbian jarririk, Arana Goirik, Torre eta Amezolagaz batera, BBBren lehendakari lez, deia egin eutsen Bizkaiko UBBetako lehendakariei, baita Erki Itundariei be, hil honen 12rako, batzaldi honetarako deian jarri ziran hitz batzuk Buru Batzar Gurenarentzat beheragarriak diranak, horrelan hausirik Alderdian beti egon behar dauen begiruna eta mendutasuna.

Hilaren 12ko batzaldi hori egin zan, BBBko enparadu batzarkide biak eta UBBetako lehendakari batzuek esan eben arren batzaldi ha egitea zala Batzar Gurenaren aurka jartea eta Alderdiko mendutasuna apurtzea. Orduan EBBk Iruñean batutea asmau eban hilaren 15ean, eta bertara deitzea Arana Goiriri, Torreri eta Amezolari, bertan euren burua garbitu egien; eta bata be agertu ez zan lez, EBBk erabagi eban hiru gizon horreei deitzea barriro Donostiara hilaren

19rako, eta bitartean, Alderdian eukien aginbidea kentzen jakela behin-behinean. Eta *Euzkadi*-n argitaldu zan erabagi hau hilaren 16an, eta eurai banan jakin crazo jaken.

Aginbidetik alderatuta egon arren, Arana Goirik, hondino be EBBko lehendakaria dala-ta, batzar horretako inogaz itundu barik eta inori ezer esan barik, bere burutatik deitu dauz Euskadiko UBB guztiak Durangon datorren hilaren 2an Batzar Nagusia egiteko.

EBBren aginduz joan ziran Alderdi Landoletara hango gauzen jabetasuna hartzera Buru Batzar Gureneko idazkaria eta BBBko batzarkide bat. Arana Goirik txarto hartu zituan, adierazorik EBBkoak uste gaiztodunak dirala, eta berak haren aginduei ez deusela burua makurtzen ez makurtuko be, bera dala eta izango dala beti Alderdiaren agintaria, eta berak Alderditik jaurtingo dituala EBBkoak eta eurakaz bat diran guztiak.

Eta orain arte, Arana Goirik, Alderdiko Batzar Gurena ezezturik eta honen agindu eta erabagiak ezebetzat harturik, lehen lez darraio landoletan nagusi izaten eta Alderdiaren Artezkaritzan.

Hor agirian ipini diran jazopen guzti horreekaitik, Euzkadi Buru Batzarrak uste dau:

—Hiru gizon horreek, Arana Goiri, Torre eta Amezolak, hauteskundeetatik hona darabilen bidea, Alderdi Abertzalearentzako guztizko kaltegarria dala, beronek beti euki dauen ospe ona galtzeko zorian ipinirik, eta beraz, hemendik sortu leitekezan gatx handiagok eragoztearren, txartzat hartzen dituala hiru gizon horreen egipenak arazo honetan, autorturik horraitino, ez dauela ukatzen euroen zindotasun eta abertzaleatasuna, uste izanik guzti hau datorrela euren oker-uste eta itsutasunetik.

—Gizon horreek egin dabena, abertzale baten gurenda hausi beronen tokia Gobernuaren aldeko bati emoteko, honelan hasarrea sorturik Alderdi barruan eta beronen orain arteko garbitasuna lohiturik, gizon horreei kentzen deusela euki behar daben goitasuna Alderdiaren buru eta aurrendari izateko.

—Baita Arana Goiri oso-osoan jagi eta aurka jarri jakolako Alderdiaren Buru Gurenari, eta Torre eta Amezolak Buru honen esa-

nik egin gura izan ez dabelako be, ezin leikez izan Alderdiaren buru eta aurrendari.

—Euzkadi Buru Batzarra dala Alderdian bururik nagusiena, eta beroni jagokola epaia emotea eta ez beste inori, bere lehendakariak eta BBB batzarkide biak egindako okerretan.

—Alderditik jaurtiteko beste bajagokela hiru gizon horreei, baina ikusirik eta gogoan harturik euren uste ona baita lehenago Alderdiari eurak egin deutsiezan egipen onuragarri eta zindoak, ezartzen jaken epaia da Alderdiaren agintza-lekuetatik aldentzea.

Horregaitik, Euzkadi Buru Batzarrak, bere Itundariai⁸⁷ aurrez-tik entzunda eta eurakaz baten dagoala, erabagi dau hil honen 19an Donostian izan dauen batzaldian:

1. Arana Goiritar Koldobikari eskubidea kentzen jakola Alderdian agintza-lekurik eukiteko, eta beraz, orain daukazanak barik gelditu daitela.

2. Amezolatar Baldasarri eta Torretar Mareni itxi eragiten jaketzala orain daukezan agintza-lekuak.

1915-XII-22

⁸⁷ [Consultores].

EUSKALDUN ABERTZALEEI

Eusko Alderdi Abertzalea orain arte hegoaldeko haize gogorrak jo eta ke erabili dabe, orbela lez gora-goraketan hartu eta uxingera-
ra jaurti gurarik, bertan usteldu eta guztiz galdu daiten. Baina Alder-
dia, bere barrua zindo euki dauelako, haize horreek gorabehera bizi
ahal izan da, eta ez bizi bakarrik, baita hazi eta sendotu be. Hondi-
no gehiago, esan eitekean atatiko⁸⁸ haize arerio hareek indartu eta
kizkurto egiten ebela gure Alderdia.

Gaur, hego-haizeak geldi dagoz, edo behintzat, ez dira agiri, eta
ibiltekotan azpitik ibiliko dira guk igarri barik.

Gaur, gure Alderdi honi bere barru-barruan gatxa edo gaixoa
sortu jako, eta egundo hego-haizeak egin ezin izan dauena, gatx edo
gaixo honek egin ahal izango dau: Alderdiaren heriotzea.

Eta heriotza lotsagarria, beronen semeak alkar hartu ezinik ibi-
liagaitik emon leikiena, ez bere arerioak.

Egun larrietan aurkitzen da gure Alderdi eder hau, irakurleak,
galtzeko zorian. Aurrenengo lerroetan ikusten izan doguzan abertza-
lerik ospetsuenak ezin izan dabe alkar hartu, banandu egin dira alka-
rren aurka jarririk.

Eta guk, osteko lerroetan gabiltzanok, zer egin geinke orain?
Hara irakurle maiteok, arazo honetzaz hotz-hotzean hitz egin gura
deutsuet. Zuek be, hotz-hotzean hartu eta gogoan erabili egizue nik

⁸⁸ [Kanpotiko].

esango deutsuedana eta nik esan barik aurretik dakizuen, eta hotz-hotzean erabagia hartu, oingoan bihotza alde batera itxita adimena edo buruari bakarrik lan eraginik.

Bilbaon azkenengo hauteskundeetan gure Alderdiaren ganera lohia jausi zan. Hauxe da gauza bat inok ezetara ukatu ezin leikena. Min handia hartu eben honegaz hemengo abertzalerik gehienak, eta eurretarik zintzoenatarikoak, Bilbaoko Eusko Gaztediko mutil bizkor-bizkorak, eskatu eben Bilbaoko Alderdia batzartu eitela, eta bertan argiro jarri ia zegaitik eta zelan izan zan ha lohitzea.

Bizkai Buru Batzarrak, orduan, eskari hori txartzat hartuta, eskaria egin ebenak eta Gaztediko Bazkintza Artezkaria epaipean ipini zituan; esan gura dogu, Alderdiko Epaikari edo Tribunalera eroan zituala. Hau eginaz ganera, Bizkai Buru Batzarrak (bostetik hiru batzarkidek) Bilbaora deitu eutsen hil honen 12rako Bizkaiko Uri Buru Batzar guztien lehendakariei, euri agertzeko Bilbaon jazo zana.

Dei honen jakitun egin zan Euzkadi Buru Batzarra, baita abertzaleen artean egoan atsekabe eta hasarrearen barri be; eta usterik arazo honek ukutzen deusala Euskadi guztiko Alderdiari, ez Bizkaikoari bakarrik, erabagi eban berak, EBBak, aditu behar ebala arazotan. Honetarako Alderdiaren Eralguntzak⁸⁹ eskubidea emoten deus. Hori egiteko ahal izana euki dau ba; ez da urten legetik, ez da izan bere burukeria bat.

Ba, Euzkadi Buru Batzarrari jagi jakoz eta bere aurka bete-betean jarri, bere esanik egin gura ez eta, bere aginduak ezebetzat harturik, Bizkai Buru Batzarreko hiru gizon, bata lehendakaria eta beste biak batzarkideak.

Hauxe da jazo dana. Berau ondo oldoztu edo pentsau daigun.

Alderdiaren Eralguntza abertzaleak egina da. Alderdiko nagusiak edo agintariak abertzaleak hautuak dira. Beraz, abertzaleak behartuta⁹⁰ dagoz Eralguntzea ez hausteko, nagusiak edo agintariak

⁸⁹ [Organizazinoak].

⁹⁰ [Obligauta].

agintzen dabena betetako; hauxe egin ezik, alperrik dira Eralguntzak, alperrik nagusiak edo agintariak; ezin leike Alderdirik izan holan. Bide horretatik geuk abertzaleok hondatuko geunke geuk egindako Alderdia. Erokeria handiagorik ez dago.

Eta Eralguntzeari eutsiten eta nagusiei esana egiten behartuta dagoz abertzale guzti-guztiak, ez gu txikiok bakarrik, baita handiak be, ospetsuak diranak be; honeek hondino behartasun gehiago dabe honetan, guri ikasbidea emoteko baino ez bada be.

Euzkadi Buru Batzarra da gure Alderdian bururik nagusia; bere esana egin eta bere aginduak bete beharrean gagoz abertzaleak.

Egunekoa irakurri ohi dozuen euskaldun zintzook, zeuen eskua bihotz aldean ipinita, erantzun eidakue: Ez da egi-egia nik hemen dinotsuedana?

Tamal handia dot nik hau esan beharra, Bizkai Buru Batzarreko hiru gizon horreek asko onesten dodazalako; baina nire adimenak halantxe erakusten deustaz gauza honeek, eta egia gehiago da niretzat adiskideak baino.

Atzo Euzkadi Buru Batzarraren erabagia hementxe euskeraz laburto agertu zalako, esan deuste nire aurka amurru bizian ebiltzala hemengo abertzaleren batzuk. Honek asko minduten dau nire gogoia; baina egia, egia da, eta erea danean esan beharra dogu, edozer arren.

1915-XII-23

ABERTZALEAK, BATU!

Euzkadi Buru Batzarraren aurka jarri dirala Bizkai Buru Batzarrereko lehendakaria izana eta bere batzarkide bi, eta zegaitik jarri diran, atzo eta harainegun azaldu jatzue argi eta garbi izparringi honetan. Zuek askok ez dakizuena da gizon horreei inguratu jakela abertzale pilotxu bat, eta honeek hasi dirala bizi-bizi lanean Euzkadi Buru Batzarraren kaltez.

Bai, aldra horretakoak ia egunokaz dabilz hona eta horra idazkiak egiten, horra eta hara joaten, gauzak euren aldera esanaz lagunak batzen, bide horretatik ia lortu ahal daben Eusko Alderdia zati-tzea.

Ez dakigu zer esaten daben hortik zehar idazkiz eta hitzez; baina susmoa badogu hartzen hemen dinoenetik. Hemen entzuten jakena da: oraingo itxulaspenau⁹¹ agindu gureak ekarri dauela, norbaitzuk gura izan dabela Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria bere lekutik eratzi eta kendu, eta bere lekuan agintzen jarri; lehendakari haize ikusiezinak darabiltzala, eta honeetariko barriketak.

Barriketak baino besterik ez dira horreek, edozeinek erraz ulertu daiken lez. Nok, ba, euki lei Alderdian nagusi izateko guraria, hortik ez badator zeregina buruhaustea eta atsekabea baino besterik, batez be, *jauntxu* aberats handien eta Espainiako nagusiakaz ahal handia dabenen aurrez aurre jarri beharrean aurkitu ezketino?

⁹¹ Itxulaspen: nahaste.

Nekez, oso nekez, idoroko dira gizonak, leku horreetara joan gurako dabenak.

Eta ikusiezina zetatik dakarre? zetan agiri da? Euzkadi Buru Batzarrak bere erabagia hartzeko ziorik nahikoa izan dauela erakutsi dau; zio barik-edo hartu baleu erabagi hori orduan susmau eikean ikustezina, baina izan dan lez, ikustezina aitatzea atxaki bat baino ez da; zeresanik euki ez eta zeredozer esan gura, horixe da guztia.

Bizkai Buru Batzarreko lehendakari eta batzarkide bien zintzotasuna eta eurek abertzaletasunaren alde egin dabezan lan eder eta onuratsuak ezagutzen eta autortzen ez dauzanik ez dago; hauxe esan da agirian, eta hauxe esaten da lagunartean be; gizon horreei jagokena emoten jake. Baina eurak baino gorago Alderdian dagozanen esana eta agindua ostikopetu dabez eta Buru Nagusiaren aurka jarri dira, Alderdiaren eralguna eta batasuna hausirik, eta hau ezin laketu ekioen.

Ez dago ezetariko ikusiezinik ez agindu gurarik.

Gizon horreei batu jakezan aldrakoak beste barriketa batzuk be badarabilez hemen guretik hurrean egunero alkartzen diranean, eta ez barriketa hobeak. Guztiei ez deutsegu ezarriko batzuk esandakoa, hori ez; baina bai argitalduko doguz egunokaz euren artean entzun izan diran esakunak, ondo deritxogu ba zuek jakin dagizuezan.

Aldra horretan esan da lehengo egunetan Euzkadi Buru Batzarrean hiru atzerritarren (*tres extranjeros*, honantxe) autarki edo *voto*akaz hartu dala erabagia. Beraz, hori esan eben abertzaleentzat (!), gipuzkoarrak, arabarrak eta napartarrak atzerritarrak dira, *extranjero*ak. Zer deritzozue?

Euzkadi izparringi honen jabe egingo dirala eurak ahaleginean, eta zoriz, lortu ezin izango balebe, orduan hil egingo leukeela, edozein dala. Zer deritzozue abertzale batek esateko?

Izparringi hau gogaikarria dala *eusker*a gehiegi argitaltzen dauelako. Zer dinozue euskaldunok?

Barriri dinogu aldra horretako guztiei ez deutseguzala ezarten cretxi honeek; baina euren artekoak esan dabez.

Euskaldun abertzaleak: Alderdia zutik dago, bere Buru Batzar Nagusiagaz, eta beronegaz bat dirala Gipuzkoako, Arabako eta

Naparrako Erki Buru Batzarrak, Bizkaiko Buru Batzarrean gelditu diran Gortazar eta Bikuña batzarkide biak, Bilbaoko Eusko Gaztedi ospatsua, atzoko izparringian ikusi izango zenduen lez; hor gorago aitatu dodazan barriketai jaramon barik eta esakun aberkoi (!) horreek gogoan eukirik, batu zakioze danok Euzkadi Buru Batzarri, atara daigun Alderdi maite hau garbi-garbirik eta sendo oraingo esturaldi honetatik.

Batu guztiok! eta Gora Euskadi! Guretzako *bat* dira Zuberoa, Laburdi, Naparra, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia; gu euskotarrak gara, Euskadi osoa da gure Aberria.

1915-XII-24

BATU ABERTZALEAK EBB-GANA

Harainegun arratsaldean heldu jakon gure artezkariari ondoren irakurri daikezuen idazkia:

“*Euzkadi*-ren artezkari jauna.

Bilbaon.

Aberkide maitea: tamalez irakurri dodaz Euzkadi Buru Batzarren erabagiak, baina Eusko Alderdiaren handitasunerako eta garbitasunerako izan ezketino betoz aldi onean; behar doguna da denok neurri bategaz neurtzea eta ez bakalduntza edo *imperialismoa*.

Eusko Alderdian Erkitasunik ez da sartu behar, danok gara abertzaleak, enda batekoak, horregaitik anaiak.

Eusko Alderdi Jeltzalearen Deia eta Eralgundearen atalgiak beteten zuzen hasi dan ezkerero, Euzkadi Buru Batzarra zorionsua izan bedi daroan bidean, eta nazan txiro eta jakinge honen ahaleginak ezetarako domurik⁹² daukela uste badabe, agindu beioe nahi dabena Jel-pean.”

Aretxabalatar hau da *Erri* izenordeaz Algortatik euskeraz bidaltzen deuskuzan idazki politen egilea. Abertzale benetakoa dala bakarrik esanda, beste bere gorralbenik ez dogu egingo, gure adiskide Jon lotsatu eta hasarratu ez dakigun, beroni gorralbenak bajagokoz ugari baina. Guk hemen esango geunkezan guztiak aina esaten izan dabez beti, orain arte, Algortan gaur Euzkadi Buru Batzarren aurka

⁹² Domu: balio.

dabiltzan gizonen batzuk; eurok esango dabe Aretxabala nor dan, gabetik goizera eretxia aldatu ez bajake.

Ederto, Jon. Ondo dinozu erkitasunik ez dogula behar. Orain arte horrexek, erkitasun horrek, galdu dau gure Aberria. Enda batekoak, jatorri berberecoak, anaiak izanik euskotar guztiak, banan ibili izan dira, bakotxa bere aldetik, bakotxak bere erkitik bestetara begirik jasoten izan ez dabela, eta sarri alkarren aurka, alkarri guda egiten, Aberriaren arerioak pozturik.

Gu gara abertzaleak lehenagoko banatasun galgarria hil eta anai artean batasuna egiteko. Guk jakin dogu Euskadi osoa (Zuberoa, Laburdi, Naparra, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia) dala gure Aberria, eta Euskadiko alde guztietakoak dirala gure anaiak, eta guztiok *bat* egin behar dogula, benetan alkar maiteturik. Eta holan batu ezker, indarra izango dogula gure Abendea heriotzatik atarateko eta bere gatx handietatik askatzeko.

Inoz izan ez dogun *batasuna* lortuteko irasi⁹³ zan Eusko Alderdi Jeltzalea eta bere Eralguntza. Alderdi eta Eralguntza honeetan guztiok gara bardinak, nahiz hemengoak, nahiz horkoak, nahiz han-goak; Eralguntzatik sortu doguzan Buru Batzarrak dira gure nagusiak, nahiz urietan nahiz erkietan; eta guzti-guztien buru eta nagusi eta agintari Euskadi Buru Batzarra da. Uri bakotxeko alderdikideak gagoz bertako Buru Batzarraren azpian eta bere esana egin behar dogu eta bere erabagiei makurtu behar gaiakez; okerren bat agindu deuskula baderitxogu, erea eta lekua helduko jaku oker horren aurka egiteko, bada Buru Batzarrean dagozanak alderdikide guztien aurrean agertu beharrean dagoz bere aldian eta hantxe zenbakuna⁹⁴ emon behar dabe egin daben guztiarena; baina bitartean, inok ez dauka eskubiderik buruaren aurka jagiteko.

Era berean, Erki bakotxeko alderdikide eta Uri Buru Batzarrak eta edozetariko Jel Bazkunak Erki Batzarraren azpian dagoz, eta honen esana egin eta honen erabagiak bete behar dabez.

⁹³ [Fundau].

⁹⁴ [Kontua].

Eta Erki Buru Batzarrak, eta bai Alderdi osoa, dagoz Euzkadi Buru Batzarraren azpian; beronen esana egin eta beronen erabagiak bete behar doguz danok, goitik hasi eta beherainokoak; inor ez lei jagi bere aurka, oraingoan jazo dan lez. Okerrik egin badau, Alderdiaren Batzar nagusian estu hartuko dira Euzkadi Burukoak. Badagoz ba bideak nagusien okerrak zuzentzeko.

Baina ezin leike ontzat emon ezetara be nagusiaren erabagia ezetsi eta ezagutu ez, eta jagi bere aurka, eta norberak deritxona egin. Hori ezin leike. Alperrik litzateke orduan Eralguntzea eta Alderdia eta abertzalerik izatea be; sakabanatuta, bakotxa bere aldetik ibilte-kotan *batasun* barik, goazen etxera guztiok eta itxi daiogun Aberria bere arerioei behin eta betiko hil dagien eta gure Abenda gaizkaezkor honen izenik be gelditu ez daiten gizonen gomutan.

Horraitino, ez, ez gaitez an etxera joan. Hor dago zutik Eusko Alderdia bere Euzkadi Buru Batzarragaz. Iratsi gakiozan danok berrari, zuk, Jon, egin dozun lez, eta egunokaz egiten daben lez Euskadiko alde guztietako Uri Buru Batzarrak, Batzokiak, Batzak, Idazleak, notin ezagunak. Batu gaitez an danok geure buru danagaz, eta aurrera zintzoro orain arte lez, Aberriaren gaizkakundera.

Euzkadi Buru Batzarraren aurka jarri diran abertzalerik gehienak zintzoak dira; hotzitu eta baretu daitezanean igarriko dabe oker baten jausi zirala, geu edonor jausi gintekezan lez, eta etorriko dira barrero geugaz bat izatera, eta Aberriaren alde lan ederrak egitera orain baino lehenago egin dabezan lez, eta poz anaitar gozoenaz besoak zabalik hartuko doguzala. Gora Euskadi!

1915-XII-27

ABERTZALEAK?

Urte askotan egon ginan eusko abertzaleak tamalez beterik egunoroko izparringi bat ez geunkalako.

Asterokoetan bakarrik idatzi eta irakurri ahal izaten genduzan geure aberriazko maitasunak.

Egunoroko izparringi guztiak, bat itxi barik gero, geure arerioak ziran eta dira, batzuk agiriago besteak ezkutuago. Euren zeregina zan eta da, euskotarra gogoan erbestetasuna sartzea, bide batez txakur txikia atarata; abertzaletasuna eta dirua, biak batera kendu, hau dok hau!

Guk asteroko ingi txikiakaz ezin genduan atzeratu egunorokoen lan kaltegarria. Ez ba! Asteroko ingi bat edo bigaz egunoroko pilo handiaren aurka urtetea, gizon batek makila bategaz urtetea lez da fusilakaz eta kanoiakaz dagozan gizon askoren aurka. Ezin!

Beti genbiltzan ba alkarri esaten: "Egunoroko izparringia bageunka horraitik..."

Eta horra, behin baten gure Alderdi Jeltzalea astindu zan, indarkada bat egin eban, eta orain hiru urte dala atara eban argitara bere eguneroko izparringia, *Euzkadi* deritxon hau.

Ederto hasi zan eta ederto jarraitzen dau, gure Aberriko bazter guztietara zabaldu da, eta bertan argitaltzen diran eguneroko guztiei aurreak hartu deutsez. Geuk ez dogu esaten, motzak eurak esan deuskue baten baino gehiagotan gure izparringi hau asko atsegin jakela, ederra dala.

Berau da euskotar bakarra, euskotar jeltzaleak egina, euskeraz, geure elez, zati bat beti dakarrena, Jel-irakaskizunak emoten dauzan

bakarra, eusko ekanduez irakurgai politikak argitaltzen dauzana, eta honez ganera, ostantzeko izparretan beste edozein ingik aina edo gehiago eukiten dauena.

Euskotarraren gogoia beteteko lakoa da ba; beronek emoten deutzaz alde guztietako izparrak, ugari eta ondo, eta ganera, euskotasunari jagokona. Eta bete deutse gogoia euskotarrei; honeek egin deutzie abegi ederra izparringi honi, ederto lagundu deutzie, eta horregaitik beronek egin ahal izan dau, hemen hondino beste izparringi bat ez batek egin ezin izan dauena: hirugarren urterako berez ibiltzen hasi; bere saltzetik, harpide eta iragarkietatik atara beretzako lain.

Barriri be esan daigun: horrelakorik ez da ikusi hemen beste izparringi bat ez bategaz; eurenaz bizi ahal diran bi edo hirurak be, urte askotan ibili ziran urpean azalera heldu ezinik. Ia ba, zelako gurenda dan eusko abertzaleena euren izparringi honegaz.

Lortu dau ba gure abendeak bere izparringia eukitea; erbestetarrenak baino hobea hatan be. Gurenda hau Eusko Alderdiarena da, Aberriarena.

Abertzaleak, Aberrizaleak, Aberria maite dauenak maiteko dau ba Aberriaren izparringia. Bai ba. Ludiko edozein herritan abertzaleak maite izaten dabe euren Aberriaren gudarostea, Aberria arerioakandik jagoteko izaten dan gudarostea⁹⁵. Gureak daukan gudarostea izparringi haxe da ba.

Aberriaren gudarostea hil gura dauena, Aberria gudaroste barik arerioen eskuetan itxi gura dauena, izan leiteke abertzalea?

Itandu hori zetara datorren edo dinostazue, irakurleok, ezta? Horra ba zegaitia.

Abertzaleen izena daroenak, batzuk, asko ez, hondinokarren behintzat, hasi jakoz izparringi honi guda egiten; orain arte beti harpidedun izan diranak, harpidea itxi dabe, eta inor izan da euren arte-

⁹⁵ [Ekertzitua].

an gaztigau⁹⁶ deuskuna berak ahal dauen kalte guztia egingo deusala izparringi honi.

Lehengoa baten leku honetan idatzi genduan hauxe: EBBren aurka jarri diranen artean batzuk esaten ebela, edo izparringi hau eurak harrapauko dabela, edo bestelan eurak edozetara hilgo dabela.

Lehenengo asmoa ezin dabela lortu igarririk, esan leike bigarre-na bete gurarik hasi dirala.

Hori al da abertzaleak egiteko beharra, Aberriak daukan izkilurik onena hausi gura izatea?

Hara; Europan dabilen guda horretan ikusi dogu, doixtarrak euren gudalagusi⁹⁷ Moltkeri agintzea kendu deusiela, errusiarrak Nikola Duke Nagusiari, ingelndarrak Frenchi, pantzetarrak D'Ama-deri, eta holan.

Zer esango litzateke agintari horreek eta euren adiskideak hasiko balitzaz euren aberrietako gudarosteak galdu gurarik, erbestarren gudarosteak euren aberria zapaldu eta birrindu dagien? Edonok ez leuke dongakeriatzat hartuko asmo hori? Ez leukiez hartuko ludi guztian, eta betiko, aberri-saltzaitzat?

Cure aberri kutun hau bere izkilu barik, bere gudaroste barik, bere aldezkari onena barik, bere betiko arerio amurratuen aurrean itxi gura dabenak abertzaleak ala zer dira?

1916-I-3

⁹⁶ [Abisatu].

⁹⁷ [Keneral].

ENTZUN, BAI, ENTZUN!

Euzkadi Buru Batzarraren aurka jagi eta bete-betea jarri diran jeltzaleak harainegun gabean argitaldu eben izparringi bat, eta bertan "Entzun Entzun!" burutzat dauela euskerazko idazkai bat dago, B'tar J. K. (aldi bateko *Pizkunde Zale* euskal idazlea gure ustez) egilea izanik.

Beronek dino EBBren aldez egoala lehenengoan, eta orain aurka dagoala, egiaren alde ibili nahi dauelako.

"Zer dala-ta sortu da auzi hau?" itanduten dau; eta berak erantzuten dau: "Ez dakit".

Honen hurrengo adierazoten dau EBBk ezarriko zigorrak baino gehiago atsekabetu dauela geroago izparringi honetan agertu diran idazkaiak EBBren aldez. Barrero itanduka darraio ia zegaitik bildur diran (EBBkoak edo) alderdikideen Batzar Orokorraren aurrean agertzeko, ia nok emon deutesen ahalmena inor jaurtiteko; ia zegaitik entzun gura ez deutesien epaipetuei eta alderdikideei; ia honeek orduan zertzuk diran; ia astoren batzuk ete diran "samatik kordel bategaz" eroatekoak. Azkenez, ataraten dau erdira betiko beskuna⁹⁸: hau ez dala izan besterik gizon bat agintza-lekutik kendu gurea baino, eta gizon hori dala "Jeltzaletasunaren izpia izan zana".

Beraz, B'tar J. K.-k hasieran "Entzun, Entzun!" didar egin arren ez dau azaltzen auzi hau zer dan, zetatik sortu dan, berak dino ba ez

⁹⁸ [Estribilloa].

dakiala-ta. Bere atsekabea erakusten dau gizon batzuei zigorra ezarri jakelako, aztertu barik zuzena ala okerra izan dan zigor hori; eta azterkum hau egin barik jarten da EBBren aurka, eta egiten deutzaz hor gorago aitatu doguzan itanduak.

EBBk lehengo hilaren 21ean hemen argitalduriko bere Agintzan ondo garbi eta zehatz agertu ebazan zioak, eta geroago hainbat bidar azaldu da hemen erderaz eta euskeraz auzi hau zer dan eta zelan sortu dan, eta horregaitik ez deutzagu irakurleari adarra jo gura barriro zitz eta bitz idazkai hareek ipinita. Hitz gitxitan adierazoko dogu auzi honen zegaitia.

Lehengo hilaren 5ean Bilbaon batzartu zan Euzkadi Buru Batzarrara eta erabagiak hartu ebazan, eta eurok argitaldu ziran biharamonean, hilaren 6an, izparringi honetan. Orduan BBBko lehendakaria zana, erabagi horren aurka eta beraz EBBren aurka jarri zan; bera baino goragokoen esanik egin gura ez eta, bere inguruan pilatu jakozan jeltzaleakaz, lanean hasi zan EBBri goitik egiteko.

Hauxe da ontzat hartu ez doguna abertzalerik gehienak, uste dogulako gure Alderdian danok gagozala behartuta gorago dagozanen esanei burua makurtzeko, *danok* gero, bat aldendu barik, nahiz hau dala nahiz hori dala bat hori; goren dagozanak hareexek erakutsi behar deuskue enparaduei nagusiari burua makurtzen.

Gure ustea horixe dalako jarri gara EBBren ondoan, Alderdiaren batasuna hausi ez daiten.

Horreek gizonok uste baeben EBBk oker bat egin deutzela eurei, egin behar ebena zan lehenengo burua makurtu, EBBren nagusitasuna ezagutu, eta gero Batzar Orokorra heldueran, hantxe eskatu egin jaken okerra zuzentzea.

Buru makurtze hori egin balebe ez ziran hemen argitalduko B'tar J. K. hainbeste mindu daben idazkaiak; baina beharra zan argitaltzea, EBB aldeztuteko, beronen kaltez ebiltzan ba su eta gar jagituak euren aldez lagunak biltzen. Alderdiaren izparringia, EBBren izparringia isilik eta geldi, eta EBBren arerioak gogor lanean bere kaltez, hori ez zan bidezkoa. Hori izango zan jagikundearen suak bazter guztiak erre egizala itxi, ezer egin barik, besoak ehunduta egonik. Izpa-

rriñgiak hori ezin egin eikean, izparringiaren beharkuna da ba Alderdia jagotea, Alderdiaren buru agiria dan EBB jagotea bere arerioakandik. Beraz, izparringi honetan agertu ziran idazkai hareek, eta oingo honeek, ez datoz inoren gorrotoz Alderdiaren maitez baino.

EBB ez da bildur Batzar Orokorra agertzeko, bai zera! Berak deia egingo dau batzar horretara, eta izparringian lehengo hilaren 21ean aurrez-aurre, bildurge, agertu zan lez agertuko da bertan. Nondik atara dau B'tar J.K.-k bildur hori? Beharba, Durangorako inok deituriko Batzar Orokorra ezagutu ez ebalako; hortixek begitandu jako hurrean B'tar J.K.-ri EBB bildur dala.

Ez gizona ez; Durangoko batzar hori deitu eban hartarako ahalmenik ez eukonak; lehen lehendakari izandakoa lotazilaren 15etik honantz ez da besterik alderdikide ekarra⁹⁹ baino, beste edozein lez, eta ez dauka ezetariko eskubiderik batzarrik iragarteko; harek Durangora deiturikoa eta etzi Deuston egiteko dana, ez dira Alderdi-ko batzarrik, Alderdiaren kaltez egiten diranak baino, eta ez EBB eta ez beste inor alderdikorik ez dago behartuta bertara erduteko; hondino gehiago, alderdikideak ez dabe joan behar, debekua edo gebena dabe joateko, Alderdiaren aurka eta kaltezoak diralako batzarrok.

EBBren alde z gagozanak ez gara astoak "samatik kordel bategaz" inok garabiltzanak; geure burutatik jarri gara haren alde, geu be egiaren zaleak garalako, geuk be argiagana joten dogulako. Hone-lakoak ez bagintzaz be, EBBko gizonak ez dira aberats handiak ezta ahal handidunak be gu lotzeko. Geu lakoak dira, gitxi gorabehera, gizabatzan; eta EBBren alde jarri bagara ez da izan gizonakaitik, Alderdiaren buru eurak gaur diralako baino.

BBBko lehendakaria zana badakigu dala lehenengo abertzalea eta aberriaren aldez asko egin dauela, eta bere uste ona badazaugu; baina gizon hori, dana dala eta guzti be, ez daukagu Alderdia baino goragokotzat. Alderdiaren aurka jarri da; auzia sortu da bera eta

⁹⁹ Ekar: arrunt.

Alderdiaren artean, eta berori ez dago zuzen; ez goaz beragaz, asko balio dauela autortu arren; Alderdiagaz goaz. Alderdia da euskotar guztien batasuna.

Gizon baten ordeztu, izan leikenik handiena balitz be, ez geunke Aberria emongo.

1916-I-7

KATALANAK BILBAON

Atzo eguerdi aurrean heldu ziran. Geltokian eukezan eurei itxaroten hemengo dirudun eta ostantzeko asko; barruko aldea bete-betarik egoan, eta ate aldean¹⁰⁰ be mordoka handiak agiri ziran plaza biribilera arte. Jakina da harrera anaitarra eta sutsua egin jakela.

Joan ziran oinez Bilbaina batzokira, eta bertako balkoi nagusira urten ziran gerotxuago, eta Cambok hitz batzuk esan ebazan eskerak erakutsirik egin jaken harrereagaitik.

Iluntzean Albia antzoki barria hitzegikizuna hasteko izentauta egoan ordua baino ordubete lehenagotik hasi ei zan beteten, eta hitzegikizuna hasi zanean ez ei egoan han lekurik orratz bat ipinteko be. Handia zan izan be lehengo egunetan hemen izan dan jorana¹⁰¹ hitzegikizun horretara joan ahal izateko txantelak eskuratzen. Honeek txantelok dirala-ta ez dirala, hasarreak be eurrez izan ei dira.

Ogasun arazoez, diruari jagokozan arazoez, Cambok hitz egin ei eban jakintsu, atsegin izanik bere entzuleei. Berak esan ebana izparringi honen erdera aldean daukazue nahikoa zehatz hartuta.

Gaur iluntzean Puig Cadafalch jaunak egingo dau beste hitzegikizun bat Filarmonica aretoan herri-jakintzeaz.

Bihar goizeko hamaiketan izango da Campos Eliseos antzokian hirugarren hitzegikizuna. Hauxe da abertzaleena, Jelbatzak edo BBBk eralduta; Cambok hitz egingo dau katalan abertzaleen aldetik

¹⁰⁰ Kanpoko aldean.

¹⁰¹ [Afana].

agur eginaz hemengo abertzaleci. Batzar hauxe izango da zaratatsue-
na, eta gazteci eta diruaren barri ez daukagun guztioi gehien atsegin
izango jakuna. Etorri ba, mutilak, katalanai erantzutera. *Bon cop de
fals* (jo igitaiaz) esan ohi dabe eurok. Zeozer egin beharko da, honan
beti egon barik.

1917-I-27

KATALANAK BILBAON

Atzo goizean Campos Eliseos antzokia benetan ikaragarria egon; inoz egiz bada lekurik gonburu egon dala atzokoagaitik betebete esan geinke. Irudi-tokitik begiratuta ez zan agiri ezer besterik arpegia baino. Ha zuan betekadea!

Joran handia egoan Cambori entzuteko, eta ez zan bidebakoa joran hori, bada jaun horrek egin euskun hitzegikizuna idatzi eta sakelean eroan behar geunke abertzaleak noz edo behin atara eta irakurteko eta bertan ikasteko zelan jokatu behar dogun geure aberria gaizkatasun bidean eroateko.

Hartu daikeguz, bai, maisutzat Kataluniako abertzaleok, geu baino lehenago ibiliak diralako aberri bideetan. Guztiz argi eta zehatz edestu edo kontau euskun Cambok zelan ibili ziran euren lehenengo urteetan inok jaramonik egiten ez cutsiela Katalunian, eta euren areriorik handienak katalanak euren anaiak zirala. Geu ointxe gabiltzan lez gitxi gorabehera.

Honan euren buruak ikusirik, katalan abertzale zuhurrak beste bide bat hartu eben, izena itxi eta izanari heldu gogor; izenak atzeratu egiten dituela katalan asko geure ondotik? Itxoin egizue puskat! esan eben abertzale argi honeek, eta beste izen bat hartu eben, baina barrutik, azpitik, lehengo berberak ziran eta euren lan eta egikizun guzti-guztiak beti erabilezan aberriaren alde. Hauxe egin ebenean, lehen alde egiten ebenak, eta askozaz gehiago alboratu jakezan. Halantxe jarraitu dabe hamabost-hamazazpi urte honeetan, eta Katalunian nagusi egin dira; eta orain barriro lehengo izena hartu dabenean, lehenago ikaratzen ziranak ez dira bape ikaratu, inor ez da ikaratzen orain.

Azerikeria dala hori esango dau inok. Eta zer? Aberria gaizkatzeko eta bere arerioak uxatzeko, azerikeriak egin daikez, behar izan ezkerro.

Oi azerikeriak! Ointxe jatort gogora Aulestiako *Bengoetxea* jatoretzeko armarrarian¹⁰² idatzita dagoana:

“Bekoak goikoa
ezkondu leidi¹⁰³
txikiak handia
benzi leidi
asmoz eta jakitez”.

Asmoz eta jakitez bai, baina ez indarrez. Armari horrek ei dauka goialdean azeri-irudi bat; beronek dauka eskumako eskuan ezpatea, eta ezkerreko besapean legoi-buru bat.

Itxuraz, azeriak legoiari burua kendu eutsan, ez indarrez eta aurreikara, galdua zan hori egin ezkerro eta, “asmoz eta jakitez” baino.

Bai, gizonak, geuk be, katalanak lez, asmoak euki daiguzan eta asko ikasi daigun, zuhurrak izan gaitez, eta ibili eta ibili, helduko gara legoiari burua polito-polito ebaitera, Bengoetxeako armarriko azeriak lez.

Lau katu baino ez garala, indarrik inondik ez dogula, zarataka urtetan bagaiakoz legoiari, aurre-aurrera purrustada bategaz eginda dauka gureagazkoa. Bai arean!

Ez, gizonak, holakorik; kirten handiak izango gintzakez; horrelako *bichoa* harrapatzeko; buruak lan egin behar dau besoak baino lehenago.

Arratsaldean, Norteko burnibidetik joan ziran Cambo jauna eta bere lagun batzuk. Eurei agur egitera heldu zan hara notintza izuga-

¹⁰² [Ikurdi edo escudo].

¹⁰³ [Ezkondu hitz honek esan gura dau “eskuratu, harrapau”.]

rria. Han izan ziran gorak eta oihuak eta abestiak ez euken azkenik. Trena ibilten hasi zanean, txalo eta didar ikaragarriak.

Bart Eusko Gaztedian, ostera, euki eben jai gorengoa. Aizkibel-tar Bingenek euskeraz, eta erderaz Egileor lehendakariak eta Puig Cadafalchek hitz egin eben. Ez da zetan esan han izango zan usubioa.

Katalanen etorrera honek dardakada handia eragin dau. Beronen ondorenak agertuko dira.

1917-I-29

PERU DUBAKO HIL ZAN

Hemen dira hauteskundeak. Datorren igandean zortzi. Orduan-txe barriztau behar dira Diputazioak erdizka.

Bizkaian erdia baino gehiago; azkenengoz (oin urte bi) Bilbaon egin ziranak ezerezean itxi ebezalako goiko agintariak, eta horregaitik oraingo hauteskundeak izango dira lau hautu-erkitan edo distrito elektoraletan: Bilbao, Balmaseda, Durango eta Markina. Beraz, hamasei diputadu probintzial hautu behar dira oingoan Bizkaian.

Hemen, gerta-lan edo azeri-lan edo maniobrea egin gura izan dabe gure betiko arerioak antza danez.

Badakizue, aspaldian, Madrileko politikoak bekatxa¹⁰⁴ erakutsi dabela hemen, Bilbaon batez be, diru asko irabazi dalako ontziakaz eta olakaz eta enparadu lantegiakaz. Bekatx hori bide dala hango izparringietan garratzak esan dabez gure herri honegaitik eta hango agintariak gertu jarri dira legeak egiteko, hemengo irabazpideak hausi edo behintzat makalduko dabezan legeak.

Hangoen amurrua ikusirik, euren adiskide eta lagun beti izan diran hemengo gure arerioak, hasi ziran esaten gure herri honi gorrotoa deutsiela hangoak, eta bidezkoa dala hemen danok bat egitea, geu guztion herri hau aldeztu¹⁰⁵ daigun; itxi egin behar doguzala, orain behin-behinean, bizkaitarrok bananduten gaituezan eretxi edo aburu edo opininoak, eta guztiok bat eginda harrika uxatu, gure herriko ogasuna jan gurarik datozen txakurrak.

¹⁰⁴ [Inbidia].

¹⁰⁵ [Defendidu].

Eta bat egiteko erarik hurrena eta onena, esaten eben eurok, ointxe jatorku diputadu probintzialen hauteskundeetan; hortxe alkar hartu behar dogu, alkarren aurka eta alkar makalduten ibili beharrean, alkar aitu, eta burruka barik, izentau danon artean diputadutzako gizon egokiak, Bizkaia maite dabenak, honetara Bizkaiko Diputazinoa izan daiten indartsua eta gerizpe handikoa, hango agintari eta politikoei jarkiko litzakiena lakoa.

Eta bide horretatik jarraiturik, deia egin eutsien hemengo alderdiei eta gure Jelbatzari be bai. Joan zan gure hau, adierazorik, aberria maite dauen lez aberriko gauza guztiak be maite dauzala, eta honeen artean aberriko ogasuna; eta honen alde egiteko alkar hartu behar bazan, gertu egoala.

Baina honetarako behar zala alderdiak ez gitxitu eta ez gehitutea euren indarra Diputazinoetan, ointxe dagozanakaz jarraitu aurrerantzean, eta honez ganera behar ziranak, izan eitezala alderdietatik ate dagozan gizon argi eta bikainak¹⁰⁶.

Hau ondo esana da ba, aurrez-aurre garbi agertzen danak holantxe hitz egiten dau. Gure Jelbatzak, BBBren ahoz, horixe agertu eban; baina atzetar alderdiak eskatu eban, danak orain daukezan diputaduak baino gehiago eukitea, eta eskakizun honetatik urten gura ez ezetara be. Horretara ezker, gure Jelbatzak jakin erazo eutsen ez egoala gertu alkar hartzeko, berak galdu eta eurak duan¹⁰⁷ irabazteko; eta banandu ziran.

Eta orain ez dakigu zelan jarriko diran gauzak; nire ustez, gu alde batetik, eta besteak bat eginda beste aldetik; halantxe, izan behar dauen lez, eurak eta geu alkarren aurka.

¹⁰⁶ Honez ganera, gure Jelbatzak aurkeztu eban Diputazinoak zein egipide erango dauan Euskal Herriaren alde gitxienez jaritxi behar danera heltzeko. Azken larumbatean argitaldu zan erderaz hementxe egipide gitxienezko hori. Aitatu eta erabiliko dogu, Jainkoak gura badau.

¹⁰⁷ *J. l. duban.*

E. j. doan.

Ahal dana egingo da, beti lez, eta hobeto urtengo gara bakarrik joanda, lagunakaz baino; garbiago bai behintzat, eta diputadu gehiagogaz.

Horreek erbeste alderdiok eta jauntxu dirudunok gura izan dabe abertzalea atzipetu¹⁰⁸, abertzalearen leptik euren diputaduak gehitu burruka barik, buruhauste barik, bape zeregin barik, eta, hemen-txe jagok untzea! dirurik eralgi barik.

Oraingoan oker urten jake arazoa. Arrainik errekan harrapau gura badabe prakak busti beharko ditue. Haginak antzina bardindu jakuzan. Diputaduak gehitu gura dozuez? Atara zorrook euskotar kirtenak erosteko! Peru Dubako hil zan.

1917-II-27

¹⁰⁸ [Engainau].

HAUTESKUNDEAK

—Hitz horregaz *elezinoak* esan gura izaten dozue, ezta?

—Holantxe da, Kosanton. Hori jakiteko inoz irakurri dozu gure izparringi hau.

—Igande edo domekaren bat edo baten erosi dot, eta euskerazko bere zatia irakurri be bai. Atzo be erosi neban, orain hauteskundeak dirala-ta. Han dakar, diputaduak gitxienez egin behar dabena, erde-raz *programa mínimo*.

—Eta zuk, norentzako daukazu autarkia?

—Zer da hori?

—*Votoa* gizona.

—Zer ba, Kosanton, zu be *goya libre* esaten dabenetariko al zara?

—Ez; ardao-saltzaileren baten eskuetara joango diran diru txarri batzukaitik ez dot inoz saldu botoa, ezta salduko be.

—Hona bosteko hori, Kosanton zintzo horrek!

—Nik ez dot astirik ezetako be neure lanetik ate, eta horregaitik ez nago zehatz jakitun politikako arazoetan. Aske naz, neure lanaz bizi naz, eta ondo jakin gura dot zetarikoak diran diputadugeiok, neure autarkia nori emon erabagiteko. Honetan zeuk lagunduko deustazu.

—Bai pozik be. Hara, lehenen-lehenengoz esan behar deusut haxe: gure diputadugeiak Jelbatzarenak dira; Jelbatza hementxe Euskal Herrian sortu zan eta bizi da, eta Euskal Herriarentzat sortu eta bizi; Jelbatzaren egikizuna hementxe dago oso-osoan; bere zuztar, buru, gorputz eta dana, hementxe dago; bere bazkide guztiak dira euskaldunak edo euskaldun jatorriko euskotarrak; berau da geurea,

geure-geurea. Enparaduak, ostera, hemengo semeak izan arren, erbesteko alderdi edo partiduetakoak dira; alderdi horreek ez ziran hemen sortu, erbestean baino, eta handik hona luzatu eben adar edo beso bat; alderdi horren egikizuna ez dago hemen, han baino; horren burua han dago; horren bazkiderik gehienak han dira, erbestean, eta hemen diranetarik gehienak be erbestetik etorriak dira.

—Ointxe igarten dot zelako aldea dagoan bategandik besteakana. Lehenengoak gura dabe Euskal Herriaren ona, besteak gura dabe erdel herriaren ona; hareek dauke gogoia Euskal Herrian, honeek dauke euren gogoia erdel herrian.

—Ia ba, Kosanton, alde hori ikusita zentzuna daukan euskaldunak zein hautuko dauen bere laguntzat.

—Eta gitxienezko egipide hori, erderaz daukazuena, ez dot ulertu guztiz, eta bere guma behintzat euskeraz adierazoko bazeunst, eskerrak egingo neuskizuz.

—Badakusu, gitxienezko egipide hori zati-zatitxoka dagoala erderaz idatzita; ba, zatitxo horren barrua adierazoko deutsut euskeraz, bata bestearen hurrengo.

—Hasi zaitetz ba.

—Lehenengo: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparraren artean anai-alkartasuna indartuteko ahaleginak egingo dira Diputazinoetan.

Bigarren: alkartasun hori sendotzeko eta Diputazinoen egikuntzari bide handiagoak zabaltzeko ahal dala irasiko da Alkarbatz Euskotarra, Espainiako legean *Mancomunidad* izenagaz laketzen dan erkien edo *provinciaen* batza.

Hirugarren: eusko herria estuago eta hobeto batu daiten, Espainiako legeetan erki edo *provinciaek* baino goragoko herri ataltze guttietan, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Naparrak, beti atal bat eurak bakarrik egin dagien ahaleginduko dira Diputazinoak.

—Ederto deritxot horri, eta jarrai.

—Bete dogu zerrendea, eta lekua itxi behar deutsegu besteci be. Bihar laugarrenetik hasita jarraituko deutsagu hoini.

HAUTESKUNDEAK

—Atzo hasi genduan arloari jarraiturik, hor doa, Kosanton, gure Jelbatzak bere diputadugeiei ipinten deuten gitxienezko egipidea.

—Lehenengo hiru zatiak euskeraldu zenduzan atzo; orain laugarrenetik hasiko gara, ezta?

—Bai ba, eurrez eroan zeregina, hemen jo eta han jo ibili barik.
Horra:

Laugarren: ahaleginak egingo dira, Gipuzkoa lez, Araba eta Bizkaia be, Iruñako Auzitegi Nagusiari ezarri dakiozan, Burgoskoari kenduta; honetara, Araban eta Bizkaian auzi-arazoetan lehenengo mailatik bigarrenera jotzen dabena, ikurtz-ingirik edo *papel sellado*-rik zetan erabili ez dauke, berau ez dago ba Naparran Burgosen lez. Euskadiko lau herrialde honeek Auzitegi Nagusi bateri, Naparrakoa-ri, jagokozala ipinteaz, lortuko da notarioei euskerea jakin dagiela eskatzea, danak leku baten, Iruñan, izentauak izango diralako, eta ez orain lez batzuk Iruñan eta besteak Burgosen, eta azkenengo honetan ez jake euskerarik eskatzen.

—Asmo horrexek asko esan gura dau. Hamaika kalte baidakar notarioak euskeraz ez jakiteak. Ikusita daukat.

—Horrezaz¹⁰⁹ ezer jazo al jatzu zeuri, Kosanton?

—Ez neuri, baina bai neure auzoko batzuei. Alabea ezkondu eben, eta egiunea edo kontratua egin zanean, erderaz esan behar, eta

¹⁰⁹ *J. t. Horretzaz.*

edo eurak txarto esan edo notarioak oker aitu, behintzat papelean ez eban ipini gurasoak gura izan ebena; honeek gura eben euren base-txearen jabe geratu biziko ziran artean, eta eurak ez ziranean alabe-arentzako izan eitela; eta papelean ipini zan, ostera, basetxea bertatik ixten ebela ezkonbarrien eskuetan. Erderaz erabili behar hartatik urtendako okerrak gizajo hareei ekarri eutsezan buruhauste eta atsekabeak itzelak izan ziran; osasuna galdu ez ebenean...

—Euskeraz aitu ahal izan balira notarioaz, ez zan holakorik jazoko.

—Ez ba. Azkenerako beste egiune bat egin behar izan eben, eurak gura eben moduan, atsekabe asko eta gastu asko eginda gero. Tira, laga daigun hau, eta aurrera.

Boskarren: ahal dana egingo da Euskal Herrian sortu-eragiteko Ikastetxe Nagusi edo Unibersidadea.

Hau egin ezkeru, euskaldunei karrera bat ikastea merkeago eta errazago izango litzakie. Karrera guztietan orain baino euskaldun gehiago ikusiko litzatekez.

Seigarren: ogasun-arazoetan Diputazioak, dauken jabetasuna ahal danik gehien zabaltzeko ahaleginduko dira, honetarako oina harturik Ogasun-Egiuneko¹¹⁰ Legeak ezagutzen deuskuzan eskubi-deetan, baita Euskal Herriaren onean be.

Zazpigarren: Diputazioak beti garratz eutsingo deusie ogasun-arazoetan dauken jabetasunari.

Zortzigarren: uriai edo herriai bakarrik jagokezan arazoetan, Diputazioak egongo dira Udal edo Aiuntamentuen jabetasunaren alde.

—Zer deritxozu, Koşanton?

—Entzuten be ez naz asetzen, zein polito!

—Bihar amaituko dogu.

1917-III-7

¹¹⁰ [Concierto Económico].

HAUTESKUNDEAK

—Bazatoz, Kosanton, harainegun eta atzo erabili dogun arloaren azkena jakin gurarik.

—Bai eta pozik etorri be. Atzoko azkenengo zatia zan zortzigarrena. Jo aurrera, gizona.

—Horra ba:

Bederatzigarrena: orain arte lez ikastoletatik aldentuta euki barik euskerea, Diputazioak ahaleginduko dira ikaskizunen batzuk euskeraz emon ahal izatea eskuratzeko, eta euren herrialdeko Bazkurnetan euskereari jabe urtengo jakoez, kendu ez dagien.

Hamargarren: herri-eskoletako maisuak izentetako, Naparrari 1914ko jorrailaren 8ko Errege-aginduak eta 1914ko maiatzaren 18ko Errege-aginduak emoten deutsezan eskubideak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiari be emon dagioezala eskatuko da.

Hamaikagarren: ardura handiz begiratuko deutesie Diputazioak biztanle apal edo behekoei, batez be, arrantzale eta luginei, eta euroen onerako diran alkarkuntzak ipinten lagunduko deutse, baita arrantzuko eta lugintzako aurrerapenai bideak zabaldu.

Hamabigarren: Euskal Herria hondamendira eroan behar dauen ordikeriari guda gogorra egingo jako.

Hamahirugarren: Euskal Herriko mendi biloiztuak barriro zugatzez estaltzeko asmo eta egintza guztiei sendoro lagunduko jake.

Hamalaugarren: Bizkaian edozein otseintza edo enpleoren jabe izateko behinago dira bizkaitarrak, eta honen hurrengo beste euskotarrak; eta horrexen antzera izango da beste herrialdeetan be.

—Horra, Kosanton, gure Jelbatzak bere diputadugeiei ipini deutesen gitxienezko egipidea.

—Ondo ederra da. Euskereari eutsi eta lagundu; herriai emon eskubidea maisuak izentetako; arrantzale eta luginai maitero begiratu; ordikeriari bideak hausi erazo; Euskal Herriko mendiak ohianez estaldu; otsein izateko bertakoa aurrengo hemen. Ni ikaritzen nauena da euskaldunak egotea horretariko asmo eta gurarietan dabiltzanen aurka.

—Eta ez aurka edozelan, amurru eta gorroto bizi-biziagaz baino. Euren aldez ibili, eskatzen dan eta jaritsi gura dan guztia euren onerako izan, eta halan be, gorrotoz beterik, kalte handia egin balitxakie lez. Zer deritzozu, Kosanton?

—Nik beti euki dot ustea kirten askotxo dagoala ludian, baina nik uste neban baino gehiago dira. Euskalduna bere buruaren kaltez? Nora begira dagoz?

—Kirtenok, edo hobeto esateko itsutuok, gitxituten doaz; askok begiak zabaltzen ditu.

—Nik bai behintzat; eta oraindexek abintzen deusut nire autarkia dala euskaldumentzat.

—Zelan da hori, Kosanton?

—Esan gura dot, euskalduna dan Batzakoentzat, eta ez dago bakarra baino, zeuena, Jelbatza; beste Batza guztiak erdeldunak dira, hangoak. Euskaldunenak jokatzen dau euskaldunen alde; eta erdeldunenak, beti lez, erdel herriaren alde. Jakina, baktokak bere alde-ra egiten dau. Eta euskaldunak jarriko gara geure alde dabilzitan anaien aurka, eta erbestetarren alde? Nik erabagi dot. Eta agur.

—Agur, Kosanton, eta zabaldu ahal dozun guztietan hemen ikasi dozuna.

1917-III-8

HELDU DOK EGUNA!

Euskalduna:

Bizkaiko herbetea beti izan dan eta gaur dan euskeraz bakarrik berba egiten dakizulako, edo erderaz txarto egiten dozulako, ez deustuela jaramonik egiten Bizkaiko ofizinetan eta herri-etxeetan ikusi gura badozu, jaramonik egin ezaz ganera *habla en cristiano* esanda arramuskadaka bialtzen zaituela ikusi gura badozu, zeure buruari ekarri gura badeutsazu lotsari eta kalte hori, gaur emoiezu autarkia gure arerioai, eurak astinduko zaitue bihar, eta gaur zeu engainetako emoten deuntsuezan pezeta apurrok bihar zeure lepotik atarako deuntsuez.

Euskalduna:

Zeure jaioterritik, zeure guraso eta gurasoen guraso eta aurreragoko guztiak bizi izan diran eta zeu bizi zaran herri eder eta gozatsu honetatik, negarra begietan dozula eta bihotzean mingotsa daroazula, alde egin gura badozu sekulako, emoiezu botoa euskaldunen arerioi eurak emongo deuntsuezan diru zantar batzuen ordez.

Eurak ekarriko dabez erdeldun mihin labanak Bizkaian jan dagien; eta Bizkaiko semeak alde egin beharko dabe urrinera, batek daki nora.

Euskalduna:

Zeure mutikoari, euskeraz berba egiten dauelako beste barik, narrua berotuko deuntsan maisua herrian euki gura badozu, narrua berotu baino besterik asko gehiago irakatsiko ez deuntsana, emoiezu botoa gure herriaren arerioi.

Herriak pagau eta inok bialdu maisua; eta ganera, maisu hau herriari komeni ez bajako, herriak ezin kendu, baina pagau behar. Hauxe dok lege polita!

Euskalduna:

Zeure hilburu edo testamentua egin gura dozunean (edo beste edozein egiune edo eskritura) eskribau erdeldunagaz aitu beharra euki gura badozu, eta horregaitik biok alkar ezin aituta oker bat egin eta sendiari¹¹¹ buruhauste eta kalte asko itxi gura badentsazuz, emon botoa gure arerioei.

Eurak, orain arte lez, ekarriko dabez euskerarik ez dakien eskribauak, papelean ipini dagien euskaldunen guraria edo borondatea, eta... gauza barregarria! euskaldunakaz aituteko gauza izan ez.

Euskalduna:

Hemendik laster zeure herriko abade, mediku, sekretario, agua-zil, bide-zaintzaile, eta abar erdeldunak ikusi gura badozuz, emoiezu botoa erdeldunen adiskideei.

Eurok atek zabalduko deutseez hona etorteko han erdel herrian gertu dagozanai, eta orduantxe ganean izango dozue uriolea, eta zeuen herrian erbesteko izango zarie.

Euskalduna:

Zentzun puskat, lotsa pitin bat, gizontasun tantatxu bat, gatz apur bat buruan badozu, zure botoa izango da zeutarrentzat, euskaldumentzat, zeure aldez dagozanentzat.

Abertzaleak:

Eguna heldu jaku. Bete daigun geure beharkuna. Lurreratu dai-guzan geure aberriaren arerioak. Sartu ba burrukara sendo eta bizi-ro. Gora Euskadi! deun Mikel eta jo!

1917-III-11

¹¹¹ [Familiari].

GORA JEL! GORA EUSKADI! GORA DEUN MIKEL ARALARKOA!

Hau idazten hasten garan orduan (gabeko bederatzia; euskerea goizetik emon behar izaten dogu) ez dakigu halako zehatz-zehatz hauteskundearen ondorena; baina orain arteko izparrak dinoenez, horra:

Bilbao hautu-erkian gureak daukez arerioen ganean 400etik 500era autarki. Beraz, goitik daukaguz geureok. Bihar barrero egin behar da hauteskundera toki bitan; baina ez dogu uste ondorena aldaturko dabenik.

Markina hautu-erkian be goitik urten dira gure hirurak. Horraitino, ez dabe atara Bilbaokoak beste aurrari edo *ventaja*. Itxuraz, lehengo egunetan hemendik automobiletan harantz eroan ziran ogerleko-zorroak euren beharra egin dabe; baina ezin izan dira heldu autarki-gehien eukitera.

Durango hautu-erkian hirutik bi daukaguz atarata, Elgezabal eta Rotaetxe.

Balmaseda hautu-erkian Sota-Aburtotar Erramon guztien goitik dago autarkitan, guztiz goitik gero; eta dinoe Rugama be diputadu urteteko zorian dagoala, autarkietan halan-holan ei dabil ba *pinatar* gehiendunakaz.

Hauteskundera honantxe izan da, ondoren horixe euki dau. Orain ez dakigu jauntxuok gobernadoreaz bat eginda asmauko ete daben deabrukeria edo barrabaskerietan beti maisuak izan dira eta.

Ez dakigu ba, ez dakigu; baina atzoko gudaka edo batailan lurra jota gelditu dirala euskaldunen arerio guztiok Bizkaian egi-egia bai-

no ez da. Horixe ez dago ukatzerik. Bizkaian jeltzaleak dira nagusi; eta hurrengo Diputazinoa barriztau behar izango danean, diputadurik erdiak baino gehiago jeltarrak izango dira.

Gipuzkoan Bergara hautu-erkian Laskibartar Kepa jeltzaleak euki ei dau autarkirik gehien.

Eta Donostian Zulaika jauna atera da guztien gain; jaun hau ez da agertu jeltzalea lez, baina gure ingurukoa da, Jaungoikotarra eta eusko gauza guztiak biziro maite dituana.

Eta Naparran Iruña hautu-erkian be atera da Juan Martinena jauna, Zulaika bezela, gure Jelbatzan sartua izan ez arren, Jel (Jaungoikoa eta Lege Zaharra) maite dauena.

Beraz, atzo aurrerakada haundia egin dogu jeltzaleak. Ondo esan genduan lehengo egun baten, bakarrik garbi-garbian joan ezkerodiputadu gehiago atarako genduzala, guretzako lagun onak ez diranakaz batzartuta joanda baino.

Ez zagok gauza hoberik bide zuzenetik artez-arte zeri begiratu baga joatea lakorik!

Eta gora deun Mikel Aralarkoa! Gongotzon aintzaltsu hauze da geure zaindaria, eta beratu izan zan atzo inok igarri barik gurendara eroan ginduzana.

Eta orain azkenerako, horra Elorrioren jazoriko gauza ederra. Gobernadorearen delegatu edo ordelariak errebolbera atara eutsan hango zinetotzi jeltzale bati, eta honek heldu eutsan eskuetatik eta lurreratu egin eban, eta honetan ebiltzala tiro bi jaurti eutsazan jo barik. Elorrioko biztanle zintzoak hau ikusirik, danak, jeltzaleak eta karlistak eta ostantzekoak, sutu zirean eta delegatu horri astinaldi on bat emon eutsien, eta gero alkateak espetxera sartu eban.

(Honantxe edesi edo kontatu eben bart). Horixe da euskaldun benetakoak izatea. Gora Elorri!

Oharra. Aurreragoko hori idatzita gero izpar zehatzagoak heldu jakuz. Bizkaiko hauteskondeez. Hara:

Bilbaon bi ziu, Torre eta Bilbao jaunak, eta Urrutia jauna gaur ikusteko; eta uste da urtengo dala.

Markinan hirurak.

Durangon bi ziur, Elgezabal eta Rotaetxe jaunak; eta Egileor jaunna Galdakaon ontzia apurtu zan lekuan gaur ikusteko; eta uste da urtengo dala.

Balmasedan bat ziur, Sota-Aburto jauna, eta Rugama gaur ikusteko Sestaon.

1917-III-12

NOK ASKATU MATAZEA?

Inok aitu ezin leiken nahastea darabile karlistak euren artean.

Orain urte bi, gudea hasi eta gerotxuago, Don Jaime Osterreiz (Australia)tik kanpora bota ebela zabaldu zan; han txarto erabili ebela, edo behintzat, ez bera lako gizon handikiari eta bakean dagoan bateri jagokon begiratasunaz.

Baita zabaldu zan orduan Don Jaime alkartuen aldetarra zala, eta hagaitik izan zala Osterreiztik bialdutea.

Geroago Melgar jaunak, karlisten idazle ospatsuak, liburutxu bat argitaldu eban, zauzkada handia eragin ebana; bertan esaten eban, Don Jaimek asko jasan edo sufridu behar izan ebala Osterreizko agintariakandik. Bere etxera zetan edo hatan joan beharra izan ebala eta Don Jaimek baimena eskatu eutsen Osterreizko agintariei hara joateko, eta behin sartu zan ezkerero, galerazo¹¹² egin deutsie handik inora urtetea, eta han dauke espe edo preso lez. Melgar agertzen zan liburutxu hartan alkartuen aldetar sutsua, eta inoan Don Jaime be bazala, bere jatorriak eta bere adimenak eta bere zuzenzaletasunak eskatzen deutsien lez.

Liburutxu honek zarata handia atara eban. Bai ba, karlisten partidua oso-osorik egoan doixtarren alde, eta ez edozelan, doixtarrak eurak baino be garratzago.

Orduan karlisten partiduko nagusi-nagusiak Milgar guzurtau eben, adierazorik Don Jaimereren eskutitzak eukezala ontzat emoten

¹¹² *E. j.* galarazo.

karlisten partiduak guda-arazoetan eroian bidea; eta Madrileko euren izparringian argitaldu eben horrelako eskutitzen bat.

Harrezkero, isiltxo egon dira eurok, eta oraintsu, lehengo astean, berrero istiluak hasi dira. Melgar Bartzelonara joan da, eta euki dau hitzegikizun¹¹³ bat; eta esan dau, Don Jaime ez dala doixtarzalea eta ez daukala ontzat bere partiduak honetan daroan bidea, partiduko nagusiak atzipetu egin dabezala euren agindupekoak.

Gauza bat esan dau Melgarrek oso nahastegarria, ia:

Karlista gazte bat agertu jakola berari Parisen eta esan eutsala: “Jauna, ni jakin gurarik nabil, gure Don Jaime guda honetan zetara dagoan, alkartuen ala doixtarren alde, eta orain zugana natorren lez Cerralbogana joan nintzan, itandu neutsan ia egia dan Don Jaimek idatzi deutsan doixtarren alde dagoala adierazorik, eta baietz esan eustan Cerralbok, bere hitza emoten eustala; entzun dot zuk daukazuza Don Jaimeren idazkiak adierazoten deutsularik alkartuen alde dagoala, eta itandutera natortzu ia hori egia dan”.

Orduan Melgarrek, jagi bere lekutik, atara idazkiak eta emon eutsazan gazte hareri. Honak ikusi eta irakurri ebazanean idazki hareek, esan eban: “Hemen dakustanaz ez dago ezbairik. Cerralbo jaunak esan eustanaz be ez dago ezbairik. Ezin dot aitu”.

Ez ba, nok aitu mataza hori? Melgar eta Cerralbo gizon bentzat¹¹⁴ ezagutuak dira, inok ez dau uste guzurra horren biribil esan daikienik. Honetara, zein bide gelditzen jaku mataza horretatik urteko? Don Jaimek batari gauza bat eta besteari beste bat esaten deutsala; zeinegaz hitz dagian halantxe agertzen dala. Baina, badogu ziorik Don Jaime horren faltsoa dala uste izateko eta esateko? Ez, ez dogu ziorik, ez dogu biderik zuzenean, hori esateko.

Beraz, nok aitu? Geuk ez dogu burua asko nekatuko horretan, ardurarik ez deuskulako. Baina gure anai euskaldunak badira, nahaste horrek buruhaustea ekarriko deutsenak, hortxe ibiliko dira

¹¹³ [Discurso].

¹¹⁴ Ben: zintzo, serio.

nora jo, zer oldoztu¹¹⁵, zer egin ez dakiela, jakin ezinik euren erregetzako hori zetara dagoan munduari bira eragingo deusan guda bardinbako honetan.

Guri entzun gura baleuskue karlista euskaldunak, esango geunskie: Euskaldun jatorrak zarien ezkeru gure euskera eta gure ekandu eta gure izakera guztiak maitatuaz itxi egizuez behin gure herritik kanpoko arazook, eta batu gaitez anok euskaldunen herri hau bide guztietatik jasotzen.

1917-III-27

¹¹⁵ [Pentsau].

ATZOKO EGUNA DONOSTIAN

Gu ezin izan ginan joan, geure zulo hau nok bete ez daukagulako. Gu beti egon behar hementxe zain, zulo hauxe zelan halan beti beterik egon daiten, hutsitu baga. Horregaitik, leku honetan piska bat ipini behar bakarrik, inori entzunda. Eta gero, horrez gainera, ezin asko luzatu, euskerazko gure sail hau irarkolara gau-lehenean bidaldu behar dogulako, berau lehenen atontzen da eta.

Egun onuratsua izan zan atzokoa Donostian abertzaletasunarentzat.

Cambo jaunaren etorrera eta hitzegikizunak bildu zituan uri eder hartan alde guztietako euskotarrak. Bizkaitik harainegun goiz eta arratsaldean mortxoka politik Donostiratu ziran, bertan ondo lo eginda atzoko egunez nasairo aurkitu ahal izatearren; atzo goizean Bilbao bertotik joan zan tren berarizko bat ondo beterik. Bergaratik horreetariko beste tren bat gonburuz beteta. Gipuzkoako beste alde guztietatik izugarriro bildu ziran abertzaleak. Gasteiztik eta Iruñatik ehundakak heldu ziran. Eta Donostia aurkitu zan atzo abertzalez estaldurik.

Hauxe bakarrik, alde guztietako abertzaleak alkartzea, onura handikoa da. Zenbat gehiago alkarreganatu hobeto izango litzateke guretzat. Abertzaleak nonbaiten biltzeaz bakarrik zenbat zabaltzen daben euren asmo aberkoia, sinisgatxa da.

Baina hori baino gehiago izan zan atzo. Cambo jaunak egindako hitzegikizuna guztizkoa irakaskorra eta beroa izan zan; ez da behingo-beingoan ahaztuko entzun ebenen gogoetan. Izparringi honetan gaur irakurri zeinkie.

Gauza ederrak daukaz hitzegikizun horrek, oldozkun egi-egikoiak. Hor dino Cambo jaunak, herri batek bere askatasuna gura dauela adierazoten dauenean beste herri bat hasarratzen bada, horretantxe dala ezagun bigarren herri hau dala inoren zapaltzailea, herri *tiranoa*; bataren askatasunak ba ez dau ukatzen bestearena; bakotxa bere askatasunaz bizi-izatea nahikoa dabe, zuzenak badira.

Bakotxa bereaz eta danak alkarren adiskide. Horixe da abertzaletasunak gura dauena eta adierazoten dauena ludiko alde guztietan. Eta gurari hau, abertzaletasuna, geroago eta zabalduago ikusten da ludian.

Beste oldozkun bat atzo Cambo jaunak azaldua: alper-alperrik dala herri zapaltzaileak darabilezan ahaleginak abenda-herriak hil nahirik; honeek, abenda-herriok, Jaungoikoak egindakoak dirala, eta beraz, gaudian¹¹⁶ beste gauza guztiak lez, Jaungoikoak izentau deutsan beharkuna bete behar dabela, eta hauxe bete arte alperrik dala hil gura izatea Jaungoikoak bizirik euki gura dauena. Abenda-herria, berak bere burua hiltzen ez badau, berak bizirik iraun gura badau, ezin lei inok hil. Izango dira aldiak hil antzean aurkituko diranak, azalera bizi-antzik izango ez dabenak; baina ez da ardura horregaitik, han barru-barruan, gizonen begiradea heltzen ez dan tokian bizimena¹¹⁷ dauka abenda-herriak, hurrengo erea jatorkonean azalera mardo urtengo jakona.

Honelakoxe oldozkun goralgaiakaz aberastua izan zan Cambo jaunaren hitzegikizuna. Entzuleak pozez erdi zoraturik txalo-jote izugarriak egiten eutsiezan Cambori.

Honek esan eutsen entzulei ez leukela gura kalean zaratarik ataratea, Gobernuari ba abindu eutsola bere ahaleginez ez zala izango ezer kalean. Cambo jaunaren eskari hau ontzat harturik, osteak kalean ez eban txitik atara, eta haugaitik esan zeikean kaleko azal-

¹¹⁶ [Munduan].

¹¹⁷ Bizimen: bizimodu.

kerea bakarrik ikusita oste edo jentea hotz egoala; baina ez, ez zan holakorik.

Bazkaltze eta guztiak egin ziran ederto, eta bostak lauren gitxiagotan joan zan Cambo trenean, notintza handiak txaloka alde-agur sutsu bat egiten eutsala.

Beioa ondo katalan abertzale handia, eta ez dakiola ahaztu behin be Euskadirako bidea, etorri dakigula sarri-sarri bere irakaste ederrak gure artean zabaltzera.

1917-IV-16

JABEA NORA, TXAKURRA HARA

Atzo irakurri genduan izparringietan, Madrileko izparringi dan *El imparcial* jabez aldatu dala, esan gura dot, lehengo jabeak erdia baino gehiago saldu egin deusiela beste batzui, eta beraz honeek, erosleok, dirala orain jabe.

Izparringi haretan lan egiten daberen idazleak gogora etorri jakuz jabe-aldatze hori irakurri dogunean, eta uste dogu estura handian aurkitu leitekezala baldin gizon zintzo eta lotsazkoak badira.

Jabe barriak beste oldozpen batzuk euki leiez lehengoena kandik, eta honan izanik (izango dan lez) idazleei aginduko deusie argitaldu dagiela, adierazo dagiela, autortu dagiela, lehen argitaldu eta adierazo eta autortzen ebenaz beste.

Zer egin? Edo burua makurtu, edo ogilekuak galdu.

Hor hurrean jazoko da burua makurtzea ogilekurik ez galtzearen, eta idazleok, atzo zuria zala esaten ebena, gaur baltza dala adierazoten ahaleginetan ibiliko dira.

Baina zelan egin lei gizonak hori? esango dozue. Zelan gizonak iruntsiko dau luzaroetan esaten eta irakasten ibili dana? Zelan gizonak egingo dau, zintzotasuna galdu barik, gaur egizat daukana bihar guzurtzat eukitea, ez berak halan uste dauelako, beste gizon batek agintzen deusalako baino?

Ba hori zuek badinozue, neuk be bardin dinot. Gizon zintzoak ezin lei egin, eta ez dau egingo, bere ustez okerra dana zuzena dala inori sinistu eragiten ahalegindu. Ez, hori da guzurra esatea; edo ez guzurrik ez egirik ezagutzea, bata zein bestearen alde egiteko ardurarik ez izatea. Hori ez da gizon zintzoarena, hori gizon doilorrak, txatxarrak egiten dau.

Eta ogia irabazte-lekua galdu? esango leukie eurak. "Ogia irabazi leike beste era askotara be, zintzotasuna zapaldu barik", erantzungo geunskie.

Horixe jazoten da, txanpon txikia atarateko baino beste uste barik irasi eta sortzen diran izparringietan, eta honeek saldu eta eros-tekoak izaten diranean. Horreetariko izparringiak gizon bat edo batzuk daukez jabe, eta jabe hauxe nora doan, haraxe joan behar bere txakurrak be.

Hementxe Bilbaon ikusi dogu horixe lehengo neguan *El Liberal* deritxon motz-izparringiaz. Hau be jabez aldatu zan. Ordurarte, Bilbaoko itxasontzi-jabeak eta enparadu aberats ola-jabeak alde bategatik, eta Gobernuak (Alba ministroak batez be) beste aldetik erabilen auzia, aldiz atako zergak¹¹⁸ zirala eta ez zirala, izparringi hori beti agertu zan su eta gar Gobernuaren alde eta hemengo eukidunen aurka. Berorren erdia baino gehiago erosi eban Etxebarrietak, eta jabez aldatu zan.

Lehengo idazleak berberak, lehengo artezkari berbera, dagoz izparringi horretan; eta berehalaxe jarri zan izparringia Gobernuaren aurka eta hemengo aberatsen alde. Zer deritxozue?

Artezkari berberorrek lehen idazten eban Gobernua arazo horretan zuzen egoala, eta gero, gabetik goizera, ugazabak, jabeak halan gura ebalako, ezetz esaten eban, ez egoala zuzen Gobernua.

Horreetariko gizonak hitzik egin lei gizon zintzoen artean?

Ba, horixe, *El Liberal* izparringiaren artezkari horixe dabil egunokaz idazten, bai hemen eta bai Madrilen, gure Diputazioaren aurka.

Katalanak ona etorri ziran aldian, orain lau hilabete, Etxebarrieta be bazan lez haren ekarlea, euren alde eta eusko abertzaleen alde idatzi ebazan artezkari horrek lan batzuk; eta orain dino guretzako

¹¹⁸ [Contribución extraordinaria].

ez dagoala lagirik, guri kalte egitearren lagi guztiak hausita be ez dala ardura.

Batean honi zaunka, bestean hari zaunka: ugazaba daukan txakurrak hori egin behar ba.

1917-V-24

ZER ESKATU DAN

Badakizue atzo zirala Gasteizen Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko diputaduak, alkarregaz hantxe erabagiteko zer eskabide egingo jakon Espainiako Gobernuari.

Guztiak aburu batez ontzat hartu ei eben hurrengo eskabide hau: Laterri edo Estaduaeren ardurea izango da zuzendu eta erabiltea gauza honeexek: Laterri hatako hartu-emonak; gudarostea, lehorreko eta itxasokoa, bidaiak eta urrutidazkinak¹¹⁹; dirua; aztakin eta neurri-ereduak; aduanak.

Laterriak, bere eskubide hau betetako, eukiko dauz hemen bere ordezkariak, zaindu dagien guk ondo betetea berentzako dogun beharkuna; baina hortik ez dira urtengo eta ezetan sartuko ordezkari horreek.

Euskal Herriarentzako lagiak egitea, lagiok bete eragitea, eta epaikariak izentau ahal izatea, Euskal Herriaren ardurea izango da; baita be, hori guztiori egin ahal izateko behar izango diran batzak edo eralguntza-mailak, Euskal Herriak jarriko ditu.

Beraz, aurrenean Laterrienak lez aitatu diran gauzetarik ate, dana egongo da Euskal Herriaren eskuetan; Euskal Herria bereburu izango da gauza hareetarik urteten diran arazo guztietan.

Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak aukerea dabe bereburu izate hau eralduteko eurak guira izango daben eraz; edo lehenagoko mai-

¹¹⁹ Urrutidazkin: telegrama.

latzea herripinirik, edo lehenagoko mailatza hori aldatu gaurko bizikereak eskatzen dauen lez, edo mailatza barriak jarririk, edo hiruren erabiltea batera ipinirik arazo batzuetan, eurak gura badabe. Hitz baten, euren menpean geldituko litzakezan arazoetan, eurak izango litzatekez nagusi, eurak ugazaba, ondoen deritxoena erabagi eta jarteko.

Hiru eusko erki honeek Laterriaz itunduko dabe bakotxak zenbat ordaindu beharko dauen urtero Laterri-gastuetan laguntzeko.

Hauxe da eskatu dana. Ez dinot horixe danik hitzik hitz, baina bai horixe dala eskatu danaren guna.

Batzuk esango dabe hori ez dala euskaldunai zor jakuna; euskaldunai hori baino askozaz gehiago kendu izan jakula; eta ia zegaitik eskatu behar ez dogun kendu euskuen guztia, oso-osorik.

Gizonak a... bajakiguk hori, baina osoa eskatzen bajoagu, alde guztietatik hasiko jakuzak, txoriak mozoloari lez, zarataka, pikuka eta erpeka, baketan ixten ez deuskuela, eta zer aurreratuko geunkek?

Eta honetara, geure aldera, Euskal Herriaren aldera, jarri dozak euskotar asko eta asko, gogorik onenagaz, eta geure gauzak aldezteko lehengo aldian orain oste haundia gozak; orain hurrean eukiko joaguz Espainiako Lagi-Etxean diputadu eta senadore pila bat, jagiko diranak hitz egiten Euskal Herriaren alde, geure gauzen alde.

Beraz, Gobernuak uko egiten bajautsak be eskatu danari, Euskal Herriak irabazi egin jok oraingo erabagi hartze honegaz, orkarte edo pausu eder bat egin joagu aurrerantza. Honetara bagoazak, urte gitxi barru Euskal Herriaren aldeko seme onak asko gehituko dozak, eta zorian aurkituko gaituk beharba onean edo txarrean geure zatia atarateko.

Aurrera, euskaldunak, jo eta kea! Ez ikaratu, ez gelditu bidean, ibili beti, gitxika bada be!

Euskal Herriko hiru Diputazinoak oingoan zintzo jokatu dabe, Diputazino guztiz preštuak dira eurok. Bihotzez agurtau daiguzan ba didar eginik: Gora Arabako eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazino guztiz euskotarrak! Jainkoak onetsi zagizela diputadu guztiok!

Bart Atxuriko geltokian egin jaken abegia Bizkaiko diputaduei,
eurai jagoken lez. Oste handi sutsuak itxaron eutsien, txaloka eta
goraka eta poz-pozik.

Hau izan zan abarrotsa! Zoratuta lez ebiltzan danak.

Lehenago lau zoro bakarrik ginan, gaur ia danak zoro.

1917-VII-17

NOZ EDO NOZ...!

Bai, noz-edo-noz badaukagu gobernua.

Astebete osoa egon gara gobernu barik, atzo zortzi jausi zan ba hankaz gora Datoren gobernua.

Barri hau ez dakigu zelan atondu izango dan txarrantxadunen arazo astun horregaz; zer eskatu izan izango jakon beroni, eta beronek zer eskini egin izango dauen horretan. Hau behin-behinean ez da ezagutuko, gero bai; itxaron dagigun ba, eta inoz jakingo dogu edo igarriko jako.

Oraingo ministerio honetan gauza bi ohartzen dira barriak, Espainiako politikan inok uste izango ez ebazanak; bata da Guda-Ministerioan herri-gizon edo *civil* bat sartutea, eta bestea katalan abertzale bi ministro izatea.

Txarrantxadunen buru herri-gizona ipintean esan gura dau, itxuraz, txarrantxadunok igarten dabela eurek ez daukela ganorarik era batera agintari eta banakari¹²⁰ izateko, hori autortzen dabela, eta horregaitik gurago dabela herri-gizona agintari-banakaritzaz guda-gizona baino. Hori igarri eta autortzen badabe, ez doaz oker, egia baino ez da eta.

Katalan abertzale bi ministerioan sartuteak esan gura dau, horrek erdiko edo Gaztelako politikook nahitaez burua makurtu behar izan dabela, eta euren artean hartu, orain arte ezezka eta botaka eta joka erabili dabezan gizonak.

¹²⁰ [Administradore].

Hemen badira eta Katalunian be izango dira, esaten dabenak, ministro sartu diran abertzale biak euren aberria eta oldoztea zapaldu dabezala, ez leukeela hartu behar horretatiko lekurik, behaztopo¹²¹ egin dabela, euren aberria eta lagunak saldu dabezala ministro izatearren, eta honeetariko zentzunbakokeriak.

Ez, ez dago holakorik. Hor behaztopo egin dabe lehengo politikoak, katalan bi horreek hartu beharrean aurkitu diralako. Gomutau baino ez dago zelakoak esaten izan dabezan gaztelar politikoak katalan abertzaleakaitik; Espainiaren arerioak dirala, ez dabela besterik behar egurra baino, ez jakiela bape emon behar, higuigarri batzuk dirala, gorrotogarriak, eta honeetariko asko. Eta orain horreekek, higuigarri eta arerio eta egurra behar daben horreekek berberok ministerioan sartu.

Nok egin dau behaztopo? Ez kataluniarrak; honeek, guk ez dakigun arren orain, euren baldintza edo kondizinoak ipini izango dabez leku horreek hartu orduko, eta eskier atarako dabez Kataluniaren aldez hobari edo bentajak. Leku horreek hartuaz euren aberriaren aldez doaz, eta igarriko jako gero.

Euren elearen aldez edo ogasunaren aldez atarako dabezan hobariak, gure elearen aldez edo gure ogasunaren aldez be izango dira berean, euren adiskidetasuna jagoten badogu.

Beraz, kataluniarrak ministro izateaz guk ez dogu okerrik, hobaria bai, eta ez txikia.

Eta gainera, gaurko honek esan gura dau aldatu dala Espainian ministerioak eralduteko bidea; orain ikusi dogunaz uste izan lei inoz euskotarren bat, baina hau euskotar abertzalea, ministro izan leitekela, eta honelako bat danean, zelako bideak zabalduko litzakiguz geure aberriaren gaizkakunde bidean?

Batzuk gurako leukie beti bazterrik bazter ibili gaitezala; inoz mailatxu bat gure aldez egin ahal badogu, ez daigula igon, ezta! edo dana igon salto baten edo bapez.

¹²¹ [Estropezu].

Irudi bat. Gizon batzuk gagoz Anboto ganera igoteko usteaz. Batzuk gura dogu igon piska-piskaka gorantza joanaz, bide zatitxo bat egin eta gero jezarrialdi bat atsedena¹²² hartzeko, eta honantxe; beste batzuk dagoz ostera dinoenak eurak horretara ez dabela gura igon edo joan, edo salto baten jarriko dirala Anboto ganean edo ez dirala inoz igongo, edo dana edo bapez, astoa edo mandoa.

Azkenengo honeck beti ibili behar izaten dabe hasarreka, beti itzel, beti aurka, inoz ez dabe gauza bat ondo egina ikusten; bai ba, Anbотора zelan igon salto baten? Ibili eta ibili nekatzen dira eta esaten dabe: "ezin leikek", eta itxaropena galduta etxuten dira bide bazterrean eta kitu, haren lanik ez daukazu gehiago; gizon hareek galdu dira aberriarentzako. Tamala, ezta, irakurlea? Tamal handia!

Kataluniarrek apur-apurka gorantza doaz, beti gorantza, eta heldu egingo dira inoz, heldu behar! gelditu ezik. Eta ez dira gelditzen.

Katalunian be badira epe gitxikoak edo epebakoak, haina gehiago dira ostantzekoak.

Guk hemen hondino epebako asko dogu, zarrastada baten fusilak hartuta edo, guda edo alkar hilte baten ondoren, geure aberria oso-osorik eta garbi-garbirik atara daikegula uste dabenak; eta ereti hori etorriko dan arte egon.

Mutilak, bizi izaten ikasi behar joagu, eta ikasita gero be nahikoa zeregin.

1917-XI-4

¹²² [Deskantsua].

AURRERA EUSKALDUNAK!

Gaur jokatuko dogu zinegotzi-hauteskundera.

Gure Jelbatz (Alderdi abertzale) honek ipini ditu bere zinegotzigei edo kontzejalgei zintzo eta euskotar onak, eta burrukara sartzen da sutsu eta bete-betean, ohi dauen lez.

Zinegotzigei honeek daroe udaletxeetara gure Jelbatzaren guraria, hau da, Euskal Herriaren gogoia eta ogasuna zehatz jagotea.

Horregaitik, zinegotzigei horreek bihar zinegotzi egin daitezanean, Udal edo Aiuntamentutik ahal dan bestean arduera hartuko dabe euskotasuna zabaldu eta indartu daiten bide guztietatik, euskerea eta eusko ekanduak eta eusko ertiak eta eusko jakintzak eta abar sendotu eta gehituaz, baita gure herrietako lan eta irabazpide eta edozetarikoko ogasunak ondo zaindu.

Inok erantzun lei, horrenbeste egingo dabela beste alderdietako zinegotziak be, eta guk darantzugu ezetz, ez dabela egingo, orain arte egin ez daben lez, ba zinegotzi horreek ez dira gureak lakoak, euren alderdiak ez diran lez gure Jelbatza lakoak.

Ez dira bardinak, ez. Gure Jelbatz honek, edonok dakian lez, hauxe gure aberriau dauka bere bihotzean, berau da bere oldozpen eta zeregin eta ames guztien azkena; gure Jelbatz honen gogo guztia hementxe dago, Euskadin, Ebrotik honantz. Ostera, hemengo beste alderdi guztiak euren gogoia Ebrotik harantz dauke, euren oldozpen eta zeregin eta ames guztiak harantz bideratzen dira.

Eta Jelbatzako eta alderdi horretako gizonak be alde berberori dauke, hementxe jaiok eta hemengoxe jatorria daukenen artean izanda be.

Alderdi horrerri ez deutsoe inoz ardurarik izan, eta ez deutsoe orain be, gure euskerea galtzeagaitik; gure aberri honen edestia¹²³ eta beste jakinbideak bazterrean laga, eta auzoko edestiak eta enparadu jakintzak euskaldunen artean zabaltzen ahalegindu dira; gure ekan-duak galdu arren ez dabe ikara handirik egin behin be; bai zera, bes-tetara bai, eurok lagundu atzerriko ekandu txarrak ekarten hona; alderdi horreei euskaldunen aberria galtzeak bape ez deutse minik emoten.

Eta gure Jelbatzak bere zereginik aurrengotzat dauka euskerea eutsi eta zabaldutea, euskeraz dakiena edo euskalduna leku guztietara behinagotzat harturik, Bizkaiko Diputazinoan erakusten dauen lez iragoko sei hilabete honetan; gure Jelbatzaren guraria da euskaldunen aberriari bizi eragitea, eta bera sendotu eta indartzea.

Beraz, ez da nahikoa esatea: "Geu be euskaldunak gara, zuek ez eze", alderdi atzerritar horreetan dabiltzan euskaldunak esaten deuskuen lez. Ez da nahikoa; eurak izan arren, euren alderdi horrek erdel-dunak dira, eta euskaldunen kaltekoak; alderdi horreek ez dira hemengoak, hangoak baino; han dauke euren buru eta gogoa, eta gorputzik gehiena, hemengoa gorputz atal txiki-txiki bat baino ez dala. Zer egingo dabe ba euskaldunen alde horretariko alderdietan sartuta dabiltzan euskaldun atzipetuak? Ezebez!

Ikusita egon da hori antzinatik hona. Alderdi horreek hemen nagusi izan diranean euskaldunak alde guztietan atzera eta atzeraka joan dira hemen, eta erdel-dunak aurrera eta aurrera hareen lekuetara sartzen. Hau danok dakizue guk esan barik be. Ostera, gure Jelbatza Bizkaiko Diputazinoan nagusitu danean, danok dakizue hau be, euskotarra izatea eta euskeraz jakitea ipinten jake baldintza edo kondizino, bertan otsein edo enpleadu izan gura dabena. Orain arte holakorik ez da ikusi Diputazinoan, bertan diputadu izan diran arren beti bizkaitarrak eta honeen artean euskaldunak asko. Hortxe dago

¹²³ [Historia].

argi-argi alde handia dagoala Jelbatzatik beste alderdietara, eta batean eta besteetan dabiltzan gizonak be alde handia daukela euren egipideetan.

Bizkaiko Diputazinoak gaur egiten dabena euskaldunen alde Euskadiko udal edo aiuntamentu guztiak egin dagien, bialdu euretara zinegotzi jeltzaleak.

Euskaldunak, emon autarkia jeltzaleei, holan Jelbatzari indarra emonik, eta zeuen buruaren alde lan egingo dozue. Jeltzalea ez danari autarkia emoten badeutsozue, zeuen etxeari harrika egingo deutzazue.

Ia ba, euskaldunak, gaur da geure eguna, jagi eta danok batera lan eginik atara daiguzan goitik geure zinegotzigeiak Bilbaon, Donostian, Durangon, Deban, Gernikan eta hainbat beste lekutan.

Gora Euskadi euskalduna, mutilak!

1917-XI-11

ATZOKO BURRUKEAREN ONDORENA

Lerro gitxi honeek idazten doguzan orduan, gabeko bederatzia inguruan, guk dakiguna hauxe da:

Bizkaian irabazi dogu lau auterkitan: Durango, Markina, Gernika, Balmaseda. Beste auterki bietan honantxe: Barakaldon gauza eskierrik ez, baina geurea hurrean; eta Bilbaon hondino ikusteko, ba gaur egin behar da atzera hauteskundera lau lekutan, eta horrez gainera Prieto motzari kendu behar ei jakoz Cortesko uri zatiko autarkiak, bertan alkateorde izan zalako lehengo urtearen azkenera arte.

Beraz, lau eskier seitik, eta beste biak gaur ikusteko.

Guk gura genduan seirak arrunt ataratea, eta horregaitik apur bat hoztxu gelditu gara. Ondo begiratu ezker, hotzituteko zio handirik ez dogu; baina, horixe dago, hasten garanean azkena jo arte ez gagoz pozik. Hobe da honelako izakerea edo jenioa eukitea. Gaur geure biak atara ezin badoguz beste behin urtengo gara geureaz. Gu ez gara musturreko batzukaitik atzera egiten dogunak. Ez ba adorerik galdu. Gogoratu zenbat urtean erabili gaituezan ostikopean, eta guk ekin eta ekin lortu deutsegu Bizkaian diputadurik gehien ataratea, eta ekin eta ekin lortuko deutsegu danak ataratea, eta hemen inok txitik atara ezin izatea, geu izango garalako bertan nagusi eta jabe, geu euskaldunok, halantxe behar dan lez.

Gipuzkoan irabazi dogu Bergaran. Eizagirrek urten dau Lekeri-ka atzean itxita. Ederto! Tolosan ez dabe irabazi. Ez da ardura, beste behin izango da.

Naparrako izparririk ez dogu ordu honetan; beraz, ez dakigu Aoizen zer jazo izan dan.

Dana dala, orain arte hamar diputadugeitik sei eskier doguz, bi ikusteko, bat galduta, eta bat jakin ez zelan dagoan.

Txarragorik izan eitekean. Lehenengoz ointxe sartu gara honeetarikoa hauteskundeetan.

Inok esango dau guk geure buruak gotasau¹²⁴ gura doguzala. Ez, ez dogu hori gura! Geratu daitezala gure gogoak mingostuta, hurrengorako suz beterik aurkitu gaitzan.

Dana dala, irabazten ala galtzen, guk eskerrak dagioguz deun Mikel handiari eta beti gagoz gertu burrukarako Jelen alde.

1918-II-25

¹²⁴ [Kontsolau].

SEIGARRENA BE BAI?

Atzo egin zan hauteskundera Atxuri uri zatiaren atal baten, Kurutze kalean, astelehenean ezkertarrak ontzia hausi eben lekuan.

Uri atal hori oso da abertzalea, eta jakina, Chalbaudek aurrera handia atara deutso Prietori. Hara: harek euki ditu 163 autarki eta azkenengoak 33; beraz, 130 autarkien aldea.

Orain, atzoko hauteskunde honen ondorena aztertu daigun:

Atzo arte euki ditue: Chalbaudek 4.270 autarki, Prietok 5.719 autarki. Atzoko autarkiak generatu dagioguzan eta eukiko ditue: Chalbaudek 4.433; eta Prietok 5.752.

Baina azkenengo honi eratsi behar ei jakoz Cortes uri zatiko autarki guztiak, bertan lehengo urtearen azkenengo egunera arte alkateordea izan dalako; agintaria beraz, eta legeak argi ei dino, autarki horreek ezin jakozala ezagutu. Autarki erasteko horreek dira: 1.467. Eratsi ezkerro, geratzen jakoz Prietori: 4.285.

Chalbauden azpitik geratzen da ba, 148 autarki gitxiagogaz.

Autarki-zenbatzean¹²⁵ horreexek zenbatu eta emongo deusiez bakotxari, eta halan ezkerro gure Chalbaud izentauko dabe Bilbaotik diputadu.

Batzuk dinoe, legeak agintzen dauela honelako jazoeretan, ez dala diputadu izango ez bata ez bestea. Hauxe idatzi neban neuk liarainegun hemen. Baina beste batzuk dinoe, ostera, ez dagoala

¹²⁵ [Escrutinio de votos].

holakorik; gauko autarki-zenbatzean zeinek zenbat¹²⁶ daukan arakatu, eta gehien daukana diputadu izentau, eta kitu, ez dagoala besterik honetan.

Azkenengo hau balitz Bizkaitik seigarrena be geuretzako litzake, eta gurendea harrigarria.

Edozelan be Prietori iges egin deutso eskuetatik diputadutzeak.

Mutilak aspaldian gure gauzak bitsa lez doaz gorantza. Zer dok hau? Hau ez da besterik, nire ustez, Goitiko indarra baino, eta berau ezaugarri bat da guretzako orain arte bide onetik goazala. Ez urten ba bide on honetatik, Jaungoikoa aurretik eta gero geure Lagi Zaharra edo Aberria beti euki gogoan, eta eurentzako geure ahalegin eta lan guztiak inori gorrotorik hartu baga, eta ez bildur izan, Goitiko laguntasuna badogu, barre egingo deutsegu hemengo gizontxu txaxar ezerezai, gu aurrera beti, danak geure aurka eta guk danak zapaldu.

Gora Jel! Gora geure bide ona erakutsi euskun Sabin handia!
Gora Euskadi zeuek eta neuk ondo dakigun eraz!

1918-II-28

¹²⁶ *J. t.* zenbat.

ZEGAITIK URTEN DIRAN

Gobernuan egon diran ministro katalan biak urten ziran harainegun euren lekuak itxita.

Hauxe gauza ikaragarria izan da, hauteskundeak egin eta berehalaxe gizon bi horreek Gobernutik alde egitea. Hau zegaitik?

Bata eta bestea dinoe Madrileko politikook, baina egia hauxe da:

Orain idatzi behar eban Gobernuak bere asmoen azalgundea, berau Erregek irakurri behar ebana Lege-etxeetan. Honixi, asmo azalgunde honi deituten deustie erdeldunak "Mensaje de la Corona". Ba, hantxe idatzaldian agertu dira ministro katalan biak alde batetik eta bestetik ministro gaztelarrak.

Katalanak gura dabe, edo gura izan dabe, Gobernuak abindu dagiala Legegintza edo Legislatura honetan eztabaidan ipiniko dala Norberetasun edo Autonomia emotea Espainia laterriko herrialde aurreratuei, Euskadi eta Kataluniari behintzat. Enparadu ministroak hori ez dabe gura izan, autonomiarik ez dabe aitatu gura izan. Eta orduan katalan ministroak erantzun dabe: "Hor gelditzen zarie ba, gu bagoaz, autonomia gura ez dauen Gobernu baten gu ezin gindekez egon gehiago".

Ederto egin dabe ministro horreek. Eurak sartu ziran Gobernuan gauza bi gitxienez hartuteko: hauteskundeak garbi egin erazoteko, eta gero autonomia zuzentzeko Lege-etxeetan.

Lehenengoa bete dabe, hemen argi ikusi da Gobernuaren ordezkaria ez dala sartu ezetan hauteskundeetan, batezbat¹²⁷ egon da, berari jagokon lez.

¹²⁷ [Neutral].

Bigarrena ezin izan dabe lortu, eta hagaitik alde egin dabe Gobernutik, gizon zintzoen bidea harturik.

Honek esan gura dau lege barruan ezin dala lortu autonomia, eta legepetik urten eta matxinadara edo gudara urten beharrea gagozala?

Lehenengo bultzakadeaz ez gaitezan hurra jota gelditu. Ekin barrero, eta Gobernu hau hankaz gora botatera ahalegindu danok alkar hartuta, beste bat datorrenean ia indar gehitxuago hartzen dan geure bideetarako.

Gobernu honek Lege-etxeak zabalik eukiten badauz, hantxe gogor egingo deusie autonomizaleak; eta Romanones azeriak lez Lege-etxeei giltza emoten badeutse, orduan Lege-etxetik ate gogor egingo jako; han gura ez badau burrukea kalean egiak esango jakoz, eta autonomi-zaletasunak bidea egingo dau eta indartuko da.

Politiko zaharrok ez dabe gura autonomia, baina gura eta ez iruntsi beharko dabela uste dogu.

1918-III-2

GOBERNUA HANKAZ GORA

Hor daukagu luze, hurra jota, hainbeste harrokeria eta gogorkeria astebete honetan erabili dauen Gobernuua.

Harrokeria eta gogorkeria horreek izan dira bere usterako txikiak, apalak, ahal gitxidunak diran otsein¹²⁸ izkilubakoentzako.

Astebete da, gordazibilakaz hartu zituala urrutidatz-etxeak; eta geroago urrutidatz-otsein eta bidari-otseinak euren lekuetatik jaurti ditu, euren lekuetan ipinirik gudamutilak¹²⁹; eta hondino, behar beharrekoa dan hartu-emonu urrutidatzez eta bidariz ez da zuzendu, eta itxurarik be ez dago.

Hori da ganorea? Hori egitekotan, hobe zan otseinokaz aitu, herria euki barik hainbeste denporan alkarbide guztiak hausita.

Gobernu honek horretan erabili dituan gogorkeriak eskatzen dabe, gertu eukitea eta arin berripintea herriak behar-beharra dauen alkarbidea hariz eta idatziz.

Baina ezebez, gordazibil asko, hau bota hori bota, mundu guztiari bildurra sartu gurarik ibili, eta bapez! hemen gagoz danok idazkirik ez izparringirik ez ezer hartu ahal dogula.

Zelako Gobernuua da hori? Ezetako be ez dan Gobernuua.

Halan jausi da Lege-Batzar gaztean agertu danerako. Danak jarri jakoz aurka Gobernuari, eta batez be La Ciervari, eta igarri dau ezin dauela gauza onik egin, eta txakurrak katua lez, aurrean erabi-

¹²⁸ [Enpleadu].

¹²⁹ [Soldaduak].

liko dabela beti purrustada baten, eta *gureak egin jok!* esanda, itxi dabez ministrook euren lekuak erregeren eskuetan.

Gudari edo militarraz hain tarraz ibili eta gudari ez diranakaz hain jagi ibilteaz, Gobernu honek galdu dau herritar guztien begi ona; inok ezin ikusi dau begi onaz.

Begi txar hau Lege-etxe gaztean agertu jako eta berak alde eragin deutso.

Orain hasi dira erregegana politikako handi-handikiak joaten, onua edo kontsejua emon daioen berari ia nori deituko deutan Gobernu barria eralduteko, edo Gobernu barri hori ia zelan eraldu behar dan.

Hau idazten gagozan orduan hondino ezer ez dakigu. Nekeza izango dala Gobernu barria idorozea dinoe danak. Badirudi.

Zein bide hartuko ete dabe? Hurrean txarrena.

Gure eretxiz, hiru bide dagoz, hara:

Lehenengo; gizon gogotsu bat buru dala ministroak atara Batzarreko diputadu aldra handi guztietatik, eta beronen egikizuna izango da bakea ipini, gudarien alde agertu ziran errege-agintzak atzeratu eta Lege-Batzarrera eroan, hantxe azterkatu-adiraldtu eta erabagi daitezana; eta herri-otseinai be esan horixe egongo dala euren eskakizunakaz, Lege-Batzarrera eroan eta hantxe erabagi daitezala. Hau egin ezker, danak baketuko litzatekez, legea guztientzako bardina dala ikusirik, eta Lege-Batzarrak Laterriaren ordezkoa danak, erabagiko dauzala eskakizunak ikusirik.

Bigarren; lehenengokoori ez dabela gura eta zemakunak¹³⁰ egin da otso jarten badira gudariok, eurei emon Gobernua, ia zer egiten daben; izan daitela gudari-nagusitasuna, ez legerik eta ez eskubiderik inori ezagutzen jakola, indarra agintari, korneteaz ogera eta korneteaz jagi goizean eta korneteaz mahaira eta korneteaz alde guztietara.

¹³⁰ [Amenazuak].

Hirugarren; *pastela* dan Gobernu ipini, ez bata ez bestea egingo dauena; ez gudarien aurka ez gudarien alde; erdiz-erdizka, ez hotz ez bero izango dan Gobernu matxal bat.

Hauxe hirugarrenau da urteerarik txarrena, eta berau hartuko dabe hurrean.

Honezkero zirt edo zart egin behar da lehenengo edo bigarren urteereaz, beti ibili barik aiko-maikoetan, gero ikusi behar dana hainbat lasterren ikusi. Edo gudariakaz, edo gudarien aurka; ez dago besterik. Horretantxe jarri da gaur Espainia laterrikø politikea. Europako zabaletan ludi guztiak darabilan auziaren adar bat dala esan lei hemengoa be, gudari aldrak, gudari batzak, herri-gizonaren ganetik, edo herri-gizonak nagusi, gudariak herriaren azpian egonik.

Hauxe dirudi auzi honen mamina.

1918-III-21

HONDINO GOBERNURIK EZ

Lerro honeek egiten gagozan ordurako ez dago hondino Gobernurik, eta antzik be ez.

Maurak laga dau Gobernu barria eraltzeko erregeren agindua. Eta nok hartuko dau? Nor da horretarako gizona Espainian?

Era txarrean, baina guztiz txarrean aurkitzen da gaur Espainia laterria. Bere errai guztiak daukaz lokatuta. Lehenengo lokatasuna izan zan lehengo urteko bagilako gudarien jagikerea. Orduan honeek ostikopean sartu eben Gobernu makala, eta geroago be bai birritan, eta hori ikusita, laterriko beste otsein guztiak be, jakina, hasi ziran oldoztuten ia eurak zer gitxiago diran gudariak baino, eta eskatzen eurei be hobeto dagioela euren bizikerea, eta gudariak lez, Lege-Batzarretara eroan barik asmoa, Gobernuak erabagi eta aginduta baka-rrik.

Gudariak nahastebide handia ipini eben, eta ez da gauza onik izango lehenengoko arantza hori atara arte.

Orpoan arantzea sartzan danean, bertan handitua egiten dau, eta zoldu egiten da, eta ondorengo txarrak ekarri, arantza hori atara ezik.

Hor Espainian be, arantzea da gudarien jagikerea, eta beraren inguruan zorrea gehitu egingo da, eta handitua geroago eta txarrago, zitalduko da edo benenotuko da. Arantzea kendu behar bere lekutik, bestelan handixek etorri leio heriotzea gorputzari.

Arantza hori atarateko min handitxua hartu beharko dau laterriak oin, baina ez dago beste biderik ataratea baino.

Badaukie Espainian arantza hori atarateko azarkuntzea daukan
gizonik? Osatzeko bidean jarri leitekez.

Ez daukie? Heriotzako bidean jarri dira.

1918-III-22

GOBERNU BARRIA

Hazelako Gobernua argitu dan ibili eta ibili! Politikako handi-handiok hor sartu dira, ezker-ezkerrekoak eta jaimetarrak izan ezik.

Espainiako herriak, hobeto esateko, Madrilekoak harrera pozezkoa egin deutso Gobernuari: baita urrutidatz eta bidari-otseinak be.

Danak dabilz pozez zoratuta lez, goraka eta didarka eta txaloka, zorion handi bat jausi balitzakioe lez.

Hondino lar poz-erakusle dala uste dau hemen jente askok, eta horretan gagoz geu be; ba, gudarien aldez, Lege-Batzarren ostean, eta Laterriko Eralguntza¹³¹ hausita, emon ziran errege-aginduak hondino ez dakigu atzeratu diranik, eta hortxe dago untzea. Ganera, urrutidatz eta bidari-otseinai ez deutsee ezer emon hondino.

Hainbeste poz darabilenean, esan lei zcozer jakingo dabela: azpitik esan izango deusiela, Gobernu honen gogoa dala gudariak ipintea, beste guztiak lez, legearen azpian, eta ostantzeko otseinen eskakizunak beteko dauzala bere aldian. Hauxe isilean esan badeutsie, baina bai zera! gure ustez ez dago holakorik; ez isilean ez agirian ezer esan deutsie. Ezebez.

Hor jazoten dana da, lehenengo lerroko gizonak Gobernuan ikusi dabezanean, itxaropena sortu jake bihotzetan, eta honexegaz bakarririk burua galdu dabe; dana ikusten dabe zabal, erraz, euren gurariz.

¹³¹ [Constitución].

Espainiako herri hori urduriegia da. Negar eta arrantza handienetatik behingo baten igaroten da poz eta barrerik handienetara. Edo astoa edo mandoa. Bitarterik ez dago.

Herri benagoa balitz, begira jarriko litzake, ia Gobernu ospatsu horrek zer egiten dauen ikusi arte, eta gero, ikusi ezker legeen alde eta herriaren alde jokatzeko dauela, orduantxe zan erea poz eta goraka horreek egiteko.

Oraingo poz horreek bidebakoak dira.

1918-III-24

HITZ EGIN DABE

Gure diputadu guztien izenean Arantzaditar Imanol Iruñako diputaduak hitz egin eban harainegun Kongresoan, eta argi azaldu eban zer dan gure herri hau eta zelan aurkitzen garan eta lehen zer izan ginan eta zeintzuk eskubide daukaguzan eta zeintzuk asmo doguzan eta zer gura dogun eta zetara joan diran hara.

Nik uste neban hori guztiori lehenengoz entzuten ebenean hangoak, gora-goraketan jarriko zirala hasarrearen hasarrez, eta usubilo edo zarata itzelak sortuko zirala. Baina ez da izan hainbeste, eta hango izparringiak, bai, agertuten dabe atsekabea Arantzadik azaldu dauenagaitik, baina ez dabe inoren bururik eskatzen, lehenago inoz eskatu daben lez, eta bai dinoe laketu behar jakela eurena esaten eusko abertzaleei be.

Tira, gure amesak entzun eragitea lortu dogu oin behin-behinean, gero gerokoak.

Han dabil Pradera zoratuta lez arterik hartu ezinik, gaztelarrak eurak baino be txarrago, suak hartuta jeltzaleen aurka. Bat edo bat izan behar gure aurka holan jarriko zana, eta zorion handia da guretzat Pradera izatea. Honen ordez izan balitz gizon begiko bat eta berau baino zuhurragoa gauzak behar diran neurrian esateko, gauzarik onenak be ba neurritik atara ezkeru higuingarri egiten dira eta, jente askori, eragingo cutsan, eta moltzo handi eta astuna zuzenduko eban gure aurka. Baina zorionez Pradera da gizona, begikotasunik bape beregantzen ez dauena, harro-edo, eretxi-edo antza daukalako, eta ganera, bere joran edo afan gehiegiaz errazoa baino gorrotoa hobeto erakusten dauelako, eta horregaitik, gure diputaduen aurka

baino bere aurka jarteko gogo gehiago euki daroe entzuten dagozanak.

Hau idazten gagozanean ez dakigu hondino atzo arratsaldean Kongresoan jazo zana, baina harainegun Arantzadik hitz egin eban, eta orduan jokatu zan gure lehenengo eztabaidea; atzo eta gaur eta hurrengo egunetan arramuskada eta purrustada batzuk izango dira honen eta horren artean, baina ez joapide handikorik.

Bagabilz ba, eta ez gelditu, eta helduko gara.

Hori idatzita gero jakin dogu Prieto sozialistek atzo hitz egin dauela Jelen kaltez Kongresoan; astakeria eta urdekeria haundiak esan dauzala.

Hara, aurreztik esan baleuskue: zeintzuk arerio gura dozuez Kongresora zoazenko? Ez genduzan hautuko Pradera eta Prieto baino egokiagorik, geure Jelen aldez hango gizon zindoen gogoak ipinteko.

1918-IV-18

SEME DEUNGA AMA UKATZEN

Ludian egin leiken gauzarik ezainena egiten dabil Madrilen Pradera diputadu jaimetarra, eta uste dogu bere lagun beste diputadu jaimetarren izenean be badabilela, honeek isilik dagozan ezkerro, adierazo baga bat ez dirala euren lagun horrek dinonagaz.

Gauza ezain hori, ama ukatzea da. Praderak daukan joran gutia da, hango jenteari sinistu erazotea hemen ez dagoala herri banakorik, herri honek ez daukala ezetariko alderik Espainiako herriakaz, hau espainiarra dala izakeraz lagiz dan lez, eta herri honek ez daukala eskubiderik bereburu ezetan izateko.

Baina alperrik da hori esatea, begien aurrean dagoana inok ezin ukatu lei. Gure herri honetan sartzen danak, atzeritik etorrira, Espainian sartzen dalakoan ikaratuta ikusten dau herri honen ele edo berbeteak ez daukala ezetariko antzik Espainiakoaz, herri honetako biztanleen abizenak ez dirala espainiarrenak, ekanduetan be alde handia daukela, eta hasten bada jakipideak azterkatzen, argi-argi igarriko dau herri bana-banako baten aurrean dagoala, ez Espainiagandik bakarrik, baita Europako beste guztiakandik be.

Hori dinoe danak, espainiarrak eurak be bai. Argi-argi gauzak esaten zaleak diran espainiarrak esaten dabe baietz, herri banako edo apartekoa bagarala, ez dagoala zetan ukatu, baina izkiluz irabazita gaukezala, eta euren menpean, eta ez daukela gu aske ixteko asmorik, eta inoz lehengo eraz egon gura badogu, indarrez geuk be irabazi beharko dogula, bestelan ez deuskuela emongo, eta gure askatasun-itxarokunak amesak dirala. Halan hitz egiten dabe, baina ez dabe ukatzen gure nortasuna, gure notintasuna, Praderak lez.

Eta euskotar endekatu honek generatzen dau gure herri hau ez dala izan behin be bat lagiz. Eta hortik ataraten dau ez daukala esku-biderik bereburu izateko.

Baita dino, gure asabak ez ebela erabili euskerea euren lagiak idazten, eta Pradera *filosofoak* hortik ataraten dau ez daukagula eskubiderik geure ele honen alde.

Zer jaukak zer ikusi horrek? Zati askotan bananduta egon arren, zati bakotxean euskotarrak eurak egiten ebezan eurentzako legeak eta eurak erabilten eben edo jaurri ohi eben euren er-zatia. Zein esku-bidegaz kendu eutsien hori egin ahal izatea? Indarren eskubidegaz; okerrean, ez zuzenean.

Eta zer dauka, gure asabak euskerea idatzi ez baeben? Behintzat, idatzi ez baeben, hitzez erabili eben beti, ba geuganaino heldu da. Guztiz galdu balitz be, eta geuk ikasi eta erabili eta zabaldu gura izan bagendu, nok galerazo behar euskun? Baina ez, ez da galdu, geure egunetara arte etorri da mailarik-maila Jaungoikoak gure herri honi emon eutsan ele garbi eta zahar hau.

Pradera hori, bere ama Euskadiri (edo berak esango leuken lez, Euskal Herriari) deutsan maitasunik-ezagaz, nondik nora dabilan be ez dau ikusten, itsututa dago.

Horrexek ixten dau txiki behinolako Sanchez Silva.

Guri abertzaleoi, eta euskotar guztioi be, Praderak han egingo dauen lana alperrekoa jaku. Guk hemen egingo dogu lana geure aberria sendotzen, eta sendotu ezkerro, inoz espainiarrak ipiniko doguz geurea dana emoteko, eta orduan danok adiskide.

Sendotasunak zenbat esan gura dauen begien aurrean daukagu. Orain hamar urte, gitxiago, orain bost urte, gaur baino makalago gengozanean, Kongresora bialdu bagendu diputadu bat Arantzadik esan dauena esatera, entzun be ez eutsoen egingo! Jagiko jakozan danak bapatera gizon bat lez, eta atarako eben handik bultzaka eta ostikoka!

Eta gaur ez, gaur entzun egin dabe, ezetz dinoskue, baina hitz egiten itxi. Zergaitik? Sendo samar ikusten gaituelako, eta igarten dabelako ez entzutea, hitz egiten ez ixtea, txarrago izango litzateke-

la, bakerik ez leukiela izango; eta ludiko lagia emon be: kalte ekarri leikenari lotsea hartu.

Beraz, badakigu zein dan gure bidea: sendotu, sendotu eta sendotu.

Horixe egin ezkerro, ardura gitxi guri Pradera lako guztiakaitik.

1918-IV-19

BARAKALDOKO DIPUTADUA

Nor izango da?

Epaltzatar Domekak izan behar.

Atsegingarria da jakitea zelan dabiltzan gutarrak hauteskundera landuten.

Gaurko zehatz dakie gure *hauteskundelariok* herri bakotxean zenbat autarki daukaguzan jeltzaleak, eta zenbat daukezan piper-poteak eta ezkertarrak, eta honez ganera, zenbat dagozan herri bakotxean edozeini autarkia, *zeozeren* bitartez, emongo leuskioen hanka biko astoak.

Eta asto honeek, nondik edo handik harrapetako ahalegiak egiten, deabrukeriak darabitez!

Alde guztietatik datozen izparrak on-onak dira.

Ezkertarrok eta piper-poteok, bakotxak bere aldera egiten bada-rraie azkenera arte, Txomin Epaltza da diputadu, eskier edo ziur oin-goxetik.

Piper-poteak, askok uste daben lez, gaur edo bihar goizean atzeratu badaitez, euren indarra ezkertarrai batzeko, orduan ez da hain erraz izango, baina zuzen jokatu ezker, orduantxe be Epaltzak irabazi behar, arerio bitzuek aina indar badauka Jelek Barakaldon barta.

Geurea da ba Barakaldoko diputadu-lekua.

Geurea da, eta kendu egin gura deuskue okerrean.

Eta horixe ez deutsegu itxi behar. Ezta!!

Horretarakoxe joan behar dogu abertzale danok hara, hautuerkera, bertan autarkirik euki ez arren.

Bertako abertzaleak autarkia sartu ontzian, eta eurak eta geuk, danok batera, zoli zaindu hauteskundera: autarkia sartzeko edonok aske euki dagiala bidea, ontzia inok apurtzetik jagon, eta autarki-zenbakuntzea egin daitela zuzen eta garbi, eta baktotxak berea eroan dagiala.

Hori egitea galerazo gura badabe, ez itxi. Orduantxe gogor egin behar da, eta edozetara jokatu bildur barik.

Ez joan hara begira bakarrik egoteko usteaz; ondo gertututa joan, ez beso-hutsik.

Eta ez joan eta ibili deslai, noberak gura dauen lekuetatik, egon leku baten, bertan buru egiten dauen abertzalearen esanera, eta beronek adierazoko dau inora joan beharrik badago, eta zenbat lagun.

Gudariak lez, nagusiagoen esana betetako gertu egon, eta holantxe izango da onerako gure joakundera.

Bestelan, jente asko batu arren, baktotxak berak gura dauena egitekotan eta gura dauen lekutik ibiltekotan, dana da alperrik; horretarako hobe da etxean egon, andrearen orde edo ama eta arriben orde harrikoa egiten eta etxeko umeak zaintzen, eta umerik ez badago katua zaintzen, eta katurik be ez badago auzoko atsoakaz briskan jokatzen...

Bihar danok gara Aberriaren gudariak, eta gudaroste ondo horniduan lez, baktotxak bere lekuan eta bere nagusiaren esapean egon behar dau.

Ia ba, anaiak, bihar zintzo gudatu, hortxe erakutsi odola, eusko odola, zein heroa dan.

Bihar belarrimotzai erakutsi behar jake euskotarra gehiago dala, behin jarri ezkerro, nahiz txarrean nahiz onean.

Bihar arte ba, jeltzale maiteok, deun Mikel gugaz! Gora Euskadi! Kanpora hazur baltzak!

1918-VI-29

TXOMIN EPALTZA, IRABAZLE

Nor da?

Txomin Epaltza euskalduna!

Izan behar, Barakaldo hautu-erkian euskotar abertzaleak gehiago dira jazbana¹³² eta jazbana-zaleak baino eta.

Jakina zan, zuzen eta garbi jokatu ezkeru, guredea geurea zala.

Eta zuzen eta garbi jokatu zan atzo. Badakizue zegaitik? Abertzaleak jarri ziralako gogor leku guztietan.

Eta ezkertar gizon-jaleak, iko-pasak bagina lez irunsi behar ginduezanak, ez eben egun guztian txitik atara, oilasko bustiak lez egon ziran.

Bai ba, igarri harek nor dan euskotarra behin musturak astinduten jakozanean, eta edozetarako gertu jarten danean!

Prieto, nok esango leuke? Prieto *matoia*, Prieto *erreboluzionarioa*, Prieto itzela... zegaz ibili zala uste dozue atzo Barakaldo urian? Eskribauagaz!! Eta errebolberrak, trabukoak, eta kutxiloak, non dozuez ba? Bildur, ezta? Hobe dok holan, zeuentzako batez be.

Atzo triskilduta gelditu ziran arerioak; ezkertar belarrimotzak guztiz moztuta, motz-motz eginda; piper-poteak huts-hutsik eta okertuta, txatarrarako be ozta-ozta gauza dirala.

Atzokoa izan dok makiladea! Ia mila eta seirehun autarkien aldea daroatso gure Epaltzak ezkertar belarrimotzenai! Eta Lekerika piper-potea barriz, non gelditu da? Erdian baino gitxiagoan!

¹³² Jazban: musika taldea, gehienetan saxofoia, bateria eta soinuk osotua, gerraostean erromerietan nahiko modan egon zana.

Gaur kalera urteteko lotsa be ez zarie?

Eta lehen Zaballari ondo irabazita eukan diputadutzea kentzeko, bitartean sartu zan *zerak* zer ete dino? Errezki zuzenduko deutse Lekerikari eta Bengoari titulu bana, oraingo mingotsa gozatu dakioen.

Aspaldion ikusten danez, Jelek dana daroa aurrean. Zegaitik ete da? Nondik indar hori? Gizonak, ez gaitez an txotxoloak izan, ez daigun inora begiratu gora baino.

Goitik jatorku laguntasuna eta berari eskerrak zuzen-zuzen goaz geure Aberri-askatasunaren bila.

Poztu gaitez an ba, eta jaurti daigun bularra betean zantzo ikaragarri bat, baina gogortu gaitez an geure ikurritz ederrean: "Jaungoikoa eta Lagi Zaharra".

Izan daitela Jaungoikoa gure gorengo begiratokia; Beragana joateko gura doguz Aberria askatuta eta hemengo beste hobari guztiak.

Ez itxi behin be bide zuzena, eta areriook beti zapalduko joaguz.

Gora Jaungoikoa! Gora deun Mikel! Gora Euskadi! Aurrera euskotarrak!

1918-VII-1

LANDABURUTAR PELI (G.B.)

Orain hamazazpi urte dala, Espainiatik Bilbaora neu etorri barrian, gure auzoko herri haretan urte pilo handi baten bizi izanda gero, goiz baten joan nintzan Diputazioaren Institutuko Euskal Irakastolara, bertan egiten zana ikustearren.

Irakasle-aulkitik Azkue abade jaunak, alai-alai eta maitero hitz egiten eutsan mutil gazte talde bati, aulki luze edo laukaetan jezarrita egozanai. Honeexen artean orduantxe ezagutu nebazan Landaburutar Peli eta bere lagun eta adiskideak beti izan diran Egileortar Imanol, diputadua gaur, Gortazartar Txabier, Arroyotar Koldobika, Maguregitar Andoni, eta besteren batzuk orain euren izenak gogoratzten ez jatazanak. Aldi haretan, Landaburu eta bere lagun horreek mutil gaztetxuak ziran.

Bizi-bizi daukat gomutan egun haretako irakaspenean Azkue abade jaunak aitatu ebazan arrastak edo *posporoak*, azaldurik *arrasta* hitz hori dala ondarrutar arrantzaleen artean sortua, eta ganeratu eban, isiotueran zaratarik egiten ez eben arrastai *lapur-posporoak* deitzen deusela alde batzuetan. Ba, hitz hau entzun ebanean, Landaburuk barre handiak egin ebazan, bere barreakaz enparadu guztiei be barre eragin euskula, bai irakasle jaunari, bai bere ikaskideei, eta bai entzuleak lez bertan gengozanai. Guztizko argia eta zolia eta alai zana Peli gizajoa, beti barreka-barreka.

Gomutapen hori dakart harira gaur, irakurleei esatearren Landaburu euskaldun bihurtuteko ahaleginetan ibili zala antzinatik, holantxe erakutsirik eusko abertzale benetako zintzoa zala.

Azkue abade jaunagaz ikasi eban euskerea. Geroago, Bilbaon euskerea erabilteko ere gitxitan eukalako, zerbait ahaztu egin jakon, eta barrero hasi zan ikastolara eta ikasi eban ondo, ordutik hona gure irakurle bete-betekoa izan dala.

Horrexegaz, bere burua euskaldun eginaz, Landaburutar Peli abertzale onak irabazita eukan gu euskaltzaleen maitasuna, geure artekoa egin zan, geure laguna.

Horrez ganera, ostantzeko jel-lanetan beti tartean izan da Landaburutar Peli. Gure izparringi asterokoetan sarri idazten eban, eta inok ez eban uste izango idazki hareek mutil gazte batenak zirala, gizon heldu jakintsu eta ben-benen batenak baino. Gomutan dauka gu orain hamar urte, Bilbaon zinegotzi-hauteskundeak zirala, Landaburuk *Bizkaitarran* idatziriko irakurgai batek zelako zalapartak eta aituezinak eragin ebazan gure arerioen artean. Irakurgai harek ondorengo zoriontsuak euki ebazan abertzaleak orduan irabazi genduan gurenda ederrerrako. Irakurgai ospatsu haren aitetasuna ezarten eutsien handidun batzuei eta abade jakintsu batzuei; eta guk, irribarreka, geure artean esaten genduan: Bazenkie irakurgai hori mutil gazte batena dala!

Diputadu probintzial hautu zanetik hona guztiok dakizue zein behargina izan dan bere diputadu lekuan, batez be Oñatiko Jakin-Batzarraren gertukizunak zuzentzen.

Asko balio izan dauen gizona, bere sasuerik onenean, galdu dogu. Min handia dogu abertzaleok, handia.

Jaungoikoak halan erabagi dau. Guri ez jagoku besterik hauxe baino: burua makurtu, Landabururen gogoaren aldez otoitz egin, Landabururen izena goraldtu, eta beraren antza hartu aberriaren aldez lan egiten.

Horixe egin daigun ba.

1918-VIII-6

GEUK BE DIDAR EGINGO DOGU

Gaztelarrak atzo Madrilen egin eben kale agerketa bat, eta horregaz eskatuten eben ez emoteko Kataluniari autonomiarik, eta jakina, Euskadiri gitxiago bereburu izatea.

Hareek ez dabe gura inori ezer emoterik, argi ipinten jaken arren eurentzako ez dagoala kalterik Katalunia eta Euskadi euren buruaren jabe izateaz.

Ez ba, guk hemen geure herria geuk erabili arren, euren herria han dauke oso-osorik euren eskuetan, inok ez deusie ezer eskatzen eurenik. Guk eurenetik ez dogu jan gura, guk geureaz bizi gura dogu.

Zergaitik estututen dira katalanak eta guk bakotzak geurea gura dogulako? Euren eurentzako eta geurea be eurentzako gura ete dabe?

Ete dabe? Ez dago ete-rik, horixe *gura dabe* gaztelarrak, Espainia laterri guztian eurak agindu eta eurak jan eta eurak nagusi izan.

Hori okerra da, eta ezin izan leiteke, eta ez da izango. Egin dagiezala agerketak, eurakandu dagiezala txarrantxadunak eta esku-matar kaiser zaleak, didar egin dagiela ikusiko dogu.

Katalunian honezkero begiak zabaldu dabez bertako seme gehien-gehienak; Euskadin hondino loti asko dago, baina geroago eta gehiago itxartuten dira, eta atzoko gaztelarren agerketa horrek lakoak asko itxartuko dabez; Galizian be hasi dira, Asturiasen be zeozer izango da laster, Aragoen be, eta danok alkar hartu ezkeru kaiser zaleen aurka, ikusiko dogu.

Gertauko gara geu be, eta geure txandan egingo dogu geure agerketa garratza.

Orain hitz bat nire lagun eusko abertzaleei: ez gero musturrik okertu nik hor aitatu dodazalako Katalunia, Galizia, Asturias, Aragoë, nik ez dot Euskadi-buru bat egiten erki horreekaz; nik ez dinot gure eskubideak eta horreenak sortze bat daukela, bardinak dirala; baina badinot zuzen dagozala Gaztelaren menpetik urten gura izateaz, eurak Gaztela aina eta gehiago diralako euren herriak erabilten, eta guk euskotarrok, eurak lagun hartuta geure herriaren askatasuna jaretsi ahal badogu (jaretsiko dogun lez), lagun hartu behar doguz, euren adiskide izan, ez euren arerio; guk katalan eta galiziar askatasun-zaleai barre eta burla egingo bageuntse, eurekaz lagun izan gura ez bagendu, Gaztelaren alde egingo geunke, Gaztela indartsu gorde-tera jokatu geunke, eta gure askatasuna ugerrak jango leuke.

Geuk bakar-bakarrik, inor lagun gura ez dogula, jagi eta guda baten bidez edo matxinada baten bidez, eskuratuko geunkela uste dozue geure askatasuna?

Ba niri gogora jatort Idazti deuneko esakuna: *Vae soli!* Bakararren gaixoa!

1918-XII-10

GOBERNUA GEURE ALDEZ

Lehengo igandean hasi eta gehiago Espainiako Gobernuak hemen gure uri honetan darabilzan bihurkeriakaz, gu abertzaleen alde zabalguneko edo prapaganda gehiago egiten dau guk hamar batzarraldigaz egingo geunkena baino.

Igandean egin zituanakaz nahikoa ez balitz lez, egunokaz, ezer ez dala, ezer ez dago ba-ta kaleetan ez inon, gabetan kaleak beteten ditu gordazibilez eta piperrez, eta jenteak itanduten dau: Baina, zer jazoten da? zetara dator guztiau, ezer ez badago? zelan da Gobernu berbera herria bildurtzen dabilela, eurak ibili beharrean herria baketuten?

Eta horrez ganera, Bilbaon gure ezaugarrian euki dogun alkate-rik maiteena, herriak gehien maite izan dauen alkate Aranatar Mari jauna, bere lekutik kendu dau, hemen inok ikusi gura ez dauzan hozkil bi, Balparda eta Berge, joan jakozalako guzur pilo bategaz. Hori xe dok ona! Ezetan huts egin ez dauen alkatea, eta gudea dala-ta, gripa dala-ta, hainbeste ahalegin, hainbeste neke, hainbeste ardura hartu dauen eta hainbeste diru bere sakeletik emon dauen alkate behargin eraina kendu.

Jakina, mundu guztiak txartzat, oso txartzat hartu dau hori egi-tea, eta mundu guztia dabil Gobernuagaitik txarto esaten, eta asko eta askoren gogoak geure aldera bihurtzen dira, eta bihurtzeraino heltzen ez badira be, ez deuskue behintzat begiratzen lehengo areriotasunaz.

Asko egiten dau Gobernuak gure alde. Berak ez daki, ez dau oldozten hori. Baleki, ez leuke egingo.

Dabilela, dabilela! Honeotariko bihurkeriakaz zeozer jasan edo sufridu eragiten deusku, baina asko irabazi eragiten deutso gure aberriaren auziari.

1918-XII-19

HORI ZELAN DOK?

—Autonomia, *erreintegracion forala*, eta honetariko berbakaz hemen gabiliz barregarri, Kirikiño, gu euskaldun gizajook, erdiak be aituten ez doguzala, dana erderaz ipinten dozue ia eta.

—Neuk azalduko deutsut, hara: Erreintegracion foralak esan gura dau Fueroak osorik atzera hartutea.

—Lehenagoko moduan? Dana osorik?

—Bai, dana osorik, horixe esan gura dau.

—Horrexeri ez deutsagu deituten abertzaleak Lege Zaharra?

—Egin-eginean.

—Horrek ez dau esan gura ba, euskotarrak eurak izatea Euskadiren jaun eta jabe (aituten da teilatutik behera), eurek egin honako lege guztiak, eta ganera, eurek izentau hemengo Gobernuia, hau da, eurek egindako legeakaz gure herri hau arteztu eta erabiliko dauen Gobernuia, eta arazo bi horreetan Espainiako ez inongo Gobernuak ezetan sartu behar ez dauela?

—Bai, horixe da Lege Zaharra, horixe da euskotar abertzaleak nahi doguna, eta gure ahalegin guztiak politikan horretaraxe doaz.

—Ba, oker aitu ete dogun bildurra be badogu. Erreintegracion foral edo Lege Zaharra eskatzen, danak ez dagoz baten, geure arerioak izanda be?

—Danak, Pradera eta piper-pote eta errepublikano eta beste atzerrizale guztiok.

—Baina gure Lege Zahar edo erreintegracion foral hori geureganatuteko ez dogu indar nahikoa, ezta? eta emon ez deuskue emongo, ezta?

—Bai, zereko emon! Erreintegrazion hori geuk geure indarrez eta ahal izango dogunean eskuratuko dogu. Eta horrexegaitik, gaur-gaur, hori ezina ikusten dogulako, euskotar abertzaleak eta euskotar onak diranak abertzaleak izan ez arren, gura geunke Espainiako gobernuak guri itxitea oin dogun baino eskubide gehiago arazo bazuetan.

—Ia horixe azaldu eistazu.

—Hara: dana ezin dan ezkerero, gura geunke lortu, hemengo maisuak izentau dagiezala herriak eurak, eta irakatsi ahal dagiela euskeraz be; hemengo bide eta ur-salto eta guztitariko iragintza edo obretan geuk izan daigula eskubidea zelan egingo diran agintzeko; hemengo mutilen soldadutzeaz be, Gobernuak behar dauzan beste mutil emon ezkerero, geu atonduko garala zelan eurok zuzendu, zotz eginda edo gurarizkoak bilatuta edo ostantzean, eta ganera, ez daitezala joan Euskaditik ate edo kanpora soldadutza hori beteten bakealdietan; hemengo zerga edo kontribuzinoak Espainiako Gobernuari batera emongo jakozala, eta berak ez daukala zetan etorri hona kobretan, kobrantza hori geuk egingo dogula hemen geuk euskotarrok ondoen eretxiko deutsagun eraz; hemengo juez, errekestadore, gudari edo militar, eta ostantzeko Gobernuaren otsein guztiak *euskeraz* jakin dagiela, bertako jenteez aitu ahal izan daitezcan, eta abar.

—Tira, Lege Zaharra ezin bada, hori guztiori ederto etorriko litzateke gure herri honentzako.

—Ba, holakoxe eskubideak eskuratutea Espainiagaz bat garala, Espainiako errege eta Gobernuak geure buru eta nagusi dirala, horixe da *autonomia*.

—Oin aituten dot. Baina, esaidazu, Pradera eta horreek, piperpote eta abar, uste dot adieraz dabela autonomiarik ez dabela gura.

—Ez; ez dabe gura, euren ahalegin guztiak doaz autonomia hori emon ez deiguen. Ia, Praderak esan dau autonomia hori Espainiarrentzat arrisku handi bat izango litzatekela, eta horrexegaitik ez dauela gura.

—Zein arrisku baina?

—Ba, autonomiaz, gure herri hau eta Espainia, alkarri lotzen dabezan hariak nasaitu eta, beharba, denporaz eten egingo litzatekezala.

—Baina, Lege Zaharra gura badau, orduan ez legoke haririk herri bien artean, eta ezin dot aitu zelan dan hori: haririk eza gura izatea, eta era batez hariak etengo dirala-ta bildurrez ibiltea. Hori zelan dok?

—Ba, hori dok, Praderak eta horreek, piper-pote eta abar, ez dabela ezer gura gure herriarentzako, ez autonomiarik ez erreintegrazion foralik.

—Orduan zetan dabilz ba?

—Zetan ibiliko dira ba? Guzurra dariola, beti ibili diran lez. Balekie Lege Zaharra eskatuta emongo leuskiguela, su eta gar jarriko litzatekez aurka; oin badakie emongo daben bildurrik ez dagoala, eta horregaitik dinoe gogor erreintegrazion forala gura dabela eurek, edo haxe edo ezebez.

—Orduan horreek ganau txarrak dira.

—Ezin txarragoak. Hartu ondo euren izenak, euskalduna, eta ez behin be ahaztu, horreexek dira zeure aberriaren arerio zital-zitalak, eta beraz zeure arerio zital-zitalak.

—Ez dogu ahaztuko.

1919-I-17

MUTIL EUSKOTARRAK GUDARI

Egun honeetan eurrez ikusten dira mutil euskotarrak, gudari jantzi diranak oraintxe.

Eurak, jakina, gazteak dira eta, ez daukie arpegi ilunik; baina euren etxeetan, lanerako euren beso gazte indartsu baga gelditu diran guraso zaharrak eta anai-arreba txikiak, estu aurkituko dira lehengo aldean, eta behin baino sarriago ilunduko jake gogo; etxe askotan, larri be aurkituko dira, seme indarduna izan dalako etxeko ogi-irabazlea.

Eurok, mutilok be, kalean dabilzanean agertu ez arren, ilunaldiak, saminaldiak eukiko dabez, birauka eta irainka eta ostikoka darabilezanean edozegaitik, eta gehiago erderaz esaten deutsiena ondo ulertu ezin badabe.

Honexek gudaritzeonek, sendietan buruhauste handia ipinten dau. Mutilak hogeit urterantza hurreratzen doazanean, gurasoak geroago biziago dauka gogoan sartuta untze bat, mutilaren kinta zoritxarrekoa. Horrexek oldozpen edo pentsamentuorrek mingostuten dauz sendiko poz guztiak, ilunduten dauz argialdiak.

Eta gero, ez da bakarrik semea etxetik ate hiru urtean eukitea, eta bere laguntasun balio handikoa barik bizi beharra, ez; mutil giza-joak gudaritzan dagoan artean beti behar dau zeozer sakelerako, ezin lei euki bape diru barik, eta txitean-pitean bialdu behar izaten deutsie bere gurasoak; beraz, irabazi ez eta gastau, horra bide bi etxekaltez, horra etxearen itogin bi.

Eta hori guztiori baino txarragoa be jazo leiteke. Mutila gaixotu lei, sarri jazo dan lez, gudaritzako jana eta barru-jantzia eta ohia eta

abar ez dira ba bestetarako; eta orduan datozen kalteak, zelan zenbatu? Beharbada, mutila ikusten joan behar gurasoak, eta joan-etorrian, hor doa dirua barrero, eta gero mutila osatzen bada, hari be dirua itxi behar, euki dagian ba gizajoak ganetiko janari edo edari apur bat erosteko lain.

Eta osatuten bada, gaitzerdi, gastu handiak etorrita be, urte askotarako beharba zorpean geldituta be; baina gatx oker batek harrapau badai, eta etxera ekarri behar bada gaixorik, eta etxean luzaroetan, osatu arte edo hil arte, bera ahalik ondoen zaintzeko hartu behar diran nekeak eta egin behar diran gastuak, badakizue nora doazan?

Eta hondino, guztia esan behar da eta, gorputzez bizirik etorri arren, gogoz edo arimaz gaixotuta edo hilda etorri leiteke, ahaztuta edo galduta etxean ikasi dauen gizabide euskotar zintzoa, Jaungoikoz ahaztuta, euskotasunaz ahaztuta, eta ordeztu, zantarkeriaz ikasita, biraua eta berba zikina, erderean ukondotik zehar, *chulokeriak* eta abar. Orduan, zer?

Gogoratu egizuez ba, ene euskotarrak, zenbat eta zelako kalteak dakarzan etxera gudaritza zorigaitzoko honek.

Eta ondo-ondo gogoratu dagizuezanean, eta jakin dagizuenean gudaritza hori dala guk euskotarrak zor ez dogun gauza bat, azterrenak bilatu egizuez ia zegaitik eta noiztik daukagun zama edo karga astun eta zor ez dogun hori.

Lehenago gure asabak ez euken gudaritzarik, baketsuak zirala-ko, ez ebelako gura inor euren menpean sartu ezetara be, eta nahitaez gitxiago. Geroago, Espainiak sartu ginduzan bere menpean nahitaez orduko piper-poteak lagun ebazala, eta ezarri euskuzan bere lege asko, eta euren artean gudari-lege astun hori.

Orduko piper-poteak lakoxe berberak dira oraingo piper-poteak be; ez dabe gura gu bizi gaitezen lehenagoko euskotarrak lez, geure buruen jabe garala, gudaritza eta horrelako zama barik; ez dabe gura, eta horregaitik jarten dira gure aurka, guk eskatzen dogunean honeek zama-legeok kendu dagiezala.

Beraz, semearen laguntasun baga bazagoz, semeak asko gastaten badeutsu ezer irabazi barik, semea gaixotuten bajatzu, semea tunan-

te bat egiten bajatzu, semea galtzen badozu badakizu noren erruz dan, piper-poteen erruz, eta hondino be eurei jaramon egiten badeu-tsezu zeure bila jatortzuzanean ogerleko bategaz zeure laguntasuna erosten, merezi izango dozu soka bat burutik lotu eta basta handi bat bizkarrean ipini eta makilaka lanean erabili zagiezan, astakirten zentzumbako bat izango zintzakezalako.

Zeure burua puskat maite badozu, alde egiozu piper-poteari egundoko arinen edo zeuk alde eragin egiozu berari zeure ondotik.

1919-II-13

AUPA, MUTILAK, BATZARRETARA!

Gaur goizeko hamaiketan batzartzen dira bizkaitarrak lau herri honeetan: Algorta, Elorrio, Ermua, Larrabetzu eta San Salvador del Valle.

Eta arratsaldeko lauretan batzartuko dira: Gaminizen, Galdakalon, Erandio Goikoan eta gipuzkoarrak Soraluzen.

Eta zetarako batzartzen dira?

Didar egiteko. Zein didar? Geure askatasuna gura dogula didarrez esateko.

Bai, didarrez, halantxe esan behar da, eta inoz, indarra egin daigunean, orduan beste didar bat. Ez, orduan ez da izango didarririk, behintzat eske-didarririk, orduan beste gauza bat izango da, eta orain adierazo beharrik ez dago, danok be badakizue eta.

Gure askatasuna tirekada baten, oso-osoan geuganatzeko indar handiak behar doguz, gaur daukaguzanak baino askozaz handiagoak; hori edonok igarten dau; hasiko bagina gaur txarrera jotzen, ahulduta itxiko gindukez hasi ordukoxe, ez da egia?

Zer egin ba, indar hori baga gagozan ezkerok? Buruan argi puskat euki ezkerok, berehala erantzuten da: guk egin behar doguna da, ez daukaguzan indarrak hazi, indarrak gehitu.

Hori zelan egingo dogu? Ai guk bageunkaz eskubideren batzuk hemen guk geure gauzak atonduteko, bagina geure buru irakaskintzan eta beste arazo batzuetan, esaterako, hemengo aberaspide guztiak geuk jagoteko, baita hemengo herri-otsein gehienak geuk izentetako eta danai euskerea jakiteko baldintza¹³³ ipinteko, orduan gure

¹³³ [Kondizinoa].

aberriaganako maitetasunak bide handiak egingo leukez euskotarren bihotzetan, orduan euskotar itsu asko eta askok ezagutuko leuke bere aberria, orduan euskotar guztiok, Naparra, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak alkarri besoak luzetuta, lehenago lez banan ibili barik, danok batera jarriko gintzakez geure indarrak batuta, eta gure indarra bitsa lez igon, zabaldu eta astinduko litzateke.

Eskubide horreek eskatu dabez Espainiako Gobernuaren aurrean gure Diputazioak, eta guk abertzaleok, gogoia geure aberriaren indartzean ipinita, su eta gar jarri behar gara Diputazioen ondoan, euri lagunduaz eskabide horretan.

Hagaitik ospatu ziran lehengo igandeko batzarrak, eta hagaitik ospatzen dira gaurkoak. Heldu ba, euskotarra, batzar honectara, eta helduaz bakarrik zeuk uste dozun baino lan gehiago egingo dozu.

Eta piper-poteren batek esan badeizu ia zetako gauzak aldatuko doguzan, ia gaur txarto ete gagozan ba, ia hobeto egongo ete gintzakezan askatasunaz, edo bitarteko autonomiaz, erantzuiozu garratz eta esaiozu baietz, askozaz hobeto biziko litzakela euskotarra bere aberrian, berak bere burua gobernauko baleu.

Erakuskizun bat, adibide bat, txikia dala, hementxe Bizkaian, daukagu gaur; lehen, atzerritar-zaleak hemen nagusi ziranean, bertako semea baztertuta egoan, herri-otseintza gehienak izaten ziran erbestekoentzat, belarrimotzentzat; hori danok ikusi doguna da; orduan inok esaten baeban, Bizkaiko herri-otseinak euskerea jakin behar leukela, barre eta hurla egiten euskuen, itandurik ia nondik agertu ginan horrelako gauza bidebakoak aitatu be egiteko. Eta gaur, Bizkaiko Diputazioan abertzaleak nagusi egin diranean, bertako herri-otsein barri guztiak euskotarrak izan dira, lehenen bizkaitarrak eta honen hurrengo beste euskotarrak, eta otsein gehien-gehien horreei euskerea jakin beharra eskatu jake. Honez ganera, Diputazio honek laguntasuna emoten deutso euskaldunen alde dan edozein batzari. Orain ikusten dana da, bertako semea aintzat hartua dala, gehiago, bertako semea dala inor baino behinago hemen, eta erbesteko motza bertakoen atzean dagoala, zuzentasunak eskatzen dauen lez.

Ba, hemen Bizkaian gaur ikusten dogunau, apur-apur bat baino ez da, Diputazioak eskatu daben autonomia bageunka ikusiko geunkenaren aldean, eta autonomiaz ikusiko geunkena hondino apur-apur bat baino ez litzateke izango askatasunaz ikusiko geunkenaren aldean.

Beraz, euskalduna, autonomiaren aldez edo askatasunaren aldez egiten dozuna gaurko batzarretara joanaz, zeure buruaren aldez egiten dozu, zeure etxe eta zeure seme-alaben aldez zabilz, zeuretzako zabilz.

Aupa ba, gizonak, heldu batzarretara! Egin zarata! Igarri dagie-la lo ez gagozala!

1919-II-16

BESTE GUZTIEI EZ DEUTSE BAPE ARDURARIK EUSKOTARREN AUTONOMIAGAITIK

Eskuak apurtu arteraino txalotzen doguz gure gazteak atzoko batzarrakaitik. Ederto! Alde guztietan jente asko eta ona batu ehen eta batzar-herri guztietan emon eutsen euskotarra irakaskizun ederra.

Horixe da aberria egitea, holantxe erakusten dabe jeltzaleak eurak bakarrik dirala gure herriaren arduradunak; beste inok ez dauela ezertxu be egiten, esan leikela ez deutsela bape ardurarik euskotarren autonomia eta horreetariko gauzakaitik. Esan leikela dinot? Bai, ba, egia baino ez da eta!

Hau igarten dau, eta egunik egunera argiago ikusten dau, eusko herriak. Ez da ardura beste alderdi atzerritarrak isilik egotea, ez da ardura beste izparringi guztiak Euskadin agertzen diranak isilik egotea, ez, ez da ardura bape; horreen isila gorabehera, euskotarrak entzuten dabe egia gure hizlarien ahotik eta gure izparringi honen orrietatik, eta euskotarrak esaten dabe: "Gure gauzakaitik inok ez dinok ezer, txitik be ez joek ataraten, honeexek bizkaitarristak izan ezik, honeexek bakarrik urteten joek beti su eta gar, euskotarra zeozek ukututen deuskunean. Besteak ez dozak etorten gugana elezinoak diranean baino, eta orduan jatorkuzak diruaz gure gogoa erosten".

Egon daitezala isilik; horregaz ez dabe egiten eurei jagokena baino, eta guk jeltzaleak be, gure herriari egia erakutsiaz ez dogu besterik egiten geuri jagokuna baino.

Aurrera, aurrera euskotarrak!

Oraingo batzar honeekaz guk egiten doguna badakizue zer dan? Neguan gari landareak egiten dauena: zuztarra ugaritu eta sendotu, barrurantz hazi, kanporantza barik. Eta holan, gero, atze indartuagoa dauka, udabarria datorrenean, orduantxe, zuztarretatik hartuten dauen indarragaz botaten dau garea luze eta sendo, eta garea-ren erpinean galburu handia eta aletsua. Guk orain barrurantz zuztarrak botaten doguz, geure aberri-lur mamintsu honetan, eta geroago, kanporantza hasten garanean, hazelako moltsoak urten behar dauen!

Hogeta hemeretzi batzar honeekaz egin dan aurrerea hondino ez dogu igarten, inoz igarriko dogu, inoz begien aurrean eukiko dogu eta ikaratu egingo gara.

Batzar honeekaz aberriak bere askatasunera bide handiak egin dauz.

Zorionak eurok asmau dabezanai, euretan hitz egin dabenai, eta euretara joan diran euskotar zintzo guztiei, eta eurok ondo urteteko ahalegina eta laguntasuna ipini dabenai. Ederto!

1919-III-3

HOR JAUKAGUZAK!

Horra, gabetik goizera heldu jaku izpar txarra, Maura Gobernu-ko buru ipini dauela Espainiako erregeak.

Gure irakurleei esan beharrik ez daukagu Maura guretzako nor dan jakitun egon daitezcan.

Danok dakizue ba, gizon horixe dala aberri honen arerio amorratuena; berorrek esan ebala behin Gobernu-ko buru izan zanean (ez oin urte bi, lehenago bere partiduaz, orain lez, izan zanean baino), zelan euki genduan abertzalez beterik Zabalbideko Hotel Larrinaga; zelako gudea egin euskuen orduan, Espainiako Gobernuaren menpean dagozan agintari guztitarikoak, guztitarikoak gero.

Orain be ez dogu uste gitxiago izango danik, ba orduan baino hondino amorratuago dabilz gure aurka piper-pote guztiok eta eura-kaz batera Espainian aldezko alderdiak; eta piper-poteok minduta daukaguz emon deutseguzan lepo-jote ikaragarriakaz, eta jakina, orain asperkuntza¹³⁴ egin gurako dabe.

Horregaitik edo, atzo ebiltzan piper-poteok, mutikoak zapata barriakaz baino pozago. Ai hareen irribarreak!

Bai, inon diranak egingo deuskuez arranook. Eskiartzat euki hori, abertzaleak; eta prakarik ez daukazuenok ekatxari eutsiteko, alde egizue gugandik, eta haizeak udagoienean darabiltzan orbelen antzera, zoáz haizearen aurrean.

¹³⁴ [Venganza].

Jarraiketa edo persekuzino honek garbituko deusku geure alderdi hau. Jasan¹³⁵ beharko dogu zeozer, baina ez deusku ardura, lehen be jasan genduzan, eta jasangoz datozanak.

Gure alderdia da soloa, eta Maura eta piper-poteak dira amorru guztiaz datozanak solo hau ebagi eta azpikoaz gora ipinten, uste izanik dana apurtu ezkerok ez dala solorik geldituko. Ai kirtenok! Ekiozue, ekin! Zuek holan eraginda eta astin-astin ixten dozuen solo horretan erneko dira, urten eta haziko dira, landara ederrak ugari eta zarratu, eta azkenerako egingo da baratza eta loratza zoragarria.

Betor ba ordu onean jarraiketa!

Gure antzinako zaharrak esaten eben: "Gibel egiok ekatxari".

Horrek esan gura dau, ekatxari atzea emoiok; hau da, ez hadi jarri aurrezka galduko hau eta, itxiok joaten, eure ordua itxaron egik.

Beste esakun bat, gure asaba zaharrena: "Uzkur bahakio ekatxari, sendakike eguzkiari", hau da, ekatxa danean makurtzen bahaz eguzkia danean sendotuko haz; ekatxa datorrenean, ez ibili bere aurka lelokerietan, joan bazterrera eta ezkutuan jarri, ez lar agertu, itxaron igaro daiten, eta gero eguzkia barrero datorrenean, urten ezkutu-tik eta sendo-sendo egingo eta biziko haz.

Beraz laster etorriko jakuz jarraiketean, arduraz ibili gaitezkan geure esanetan eta geure eginetan, ez emon arerioari duban guri heltzeko era onik, ahal bada atxakirik be ez, zain-zain bizi. Espetxera eroan gura bagaitue, leku honetatik edo bestetik kendu gura bagaitue, kalte hau edo bestea egin gura badeuskue, eroan kendu eta egin deiguezala ezetariko zuzenbide barik; zuzenbidearen antzik inondik be ez dagiela euki eurok gu aurean hartu eta garabilezanean.

Horretara, begira dagoan herriak igarriko dau beti, isilik dagoala irudi arren, nor dabilan zuzen eta nor dabilan oker, eta ez uste herriaren igarkuntza honek garrantzirik¹³⁶ ez daukala; garrantzi handia dauka gerorako behintzat, oin behin-behinean irudi ez arren.

¹³⁵ [Sufridu].

¹³⁶ [Importancia].

Zuzenaz eta egiaz dabilenak beti, ibili eta ibili, okerraz eta guzuraz dabilena azpian sartuten dau.

Zain ba, lagunak, ekatxa dator. Ez arineketa egin. Hori ez. Makurtu, atzea emon eta itxaron. Zain bizi. Heldu gurako deuskue. Heldu deiguela be. Baina geuk ez emon helduteko lekurik. Ez geure buruak geuk ipini leku txarrean. Bizi izaten ikasi.

Baina hau gorabehera, erea danean, esan egia, autortu geure aberri Euskadi, ukatu, nahitaez eta okerrean, ezarri gura deuskuen aberriorde hori. Erea datorrenean, bildur barik esan zer garan, inori irainik egin barik.

Eta... Maura bere Gobernu eta guzti hankaz gora botateko agertuten dan indarrari, agertzen bada, ez aurkarik egin, lagundu baino.

1919-IV-16

IKASI, EUSKALDUNAK!

Oin urte bi garbitu eta barrirazu zan hauteskundeetako *Izentza*, lehengo zaharra ba, hemengo piper-poteak eurak be esaten eben lez, dana guzur hutsa zan ezkertarren aldez eta; garbitze eta barrirazte honetan kendu jakezan guzurrezko autarleak¹³⁷ milaka; garbitze eta barrirazte hori ontzat emon eben bertako Gobernuaren otseinak; dana egin zan behar zan bidetik; eta lan haretan hemengo piper-poteak inor baizen ardurati ibili ziran.

Hemen, sozialistak eta errepublikanoak izan ezik, enparadu alderdi guztiek ontzat emon eben *Izentza* zaharraren garbitze eta barrirazte ha.

Ba, orain, piper-poteak ikusirik hemen *Izentza* barriaz gurendea eusko abertzaleentzako dala hurrean, euren Gobernuari eskatu deusie *Izentza* barri hori atzeratuteko eta lehengo zaharragaz hauteskundeak egiteko, diputadu sozialistea gurago dabela gutarra baino eta, halantxe erabagi dau Espainiako Gobernuak, hauteskundeak egin daitezala *Izentza* zaharragaz eta ez *Izentza* barriagaz.

Eta ostikopean sartzen badira lagiak eta Gobernuen euren agintza eta lehengo erabagi guztiak, ez da ardura!

Horrez ganera beste erabagi bat be hartu dau Gobernu horrek: diputadu probintzialetarako hauteskundeetan beste era batera zatituko dala Bizkaia. Durango eta Markina erkiak bat egin eta lau dipu-

¹³⁷ [Electores].

tadu bakarrik eukiko dituela, eta ostera Bilbaok eukiko dituela zor-tzi diputadu.

Honek esan gura dau euskaldunei, Durangoko eta Markinako euskaldunei, lau diputadu kentzen jakezala, eta Bilbaoko goiko kale-etan (Bilbao la Vieja, San Francisco, las Cortes) bizi diran belarri-motz saskareri batek badaki nondik nora etorrikoai emoten jakezala euskaldunei kenduriko lau diputadu horreek.

Gure aberri honen arerio zitalak egiteko ez da asko.

Baina bada asko euskaldunak egotea euren aberriaren, eta beraz, euren buruen aurka eta kaltez beti dabiltzanen alde.

Ba, Izentza zaharragaz nahiz Izentza barriagaz, nahiz Bizkaia honetara zatituta nahiz bestetara zatituta, guk egingo dogu geroago zailago, azkenak egin artean be bai, ez daukagu geure aberria laga-tzeko asmo txikienik be.

Gogor eta gogor lan egingo dogu, eta orain artean lez (eta uste dogu baietz, gauza txarrik ez dogulako eskatzen), Jaungoikoaren laguntasuna izanik, apurtuko doguz gure aurrean jarten diranak, nahiz piper-pote nahiz pipergorri, nahiz piperbaltz, nahiz edozetari-ko piper guztiak.

Arranoa! Honeek gauza guztiok ikusita, oindino be ez dira itxar-tuten euskaldun danak?

Guzurra jirudik ba.

Harainegun gabeen zabaldu zan Bilbaon zurrumurua, eta askok ezin eban sinistu, eta honaxe geure idazkola honetara etorri ziran gaberdi ostean abertzale zintzo batzuk ia egia ete zan jakiten; Madri-letik horraitino, izparringi honen izparkariak esan eben eurek ez ebe-la ezer jakin arazo honetzaz; horregaitik atzoko gure izparringiak ez eban aitatu ezer.

Eta gure izparringia lez urten ziran atzo hemengo goizeko danak; piper-pote-ekzertarrenak (*El Pueblo...* eta *El Liberal*) bakarrik eka-rrri eben izparra; bai ba, alkar hartuta dabilz eta, eurentzako bakarrik izan zan itxuraz izpar hori Madrilén.

Idazkola honetara harainegun gabeen etorri ziranetariko batek, neure adiskide maite batek, esan eustan:

—Hori ezin izan leiteke egia, hori handiegia da.

Eta, berak be gogoan eukiko dau, nik erantzun neutsan:

—Horrexegaitik ba, egia izango da hori; nik sinistu egiten dot.

Abertzaleak, oin Gobernuak egin dauena baino gauza txarragoak egingo deuskuez, askozaz be txarragoak, geu indartuaz bagoaz.

Gertu gaitazan guztirako.

1919-V-15

ZER DA JAZOTEN DANA?

Zetan dagoz gure piper-pote eta ostantzeko piperrok?

Isilik dagoz, hondino agertu barik nortzuk izango diran euren diputadugeiak.

Azerikeria ete da? Ezin ete dabez idoro diputadugeiok?

Ez dakigu.

Hondino badago astia, bai! datorren igandean zortzi dira hauteskundeak.

Baina hori gorabehera, hainbat lasterren hauteskunde-lanak hasita eukitea, hobeto da. Badakie hori piperrok, eta hondino agertu ez diranean, ez dogu uste azerikeria danik, diputadugeirik idoro ezina baino.

Zer azerikeria izan leike ba? Badakie gu bete-betea goazala danen aurka, atzerritar eta atzerrizale guztien aurka; geu bakar-bakarrik alde batetik, eta bestetik, barriz, motz kolore guztiak batea. Hor ezin lei inor atzipetu, horrek ez dau azerikeriarik ixten.

Egia da, bai, orduan, ezin dabela diputadugeirik zuzendu.

Ia zelako bildurra egiten dogun abertzaleak. Hor daukez Gobernua eta bere menpeko otsein motz guzti-guztiak, hor daukez ezkertar praka estu guztiok, hor daukez diru-zorroz etxepeak beterik dabezan aberats handi gehien-gehienak ia danak, hor daukez eskumatarrok hemengo eta hango, beti amesetan dabiltzanak eguzkia ezkutaten ez zan Espainiagaz, hor daukez. Baina gagozan isilik, zenbat dira? Josu!

Eta halan be gure bildur.

Gaur egunean, Gobernua sartuko ez balitz bitartean, eurek eta guk burrukea egingo bagendu bardinean, aurrez aurre, baldintza

berberakaz, berehalaxe ostikopean sartuko geunkez hemen Bizkaian aberri-arerio dan-danok. Hau eurok be ondo dakie.

Eta gure herria oso-osoan itxartuta balego, inoz, eta uste dan baino lehenago, egongo dan lez, orduan, Gobernua euren aldez eukita be, danok zapalduko doguz.

Biziko danak ikusiko dau.

Aurrera ba euskotarrak! Bete daigun geuri jagokuna, gogoa nekatuten ibili barik noz izango ete dan geure eguma.

Etorriko da, geu beti orain arte lez bide zuzenetik bagoaz, ba ludiko gauzak gizonen goitik Beste Batek darabiz.

Jaungoikoa lehenen, gero gure Euskadi, eta aurrera!

1919-V-21

PRIETO POLITA DALAKO?

Gure diputadugeiak badaragoioe lanean euren erkietan, eta orain arteko izparrak ezin dira hobeagoak izan.

Egia da, horretarako, beste aldetik hondino geldi dagozala.

Zein asmo ete darabile piper-poteok?

Laster ikusiko dogu, ba etzi izentau behar dira lagiaren aurrean diputadugeiak.

Guri abertzaleoi ez deusku ardura. Txarrena uste izanda sartzen gara burrukan eta ezek ez gaitu ikaratzen.

Betoz ba edozetariko diputadugei piper-poteok, nahiz diru askodunak, eutsingo deutsegu, eta lurra jo eragin be bai, gogoia gehiago izaten da beti, ostantzeko indarra baino (dirua, izkiluak, eta abar), eta guk Eusko Herriaren gogo sendoa daukagu.

Indalecio Prietok esan eutsan atzo gure adiskide bati “ez dala egia berak Mauraren Gobernuaz eta Bizkaiko Ligakoakaz ezetariko hartu-emonik daukanik”.

Eta hori, zerak sinistu!

Indalecio Prieto hemengo diputadugei *encasilladotarikoa* dala, kaleko harri koskorerrainokoak igarri dabe eta dakie.

Ostantzean ba, ezetariko hartu-emonik ez balego berak dinoan lez, zer dala-ta zapaldu ditu Gobernuak hauteskunde-legeak Izentza¹³⁸ barria ezerezean itxirik eta Izentza zaharra barrero zutunik ipi-

138 [Censo].

nita? Noren aldez izan da joko lohi hori? Indalecio Prietoren aldez. Berau polita dalako? Bai zereko polita! Bajagok katurik, atzeko alde-tik begituta, Indalecio baino politagorik, barru eta kanpo!

Ez, Indalecio, Gobernuak erregalu hori egin deutsunean, hartu-emona edo tratua euki dozue, "nik zuri, zuk niri".

Eta zeu *guapoa* zarrelako bakarrik egin deutsula erregalu hori esan badaizu, mundu guztiari barre eragingo deutsazu.

Indalecio Prieto D. Antonioren kapapekoa da, eta hor ibiltan ziran lehen "Maura, no" didarrez, faltsook.

1919-V-23

GUZTIRAKO GERTAU!

Bihar da ba guda-eguna.

Bihar alkar ikusiko dogu, alde batean euskotarrak, beste aldean herriaren arerioak.

Asko dira eurok; erbestetik arradaka etorrikoak eta bertako seme deungak, guztiak bat eginda, gorroto bizia deutsiela, batzuk gure erlijinoari, eta danak gure euskotasunari.

Euskotasunaren gorroto bizi-bizi horrexek batu ditu hainbeste arerio.

Lan eta neke handia da guretzat horreei arerio guztioi aurre emon eta eurak behetutea.

Handia da baina ez dogu atzerarik egingo. Badakigu, jakitun gagoz, geroago eta burruka garratzagoak jokatu beharko doguzala geure erlijino eta geure Euskadi honen aldez.

Guk eskatzen doguna, guk nahi doguna geure aberriarentzat, ona dala badakigu, eta Goikoaren laguntza geugaz izango dala, orain arte izan dan lez.

Jagi ba eta ez bildurtu! Aurrera euskotarrak!

Bihotza bero-bero eta adimena hotz-hotz doguzala, jarri bakotxa bere lekuan, burrukea arteztuten edo dirijietan dabenen esana behingoan eta zehatz bete, halan danon indarrak joan daitezcan leku baterantz, eta eurok ahal daben guztia eragin dagien.

Irabazteko horixe da gauza bat behar-beharrekoa, burrukarako daukaguzan nagusien esana egitea.

Arerioak harro badatoz, burrukea eroan gurarik lege-bidetik kanpora, behar dan lez erantzungo jake.

Geure aberriaren aldez egiteko, edozein bidetik joateko gertu egon, onetik nahiz txarretik.

Guk onetik gura dogu, lege-bidetik, baina bide honetatik galduak dirala ikusten dabelako, bide txarrera joko dabela igarri orduko, aurreak hartu eurei, eta lehenago sartu bide onean, eta erakutsi kakanarru horreei euskotarrak behin jarri badaitez edozetarako, eurak baino gehiago dirala txarrean be.

Jo, jo mutilak! Baina bizkor, eta buruetara lehenengo. Arin ibili. Ez egon albora begira. Norbera inora eroan behar badabe, ahalegin-du ospitalera izan ez daiten.

Harainegun *Cabezotak* esan eban hitzegikizun baten bihar igandean aurre emongo deuskula hemen Bilbaon. Berari nok emon be izango dau.

Cabezotak esan eban abertzaletasunaren arerio betikoa dala, gu baserritarrak eta baserritarren aldekoak garalako.

Horrek baserritar hitz horregaz esan gura dauena da *euskotasuna*. Baserrietan bizi diranak belarrimotzak balira, ez leuke hori esango *Cabezotak*.

Euskotasuna da euren gorrotokoa. Euskotasuna kentzen datoz. Euskotasunaz guk euskotarrok geure burua jagoten dogu. Euskotasuna hilagaz geu hiltzen gaitue.

Hil gura gaitue! Jagon daiguzan geure buruak! Erpe eta hagin! Gertu guztirako!

1919-V-31

OINTXE EZAGUTUKO DIRA GIZONAK

Gabeko bederatzietan, Eguneko hau idazten dogun orduan, ez dakigu hauteskundearen beste barririk haxe baino: Bilbaon Prietok irabazi dauela eta Balmasedan Balpardak. Besterik ez, horixe baino.

Ordu honetan, gureak irabazi balebe, esan leike jakingo genduala.

Antz onik ez dauka ba ezer ez jakiteak.

Horraitino, ezer eskier ez badakigu, zurrumurruak badabilz ibili, baina zurrumurru itzelak; Bizkaian guretar batedobat atarateko atzamarrak urratuta ibili beharko dogula; Gipuzkoan guretar danak jausi dirala; eta Araba eta Naparraz, isiltasuna.

Arraia-arraiea! Hau honan bada, eta baietz esan leike, sekulako taparrioa hartu dogu. Honakorik hondino!

Zer egin? Adore barik lurra jota gelditu?

Ez halakorik. Gizonaren bihotza hobeto erakusten da ez-aldian.

On aldirako danak gara, nahiz makalak nahiz sendoak, nahiz adoretsuak nahiz adorebakoak, edonor izaten da gizon gauzak ondo datozanean.

Baina txarto datozanean, orduantxe makalak eta adorebakoak jausten dira, gehiago ez jagiteko; baina sendoak eta adoretsuak, orduantxe gogortzen dira inoz baino gehiago.

Ganera etorri jakun ekatx honek alde eragingo deutse gure ondolik gurenda-eguzkiaren epeltasunera etorri jakuzanak, zerbait harra-pauko ustez.

Gabiak burdina-moltsoa jo eta jo, bere saskara guztietarik garbituten dau; joka eta joka egindako burdinea lakorik ez dago.

Gure Jel-Batza hau be, oraingo gabikada honegaz hainbat saskararik garbituko da.

Gitxiago izango gara eta hobeto alkartuta. Indar gehiago eukiko dogu, lehenengo begiradan guzurra irudi arren.

Indarra ez dator asko izatetik bakarrik, ondo bat eginda egotetik baino.

Hondino, piper-pote honen Gobernuak, atzokoa baino txarragoak egingo deuskuz.

Hondino gorriak ikusi eragingo deuskuez.

Baina zanetan darabilgu antzina-antzinetakoko euskotar zail-zailen odola, eta odol honi erantzungo deusagu.

Ez gara atzeratuko behin be, hil arte ekingo dogu geure aberri honen alde.

Gure ganera laster Gobernuaren aldetik etorriko diranak jasateko gauza ez dana, beioa gure artetik! Ez dogu behar hemen gizontxorik.

Gizonak, gizon hutsak behar doguz.

Didarrrik ez daigun egin, jo eta bota gaitue eta.

Ixil-isilik jagi gaitez, eta indarrak barrero hartu daiguzanean, atzera burrukara.

Uste badabe muturreko bat hartu dogulako atzeratuko gaituela, ez dabe ezagutzen euskotarra!

Adiskideak, agur.

Aurreko hori idatzita gero jakin da irabazi dogula Gernikan, Durangon eta Markinan, baita Iruñean be. Lau dira.

Barakaldon eta Tolosan irabaziko dala dinoe, eta izan leitekela Bergaran be irabaztea.

Izpar honeek argitu dabe gure gogoia zerbait.

1919-VI-2

EPALTZAREN HITZA

Barakaldotik urtendako diputadu Epaltzatar Domekak ederto hitz egin dau Espainiako Latetxe Gaztean, adierazorik zelako legehausteak egiten diran hemen gure aurka, eta euretatik bata, Isusitar Estepan espetxean eukitea orain hilabete egindako hizkaldi bategaitik, horretara eragotzirik berari Madrilera joatea Amurrioko diputadu urtendakoaren aurka hitz egiten.

Epaltzaren hitzak zarata egin dau. Lehengo, Latetxean bertan danak ikaratu ziran entzun ebenaz; gero, Maurak berberak itandu eutsen bere menpekoei ia Epaltzak esana egia dan ala ez, eta baietz erantzun eutsiengan, esan ei eban: "Hori ezin izan leiteke, izan behar ez dauelako". Hau esan ei eban; benetan esan baeban ez baeban, laster jakingo dogu, laster askatu behar dabe Isusi jauna. Ikusiko dogu.

Baita be, Madrileko izparringi gehienak ahotan erabili dabe Epaltzak esandakoa.

Zarata egin dau ba, eta horixe da behar dana. Gogoratu daigun esakun zaharra antzinako euskotarrena: "Mihin bako arrana, sasian ugertu".

Epaltzak orain lez, zarata ataraten badabe gure diputaduok Latetxeetan, ez deuskue egingo eurek gura daben guztia.

Horregaitik, atzo esaten genduan Diputazinoko Batzorde Nagusiaren idazkiak be, erara esan ezkerro, atarako dau bere zauskadea etxe haretan.

Oin, hor Madrileko izparringiak dinoe Epaltza jauna *abertzalea* dan lez eskumatarra dala, eta horrexegaitik asko ikaratu dira bera Mauraren aurrez aurre jarri dalako ezkertarrakaz batera.

Hareek beti dagoz oker gure gauzakaz. Gu beti gaukez eskumartatzat. Tira, horregaz esan gura bada katolikoak garala, bai egia da; baina beste gauzarik esan gura bada, esan gura dan lez, gu ez gara eskumatar ez ezkertar, gu gara euren guztien *aurrekoak*. Gu gara eskumatar eta ezkertar, bat eginda, baina eskumatar eta ezkertar euskotarrak, entzun ondo! Euskotarrak bakar-bakarrik, eta ez gehiago ezer.

Hartu bei Epaltza jaunak gure poz-agurra, eta ekin beti horrerri gogor, hemen gagoz geu abertzaleok zain-zain bere eta bere lagunen ostean.

1919-VI-28

GIZONAK A...

Hauxe da ba itzela guri jazoten jakuna!

Eguneko hau idatzi behar izaten dogu gau-lehenean, bederatzietan, eta ordu honetan ezer argi ez dakigu!

Horraitino, zehatz ez bada, gitxi gorabehera esan daikegu zeozer.

Bilbaon, ibaiaz honantz, gutarrak irabazi dabe goitik, eta beraz, gure hirurak: Araluze, Billatxika eta Zabala diputaduak izango dira; eta ibaiaz harantz alde txikitik guretarik bat urten da, Arrien.

Bilbaotik, lau daukaguz ba. Beste laurak dira hiru errepublikano eta sozialista bat. Piper-poteak gelditu dira bape barik.

Gernikan gure hirurak: Renteria, Arana eta Llona, urten dira goitik; eta azpitik, jakina, piper-pote bat, eta berau dinoe batzuk Berge ete dan eta beste batzuk ezetz; ez balitz, gure jentea asko poztuko litzateke, Bergeren itxurarik be ez dabe ikusi gura eta.

Durango-Markinan piper-poteak irabazi ei dabe goitik; eta beraz, gutar bat azpitik urtengo da.

Horretara ezkerro, lau Bilbaon, hiru Gernikan, bat Durango-Markinan, guztira *zortzi*. Diputazinoan gelditu dan bategaz, *bederatzi* diputadu eukiko doguz euskaldunen aldekoak. Tira...

Araba, Gipuzkoa eta Naparrako izparririk hondino ez daukagu.

Lehengo Diputazinoan *hamaitika* euki genduzan, oingoan *bederatzi* (bat horraitik ez da abertzalea, jaimista da, Llona jauma; baina dakigulako gure aberriaren onerako diran arazo guztietan beti egongo dala geure alde, horregaitik zenbatuten dogu gutarren artean).

Jatsi egin ete gara?

Ez; Gobernuak Markina eta Durangogaz erki bat egin ez baleu, eta Gobernu horrek jentea eurrez espetxeratu ez baleu, eta Gobernu

horrek hirurehun "delegado" izentau ez baleuz, eta Gobernu horrek mila eta bostehun gordazibil ekarri ez baleuz, eta Gobernu horrek indar guzti horregaz atzea zaindu ez baleutsie diru-zorro handiakaz gizon satsak erosten ibili diranai, ai orduan! Durango eta Markinatik bat bakarrik atara beharrean, *sei* atarako genduzan, eta oingo Diputazioan *hamalau* diputadu izango litzatekez euskaldunen aldekoak.

Indarra badaukagu guk horretarako. Lapurrak etorri jakuz izki-luakaz eta ostu egin deuskuez *bost* diputadu. Hori da zugazetik *bost* garaun ostutea, baina zugatza bertan ixtea. Bost horreek harrapau egin deuskuzue, o piper-pote zitel-zitelok, baina zugatza geurea dok, eta zuek egin deutzazuen satsaz, indar handiak egingo dozak, eta gerora igali edo fruta ugariak emongo jeuskuzak, eta ezin izango dozue beti ostu.

Durango-Markinan gizon satsa ugari dago diruaren truke botoa emoteko piper-pote horreei, ointxe lau diputadu gitxiago eukitea erabagi dabenai.

Norbere herriari, eta beraz norberari kaltea ekarri deutzanari botoa saldu, saskeria dok!

1919-VII-7

HORRA MAURA HANKAZ GORA!

Nok harainegun esango euskun guri Maurak hain hurrean eukala agintzatik alde egiteko ordua?

Inok ez eban uste, ez hemen ez han. Bai zera!

Eta harainegun gabean bagagoz etxe honetan gaberdi ostean halako uste barik, deituten dabe Madriletik, esaten deuskue zer jazo zan, ezin sinistu ba guk, eta ez olgetan ibilteko dirautsegu hangoei, eta baietz darantzue, egia dala.

Hemen izan zan poza!

Bai jentea pozik Maura jausi dala entzun danean! Eta danak dinoe aho batez: “Ez al dau inoz be igongo agintari izatera”.

Gauza harrigarria da Mauraren jauste honegaz jazo dana.

Hamabi-hamahiru autarkien aldeagaz galdu eban Gobernuak, 107 edo 108 aurka eta 95 alde euki ebazan eta.

Alde edo maila hori? Badakizue nortzuk eragin eutsien erabakundeari? Sei katalanistak eta gure Aranatar Marik. Honeexek zazpirok, alde batera edo bestera eginaz, autarketeari¹³⁹ eragiten eutsien. Jarri ziran bete-betean Mauraren aurka, eta horra Gobernu lurre jota! Zazpi autarki hareexek eraginda.

Horregaitik atzo ipini zan izparringi honetan antzinako euskal esakun polita: “Edozein ulek bere geriza”, hau da, txikia dala-ta inor ez dala erabili behar ostikopean, txikia dala-ta ez jakola okerreriarik

¹³⁹ [Botazinoari].

egin behar inori eta norbere arerio egin txiki hori, ba usterik gitxien danean euki geinke txiki horren beharizana, txikia izan arren hak be bere gerizea daukala.

Uste genduan danok Maura horren azpian egon beharko genduala batek badaki noz arte, eta aspaldion hemengo bere azpikoak gure kaltez darabilen okerreriez ia-ia amorratuteko gengozala, horra non Jaungoikoa gugaz errukitu da eta, kendu deusku agintzatik gizon hori.

Aintza Jaunari!

Orain dinoe Maura politikatik alde egingo ete dauan. Bai, doala Jainkoagaz, eta ez daitela gehiago gugaz gomutau. Eta beragaz batera joango balitz basora Basauntza hondino hobeto. Eta eurekaz joango balira Breketxu, Malparda, Prieto ministeriala... ai zelako garbitasuna!

Bide zuzenetik ez daigun urten, eta Jaungoikoak lagunduko deusku orain arte lez. Aurrera gure irakasle Sabin zanaren bidetik ezeren ardura barik!

1919-VII-17

MATAZEA ASKATU BARIK

Han dabiltz Madrilen *sartana* ezin atondurik.

Batari eskini eta hartu gura ez, besteari eskini eta hartu gura ez...

Eta danak, begia baino gehiago gura dabe *sartan* hori. Zek darabiz ba?

Ai hareek arrainak izan balira! Zimarroiak!

Guretzako hareek danak dira txarrak, bat onik ez dago.

Baina horraitik, txarrean be mailak dagoz, eta guretzako hareen artean okerrena Maura da.

Orain arte behintzat, bera agintari egon dan guztian hemen ez dogu ikusi okerreria baino besterik.

Haize-bihurra badakizue zer dan, erderazko *ciclón*?

Ba, horixe baino txarragoa da Maura euskaldumentzat.

Bera barriri ipini badagie agintari, makina batek ikusi beharko dogu espetxea, geure aberria argi autortuten badogu, autortuko doguna letxe!

Eta zoaz eskumako batzuen ondora honakoak esaten, eta beko-ki ederra ipiniko deutsue.

Esango deutsue ia nok eutsingo deutsen ezkertarrei Maurak baino hobeto.

Horixe esaten deutsue, zeinda geu eskumakoak bagina lez.

Nongo eskumako?

Sarri esan dogu ez garala gu ez eskumako ez ezkerreko, guk alde guztiak daukaguzala, guk ezker-eskumak harrapetan doguzala, bai-na geure aberrian, Euskadin.

Eta horrez ganera, Maura hori izango da berak gura dauen beste teko eskumatia, baina bai zuzentasuna ostikopetuten dauena be bape ardura barik.

Horrek egiten dauz, itxuraz, eskumeagaz ezkerren beharrak.

Boltxebitarrak, anarkistak, eta petroleroak eta, ez dabe legerik ezagutzen, euren arerioak jo eta kea.

Ba, Maurak ez dau berbera egiten?

Hemen, behintzat, legeok aspaldion onak dabilz Mauraren menpean!

Esan dagiela bestelan, espetxean dagozan hainbat eta hainbat gure lagunak; azkenengo hauteskundeak; Durango-Markina erki biai egin jakezan kakazkeriak; Bilbaon goiko kaleetako zabarreriarri erregalau jakon Izentza edo zentso zaharrak; Durangotik lau urterako atara ziran diputadu probintzialak Elgezabal, Errotaetxe, Egileor eta Bilbao (Illari)k, eta Markinatik lau urterako atara ziran Urrengoetxea eta Garaik, eta beste holako gauza askok eta askok.

Guretzako anarkistarik handiena, boltxebitarrik handiena, ezkertarrik handiena, Maura da.

Ata Maura! Jausiko al da, eta ez al da sekula jagiko politikan! Doala etxera, eta kipulak jorratzen, edo berak gura dauen lanean, denporea emon dagiala!

Baina ez agintari.

1919-VII-19

BENETAN

Hona hemen atzo esan jatana:

—Zuek, Kirikiño, Mella lako gizon bat hona datorrenean, barre-garrikeria bat edo beste esan ezkerro, uste dozue dana eginda daukazuela; Vazquez deitu, barritsu bat dala, bolak sartuten dabilela, eta honan.

Esan jatan hauxe dala-ta, gaur ba ez dot esango burla antzeko gauzarik, gaur benetan doa, esan gura dot, serio.

Vazquez y Mella abizenak dauzan gizon hori, iragoko hogeta zortzi hogeta hamar urte honeetan dabil bere diskurtsoak botaten; lehenengotik hartu eban ospe handia, hitzegikari ospea; lehenengotik autortuten eben danak hitzegikari onenatarikoa zala.

Baina ondo hitz egiten jakiteaz, zer daukagu? Zetarako balio izan deutso berari eta bere alderdiari horren ondo hitz egiten jakiteak?

Begiratu dagiegun gaur berari eta bere alderdiari.

Bera, hor daukagu, diputadu urten ezinik, eta hori, bere jaioterrian agertu dala diputaduei. Hogeta hamar urtean ibili hadi diskurtsoak bota eta bota, eta azkenerako inon be diputadu ezin urten? Ez joek asko balio izan orduan diskurtsook!

Bere alderdia, bere diskurtsoak gorabehera, beti etorri da behe-rantza, beti galduaz; eta orain, danok dakizue, alderdi hori erdibituta aurkitzen da, eta beraz lehen baino indar askozaz gitxiago daukala, lehen be gitxi euki arren. Hau egia ez da ala? Karlistak eurak ez dinoe ala?

Vazquez y Mellak ondo hitz egiten jakingo dau. Honetan, geuk egundo entzun ez dogun arren, *tantoa* emon gura dogu: hor doa ba.

Baina geuk dirautsogu Vazquez y Mellari eta bere gurtzaile guz-
teiei, ez dala ezer ondo hitz egiten jakitea, eta guztia dala zuzenean
egotea edo arrazoia eukitea. Hara, guk ez dakigu hitz egiten, gu ez
gara jakintsuak, gu ez gara jenteen ganetik arrabete urtetan garanak,
eta guk abertzale apal-apalok, egiaz gabiltzalako, geure ikaspideak
hogeit urte honetan sartu doguz Euskadiko bazter guztietan, eta geu-
gaz daukaguz lagun milaka eta milaka notin, guztitariko notinak,
jakintsu eta jakinge, zahar eta gazte, aberats eta txiro, andra eta
gizon, eta umerainokoak.

Vazquez y Mella da gizon bat, bere denpora guztia emon dauena
alper-alperrik diskurtsoak botaten, diskurtso eroak, ezetarako ez
diranak, entzuten dagozan belarriai atsegin puskat emoteko baino.

Gure irakasle Sabin hil eta hurrengo udabarrian, ekarri eben
hemengo karlistak Vazquez y Mella Bilbaora diskurtso bat egitera;
uste eben, orduan abertzaleak Maisu barik geratu ginanean, deslai
gengozala zer egin eta zer sinistu be ez genkiala, eta gizon hori eka-
rri eben, ia bere diskurtso bategaz harrapetan ginduezan; hemengo
Fronton Euskaldunan bota eban ba diskurtsoori, eta zer? Ezebez!
Hitz eta hitz eta hitz, baina gehiago ezebez. Abertzaleok begiratuten
geuntsan berak esan ebanari, ez bere esate moduari, eta ikusi gen-
duan ez egoala zuzen, geu zuzenago gengozala, eta gizon horrek ondo
hitz egingo ebala, baina geuk geunkala arrazoia, eta beraz, ha baino
hobeto gengozala; eta handik aurrera be, gure alderdia gehitu eta
gehitu, eta eurena gitxitu eta gitxitu.

Zuzen esanak ondo esana azpiratu, beti lez munduan.

Gu ikaratuten gaituena da zelan dagoan hondino jentea, Vazquez
y Mella *oraculo* bat¹⁴⁰ lez daukana.

Gizon hori, Don Carlos hil zanean, Frosdorff-era joan zan, eta
han egon zan Don Jaimeri lagun egiten luzaroan; ia, Don Carlos udan
hil zan, eta hau handik etorri zanean hurrengo udabarria zan. Oker
handi barik esan leike, sei bat hilabete egon zala Frosdorff-eko jau-
regian Don Jaimegaz.

¹⁴⁰ [Azturu bat].

Handik etorri zanean ba, Iruñan bota eban bere diskurtso ospatsu bat, bertan egin ebazan Don Jaimereren goratasun handiak, hantxe esan eutsen bere entzulai Don Jaime zala zerutik bialduta lakoa herri zindo eta eder baten errege egokia izateko; eta generatu eban, emaztegeia baeukala, eta urte haretako udagoienez ezkonduko zala, eta emaztegei hori zala Europako errege-etxe katoliko bateko neskatila on eta polita; gomutan daukat, zelan abindu eban, emaztegei hori zein zan jakinerazoko zala Don Carlosen heriotz-urteurrena heldu eitenean.

Urteak joan dira ordutik hona, eta ez da agertu emaztegeirik; eta orain, beronek dino Don Jaime ez dala duin herri zindo eta eder baten errege izateko, orain Don Jaime lokatzara botaten dau.

Gero, ointsuago, Guda Nagusia izan danean, danok ikusi dogu zelan ibili dan esaten doixtarrak irabaziko ebela gudea, doixtarrak eukela asmakizun bat gudea txirikilan irabazteko, eta berak ekiala asmakizun hori zer zan eta, honakoxe gauzak.

Dana zan, edo guzurra edo bere amesa, bata edo bestea.

Eta ikaratzeko da, horrenbestean toton edo polot egin dauen gizona bere iragarkietan, hondino be hainbeste jentek eukitea jakintsu izugarritzat.

Hortixek, ezin josi leikezan gauza biok josi gura dirala ikustetik, sortuten da gure barregurea, eta berez-berez jatorku gogora izkirimiri antzeko esakuna, ez guri ardura deuskulako Vazquez y Mella gizon gailegu hori.

Bota beiz gura dauen beste diskurtso, ez dau atzeratuko urak daroan bidea menditik itxasora, hori atzeratuko dauenik ez dago.

Gizon hori baino bildurgarriagoak dira beste hareek Madriletik agintzen dabenak, eta aspaldian joka eta joka garabilezanak, eta beste batzuk, Madril baino honantzago dagozanak eta gugaz zerikusi barruragokoa daukenak eta geure gogoak joka eta joka darabilezanak, eta horreek guztiok gorabehera gure aberri-sinistea ezin kendu deuskue eta kenduko be ez inoz geu hil arte eta geure ondoren etorriko diranak hilgo diran arte, eta halantxe, belaunik belaun ludian agertuko diran euskotarrak hilgo diran arte.

Gure aberria hementxe engongo da euskotarrak dirauen arte.

1919-VIII-11

LARRIK EZ ONIK

Jel irakasteko, edo gure aberriaren barri inori emoteko, Jaungoikoarren mutilak, ez egiozue inori adarra jo; esan gura dot, ez gogait eragiteko aurrekoari.

Batzuk (usterik onenagaz, hori bai) beti ibiltzen dira hizketagai honegaz, abertzaletasunaz, larregian; ekin eta ekin beti horrexeri, eurekaz inoz ezin euki lei beste hizketarik, beti bat!

Eta aurrekoari gogait eragiten deutesie, eta geure aldera erakarri beharrean urrinago bidaltzen dabe beharba.

“Pas trop de zèle”, ez gar gehiegi.

Eragipen eta ondorengo gehiago dakar, neurritz eta behar dan moduan hitz egiteak.

Gauzea harira etorten danean, orduantxe esan gure aberria zein dan eta zeintzuk beharkun daukaguzan beraren alde, eta hori, argi eta apal, joran edo afan barik; eta ez uste behingo baten, noberak esanagaz batera, aurrekoa gure eretxira jausiko dala eta bertan autortuko dauela; ez estutu eta hasarratu harek bere eretxiaren alde bizi-bizi urteten badau, ez erabili eztabaida gogorrean; ez holakorik, ez besterik egin egia esan baino, eta laga, egi horrek, bere gogo min-duta bidalduten ez bada, bere barruan lan egingo dau, zulatuko deuto igarri barik bere eretxi okerrekoa, eta denporaz birrindu eta apurapur egingo deuto, eta azkenerako egia bere jabe egingo da.

Hara, gizonakaz jazoten da zelanbait txoriakaz jazoten dana. Mika bati hitz bat edo beste esaten irakatsi gura jako? Bestela baitakoan esaiozue hitz hori noz edo behin, ez dau ikasiko eta berresango berehala, ezta! egunetan ez dau ezer esaten; eta ustea galduta dau-

kazuenean, horra non hasten dan halako baten bere kautan hitz haxe esan gurarik: lehenengoetan ezin izaten dau hitza ondo oguzi eta eba-gi, baina ekinaren ekinaz ikasten dau garbi esaten.

Zozoakaz be gitxi gorabehera bardin jazoten da abestiak irakas-teko. Txistua jo eta bera adi-adi egongo jatzu guztizko polito burua be okertuta; apurtxu baten joiozu txistua eta nahikoa da egun bate-ko, biharamonean be bardin; eta holan arinago ikasten dau egun guz-ti-guztian gogait eragiten bazabilkoz baino.

Gizonai be esan erea danean "gure aberria Euskadi da, hauxe eta hauxe eta hauxegaitik, eta guk aberriari maitasuna zor deutsagu, hauxe eta hauxe eta hauxegaitik", eta laga, adarra jo barik, hasarra-tu eragin barik, gogait eragin barik, larregian ibili barik, eta usterik gitxienean ikaratuta ikusiko dozue ha gizona abertzalea dala.

1919-VIII-12

URKIOLAN LEHENGO IGANDEAN

Aginduta lako eguraldia euki genduan, goizean hara igoteko eguzkirik ez, arratsaldean goia garbi eguzki ederragaz eta ipar haize hozkirri ederragoagaz.

Urkiolara heldu, gosari puskat hartu, barriketaldi bat egin etorren ziran abertzaleakaz, eta hor hamar eta erdiak aldean hurreratu ginan eleizara abertzale pilotxu bat, hantxe besteei itxaroteko ustez.

Ikusi ginduzanean bertako sakristau saiak, joan zan arin-arin norabait, bere etxera edo, eta berehala etorri zan atzera aguazil-txapel bat buruan ebala, paparrean txapa hori bat "Guarda jurado del Santuario de Urkiola" idatzita eukana, eta eskuan agintari-makilea borla eta guzti.

Horrenbeste *tramankulu* ikusita, esaten genduan zetarako ete ziran. Gero igarri genduan.

Argintzoniztar Andoniren automobilean heldu ziran jabeagaz batera: Belaustegitar Pantzeska abadea, Elgezabaltar Kosma, eta Sagastizabaltar Joseba Mirena.

Handik lastertxu jaupea, Belaustegi jaunak egina, eta abestu eben Durangoko Batzokiko abeslariak sekulako edertoen. Ahots zoliak eta indartsuak! Txaumeskinoa¹⁴¹ jo eban Miangolarratar Joseba Mirenak, eta bakar-abestaldiak egin ebezan Azategik eta Gorroñok danak durangarrak. Elgezabaltar Kosma izan zan artezkari.

¹⁴¹ [Armonioa].

Jaupa ostean abestu zan otoizketa bat Bikandi abertzale ona izan zanaren alde.

Urten ginan eleizatik, eta Euskal Herri guztian ohitura dan lez, gure mutilok auresku bat egin gura izan eben; hasi zan tanbolina joten, eta ene mutilak! urteten da ez dakit nondik abade bat, eta hasarre, guztiz amorratuta, arramuskadaka dinotse ez joteko soinurik han eta alde egiteko; mutilak erantzun eben ia zegaitik, eta orduan agertu zan sakristau saia, bere agintari-tramankulu guztiaz, zarataka eta gogor.

Ba, abertzaleak hain dira onak, arin lepoa berotu beharrean alde egin eben handik eta joan ziran Buenos Aires ostatuko lurrera eta hantxe egin ebezan eguerdi eta arratsaldean jolas garbi-garbiak.

Ikaratuta geratu ginan danok, ia tanbolina joten eta dantza garbia egiten itxi gura ez eleizaren lurrean, hainbeste soinu zantar eta hainbeste dantza zikin, hainbeste bidar urtearen barruan ikusten dan lur hartan bertan.

Gero esan ei eban Urkiolak kapilauak (honen laguna edo koadjutorea izan ei zan arramuskadaka etorri zana) han soinua joteko baimena berari eskatu behar jakola, eta abertzaleak ez eutsiela eskatu, eta horrexegaitik izan zala guztia.

Koplak, koplak eta koplak. Hemen inguruetan danok dakigu Urkiolan inoren baimen barik joten dabela edozein soinu, bertara deun Andoniz, urrienetan, eta neguko san Antonez heltzen diran zorritzot guztiak, eta eleizearen ondo-ondoan egiten dala dantzarik lohiena eta lotsagarriena, biraua eta berba zantarra baino besterik entzuten ez dala. Ala kapilau horrek, horretarako baimena emoten ete deutse?

Eta holako zikintza okagarriak beti ikusten diran tokian, galazo gure tanbolina joten, galazo auresku garbi bat egiten Urkiola ondo-ko mutil euskaldunei! Eta galazo be modu txarrean, hasarreka, arramuskadaka.

Zer deritxozue, euskaldunak? Horixe egin jaku guri lehengo igandean Urkiolan. Jakizue danok.

Ganera, jaupa erdian "Eusko Ereserkia" jotea be galazo, eta jau-pa-azkenean deun Iñaki Ereserkia be galazo Sabinen hizkiaz, "Iñaki, Jaunguak bidaldua" hasten dana.

Hogeta hamarren bat mutil gaztek bazkaldu eben Agirrerren ostatuan eleiza ondoan, eta enparaduak, ehun inguru, Bizkarratar Julen eta Etxanobetar Elixabetek darabilen Hotel Buenos Aires ostatuan; hiru gelatan jarri ginan, eta bazkaria izan zan ugaria eta ederto ipinita. Geure txaloa Elixabete etxekandreari.

Gero, etorri ziran Agirrenean bazkaldu ebenak euren tanbolin eta guzti (gauza harrigarria) handik alde egin orduko, alboradea jo ei eutsien kapilauari, ia onak ez badira!, urten ziran Buenos Aireskoak, batzartu ziran danak bitxabalean, eta ostatuko balkoitik Enbeitak eta Eustaki Euleak botaten ebezan bertsoak entzuten egon ziran zati baten, eskuak txaloka eta eztarriak ujuka beharrez. Izan be, mutil handiak dozak bertsolariok! Nik ereizten deutset entzunago eta hobekak.

Gero, hasi ziran danak didarrez: Kirikiño! Kirikiño! zoratu balira lez, eta urten nintzan balkoera (urten behar), eta kirtenkeria batzuk esan neutsezan. Berehala hasi ziran: Akarregi! Akarregi! eta honek be, ni baino gitxiago ez izatearren, beste kirtenkeria batzuk esan eutsezan, barre-algara handiak eraginaz.

Ondoren hasi zan erromeria, garbi gero! hementxe erromeri honetan atara eban auresku bat Enbeitak eta atzeskua Elgezabalek, sokan izanik bertaratu ziran agurarik gehienak. Enbeitak erakutsi euskun bertsolari bardinbakoia bada, aureskulari bikaina dala.

Iluntzerako danok etxera bake-bakean.

Horra, ba, nire ustez, datorren urtean, Urkiolan aurkituko doguz gordazibilak.

Eta guk egin behar doguna orduan, inguruko beste mendi batera joan, eta handixek otoi egin deun Andoniri, eta eleizan gastauko geunkena inguruetakoko txiro edo pobreei emon.

Eleizatik botaten bagaitue be, aituko gara gu Jaungoikoaz eta deun Andonigaz!

Mañari, Dagonila, 18.

1919-VIII-20

GORA EUSKADI...

Horreek kulatzok edo puntuok zer esan gura daben? Argi esan barik be uste dot igarriko dozuela. Beraz, gora geure aberria, zeuek eta geuk ondo dakigun lez.

Didar hori jatorku gogora igandeko hauteskundeetan gure alderdiak izan dauen gurenda ederragaitik.

Hementxe Bilbaon gelditu gara zeozer laburtxo, oin urte biko hauteskundearen ondoan, baina tira, zortzi zinegotzi atara, eta eurokaz, hurrengo Udalean *hamazazpi* zinegotzi eukitea, ez da negar egiteko.

Baina hemen ez badaukagu zantzo handia botateko ziorik, Euskadiko beste uri nagusietan gurenda handienetarikoa harrapau dau igandean gure alderdiak.

Donostian *bost* zinegotzi atera. Bejondizutela! Seitik bost!

Iruñan, barriz, bost ipini eta *bostak* atera. Bejondizutela behin eta behin!

Eta Gasteizen, ostera, inoz euki ez zinegotzirik eta lehenengorako *hiru* atera. Hori izan dok izatekoa!

Ederto, ederto, eta ederto.

Orain zer dinoe ba lehen esaten zutenak Naparran eta Gipuzkoan eta Araban ez egoala abertzaletasunik? Piper-poteak-eta esaten zuten hemengo aberats bat edo batek dirua emonda erasoten ebana baino ez egoala. Zer dinozue ba orain? Eurek euretara aurkitu dira ezeren eta inoren laguntasun bage, eurek euretara bakarrik lan egin dabe, gipuzkoar, napar eta arabarrak, eta ikusi dozue zelako gurenda ederra lortu daben. Badago ala ez dago abertzaletasunik? Ai zuei

jazoten jatzena da Afrikako hegazti-motro handiari jakona, arerioa dakusanean hegoean burua sartu bera ez ikustearren, eta halan bere buruari sinistu erazoten deutso areriorik ez dagoala berak ikusten ez dauelako!

Bai, abertzaletasunak bere bidea daroa, zabalduaz geroago eta indartsuago Euskadiko alde guztietan.

Bilbaotik hurtxo dagozan uri handietan be gurenda ederrak ikusi dira Barakaldon, Portugaleten (horra bostekoa, Peru Gizon!), Deuston, Zornotzan, Balmasedan, Gernikan eta abar.

Ganera, 29garren ataletik hainbat herritan gure alderdiak burruka barik harrapau eban gurenda, arerioak txitik adore barik dagozalako; horra hor Bermeo, hantxe jazo da bederatzi zinegotzi barriak behar, eta burruka barik *bederatziak* ipini abertzaleak 29garren ataletik.

Oingo hauteskunde honeetan, gure alderdiak erakutsi dau asko indartu dala, eta egunik egunera indartuaz datorrela, eta urte batzuk bizi izateko eskerra Jaunak egiten badeusku, uste dogu ikusiko dogula alderdi hau Euskadiko nagusi eta agintari eginda.

Gora Euskadi...! Eta, ez gelditu gurenda honen hots gozoak lo eraginda, bai zera! Lepoko galantak hartu bagenduz lez hasi behar dogu lanean barrero gogor, ezer eginda ez bageunka lez.

1920-II-10

AHAL DAGIANAK AHAL DAGIANA?

Guretzat legerik ez dago? Hauteskundeak egiten dira, eta eurentan autarkiz ezin deuskue irabazi. Eta, zer egiten deuskue? Indarrez, okerreriz, guk irabazi doguna kendu geuri eskuetatik, eta eurek hartu eurentzat.

Horixe dabilz egiten gugaz aspaldian, eta horixe egin dabe lehen-go igandean hainbat herritan.

Eta zer? Hori egin, eta gero baten batek, odola irakinda, burua ilunduten bajako, eta horretan dabilzanai, narrua zulatzen badeutse inor ikaratu egingo ete da?

Eta narru-zulatzaille horri askok eta askok txaloak jotzen badeutsez, inor ikaratu egingo al da?

Eta narru-zulatzaille horreek geroago eta gehiago agertzen badira, inor ikaratuko ete da ba?

Eta abertzaleak, aspaldian jasaten dabenagaz, halakoren baten zoratuten bajake eta hasi badaitez emoten, beti hartzen egon barik, inor ikaratuko ete jaku?

Aspaldion egiten jakunagaz esan gura jakula esan lei, guretzat ez dagoala legerik.

Esan lei lege bat baino ez dagoala, basa-legea, *ahal dagianak ahal dagiana*.

Ba, lege horregaz, gauza ikaragarriak ikusi behar dira gaurtik aurrera, eta ikusiko dira.

Lege hori behin ipini ezkerro, narru-zulatzailleak ez dira gaizkinak, gizagurenak¹⁴² baino.

¹⁴² Gizaguren: heroi.

Lege honetan, arerioa josten dauena guk ez dogu eukiko gaizkintzat, gizagurentzat eukiko dogu, gure txaloak beretzat izango dira, eta ahal dogun bestean eta ahal dogun lekutik lagunduko deutsagu, bera ipiniko dogu eredutzat.

Lege horrek darraion artean, ez daitela inor ikaratu ezegaitik be. Gehituko dira narru-zulatzailleok, ugari gero.

1920-IV-13

GOGAKETAK

Bajatorkuz gizon jakintsuak, eta dinoskue:

Zeuen aberriaren askatasuna nahi badozue, itxulaskari edo erreboluzinarioak izan behar dozue nahitaez; itxulaspén edo erreboluzino hori berehala egin behar dozue, edo izan ez askatasun-zaleak; itxulaskariak zarien ezkeró, ez dozue sartu behar hauteskundeetan, zeuen urietara eta zeuen erkietara zeuen aldeko gizonak bidaltzeko eta leku hareetan euren aberri-aldez ahalegindu daitezán, bai zera! ez holakorik!

Jakitsuok horraitik ez dinoskue ezetariko zegaitirik; esan, eta kitu.

Baina gu, jakintsuak ez garanok, eta beti zegaitiaren eske gabil-tzanok, hasi gara eurok esan deuskuenaren zegaiti bila, eta gogake-ta-aldi bat egin dogu.

“Askatasuna nahi badogu, itxulaskariak izan behar dogula” tira, horregaz esan gurako deusku, onean ez deuskuela behin be emongo askatasunik eta, beraz, geuk gogorrean eskuratu beharko dogula, burrukan. Honetan geu be bagagoz, jakintsuak esaten etorri barik. Hori jakiteko ez genduan inoren beharrizanik. Eraso egin gura izan ete deuskue?

“Itxulaspén edo erreboluzinoa berehala egin behar dogula, edo ez daigula esan askatasun-zaleak garanik”; hemen jakintsua oker dagoa-la deritxogu; itxulaspén edo erreboluzinoa ez da egiten norberak gura dauenean; gertau egin behar da urte asko eta askotan, eta ardurarik handienaz, bera egin ahal izateko ba, notinak hatara ipini behar dira, eta gero, gertauta dagoanean be, era on bat itxaron behar da.

Ez, jakintsua ez dago zuzen horretan. Ludian izan diran itxulaspen handi eta txiki guztiak, aurretik luzaroan gertauak izan dira; notin bat edo batzuk, baina beti gitxi, hasi dira uste edo aburu edo gogai bat zabaltzen, eta berau puska-puskada bururik buru joan izan da, eta urte asko eta asko igarota, etorri da itxulaspen edo erreboluzinoa.

Beraz, ez dago zegaitik eskatu guri erreboluzinoa egin daigula ezetarik gertakizun barik. Zelan gura dau jakintsuak guk urtetea indar barik gu azpian gaukazanaren aurka? Danok hil eta espetxeratu gageizan gura ete dau? Eta enparaduak arineketa baten erbestera igesi egitea gura ete dau?

Ez, jakintsua, guk edo gutarrak itxulaspena egingo dogu, egitekotan, indarra euki daigunean eta era on bat agertu dakigunean. Eta bitartean, itxaron egingo dogu.

Baina ez itxaron, besoak ehunduta eta geld, arkoloka jesarrita.

Askatasun-zaleak edo itxulaspen-zaleak, jakintsuak dinoanez, ez dogu ezetara be sartu behar hauteskundeetan.

Zegaitik ez? Ez dino.

Bai ba! Ez dago zegaitirik eta, ezin esan!

Ludian izan diran itxulaspen-zale guztiak, euren ordua etorri dan bitartean, ez dira behin be geld, egon, hauteskundeetan gogor sartu dira. Hori, guk baino hobeto daki jakintsuak, guk baino hobeto daki ba zer jazoten izan dan arazo honetan Irlandan, Polonian eta hainbat eta hainbat lekutan.

Zelan egin ahal izango leuke inok itxulaspenik, uri eta erkietan indarra euki barik? Eta zer dala-ta laga behar doguz geure uri eta erkiak geure arerio atzerizaleen eskuetan? Geroago itxulaspena egingo dala-ta, bertan behera lagako doguz uri eta erkiok, eta euretatik aberriari egin geinkion on guztia ez deusagu egingo ala? Zer dala-ta?

Horixe izango litzateke benetako kirtenkeria! Uri Batzak eta Erki Batzak geure alde eukitea geure eskuan egon, eta arerioen eskuetan itxi!

Irlandako itxulaspen-zaleak hori egin al dabe? Ez, ez dabe hori egin. Aspaldian gogor sartu dira hareek hauteskundeetan, eta Irlandako zinegotzi eta aldunik gehienak euren darrak atara dabez.

Gure gogaketa honeetatik argi ataraten dogu ba: askatasun-zaleok ez gagozala behartuta berehalaxe itxulaspen edo erreboluzinoa egiten, eta hauteskundeetan sartu gindekezala, ez hori bakarrik, sartu beharra dogula geure aberria maite badogu.

1920-IV-23

MUNGIA! 1470EKO JORRAILAK 27

Badakizu, irakurlea, egun horretan Mungian jazo zana?
Gudaka edo bataila handi bat.

Alde batetik ziran espainiarrak, bestetik ziran bizkaitarrak.
Hareek etozan gure Bizkai hau euren menpean sartzen.
Bizkaitarrak hori ez eben gura ezetara be.

Ez ba, bizkaitarrak beti izan ziran euren buruen jabe, Bizkaian,
beti ordurarte, bizi izan ziran eta bertako jabe eta buru izan ziran
bizkaitar euskotar euskaldunak.

Zegaitik etorri behar eben atzerritar belarrimotzak bertako jabe
egiten, eta bizkaitarrai agintzen?

Ez euken horretarako eskubiderik!

Bizkaiak ordurarte beti lez aske izateko eskubidea baeukan, eta
bere askatasuna jagoteko gogor gertu zan.

Honetara jarri eben ba euren auzia, espainiarrak hemengo jabe
izan behar ebela, bizkaitarrak ostera ezetz, hemengo jabe ez zirala
egingo.

Etorri ziran ba izkiluz ondo hornidutako gudari aldra handiak
Espainia aldetik, sartu ziran gure Bizkaian, eta guztiz harro bajoazan
aurrera eta aurrera.

Baina gure asabak ez ziran horregaitik bildurtu.

Itxi eutsien espainiarrai sartzen eta sartzen, eurek era on bat euki
arte, eurek ondo gertautu eta leku egokian aurkitu arte.

Eta honantxe aurkitu ziranean, aurre emon eutsien espainiarrai
Mungiaiko zabalean, eta hantxe, 1470eko jorrailaren 27an, gudaros-
te biak alkarri heldu eutsien.

Heldute gogorra izan zan. Goizetik arratsalde berandura arte burruka itzela erabili eben. Azkenean espainiarren gudarostea alde guztietatik hausi eben, eta igesari emonda, dana sakabanatu zan.

Espainiar gehien-gehienak han geratu ziran hilda edo zaurituta edo espetuta, banaka batzuk bakarrik zaldi ganetan eta tximistea baizen arin, igesi ahal izan eben Espainiara.

Izparra eroateko lain.

Gurenda eder hau Bizkaian zabaldu zanean mendirik mendi eta ibarrik ibar, pozkor zantzo handiak erantzun eutsien alde guztietatik.

Ha zan ha, atsegina, aberria aske ikustea, eta atzerritar harra-patzailea lurra jota ikustea!

Orduko gure asaben gurenda hau ez daigun ahaztu behin be gaurko bizkaitarrok.

Eta gertau gaitez an horrelako gurendak geuk irabazteko.

Mungian gudakatu ziran bizkaitar harexen oinordekoak gara, euren odola eta abizenak darabilguz.

Eurek, Bizkaian agintzen sarturik atzerritarra, gogor jo eben, eta aske geratu ziran.

Guk zegaitik ez dogu gauza berbera egingo? Ez gara ba Mungia-ko bizkaitar gudakarien odolekoak? Gitxiago ete gara ba?

Ezin dogula? Nok esan dau hori? Ezina aitaturten dauen bizkaitarra, endekatua dago.

Ez dago ezinik, gura izan ezkerro!

Guk, eusko abertzale baktzak, lehenen-lehenen geure barruan euki behar dogu Mungia-ko gudakea.

Orduko aldi an espainiarrak Bizkaira sartu ziran lez, geure barrura sartu jaku atzerritasuna, Espainiatasuna, eta hauxe geure barruan jo eta kendu behar dogu, eta euskotasuna bakarrik itxi; geure barrua, geure gogoa aske ipini.

Gurenda hauxe da lehenen-lehenen irabazi behar doguna baktzak, eta ez da hori ezina, hori erraza da, gura izatea baino ez.

Horretan dago untzea, *gura izatean*.

Ba, gurenda horixe baktzak geure gogoan irabazi badaigu, egon eskier, beste gurendea be irabaziko dogu.

Gogoz izan gaitazan aske, eta gero guztiz izango gara aske.
Aintza Mungian espainiarra jo eben bizkaitar azartuak!
Ikasi eurakandik, abertzale!

1920-IV-27

GOGORTU, EZ BIGUNDU

Espainiako laterri edo estaduak egiune bat eginda dauka Araba-Gipuzkoa-Bizkaiaiaz ogasun arazoetan; erderaz *Concierto Económico* deitzen jakona.

Egiune hori, zehatz-zehatz, garbi-garbi beteten dabe gure hiru erkiok. Espainia laterriari, bere aldian dirutza ederrak emoten deutesiez, behin be atzeratu edo luzatu barik.

Eta Espainia laterriak ostera, ez dau egiune hori beteten behin be. Beti dabil nondik handik egiune horri ganez eginda, bere eskutik hemen bildu gurarik gure Diputazioak bakarrik bildu behar daben dirua gero berari emoteko.

Aspaldiko urteetan, edo hobeto esateko, *beti* dabil horretantxe; eta hemengo Diputazioak, zelan erantzuten deutesie?

Ba, horretariko egiune-hauste bat danean, bidaldu Madrilerat batzorde edo komisino bat, han ministrorik ministro eta gizon handirik gizon handi ibili daiten eskekoa aterik ate lez: apal-apal, makal-makal, mesede bat edo limosna baten eske dabilena lez.

Eta behin be ez dabe ezer lortuten. Beti etorten dira burua makurrik eskean ibili eta sakelak hutsik.

Bai ba! Espainiako politikoakana eskean? Eskean eta apal? Bigun, bigun, irribarreka, norberena dana eurena balitz lez eskatuten? Inon diran arrazoiak emoten?

Alper-alperrik! Horretan dira ba eurak mutil onak, buruan jotzen makurtzen jakena.

Ostera, Espainiako politikoak beti izan dira makalak eta bigunak, euri gogor egiten deutesenakaz. Eurek ikusi badagie norbaitek edo nonbaiten matxinadea sortuteko dala, berehala etorten dira atontze edo *arreglo* batera.

Hareei gogor egin behar jake, bestelan eurekaz galduak gara.

Orain be, Espainiako Gobernuak zerga barriak ipini dauz, *ikurratz* edo sello batzuk asmau dauz ipini behar jakezala saloskai¹⁴³ askori. Zerga hori Spainian bidezkoa da, baina ez hemen, ba hemengo hiru erkiakaz egiunea eginda dauka ikurritz-zerga arazoe-tan be, eta ikurritz-zerga hori, hemengo Diputazioak bildu leie, bai-na ez hango Gobernuak.

Gauza argiagorik ez dago. Eta halan eta guzti be, Gobernua hasi da zerga hori hemen biltzen, oker handia ekarririk hemengo saloskuntza¹⁴⁴ eta herri guztiari. Harek *egin* horixe egiten dau. Hemen zer egiten da? hemen *esan* besterik ez.

Atzo ikusi genduan hemengo izparringietan Bilbaoko Saleros-Batzak¹⁴⁵ Gobernuari zuzentzen deutzazala burdibete arrazoe, argi ipinirik ikurratz-zerga hori hemen ez dala zuzena. Saleros-Batza honen ostean besteren bat, Diputazioa edo, etorriko da gauza berbera esaten. Baina dana alperrik izango da. Arrazoiak ez dau balio, atzean indarririk ez badago.

Hemen egin behar litekena da, Diputazioak buru dirala bertoko Bazkun edo notin guztiok alkar hartu eta zergak batzen datoza-nean emon ez!

Eta gogortu. Hemengo herri guztiak bat eginda gogor egingo baleu, eskier daukagu Gobernua bigunduko litzatekela.

Gomutau baino ez daukagu Naparrak zelan erantzum eutsan aldi baten Gobernuari, Gamazo ministro zanean.

Askok esango dabe hemen guk dinogun hau burubakokeria bat baino ez dala, ia nor jarriko dan Gobernuaren aurka.

Ba, ez dagoz bide bi baino; bata, isil-isilik ordaindu ikurratz-zerga hori; bestea, ordaindu ez eta gogortu.

Diskurtsoa eta barriketea dariola ibiltea alperrik astia galtzea da.

1920-VI-20

¹⁴³ [Merkantzia].

¹⁴⁴ Saloskuntza: salerosketa.

¹⁴⁵ [Cámara de Comercio].

ATZOKO AUZIA

Guk uste genduan lez, aske urten ziran Eako senar-emazte Agreretar Tiburtzi eta Mendietatar Telespore, eta Zarakondegitar Gergori.

Gizonezko bien aurkako salakizuna "Gora Euskadi askatuta" esan ebela, salatari edo fiskalak atzeratu egin eban, hori eginagaz adierazorik didar horrek ez daukala hobenik. Emakumeari ezarten jakona zan "Behera Espainia" esan ebala; baina argiro ipini zan guzura zala, eta epaikari-lauak¹⁴⁶ erantzun eben ez egoala hobenik, eta beraz, erantzun honetatik emakumea be aske itxi eben.

Geure zorion-agurra hirurei.

Atzo auzitetxean ordu bi inguru egin genduzan auzi horixe dala eta ez dala, eta ene mutilak! auzitetxe guztia andra eta gizonez beterik egoan, eta danak egiten eben gure euskera eder gozo-gozoau, zein polito etorren belarrira gure asaben elea!

Ez dau hartu auzitetxe horrek aspaldi baten atzokoa lako baso-usain ederrik. Hantxe erakutsi euskuen gizon bat, harainegun Kubatik heldurikoa, han hogeta hamasei urtean egondakoa, eta euskerea parra-parra egiten eban, sekula bere herritik inora joan ez balitz lez. Horixe da euskerea zail gogoan josita eukitea!

Atzo Eako herrian gure ustez ez ziran gelditu umeak eta atso-agurak baino; enparaduak hemen ziran. Ia, inok "Behera Espainia" esan badau-ez badau herri bat ia osorik atzera-aurrera erabili behar bada. Esan dala egia izanda be, ez da horrenbesterainoko.

¹⁴⁶ [Juraduak].

Nik behintzat ez neuke inor bidalduko lau urterako, ez gitxiago be! *Behera Euskadi* didar egin dauelako bakarrik, ezta zuek be, irakurleak. Hori lako gauza bategaitik inor hondatuteko bihotzik ez daukagu euskaldunok. Espainiarren gauzak dira horreek.

Eurrez esaten da Espainian biraua Jaungoikoaren aurka, eta zer egiten jake? Inoz, inoz, hamabost ogerlekoko multa; eta gehienetan jaramonik be ez. Legeak hamabost ogerlekoko multea dauka ipinita birauen zigortzat.

Eta Espainiaren aurka esaten danagaitik *lau urteko espetxea* dauka zigortzat ipinita.

Antza danez, espainiarrentzat Jaungoikoa gauza gitxi da Espainiaren aldean.

1920-VII-9

HARAINEGUN ONDARRETAN

Ondarreta edo Areetako (Las Arenas) Eusko Gaztedia harainegun idigi zan, horretarako bertan jaiak eginik, hemen larunbatean iragarri genduzanak.

Dana egin zan ederto, batez be hitzegikizunak. Hiru hizlari iragarri ziran, R. Sotatar Albar, Isusitar Estepan, eta gure Txomin Gurutzeta euskalduna, baina batzarra izan zanean jenteak hantxe ikusi eban Rugama ospetsua eta hitz eragin eutsien didarka, eta egin be bai, eta sutsu, berak beti ohi dauen lez, hitzegitegaitzat harturik "Gora Euskadi askatuta" didarra. Guztiz ederto egon ziran hizlari guztiok, txalo gortugarriak entzuten zirala eurok hitz egin eben bitartean eta azkenean.

Horraitino, barruan usteldu ez dakigun gauzatxu bat esan behar dogu.

Mutilak, "Gora Euskadi askatuta" didarra emon jeuskuek. Orain arte, aspalditxu honetan, txarto erabili gaitue abertzaleok horrexegaitik; baina Araluze aldunaren auzia, eta Eako Agerre eta Zarakondegiren auzia ikusi eta epaitu danetik hona, didar horregaitik ez deuskue ezer egiten.

Beste didarra, "muera", Ondarretan ugari samar entzun zana harainegun, ez deuskue emon, ez emongo be. Didar hori egiten dauena, harrapatzen badabe, zuzen-zuzen doa espexera.

Bakotxa bereburu da berak gura dauzan didarrak egiteko; baina, zeri ez dala, edo inok agindu barik, edo zetara ez datorrala, burua eta ahoa berotu jakozalako bakarrik, inok didar hori jaurtiten badau, *bere kontura jaurti dagiala*.

Hasi gara abertzale asko hilean honenbesteko bat emoten, espetxeetan dagozan abertzaleei lagun egiteko; baita Eugabi-Zaleak be horretarako irasi dira. Atseginez emoten dogu hilerokoa baita Eugabi-Zalekoa be, uste dogu ba geure abertzale espetxalduak ez doguzala laga behar.

Baina "muera"ka edozelan dabilizan ahobero asko espetxeraltzen badabez, nok hareei guztiei jaten emon? Ezin!

Eta horretara bagoaz, "muera"zale horreei esan egin beharko jake: "didarrrik jaurti gura badozue, hor zeuek! baina zeuen kontura izango da gero espetxean zagozen arteko jana eta enparadua, geu ez goazak inor *mantenietan* inok agindu ez deutsan didarra jaurti dauela-ta. Bai zera!"

Bai, esan beharko jake. Bestelan, gizaguren edo *heroe* gehiegi batu behar jakuk espetxeetan, eta orduan zerak manteneduko¹⁴⁷ jozak!

Kontuak atara behar doguz danak, didartzaleak eta diru emoi-leak.

1920-VII-13

¹⁴⁷ [Alikatuko].

GIZON ADORETSUAK

Atzo goizean, itxuraz ibaiko lanak gelditu ziranik jakin ez eta edo, hainbat behargin euskaldun agertu ziran lan-lekuetan.

Esan eutsien lanak geldituta egozala ba ugazaben erabagiz, eta etorri ziran ezkerreko eguerdian arte ekin egioela lanari, baina bazkaiteko etxera joan eitezala eta arratsaldean ez etorteko.

Eurek erantzun ei eben ez dirala belarrimotzen bildur, eurei ez deusiela prakaz irabaziko, eta gertu egozala egunean-egunean etorteko.

Egia da. Gure gizon honeek egunokaz erakutsi dabe bihotz sendodunak dirala, ez dirala bildurtzen. Bilbaora etorten izan dira bizia galtzeko zorian, eta horraitino, *etorri* egun baten eta bestean eta bestean. Adoretsuak!

Atzo etorri ziranak esan ei eben, ixteko eurak bakarrik, txapeloker eta piper barik, eta aituko zirala sozialistekaz.

Badakigu bai, danok, eta bai sozialistak be, txapelokerrak eta piperrak eta euren agintari Espainia-ordelariak hemendik alde egin balebe, eta hemen alkarren aurrez aurre izan balira euskaldunak eta besteak, ez eben belarrimotzok kukurruku asko egin izango.

Eurok, belarrimotzok, oin harro dabilz, uste deusue ikaragarriko azartuak dirala, eta hemengo jenteak ez dauela balio euren alderako. Halantxe ei dinoe hemengo euren izparringi zikinek.

Alboetatik gure beharginek egunokaz eroaten izan dabezan txapeloker eta piperrak, kateak eta sokak izan dira eurentzat, euren burua jagoten galazoten izan deitseenak.

Bere burua jagoteko inok pistolarik ataraten baeban, txapelokero eta piperrok oratu egiten eutsien eta gelditu eta espetxeratu;

ostera, gure beharginei tiroka ebiltzan zantarra ez eutsien jaramonik egiten.

Eguen arratsaldean, Urangatar Ebaista deritxon gizon bat, ibaian lan egiten ez dauena, Atxurirantza bera bizi dan etxera doala, uste izanik bere taiutik arratiarra zala, joan jakozan ganera aldra handi bat (banan badaezpadan behin be ez dira joaten *valiente* horreek), eta hasi jakozan danak burutik behera makilakaz jotzen; halan ikusirik bere burua, atara eban sakelean eroian pistolea, eta hau ikusi ebeneko, erbia lez igesi eben zantarrok; ez eban tirorik jaurti. Baina pistolea ataraten ikusi eben piper batzuk, eta heldu eutsien gizon horri, eta euren espetxera eroan eben. Han igaro eban eguenetik barikura arteko gaba, eta bariku goizean Larrinagako espetxe nagusira eroan eben. Epaipean ipini dabe.

Antza danez, sozialista belarrimotzak jotera datozanean, isil-isilik burua makurtu eta itxi norberari hazurrak ehioten egin behar jake.

Ba, Uranga honi jazo jakona, bardin-bardin jazo jako edozein euskalduni, bere burua jagoteko pistolarik atara badau edo, atara barik be, badaroala jakin badeutsie: kendu pistolea eta espetxeratu.

Besteei ez deutse holakorik egin. Mundu guztiak ikusiriko gauzea da.

Beraz, jeltzaleak ez zarien euskotarrok: badakizue zelan maite zaituezan belarrimotzok. Kontuak atara! hemen danok ondo alkar hartuta, indarra egin behar dogu, bestelan Bilbaoko ibaitik egunokaz jaurti gura izan zaituen lez, bihar zeuen baserrietatik jaurtingo zaitue, zuek baserritarrok, eta Bizkaiko lantegietatik jaurtingo zaitue, zuek langileok, eta Euskadi guztitik jaurtingo gaitue danok, euren jopu¹⁴⁸, eurentzako astoak lez beharrean isil-isilik egon gura ez badogu.

1920-VIII-8

¹⁴⁸ [Esclavo].

ATZOKO GAIZTAKERIA HANDIA

Atzo goizean leku honetan esaten genduan sozialista kakana-
rruok isilik edo geldirik egozala egunokaz.

Lehenago esan bagenduan, lehenago astakeria bategaz erantzun
izango eben zantar handiok.

Atzo goizaldean, lau eta erdietan Begoñako Urtoki-bideko estar-
tatik gora joiazan sozialista zantarrok gizon lodi bat buru ebela, eta
geroago be beste aldra batzuk, igon ziran danak Santo Domingo
ganera, eta hantxe ezkutauta, pistolakaz, itxaroten egon ziran Zamu-
dioko baserritar ibaiako langileei, eta honeek, hor zazpirak inguruan,
agertu ziranean, tiroka hasi jakezan euren ezkutu-lekutik.

Cureak ezin erantzun, izkilurik ez euken ba, zelan eukiko dabe,
egunero sakelak arakutzen badeutsiez eta, izkilurik eroan ezker-
o, kendu eta espexera badaroz?

Horregaitik, izkilu¹⁴⁹ barik, esku hutsakaz aurkitzen ziran gure
baserritar gizajoak, eta beste zantarren tiroak ganean hartu beharre-
an. Salto egin eben bitxabaleko urbide sakonera eta hantxe makurtu
behar, euren burua jagoteko.

Baina ezkutau urduko, bitxabalean jausi zan erdi hilik Bilbaotar
Bitor eta beste bi edo hiru zaurituta geratu ziran.

Zantar handiak, hori eginda gero, arinari emon eutsien mendi
ganetik Deusto aldera joteko ustez, ba, esan ebenez atzo, gaizkinok
Sestao aldetik etorriak ei ziran.

¹⁴⁹ [Arma].

Igesi hasi ziranean, baserritarrok jarraitu eutsien, eta euren dida-
rretara basetxeetatik beste askok urtenda, Asua aldera eragin eutsien
zantarrai, eta hor ibili ei ziran basorik baso alkarren atzean.

Gure jenteak harrapau ebazan arerioresen batzuk; biri lepoa bero-
tu eutsien, beste enparaduci ez, lotu, eta gero txapelokerren eskuetan
ipini.

Honetantxe da ezagun gure jenteak daukan mendutasuna. Bae-
ken ba zio nahikoa, harrapatzen ebena bertan zati-zati eginda ixteko;
egin balebe ez zituan inok gaizkintzat hartuko horregaitik; baina ez,
Jaungoikoaren agintza: "ez inor hil", beti dabe gogoan, eta nekez
itsututen dira agintza hori ahaztuteko bestean.

Alde handia dago sozialista eta gure langileen artean horretan;
sozialistak inor hiltea, espetxera joateari igesi ahal badeutsie, *ezerez-
keria* bat da, eta gurentzat, ostera, inor hiltea gaiztakeria itzela da,
ludirako eta beste alderako burukomin asko dakarrena, eta Jaungoi-
koari erantzun behar jakona.

Horregaitik, harrapau ebezanak ez hiltea, ondo egin eben.

Baina, bidera inok urteten badeutsie eurek hilteko edo, orduan
arin ibili behar dabe, eta jo eta hil, norbere burua heriotzatik jagote-
ko horrenbeste gitea aske da eta.

Guk hemen esaten doguna ez dabe irakurriko baserritarrak; bai-
na ez da ardura, belarrimotzak guk baino hobeto irakatsiko deutsee.

Honetara bagoaz, denpora gitxi barru, gure baserritarrak erau-
tzungo deutsee horreei behar dan moduan.

Beharra baino irakasle hobarik ez jagok, *beharrak* dana eragiten
jok.

Uste dogu hemendik aurrera Bizkaiko herri txiki euskaldunetan,
belarrimotzai ezkerreko begiaz begiratuko deutseela.

Goian bego Bilbaotar Bitor gizajoa, Jaunak bere donokian euki
bei, eta bere odola izango al da euskaldun abertzaleen hazia.

Guk abertzaleok gorrotoaz gabiltzala esaten dabenak: ikusi beie
zein aldetan dagoan gorrotoa.

Eta ez etorri esaten, honeek langile arteko arazook ez daukela
zerikusi euskotasunaz. Badauke. Bilbaon gaur, bertan bizi diran bela-

rimotz gehien-gehienak, eta gure eztabaidetan euren aldez egoten diran euskotar asko, sozialisten aldez dagoz eta gure baserritarren aurka. Zegaitik? hemen dabilen zarraparra guztia dalako, ondora begitu ezkerro, atzerritarren guda edo gerrea euskotarra. Ez da besterik.

Guda hau geroago eta garratzago joango da. Orain arte ikusi doguna, bape ez da, ikusiko danaren aldean. Euskaldunak, guda honetan onegiak edo geldiegiak edo gara, baina bizkortuko gaitue.

Atzo Santo Domingon jazo dana lakoak jente asko ipiniko dabe darda ganean, jente askok igarriko dau inoz uste ez ebana, jente askok autortu beharko dau Jeltzaleak gure Sabinegaz batera esaten izan doguna ez dala egia berbera baino.

1920-VIII-19

SABINEN HILOBI AURREAN OTOI BAT, LORA BAT, ESKINTZA BAT

Arana Goiritar Sabin geure anaia nagusia izan zan; berak erakutsi euskun zein dan geure Ama Aberria.

Bera izan ez balitz, gu euskotarrak izan arren, gu euskaldunak eta euskaltzaleak izan arren, hemengo ekandu guztiak maite izan arren, ez genduan ezagutuko geure aberria Euskadi zanik; batzuk geure aberria Espainia dala uste izango genduan, eta besteak Frantzia dala euren aberria.

Arana Goiritar Sabingandik jakin dogu euskotarrak aberri bat daukagula. Bera izan ez balitz, aberria bagenduan eukiko, baina jakin ez geunkanik; euki ez bagendu lez bizi izango ginan.

Horregaitik, sarritan esaten dogun lez, guk Arana Goiritar Sabini zor deusagu aberria eukitea, aberria ezagutzea zor deusagu eta.

Uste bat egizue, irakurleak: geure sendia ezagutu barik, geure aita eta ama eta anai-arrebak nortzuk diran jakin barik, beste sendi bat daukagula geurekotzat, eta honetan geure anaia bat jatorkula eta erakusten deuskula benetako sendia zein dan, eta bat egiten gaituela geure benetako aita-ama eta anaiakaz, geure eskuetara dakarskula geurea dan ogasuna, zenbat ez geunke maite izango anaia hori?

Horretaraxe ba, Arana Goiritar Sabin be maitagarria da guretzako, eta egiz, jeltzale guztiak maite-maiterik daukagu. Bere izena aitatuten dan guztian gure artean beti izaten da onestuteko¹⁵⁰.

¹⁵⁰ [Bedeinkatuteko].

Maitetasun hau beti erakusten deutsagun arren, egun bat dago urtean berariz erakutsi behar deutsaguna geure maitetasun eta gomutapen bizia, bera Jaunagana ludi honetatik joandako eguna, azilaren 25garren eguna.

Gaur, Arana Goiritar Sabin maite dogun guztiok eta bere irakatsien jarrai gabiltzanok, bere hilobi aurrera agertzen gara, ekarririk otoi bat, lora bat, eta eskintza bat.

Otoi sutsu bat, bihotz-bihotzetikoa, Jaunari eskaturik emon dagiola geure anai nagusi maite Arana Goiritar Sabin zanaren gogori betiko atsedena, eskaturik hartu dagiala betiko argitan, aintzargitan. Goazen gaur otoi hori egiteko, ahal dogun guztiok batera, Jaunaren etxera, txadonara, eta jaupa erdian ogia jaunduten danean, geure bekokiak lurreraino eratsirik, eskaria egin daigun Sabinen alde.

Geure gomuta-lorea ipini daigun gaur bere hilobi ganean; esan daiogun Sabini ez dala gure gomutan ahaztu, ez; hamazazpi urte igarro diran arren bizi-bizirik irauten dauela bere gomuteak gure gogoran; ez dogula ahaztu gura, baina ahaztu gura bagendu be, ezin izango geunkela, edo horretarako geure gogoko euskotasuna lehenengo kendu beharko leuskigue. Euskotarrak garan artean, hau da, hil artean, Sabin eta bere irakatsiak nahi eta ez egongo dira gure gogoetan.

Eskintza bat esan dogu. Zer eskini? Hara: danok izan gura geunke Sabin izan zana lakoak, baina ezin. Nor heldu ha helduriko goierara? Nok dauka bere sutasuna? Nok bere adimena?

Gu ez gara gauza bera lez dana jokatzeko aberriaren alde, sendi-ogasun-bake-adiskidetasun-ondo izate-osasun-askatasun... Ez, ez gara gauza; Sabinen aldean gizon txikitxoak gara, eta berak egin ebanera ezin heldu gu, gurata be.

Baina hain goraino heldu ez arren, gitxi-asko danok *zeozer* egin geinke; eta *zeozer* hori egingo dogula eskini behar deutsagu gaur gure maisu Sabini.

Nok ez ahal dau euskeraz hitz egin eta idatzi ahal dauen guztian, euskalduna bada? Nok ez ahal dau euskerea ikasi, abenda-elea, euskotar erdelduna bada? Nok ez ahal dau ikasi, irakurtzalea bada, Euskadiren edestia? Nok ez ahal dau erosi euskaldun baten dendan

berak behar dauena? Nok ez ahal dau ondo hartu euskotar jeltzalea, beragaz anaia izanik? Nok ez ahal dau lanean euskotar bat erabili, atzerritar baten lekuan?

Horreetariko *zeozer* egin ezin dauenik ez dago; danok ahal dogu bata edo bestea; ba, horixe, ahal dogunori eskini daiogun gaur Sabini.

Berak dana emon eban aberriaren alde; guk *zeozer* emon daiogun.

1920-XI-25

ETA ZER?

Harainegun, piper-pote aberatsen diru-zorroak, espainiar agintarien izkilu-indarra, eta euskotar gogo-makal askoren txatxartasuna, danak bat eginda, gure ahaldungei guztiak behetuta itxi dabez.

Espainiar agintarien izkilu-indarra izan ez balitz, beste zio biak gorabehera, gure ahaldungeiak urten izango eben gurendari¹⁵¹.

Baita, agintari horren izkilu-indarra gorabehera, aberatsen diru-zorroak izan ez balira be, gure ahaldungeiak urten izango eben gurendari.

Baita, izkilu-indarra eta diru-zorroak gorabehera, euskotar gogo-ahuldun askoren doilorkeriagaitik izan ez balitz, gure ahaldungeiak urten ahal izango eben gurendari.

Baina hiru gauzok batera jarri ezkeru, euron ganetik igaroteko beste indar hondino ez dauka gure alderdiak.

Ez, horrenbeste indar ez daukagu.

Harainegungo gure orraztaldia ikusita, hainbat abertzale gelditu dira adorea¹⁵² galduta; hor dabilz arpegi luze-luzeakaz, amaraun-hari bategaz urkatu leikezala.

Atzo, gure aurrean esaten eben abertzale batzuk: "Gureak egin jok", "Oilo batzuk gaituk, eta beti bardin egingo jeuskuek", eta hone-lakoxe esakerak¹⁵³ erabilezan.

¹⁵¹ Gurendari: irabazle.

¹⁵² [Kemena].

¹⁵³ E. j. esaera.

Nik hareei, nire aurean egozanai, esan neutsen eta gaur hemendik esaten deutset adorea galduta gelditu diran abertzale guztiei, ezetz, gureak hondino ez dauela egin, ez gitxiagorik be; eta oilarrak egoten diran lekuetan be, indar handiagoa etorri ezkeru, oiloen karkaxea egin beharrean aurkitzen dirala, kukurruku ezin eginda; ez dau balio norberak esatea "neu oilarra nok"; hori esanaz bakarrik dana eginda balego!

Bertan egoan agure batek, Sabin gure maisuaren aldian lehenengotariko abertzale sutsu batek, bizi-bizi esan eutsen negartiei: "Gitxiagogaz hasi gintzoazan".

Eta egia, oin baino indar gitxiagogaz hasi zan Sabin, eta ez zan adoregatu, eta beragaz orduan batu ziran abertzaleak, eskukadatu bat bakarrik izan arren, ez ziran adoregatu.

Gogor jarrai eben, bai Sabinekin eta bai bere ikasleak, eta gaurko indarrera heldu da gure alderdia.

Bai, gaurko indarrera, ba gure alderdi honekin indar handia dauka. Berau azpiratuteko batu beharrean dagoz beste alderdi guztiak, espainiar agintarien izkilu-indarra, aberats piper-poteen diru-zorroak, eta euskotar gogo-ahuldunen doilorkeria. Horreek guztiok batu ezik, gaur gure alderdia nagusi.

Hauxe, azkenengoau da gure eragozpenik handiena; euskotar askok eta askok hondino ez daki bere buruaren alde egiten; ogerleko batzuko ikusi orduko salduten dau bere aberria, eta bere aberria lez salduko leukez bere etxe eta bere sendia be. Honetantxe dago gure okerririk handiena. Hauxe da hausi eta kendu behar doguna. Hauxe inoz kendu, eta euskotarra egiten badogu abertzalea, orduan bildur gitxi emongo deuskue espainiar agintarien izkilu-indarrak eta piper-poteen diru-zorroak. Euskotarra zintzoa eta abertzalea balitz, dana edo gehiena, ez litzake jazoko harainegun jazo zana.

Beraz, gure zeregina hemendik aurrera, zeregin bakarra ez bada, behintzat bai nagusia, izan behar dau euskotasuna zabaltzea gure anaien artean.

Eta horretarako geure hitzak baino geure eginenak gehiago irakatsi behar dabe; ondo da hitz egitea, hitz eginaz gizonak alkarri

euren gogokoa erakutsi eta irakasten deustie eta, baina hitzagaz bate-
ra edo hitza baino lehenago, geure eginena aurretik joan behar dau.

Gizonak gehiago ikasten dau ikusten dauenetik entzuten daue-
netik baino.

Harainegun hauteskunde-burrukan hurra jota itxi gaituela?

Eta zer?

Kankarreko bat edo bigaitik edo askogaitik be, etxera sartzeko-
ak ez gara.

Ekingo deustagu aurrerantzean be.

1920-XII-21

IRAKATSI EGIN BEHAR DA

Lehengo igandeko hauteskunderan euskotar askok bere autarki edo botoa saldu egin dabela-ta, garrazkeria handiak entzuten dira, eta geuk be esan doguz, bateko txarrikumak lez gizonak saldu dirala, besteko euren ama be ogerleko bian salduko leukiela, eta abar.

Hotz-hotzean arazoari begitu behar jako, eta ikaskizunak atara.

Igandean, irakurri dogunez eta dakigunez, euskotar milaka askok emon dau bere autarkia zintzo-zintzo, diruari ez ugazabaren esanari jaramon barik, Jelen aldez eurek dauken gogoagaitik.

Bizkaian bakarrik 15.000tik gora izan ei dira.

Horren zintzotasuna argi ikusita dago; hor ez dago barriketarik; hori da gauza bat, gure Gorbeia baizen egizkoa.

Eta otuten jaku orain itandutea:

Jeltzale zindo-zindo horreek 15.000ra heldu diran lez, zegaitik ez leikez heldu beste 15.000 gehiagora, eta beste 15.000 gehiagora? Zegaitik ez?

Horreek be lehen ez ziran danak horren zindoak izango hauteskunde-arazoetan; horreen artean be izan dira lehen autarkia saltzen ebenak; eta Jelen barri jakin dabenean, Jelen irakaskizuna euren adimenera eta euren bihotzetara heldu danean, ikasi dabe gizonak ez dauela bere autarkia saldu behar, autarki hori bere aberriari zor deutsalara, eta harixi emon behar deutsalara diru guztien gainetik.

Eta horreek ikasi dabena, zergaitik ez leie ikasi beste enparaduak?

Danak ez, ez leukie ikasiko, edo ikasi arren, ikasi ez balebe lez egingo leukie batzuk, zantarrak diranak; baina lehengo igandean sal-

du ziran gizon guztiak ez dira zantarrak, ikasi leienak dira, eta behin ikasi ezkeru, zintzo jokatzeko lakoak. Gure ustez, azkenengo honeetariakoak gehienak.

Ba, ondo irakatsi ezkeru, horreek geure Jelen gerizpera ekarriko doguz, eta behin gerizpe horretan ezkeru, ez da dirurik izango horreek erosteko, oingo 15.000entzat izan ez dan lez.

Irakatsi daigun ba!

Eta irakatsi, egintzak edo eginenak aurretik daroaguzala. Ikusi dagiela gizon horreek, zintzo izan leikezanak hauteskondeetan, Jeltbatza dala alderdirik garbiena, jeltzaleak dirala horretan eta beste aberri-gauzetan notinik artezenak. Gure zintzotasunak ukutu dagiela euren zintzotasuna, eta egon ziur sua piztuko dala.

Gaurtik aurrera, ezer egin gura badogu geure asmo-bideetan, zintzo beti jokatu behar dogu, nahiz eta jakin aurretik zintzo jokatu ta ez dogula irabaziko.

Hauteskunde-burruketan galtze hutsak ez dau behin be adoregatuten jeltzale zindoa, badaki honek burrukan sartzea bakar-bakarrik dala bere alderdientzat irabazkun bat.

Bide garbi-garbitik joan behar dogu.

Ontasunak¹⁵⁴ daukan indarra ezin izaten da sinistu, hain da handia.

Benetan ona danak bere atzean daroaz gauza guztiak, berak igarri barik.

Ikusten ez dan indarra da, gauzen azpitiko indarra, gure begiaren eta gure gogoaren ahala baino harantzagoko indarra.

Ez inok barrerik egin, Jaungoikoaren indarra da.

Hauxe geure alde ipini daigun, eta gero barre egin dagiogun ludi honetako piper-pote eta dreguerak guztiai.

1920-XII-24

¹⁵⁴ [Birtuteak].

BARRIRO DINOGU

Bai, barriro dinogu lehengo asteko barikuan leku honetantxe esaten gendua: *Irakatsi egin behar da.*

Zetako irakatsi? Oingoan, Bizkaian bakarrik euki doguzan 15.000 autarki garbiak, beste 15.000ra gehituteko, eta 30.000ak beste 15.000gaz gehituteko.

Eta hori, orduan esan gendua erraz egin leikela argi ipinteko, egunokaz herri txiki batzuetatik etorri jakuzan idazkiak hartzen doguz: Ubidetik, Larrabetzutik eta beste leku batzuetatik, eta gaur bertan Mañaritik *Txiñuelok* bidaldu deuskuna.

Honek dino herri txiki haretan, diruagaz piper-poteak 71 autarki euki dabezala, eta abertzaleak diru barik 61 autarki.

Orain, ha herritxua ondo ezagutzen dauen bati entzuiozue: Herritxu haretan, aurten dirala *hamabost* urte, diputadu probintzietako orduan izan ziran hauteskundeetan, abertzaleak *zortzi* autarki bakarrik euki genduzan diru barik (eta diruaz bapez, orduan be gaur lez, jeltzaleak ez eben lauziri eskini ez emon autarki orde).

Beraz, hamabost urtean *zortzitik hirurogeta batera* heldu dira. Eta beti garbi-garbi ibili bagina, askozaz gehiagora helduko ginan.

Gogoan daukat, urte haretan, *zortzi* bakarrik atara genduzan urtean, zelako ondorena eragin eban guk jeltzaleok ez dirurik ez ezer autarki orde emoteak, diruaz saltzen ziran gizonetan.

Guk esaten genduan orduan, autarkia ez dala saldu behar eze-gaitik be, autarkia alde batera edo bestera emonaz gizonak bere buruaren alde edo kaltez egiten dauela; guk, jeltzaleok, ez geunkela zetan autarkirik ordaindu, aberriaren alde garbian genbiltzalako, eta abar.

Ez genduan ezer emon, eta... *zortzi* bakarrik.

Baina tabernetan afalduta gero etxerantza joiazala gizonak, euren barruan beti dagoan zuzentasunak eraginda, honelakoxe alkarizketak erabilten ebezan:

—Hara, mutil, gu gozak txarri batzuk, besterik ez. Botazinoak ez litzatekezak honan egin behar, botazinoa garbi egin behar litzatekek, diru barik eta inori derrigor eragin barik. Horrecek bizkaitarrikok egin joek holantxe. Ze arraio! Horixe dok zuzen jokatzea, holantxik egin behar litzatekek. Ba, berberdi esan baleustiek, uste joat eurei emongo neutsiela neure botoa, eta hurrengoko botazinoetan eurentzako izengo dok, ez najoak gehiago saltzen. Errekonde! lotsatuta najoak etxera ba-ta, okotzeraino ardauz beteta botoa salduta, eta nori be ez dakigula, boto-saltze honek ze atze ekarriko dauen be ez daki-gula. Errekonde, errekkonde! gizonak be ez gaituk asko gehiago.

Honelakoxe hizketak entzun ei ziran egun haretako gabeen estartetan, tabernatik etxerantza joiazan gizonen artean.

Gizon hareen barru garbiei garbitasunak ukutu, garbi jokatzan ikusteak eragin. Horixe zan hizketa hori.

Barru garbiari garbia atsegin¹⁵⁵; garbia garbiak irabazi. Horixe zan hareen gizonen hizketa hori.

Urte haretan hondino ez ekien ondo *bizkaitarrikak* (eurok deituten euskuen lez) zer esaten genduan, zer gura genduan geure aberrirako; eta beste alderdiak zelako kalteak eurei, euskaldumei, ekarri deutseezan. Honetan hondino atzera egozan, eta hori gorabehera, hauteskundeetan garbi jokatzek bakarrik asko eragin utsen.

Gizon horreen artean, 61 horreen artean orain arte diruaz autarkia emoten izan dabenak gehienak izan dira, eta gaur ez dabe emoten, gaur garbituta dagoz.

Gaur 61 horreek badakie zeintzuk alderdi diran euskalduna osti-kopetuta daukienak bere herrian bertan, euskaldunari zelako kalte-

¹⁵⁵ [Gustau].

ak ekarri deutsiezan; eta badakie Jel alderdia dala bakarrrik euskaldunen aldez dabilena, eta badakie Jel alderdiari autarkia emon ezkerro, euren buruen aldez damoela. Hori ikasi dabe, eta orain ez dago dirurik eurek erosteko.

Ba, horreek ikasi daben lez, bardin ikasiko dabe enparaduak, ondo irakasten badeutsegu, eginaz eta esanaz irakasten badeutsegu.

Beraz, lehengo asteko barikuan hemen esaten genduana *barriro dinogu*: Irakatsi egin behar da.

Irakatsi ezik ez dabe ikasten gizonak. Begien aurrean dauken gauzea ez dabe ikusten, baten batek erakutsi arte, eta orduan: "Halantxe dok izan be" esan daroe.

Guk, geure gaztetan abertzale ez ginanak, Sabin handiak esan arte: "Zuen aberria Euskadi dok, ez Espainia", ez genduan jakin horixe eta begien aurrean geunkana zan.

Irakatsi, irakatsi! Horixe da gure zeregina, danona. Eta honegaz ez dot esan gura danok hasi behar dogula sermoiak dariola ezkereskuma, ez; sermoia erara datorrenean, eta orduan be labur eta zindo. Egintzak edo eginenak bai, horreexek bai, erabili behar doguz dariola ezker-eskuma; baina egintza zuzenak, egintza aberkoiak.

1920-XII-28

GEU BAKARRIK ETE GARA BA?

Irakurlea: esan deuskue geure aberri honetan bakarrik jazoten dala alkarregaz atondu ezina, eretxi banakoak izatea eta bakotxak bere eretxia eutsitarren alkarren aurka ibiltea, hasarreka eta ezta-baidaka.

Hemen hondino basati gagozala orain bostehun urte gure asabak lez, alkarri gorroto itzela eukirik; herririk txikienean be, ostantzeko ikurrinik ez badago, batzuk "goitarrak" eta beste batzuk "behetar-rak", aldra bitan bananduta, alkarri ahal dan kalterik gehien egiten bizi garala.

Ez daukagula ahalmenik geure baserri txikiko torretxuaren gain arra bian geure oldozpena jasoteko.

Esan deuskue, orain hiru edo lau gizaldi gure herri baten auzo batekoak banandu egin zirala besteakandik, eta herri barri bat egin eurek.

Eta munduko beste edozein tokitan gauzea horretan gelditu izango zala, lehen baino herri bat gehiago izatea, eta besterik ez; dana bake-bakean.

Baina hemen Euskal Herrian, Euskadin, aurkitzen garala (bur-laz "doux pays" deitu deutsie, frantsesez deitu be, zegaitik izan ete da frantsesez deitutea?), eta gauzak ez dirala horretan gelditu, hemen alde bietakoak alkarri gorroto bizia hartu eutsela, eta orduan sortu-rik gorroto harek beti irauten dauela bizi-bizi.

Irakurlea: nik ez dakit zuk zer eretxiko deutzazun arazo honi, hor zeu; baina nik ez deritzot ondo gure aberria horren behera botatea, uste dot ez dala zuzena horrenbeste beheratutea.

Gizonak, alkarregaz ezin atondutea edonongoa da, ez Euskal Herrikoa bakarrik. Hori da akats bat, gizonak edonon eta edonoz daukana.

Munduko herri, eta edozetariko batza edo bazkUNETAN, beti dagoz gizonak alkarregaz aitu ezinik, eta alkarri guda egiten, leku eta aldi batzuetan gorroto gehiagogaz beste leku eta aldi batzuetan baino, hemen gaur gehiago eta bihar hor gehiago, aldizka, baina danak erdi bardintsu. Gizona beti gizon, nahiz Apatamonasterion, nahiz Zamoran, nahiz Chicagon.

Gure Euskal Herrietan nahikoa bakean bizi da jentea, euren arteko aitu ezinak euki arren; ez deutsie epaikari edo juezai zeregin handirik emoten; egin-eginean be matrakea eta bake-haustea sartzen da hemen gure aberrian, erbesteko jentea datorrenean, hareexek dakarre nahaste guztia, bai eurek bertakoen kaltez, eta bai eurek euren arteko gorroto eta hasarreakaz.

Hau idazten dagoanak bere begiekaz ikusita dauka Espainian aldra bitan bananduta egoten dirala, alkarri gorrotoa izanik eta alkarri ahal daben kaltea eginik, herri txiki eta handietako biztanleak, irakastetxeetako irakasleak, gotzain-txadonetako kanoniguak, eta edozetariko batza eta bazkUNETAKO gizonak.

Espainiatik ate, bere begiekaz ez dau ikusi, baina ikusi baleu lez, ba izparringietan agiri da herrietako bizikerea eta izakerea, eta euretatik dakigu Frantzia, Ingalaterran, Amerikan eta abar, gizonak ez dirala hemen baino hobeak; han be aitu-ezina eta alkarren gorrotoa eurez dabilela.

Beraz, ez guri bakarrik ezarri aitu-ezinezko akats hori, geu bakarrik ez gara eta.

Hemen Bizkaian, jakitun gagoz Orozkok eta Bediak inoz Bizkaia batzatik alde egin ebela, euren haxe otu jakelako; eta hori gorabehera; eurek eta enparadu bizkaitarrak ez eutsien alkarri gorrotorik erakutsi, bake-bakean gelditu ziran. Non beste hainbeste jazo da?

Aramaio be lehenago Bizkaia izan ei zan, eta inoz ez dogu entzun aramaioarrak eta guk alkarri gorrotorik izan deutsegunik. Bai zereko gorrotoa, alkar ondo maite bai!

Gure txikitatik hona Bizkaian hainbat herri alkarregaz batu dira herri bat egiteko; gomutatzen doguz: Gernika eta Lumo, Mungia uria eta Mungia eleizatea, Ea eta Bedarona, Alonsotegi eta Barakaldo, Arbazegi eta Gerrikaiz. Beste batzuk be badira, oraingo une honetan gogoratuten ez doguzan arren.

Horrek, alkarregana auzo-herriak batuteorrek, ez dauka ba alkarregazko gorroto antzik.

Esan deuskuen besteko ezina baleukie euskaldunek alkarregaz batzeko, ez litzatekezak batuko horreek herriok.

Alkarren gorroto eta alkarregaz batu ezin hori egia balitz, gure txikitatik hona Bizkaiko herriak gitxitu diran lez, gehitu egin izango ziran.

Nik ez dot esango Euskadi dala munduko alderik onena (neuretzako halantxe dan arren), ez daukala ezetariko akatsik, hemen zeruko ate aurretuan gagozala, ez; baina ez dot esango Euskadi dala munduko alderik txarrena, hemen ustelduta aurkitzen garala, hemen ez dagoala besterik gorrotoa eta astakeria eta basakeria baino.

Ez, ez dot hori esango, eta hori esaten dauenari erantzungo deusats gure Euskadi, bere akats eta guzti be, beste edozein herriren ondoan jarri leitekela, edozetan, ontasunean eta osasunean.

Erbestetik hona etorten jakuzanak, eta asko dira eurok, gu baino gehiago zetan dira ba? Ala hona txarrenak bialtzen ete deuskuez, han onenak etxean loturik?

Hemen eurrez ikusten doguzan espainol, frantses, ingeles, aleman, italianu, noruego eta abar, zetan irabazten deuskue ba bertoko semeei? Ze gizontasun dauke ba guk baino gehiago? Ez deutsegu igarten!

1921-III-5

HERRI-JAGOLE EDERRAK

Irakurri egizue Durangoko *Satarjak* dinoskuna gaurko bere idazkian, hor "Eusko Elez" atalean.

Berak dino, Durangon txapelokerrak dabiltzala jeltzaleei gogait eragiten, Datoren erailtzea dala eta ez dala.

Zer daukie zerikusi Durangoko jeltzaleek Datoren erailtzeagaz? Ezer be ez!

Esaten dana letxe, ezer be ez.

Eta erailtze horixe atxakitzat hartu eta hor ei dabilz jeltzaleen sakelak arakatzen ia izkilurik daroen ala ez. Ondo dakie horreek izkilurik ez daroela; baina gauzea da gogait eragin.

Besterik ezin dabenean, gogait eragin. Beti txatxarrerria.

Eta ez bakarrik sakel-araketak¹⁵⁶, baita etxe-araketak be. Joan ei dira abertzale baten etxera, eta etxeko emakumeci bildur aldi galanta jasan eragin.

Eta ez bakarrik hori, joan ei dira Jel-batzokira be itanduten ia nor dan lehendakaria, nor dan idazkaria, eta nor dan...

Hara, behin Maurak ipini gura izan eban lege bat, eurek erderaz "Ley del Terrorismo" deitzen eutsena; hori zan, Maurak eta esaten ebenez, anarkistai lotsea sartzeko, anarkistentzako bakarrik zala esaten eben beti.

Baina danok gengoan ikaratuta, igarten genduan ba ha legea ez zala bakarrik izango anarkistentzat, ha izango zala Gobernuak gura

¹⁵⁶ [Cacheos].

eban edozeinentzat, jauntxu edo kazikeak lege hareri helduta inon diran ankerreriak egingo euskuezala.

Zorionez, zarata itzelak jagi ziran Espainian lege-asmo haren aurka, eta atzeratu eben.

Oin be Datok holakoxe legeren bat eukan ia gertu laban sartze-ko moduan; eta erail ez balebe, bere lege-asmo hori oingo argitara atarata eukiko eban.

Bere oinordekook bertan behera itxiko ete dabe, ala aurrera erango ete dabe?

Jaungoikoak ez dagiala gura!

Ikaragarria izango litzateke horretariko lege berarizko¹⁵⁷ bat, gure gain dagozan gobernadore eta txapeloker eta epaikari eta enparadu guztien eskuetan.

Horreek egingo leukie horretariko legeaz, anarkistak joten bildur izango litzatekez, eta geu, gizajo batzuk garalako, joko gindukiez burutik behera.

Gaur Durangon jazoten dana ispilu bat da. Horixe jazoko litzateke. Madrilen Dato erail dabe, eta anarkistak hil dabe. Bai? Ba, Durangon jeltzaleak jo, eta kitu.

Gauza batak ez daukala besteagaz zer ikusirik? Ez da ardura. Hemen gauzea da, edozein atxaki hartuaz, jeltzaleak jotea.

Guretzat ez dago legerik ez ezer.

Baina gugaz egiten dabezan gaiztakeriak ordaindu eragiten deutseez anarkistak. Honexek emoten deutsee gure lekuan ordaina.

1921-III-19

¹⁵⁷ [Especial].

EGUN GOGORAGARRIA

Gaur dira urteak, 27, egundo lehenengoz haizetara atara zala abertzaleen ikurrina, ikurrin gorri bizia gurutz¹⁵⁸ bigaz, bata orlegia eta zehar-gurutza, bestea zuria eta gurutz arteza.

1894ko garilaren 15ean zabaldu eben Arana Goiritar Sabinekin eta bere 92 lagunek Euskaldun Batzokia, eta egun haren aurregunean, garilaren 14an, iluntzean, atara eben euren ikurrina argitara.

Ikurrin hau jaso ebana, Iturritar Kuireka izan zan; bazkide guttien artean zaharrena zalako Sabinekin berak izentau eban horretarako. (Hondino be Iturri, bere hirurogeta hamazazpi-hamazortzi urte-gaz, gizon gogorra dago, eta beti lez, abertzale sutsu-sutsua).

Euskaldun Batzokia egoan, gaurko Euskadi kaleak eta Fueros kaleak Areatzarantz ixten daben bitarteko etxean, eta bere bigarren oinean.

Alde batean egoan "Euskaldun" hitza, beste aldean "Batzokia", eta hitz bien bitartean, Bizkaiko ikurdi edo eskudoa, eta abertzale-ikurrina. Berau handia ei zan; haize apur bat ibili ezkeror, gaurko Euskadi kale osoa estaltzen ei eban, Areatzatik begiratuta.

Jakina, handik igaroten ziranak, ez ekien zer zan, eta harrিতuta begira geratzen ei ziran; eta gehiago hondino, eguerdi osteetan eta iluntzeetan, danbolin-txistua zoli entzuten zalako Euskaldun Batzokian, baita bertako bazkideak ahots handiakaz erabilten ebezan Eusko abesti sendo ederrak entzunik.

¹⁵⁸ E. j. kurutze.

Bai ei zan jakingurea! Eta alkarri itandurik eta alkarri esanik, laster zabaldu zan batzoki haren barri, eta askok eta askok atzamarraz burua erakutsita esaten eben: "Horreek gizajook hemendik dabilz txarto". Baina beste batzuk, oster, gogoan hartu eta erabili egiten eben etxe hatakoak irakasten ebena, eta argi ikusten eben hareek egia inoela, gure aberria ez dala Espainia, Euskadi baino; eta honan gehituaz joiazan "burutik txarto ebizanak".

Eta Espainiako Gobernuak ikusirik hemen mundu guztia "burutik txarto" jarri behar ebala hareek Euskaldun Batzokikoak euren "zorakeriakaz" jarraitzen baeben, erabagi eta agindu eban Bazkintza Artezkariakoak espetxera eroatea, eta enparadu bazkide guztiak epaipean¹⁵⁹ ipintea. Eta halantxe, hamar bazkide Artezkari eroan ebezan Larrinagara. Hareexek izan ziran espetxea Aberriaren alde lehenean zapaldu eben abertzaleak.

Tamalez dinogu ezin doguzala hemen ipini euren izen-abizenak, ez dakiguzalako. Ha jazokuna eta bera lako beste asko ez dagoz inon idatzita, eta hori damugarria da. Alderdi abertzalearen edestia, ez ete dau inok eta inoz idatziko?

Horraitino, Euskaldun Batzokia iraun zan 1897garren urtera arte; orduan, dagonilaren 8an, egin-eginean be Santa Agedan italitar Angiolillok Canovas erail eban egunean, bazkideak batzar bat egin eta erabagi eben Euskaldun Batzokia hiltea.

Gaurko eguna gogoragarria da abertzaleentzako, gure ikurrinak orduantxe agurtau ebalako Euskadi bere aberria.

Hor dabilz aspaldi honetan txapelokerrak eta eurei agintzen deutseenak, gure ikurrinori atzeratu eta galerazo gurarik, baina alpeirik, ikurrin hori geure aberriaren ezaugarri bat da, eta ez da galduko munduko txapeloker guztiakaitik be, geu galtzen ez garan artean.

Ikurrin hori euskotar abertzaleak iraungo diran artean iraungo da. Abertzalerik ez danean orduantxe bere azkena izango da.

Gora gure ikurrin zuri-orleği-gorria!

1921-VII-14

¹⁵⁹ [Prozesauta].

GAUR URTEURREN ITZELA ASKATASUNA... ALKARTASUNA

—Kirikiño: Hor zuen batzokian banderea makilearen erdian eskegita ipini dozue, eta lutoz jantzita. Inor hil jatzue ala?

—Bai, inor hil jaku, ez geuri bakarrik, baita zeuri eta enparadu euskaldun guztiei be.

—Arraia! Nor hil jaku ba?

—Geure askatasuna hil jaku, eta beragaz batera beste gauza asko, eta gehien-gehien min emoteko dana, hainbeste euskaldun gaztek galdu dabe bizia eta galduten dabe ointxe be geure egun honeetan Riffeko guda madarikatu donga horretan.

—Ointxe bizi-bizi daukadan zaurian ukutu deustazu ba egin-eginean, arraia! Seme bat eroan deustie Melillara Garellano errejimentuan, eta gure etxean andrak negarrezko iturriak eginda dagoz, eta neu barriz, odolak irakiten nago; gure gurasoak ba ez eben ezagutu honakorik, eta gu oilook hementxe gabilz alkar ikusi ezinda, alkarregana ezin baturik.

—Horretan zagozan ezkerro, erraz eta arin ulertuko dozu esango deutsudana. Hara: Gaur LAROGETA BI urte, 1839garren urteko urrilaren 25ean Espainiako Gobernuak lege bat atara eban, bertan euskotarrai kentzen euskuela ordura arte, beti-beti-beti! euki genduan ahala, geuk geure batzarrak egiteko eta batzar horreetan geuk geure legeak erabagiteko eta batzar horreetan geuk geure agintariak izentatzeko.

—Bai-bai, badakit urte horretan Espainiako Gobernuak kendu euskuzan Foruan izenaz aituten ziran eskubideak eta legeak. Orduan

gaur da urteurrena Foruak kendu euskuezana, eta horregaitik daukazue ipinita makila erdian, eta lutuaz, zeuen ikurrina. Lutoz egoteko eguna dok bai!

—Zuk oldoztu dozu, zelako kalteak etorri jakuzan orduko Espainiako lege haretatik?

—Badakit ez jatazana gogoratu lege horretatik jatorkuzan kalte guztiak, ez da erraz izango ba danak igarri eta jakitea: baina, begien aurre-aurrean daukaguz kalte asko, itsututa egon ezik ikusi behar diranak gura eta ez. Lege horretatik ez datoz ba Madrilen guri gauza guztiak agindutea, handik gure aberri honetara hainbat eta hainbat otsein eta gosakil bialtzea, guk hainbeste eta hainbeste zerga¹⁶⁰ eta geroago gehiago ordaindu beharra Madriler, gure mutilak euren odola isurtzera gura eta ez eroatea eurei bape ardurarik ez deusien herrialde batera, eta honako beste asko, ez datoz ba 1839ko lege haretatik, landarea hazitik datorren lez?

—Ederto esan dozu, Herri. Gaur, ba, horrexegaitik, guk abertzaleok, luto-egun hartzen dogu, eta geuk ahal dogun leku guztietan erakusten dogu ez gagozala ahaztuta geure askatasunaz, eta Jainkoak antzina-antzinetan emondako askatasuna, geurea dan askatasuna, gura dogula, eta bere bila gabiltzala.

—Hori ondo dago, eta neu be zeuekaz batuten naz horretan.

—Honetan, eta enparadu gauza guztietan batu behar zeunkela uste dot, gure asmo guztiak dira ba euskotarren aberriaren alde, inorentzako kalte barik.

—Horretarako danok batu behar geunke bai, danok bapat egin-da ibili behar geunke, aberriaren alde ahal dan guztia eskuratzeko, beti gogoan eukirik askatasuna.

—Hortxe dago untzea, danok bat eginda ibiltean.

—Horixe nekez euskotarren artean.

—Egia da, nekez. Lehenago be, euskotarrak hondatu ziran alka-
regaz batuta ibiltekoak izan ez ziralako. Eta inoz ezer izatea gura

¹⁶⁰ [Kontribuzino].

badogu, alkarren aurka ibilteko sena itxi beharko dogu, bestelan eze-bez!

—Horrexegaitik askok uste dabe zuek be ez dozuela ezer egingo, alkarregaz konpondu ezin zarielako.

—Errazoi handia daukie. Kontuizu, heldu baino lehen hasi gara Batzar Nagusiak agintzen dauena ezereztzat eukiten, eta Batzar horren aurka beste bat jartzen. Zer izango litzateke geure buru izatera helduko bagina? Egunean-egunean alkarri tiroka! eta gure arerioak barre-algaraka.

—Holantxe izango litzatekena ziur-ziur da, gaur ikusten danetik.

—Bai ba. Ikasi behar dogu Batzar Nagusiaren eretxien aurrean geure eretxia makurtzen. Bakotxak berea, Batzar Nagusi eta beronen ordezeko agintarien ganetik eutsi behar badau; bakotxak berea eutsitearren, Batzar Nagusiaren eta beronen ordezeko agintarien esanik egin gura ez badau, alper-alperrik izango da askatasuna geuretzat, edo txarragoa, kaltegarria izango litzateke.

—Eta beharba, horrexegaitik Jainkoak itxi guri askatasuna kentzen, kaltegarria izango litzakigulako.

—Baliteke.

—Mingarria da ba. Beraz, gaur ikurrina haga-erdian eta hiletaz jantzita daukazuela esan leike gauza bigaitik: 1839ko Espainiako legeagaitik eta 1921eko Alderdi zatitzeagaitik.

—Bai, orduan galdu zan askatasuna, orain galdu da abertzaleen alkartasuna. Gorantza joan beharrean, beherantza goaz.

1921-X-25

GAUR IZAN BALITZ!

Bidebietan zehar gudari aldra handia doa gorantz. Bizkaitarrak dira. Jakin da atzerritarren gudari-aldra gogor bat datorrala Bizkaira, berau azpiratuteko. Bizkaiko Batzarrak deitu deutse gudariei, eta euren buru ipini dau gazte bat agintzen dakiana eta guda-arazoetan aitua dana, Jaun Zuria deitzen jakon bat.

Honi eta bere gudari-aldeari batzartu jako Durangoko Eztegitar Santxa bere gudariakaz¹⁶¹.

Bidebietatik Basaurira bitartean mor-mor handiak entzuten dira gudari aldra handi horretan. Arramuskadak eta eztabaidak, alkarrri gorrotozko begirakunak eta irain txarrak, geroago eta gehiago entzuten dira.

Batzuk esaten dabe:

—Jaun Zuria deritxon horrek zer dala-ta guri agindu behar deusku? Nor da hori guri agintzeko? Berori atzerritarra da.

Beste batzuk gogor erantzuten eutsien honeei:

—Ez dok atzerritarra, bere ama hemengoa dok, eta hemen hazia dok, eta bizkaitar zintzoa, eta Bizkaiko Batzarrak hautu dok gure agintari izateko, Batzarrak dakialako gizon egokia dala.

Besteak berrerantzuten eben:

—Hori dala gizon egokia guri agintzeko? Hori baino egokiagoak eurrez jaukaguzak hemen geure artean.

¹⁶¹ Durangoko herriak aldi haretan hondino batu barik egozan Bizkaiko beste erkiakaz; euren berarizko (aparteko) batzarrak eukiten ebezan; handik laster batzau ziran besteakaz.

—Baina Batzarrak hori hautu bajok, gu zegaitik jagiko gozak ba bere aurka? Bizkaian nok agintzen jok ba, Bizkaiko Batzarrak ala zuek?

—Batzar horretako gizonak, batzuk asto batzuk ziran, eta beste batzuk saldu batzuk. Ez daukagu zetan haren esanik egin.

—Orduan noren esana egin behar dogu ba? Zeuena ala? Ez, Bizkaiko Batzarra da gure nagusia, eta berak hauturiko agintaria da gure agintaria.

—Ez, eta ez, eta ez da izango, erantzuten eben besteak, hemen saldukeria¹⁶² dabil. Zegaitik itxi jake arerioei Bizkaiko lurrera sartzen, ia oingo Paduran hurrean izan behar dabe eta?

—Gizonak, arerioa otoz-otoan etorri da, eta arin ibili arren be, ezin izan da lehenago jentea gertau behar dan moduan hareei aurre emoteko.

—Barriketea! hemen dabilena da saldukeria hutsa, hori agintari Jaun Zuria atzerritarra da eta nok daki arerioakaz aituta dagoan ala ez.

—Ez eizue holakorik esan, eta batez be arerioa aurean dala, ez gaitzean alkarregaz honan hasarre ibili, hartu daigun geure agintaritzat. Bizkaiak berak bere Batzarraren bidez izentau deuskun agintari hau, eta bere esana egin daigun danok, bestelan galduak gara.

—Ez, eta ez, eta ez! Eta ez!!

Basaurira heldu ziraneko bizkaitarrak euren izkiluak alkarren aurka atararik, anai arteko guda madarikatu deungea hasi eben, eta bero-beroan ebiltzala, agertu ziran Paduratik behera leondarrak euren agintaripean batu-batu eginda, eta bizkaitarrai atomau jakezan, eta honeek hartu eben sekulako astinaldia.

Bizkaiko gudari-aldea birrinduta geratu zan, eta leondarrak sartu ziran Bizkai guztian eta euren menpean ipini eben. Bizkaitarrak atzerritarren jopuak ziran; euren ugazaba eta jabeentzat lan egin behar eben, euren ugazabak kentzen eutsiezan alabetatik hasi eta abererik onenak eta lurreko emoirik ederrenak.

¹⁶² [Traizinoa].

Bizkaian zan tamala, Bizkaian zan negarra, Bizkaian zan ulua!
Bizkai gaixoa!

Baina ez, hori ames bat da, gaur hemen gure arteko okerreriak ikusita gure buruan sortu dana.

Padurako gudaketa haren aldian, zorionean bizkaitarrak bat-bat eginda joan ziran arerioagana Bizkaiko Batzarrak izentauriko agintariaren esanpean eta danak bat eginda ibili ziralako eta Batzarraren eta beronen agintarien esanpean, arerioa behetu eben Paduran, eta Bizkaia ordura arte beti lez aske eta bereburu itxi eben.

Gaur lako bizkaitar abertzale asko izan balitz orduan, gure amesa bete-beteaz jazoko zan, eta arerioak egin izango eben hor esan dana.

Orduko abertzaleak bat ziran, oraingo abertzaleak bat ez gara. Orduko abertzaleak euren Batzarraren agintarien esana beteten eben; oraingo abertzale batzuk ez dabe lotsarik Batzarraren erabagientzat. Orduko bizkaitarrentzat Batzarra zan nagusi; oraingo bizkaitar batzuentzat Batzarra ez da ezer, euren buruak baino. Orduko bizkaitarrek gizonak ziran, oraingoak...

Gaur izan balitz Padurako gudaketea, bizkar-aldeok ondo berotuta atarako genduzan bizkaitarrok. Onak gagoz gu hareek lez arerioari aurre emon eta behetuteko.

1921-XI-30

ARERIOAK POZIK. ANAIK GUDAN. HORRETARAKO ABERTZALE- PARTIDU BARRIA? GAUZAK ARGITU ETA SENDOTU

—Kirikiño, hasarre daukazuz *partido* barrikoak, zelan gero? Zuk entzun behar dozuz entzutekoak gaurko euren asteroko izparringian! Zeuk be handiak esan zeuntsezan!

—Zer esan neutsen ba?

—Dregueral eta Ligakoakaz alkar aituta dabilzala, eta hori askotxu esatea dala deritxot, ba horreen artean abertzale zintzo asko dago, euren eretxietan oker egon leitekezan arren.

—Ez, nik ez neban esaten horreek *partido* barriko guztiok Dregueralegaz aituta dagozanik; esaten nebana zan, horreek guztiok, Dregueralen eta Ligako zantarren *kutunak* dirala, hauxe zan nik esandakoa, eta egia baino ez da.

—Ba, eurek ez dabe hori bakarrik aitu zure idazkaian; horrez ganera aitu dabe, zuk dinotsezula, aberria hondatuten dabilzala aberri-arerioakaz alkar aituta.

—Horreen arteko baten bat, edo baten batzuk, izan leiteke alkar aituta ibiltea Dregueral eta lagunakaz; behintzat gauzak jazoten dira, ibiliko balira lez; danak ez dabilz alkar aituta, hor gehienak doaz eurak uste ez daben bidean. Baina danak, alkar aituta egon leitekezanak, eta alkar aituta ez dagozanak, danak dabilz aberri Euskadi hondatuten; euren lan guztia da kaltezkoa.

—Eurek ez dinoe hori.

—Esana da bat, eta izana beste bat. Entzuizu: Ez da egia horrek ointsu partido barri hori atara artean, eusko abertzaleak alderdi bakar baten danok egon garala, danok bat eginda?

—Egia da, ezin ukatu lei.

—Ez da egia, eusko abertzaleok danok batera egiten genduan alderdiari gorroto bizia erakusten eutsiela Dregueral eta Ligako zantarrak, eta eurekaz, hemengo espainolista guztiak eta hemengo izparringi espainolista guztiak?

—Hori be begien aurrean egoana zan.

—Eta ez da egia, gure alderdia, Dregueral eta Ligako zantarren gorroto hori gorabehera, aurrera joiala, eta hurrengoko hauteskundeetan lurra jota itxiko ebazan bildur handia eukela?

—Irabaziko ete geuntsen ba hurrengoko hauteskundeetan?

—Bai gizona! Beste alderdi edo partidu erbestetarrak, danak aurkitzen izan dira zati-zati eginda, euren barruan alkar aitu ezinda, eta beraz, indar barik; eta gure alderdia, ostera, indartsu eta bapat eginda. Horregaitik Ligako batzuk esaten ei eben: “Por más que les perseguimos no podemos con ellos, y en las próximas elecciones, si se mantienen unidos, nos han de dar un disgusto morrocotudo”.

—Bai, aituten da, gu bapat eginda egon ezkeru, horren galdumena zala.

—Eta ez da egia, horreek *partidu* barri horren eguneroko eta asteroetan tiro guztiak urtetzen zizala gure aberriaren arerioen aurka?

—Horixe bai egia; baina *partido* barriori agertu zanetik hona, aberri Euskadiren arerioak nasai dagoz, geu gabilz ba alkarri tiro guztiak jaurtiten, hareei bakean itxita.

—Hara, zeuk ointxe atara dozu ondorengo bete-betekoa. Beraz, horreek euren *partidu* barria atara baino lehenago:

1) Eusko abertzaleok alderdi bakar baten gengoan. Hau hobeto dala agirian dago.

2) Alderdi bakar hau ez zan espainolista, ba Dregueralek, Ligak, hemengo espainolista guztiak eta hemengo izparringi espainolista guztiak gorroto bizi-bizia eutsielako. Hau be uste dot agiri-agiri dagoala.

3) Gure alderdiak, gorroto hori gorabehera, ez eban indarrrik galtzen, bai zera, geroago eta gehiago zabaltzen zan, geroago eta gehiago gogortzen zan; eta gertu aurkitzen zan hurrengo hauteskundeetan be burukada sendoa egiteko.

4) *Partidu* barri hori sortu baino lehenago, gure izparringi guztiak, gure batzar guztiak, gure hitzegikizun guztiak, gure harpide guztiak, gure alderdi-egipen guzti-guztiak izaten ziran aberri Euskadi maitearen alde eta bere arerioen aurka eta kaltez. Geure gogo guztiak arerioagana begira aurkitzen ziran.

Eta orain? zati bi eginda gagoz, alkarri guda egiten, alkarren indarrak galtzen, eta geure ahal guztiak anaien aurka darabilguzala, aberri Euskadiren arerioai bake-bakean itxita.

—Hori, geure begien aurrean ikusten dana da, hori ez dogu inok *kontau* beharrik.

—Horixe ondorengori edo frutuori ekarri dau *partidu* zoritxarreko horrek. Jel-alderdja zatitu; Jel-alderdia makaldu eta ezereztuteko zorian ipini; Dregueral eta Ligako eta gure aberriaren arerio espainolista guztiak poz-pozik ipini. Horra zelako beharra egin daben horreek, Sabin irakaslearen oinordekoak (!) dirala dinoen horreek!

—Hori be egia da, izan; honetara bagoaz, gure abertzaletasunari gorantziak emon leioz.

—Beraz, Dregueralek-eta maiteko ez ditue ba? Emongo ez deute baimena eurek gura daben beste ikurrin eta ezpata-dantzari eta zarraparra atarateko eta erabilteko? Bai ba! Horreexek puztuaz eurek (Dregueralek-eta) kontua dauke. Horregaitik dira *partido* barrikook Dregueralen *separatista* kutunak. Eta horixe zan nik esan nebana eta gaur barrero dinodana eta beti esango dodana, egia da eta.

—Zuri entzun deusudana egi-egitzat daukat; ez nago neu be horreekaz; uste dot txarto egin dabela alderdiko batasuna eta bakea hausiaz. Baina, horreen artean esan leiteke abertzale zintzoak bada-gozala. Zelan ez dabe ikusten ba begien aurrean dagoan hau?

—Hori ba, gorrotoak itsututa daukazalako.

—Gorrotoak?

—Bai, gorroto itzelak estaldu deutsez begiak.

—Nori gorrotoa?

—Notin batzuei. Hartu egizu euren asteroko izparringi hori, eta beti ikusiko dozu josita, notin hau, edo notin horren, edo notin haren, abizenaz; beti darabile notinen bat; euren asteroko guztia etorten da notinen¹⁶³ aurka.

—Bai, *Kizkitza*, Eleizalde, Sotatar Erramun, Arantzaditar Imanol eta abar; baina gehien *Kizkitza*.

—Horreek ez dauke horixe baino, notinkeria, edo erderaz esaten da *personalismo*.

—Oin zugaz be hasi dira.

—Badakit hasi dirala, eta dana da eurekaz *partido* barrira joan ez nazalako neure aberria hondatuten. Asko maite dot nik aberria neure uste edo neure adiskidetasun edo areriotasun bategaitik hondatzeko!

Gure buru, abertzaleen Batzar Orokorra da, eta Batzar horrek ipiniriko Euzkadi Buru Batzarra; eta buru horrek agintzen deuskuna bete behar dogu geure eretxira ez badator be; makurtu behar gaiakoz geure buruari, abertzaleak lez daukagun, hobeto esateko, abertzaleak lez geuk ipini dogun buruari. Hori eginaz bat izango gara, eta bat izanaz indarra izango dogu, eta indar honegaz aberriaren ona ekarriko dogu.

Danok, nahiz handi nahiz txiki, nahiz idazle nahiz irakurle, nahiz jakintsu nahiz jakinge, nahiz horko nahiz hemengo, nahiz gazte nahiz zahar, abertzaleak garan lez geure alderdiko buru dan Batzar Orokorren esanpean ibili behar dogu, eta Batzar Orokorren ordezeko Euzkadi Buru Batzarraren esanpean.

Eta abertzale guztiok Batzar Orokor bakar bat, eta bere ordezeko Euzkadi Buru Batzar BAKAR bat behar dogu.

¹⁶³ [Personen].

Bestelan, orain Euzkadi Buru Batzar bi jarri jakuzan lez, eta horreek *partido* barrikook aina eskubidegaz, sortu leikez zazpi edo zortzi Euzkadi Buru Batzar, eta askatasuna orduan zeretik ekarriko joagu!

Danok batera ezin, eta zati-zati eginda zelan?

1921-XII-17

SABINGAITIK EZ DA

Aberristak, beti lez, guzurra dariola, hor dabilz esaten herrietan, eurek Sabin maisuari gorallben bat egin gura deutsiela Sukarrietara bere hilobira ikerpen bat eginaz, eta Jelbatzako EBBk horixe galera-
zo gura deutsela. Ia, Sabin maisuari gorallbena emoten galerazo gura!

—Horrexeri ez deritxot ondo. Sabini edonok gorallbena emon gura badeutso, ez jakola galerazo behar uste dot.

Eta euren gogoa hotzitu egiten da Jelbatzaganako, edo behintzat, ezin aitu dabe hori zegaitik izan leiteken.

Ba, hori ondo argi ipinten eban EBBk, Sukarrietara aberristakaz joatea ez dala ondo argitaldu ebanean.

Horreek aberristok ez doaz hara Sabingaitik, horreek Sabin maisuaren izena hartu dabe, egin-eginean be, Sabinekin irasi edo fundauriko Jelbatza birrindu eta lurrera botateko.

Eta Jelbatzak dino horretan ez jakela lagundu behar.

Baina honantxe eta guzti be, izango dira abertzaleak esango dabena Sabinen aintzazko gauza bat ez dauela galerazo behar EBBk; Sabinen aintzazko gauzea beti dala ondo.

Horrelakoei adibide bat ipiniko deutset, hara:

Txuan Ulerrek, bera bizi dan bazterrean, basamortu bat kontuizu, taberna bat zabaldu eban, baina ez jakon inor joaten. Lehenengoan, barritara zala-ta, baten batzuk heltzen jakozan, baina gero, apur-apurka danak alde egiten hasi jakozan.

Orduan Ulerrek asmakizun eder bat euki eban: bere tabernearen hurtxuan ermita bat egitea, Ama Birjina Basamortukoa; bertan beti be jaiak egin, eta jentea zaletu hara joaten; ipini arratsaldeetan filarmonikea, eta...

Baina Eleizako nagusiak, Gotzain edo Obispoak, igarririk ha ermitea egin gura ebanak ez eukala Ama Birjinearen gomutarik ardaa ugari saltzeko gomutea baino, eta Ama Birjinearen izen deuna hartuta dantza lohia eta txarrikeria zabaltzea baino, galerazo egin eutsan han ermitarik egitea.

Eta hau jakin ebanean Txuan Ulerrek esaten eban amurruz beterik:

—Hori zelan dok? Ama Birjineari ermitea egin gura eta Obispoak itxi gura ez? Holakorik inoz pentsau jok inok? Zer deritxozue?

Oraingo hau be Txuan Ulerreren antzekoa da. Aberrista ulerleak¹⁶⁴, ikusirik euren tabernara ez zala sartzen jente askorik, asmau dabe Sabin iragarkitzat hartzea jentea eurakanatuteko. Horreek ez doaz Sukarrietara Sabini goralbena egitearren, bai zera, horreek doaz hara euren berezia gehitutearren, eta berezia gehituaz Sabinen lana ondo-ondotik jo eta botatera.

Horrexegaitik Jelbatzako EBBk gauzea argi ipini dau, jakin-eraginik horreekaz Sukarrietara joatea dala, ez Sabini aintza emotea, Sabinen aintza ilundutea baino, eta ez joatea hobe dala.

Sabingaitik ez da Sukarrietara joate hau, Txuan Ulerreren tabernako berezia gehitutearren baino.

1922-VI-23

¹⁶⁴ Ulerle: ulertzaile.

DIRUA BATZEKO EDOZER ABINDU GAUZAK BEHAR DAN ERAZ

Irakurleak: Oldoztu egizue bazkun edo alkartasun edo soziedade bat, bazkide asko dauzana; milaka bazkideak.

Bazkun edo alkartasun edo soziedade horrek arazo bat darabil, edozetarikoa, eta adibidez bat aitatu daigun: Lurrun-ontzi handi bat, esaterako.

Arazo hori, zelan erabiliko dau? Horretariko bazkunak zelan erabilten dabez euren arazoak? Zelan beti erabili izan dabez, eta zelan beti erabiliko dabez?

Bazkide guztiek batzarra egiten dabe, eta hantxe, danen eretxiz bazkunaren araudia (legedia edo erreglamentua) lehenen jarten dabe. Honen hurrengo, bazkide aldratxo bat izentetan dabe, berak batzar guztiaren ordeztatu eta izenean arazoa erabili dagian araudipean, batzarra beti ezin egon leiteke eta.

Gero, bazkide aldratxo honek, edo batzorde izentariakoak, lurrun-ontziaren buru edo kapitan eta beronen hurrengokoak izentetan dauz.

Eta ontziburu edo kapitanak erabilten dau ontzia; berak ontzian agintzen dau.

Batzorde edo bazkide aldratxuak¹⁶⁵ kapitanari kontuak hartzen deusaz. Eta batzordeari kontuak hartzen deusaz bazkide guztien batzarrak, batzar orokorrak.

¹⁶⁵ [Kontsejuak].

Horretaraxe egiten da, horretaraxe erabilten da arazoa. Guk hor, adibidez, itxasoko ontzia aitatu dogu; baina ostantzeko arazoak be bardin erabili behar izaten dira, eta erabili be bai.

Bazkuneko bazkidea dala-ta bakarrik, inok euki lei eskubiderik kapitanari ontzian agintzeko, edo esateko berari zer egin behar dauen? Ezetara be ez!

Gauza barregarria izango litzateke horraiti, Bilbaoko ibaian dagoan ontzi bateko kapitanari etorriko balitxako bazkuneko bazkide bat eta aginduko baleutso Baionarantz urten dagiala, haraxe in-txaur-zakukada batzuk bialdu beharra daukalako, beste batek agin-duko baleutso Kijonera joan behar dauela ontziagaz, handixek iketz andana bat ekarri beharra daukala; beste batek, ostera, aginduko baleutso Ipar-Amerikako Savannah itxas-urira joateko, han ola ero-sita daukalako; hondino beste batek aginduko baleutso Ingalaterrara joateko, haraxe ostera bat bere adiskide batzukaz egiteko gogoia dau-kalako, eta honan... bazkide bakotxak berak gura dauena eta ondo jatorkona aginduko baleutso kapitanari, honek ez leuke barre zantzo handi bat egingo, eta ez leukez *haraxe* bialduko, ez leuskie eran-tzungo berari ez deutsela aginduten bazkideak banan, bazkideen batzarrak baino, eta batzarren orde batzorde edo kontsejuak?

Bai behin, hori erantzungo leuskiela, gitxienez, txikote zati bat hartuta aurrean ontzitik egundoko arinen atarako ez baleuz!

Edonori entzungo bageuntso esaten: "Nik ontzi horretako garaz-ki edo azino bat daukat, beraz neu naz ontzi horren jabeetariko bat, eta beraz barrura noa, eta jabe lez hartu beharko nabe, eta neuk aginduko deutset ontzi-ganekoei, jabea naz ba eta eurak nire otsei-nak", ez geunke astakiloztat hartuko? Ez geunke esango zentzunaren apurrik be ez daukala?

Irakurleak: Oldoztu egizue gure Jelbatza bazkun bat dala, mila-ka bazkideak dauzana; eta beronek daukala hurrun-ontzi bat, *Euzka-di* izparringi hau; eta berau erabilteko bazkideen batzarrak, Jelbaz-kideen batzar orokorrak; batzorde bat izentetan dau, Euzkadi Buru Batza deitzen jakona, eta honek bere ordeko beste batza bat, izpa-rringiko batzorde edo kontsejua; eta azkenengo honek izentetan dauz

izparringiaren artezkaria eta beronen esanpean lan egingo daben idazleak eta enparadu otsein guztiak.

Itxasontzi-bazkuneko bazkideak, banan, kapitanari agindu ezin legien lez, hemen be bazkideak, banan, ezin agindu legien izparringiaren artezkariari eta izparringiaren batzordeari. Kapitana ezin bialdu leiken lez batak Baionara, besteak Kijonera, honek Savannahra, harek Ingalaterra, hemen be edonok ezin leike idatzi eta argitaldu izparringian berak gura dauena, bazkidea dala-ta bakarrik.

Honantxe egiten da ludiko izparringi guztietan, eta honantxe egin behar, bestelan ez litzateke izango izparringia be, nahastatza izugarri bat baino, eta ezin izango litzateke bizi ezetara be.

Honeek gauzok oin zetara dakadazan esango dozue; honeek gauzok ez daukela azaldu beharrik be, argi-argiak diralako; erdeldumen Pero Grullo *jakintsuaren* gauzak dirudiela.

Halantxe da, izan, baina entzuizue:

Hor dabilz herririk herri automobiletan aberristak euren izparringi eguneroko barriarentzat diru bila, eta euren gauzak zeozer agirira atara gurarik, inoren gauzea hurrera eratsi gura dabe. Jenteari esaten deusie, gure izparringi honetan edozein bazkidek ezin leikela idatzi berak gura dauena; hemen agintzen dabela hiru edo lau gizonek (batzordetik dinoe hori) eta honeen ordezkari batek, eurek izentaua. Eta hori guttiz txarto dagoala, bazkide bakoetak eskubidea daukala bazkuneko izparringian idazteko berari deritxona, eta honan hasi eta jarraiturik, inon diran txakurkeriak esaten dabez Jelbatzako nagusien, eta izparringi honetako batzar-gizonen, eta bertan idazten dogun jeltzaleen aurka eta kaltez, guzurra osterasatsa lez zabaldurik.

Haugaitik idatzi dogu gaurkoa, adierazoteko aberristak ez daukela ezetariko biderik, errazoerik, hori esateko. Buru apur bat daukan edonok ulertuten dau ezin leitekela izan eurek dinoena, izparringian idaztea bazkide bakoetak berak deritxona; eta horregaitik gure izparringiaren aurka esaten dabilzana zentzumbakokeria bat dala.

Eta generatzen deusie jenteari, euren izparringian hori ez dala jazoko; euren izparringian edozein bazkidek idatzi ahal izango dauela bere eretxia edozertaz.

Dirua atara gura danean asko abinduten da. Eurek, aberrista diru-biltzaileak, badakie hori oin esan arren, gero ez dala egingo, bai zeretik egin!

Eurok uste izango dabe hor herrietan hondino jentea atzamarra miazketan edo dagoala, horrelako gauzak esanda sakelak harrapeta-raino; baina hor herrietako jentea, aberrista diru-biltzaile nausi-mau-sitxuok baino zuhurragoa da, igarten dabe horreek esanok eta haizea dana dala bat, igarten dabe hori ezin izan leitekela, eta gaur bertan be, asteroko izparringitxu horretan ezin dauela edonok edozer idatzi, ezta euren Juventud Vascan be bazkidea izan arren ezin dauela edo-nok edozer esan, ezagutzen doguz ba bere eretxia inorentzako irain barik adierazo dabenak larri aldendu diranak zartadak hartu barik.

Gure herrietako abertzaleak, horreek uste daben baino buru hobia dabe.

1922-VIII-27

ESKATU LEITEKENA ETA EZ LEITEKENA

—Cambok ez dau gura Katalunia Espainiagandik guztiz alden-
dutea.

—Halan dino; eta Espainiako lege barruan askatasuna edo auto-
nomia eskatzen dau Kataluniarentzat.

—Ba Kataluniazale benetakoa balitz Espainiagandik alde egitea
eskatu behar leuke.

—Askatasun oso hori ez da eskatzen; alperrik da eskatzea, ez
dabe emongo eta.

—Eta beste askatasuna, Espainiako lege barruko askatasuna,
emongo ete dabe ba eskatu ezkeru?

—Ez dot uste ezer emongo dabenik onean; baina autonomia
eskatu leike legeetatik urten barik, eta beronen alde agirian lan egin
leike, baita topau leikez espainiarren artean be eskakizun hori ontzat
hartuko dabenak.

—Hori bai baina, hortik ez goaz inora.

—Indarrik euki ez, eta txarrago dana, bihotzik euki ez bizia eta
ogasuna eta dana jokatzeko, eta holan, indar guztia daukan arerioa-
ri joan esaten: “Nik zu hemen hil gura zaitut, hemendik kanpora joa-
ten ez bazara”, zentzunbakokeria handi-handia da; ba, jakina, are-
rioak hori entzun orduko erantzungo dau: “Bai, e? neuk konpondu-
ko haut ointxe”, eta gorputza ehioko deutso.

—Dana dala ni ez nago konforme Cambogaz.

—Neuk be ez dinot beragaz aburu baten nagonik; baina ez dinot
harek txarto egin dauenik be, izan leiteke ba gu baino zuhurrago ibil-
tea. Behintzat gizon horrek Kataluniari indar handia emon deutso

bere politika-lanagaz; gizon horrek beti asko laguntzen deutso Kataluniako ogasunari eta gogoari, beti dago hango hizkuntza eta hango irakaskuntza eta hango beste gauza guztien alderako lanean, ez dau galtzen erarik, beti dago zain eta gertu bere Kataluniaren alde.

Oingoxe hitzaldi horregaz be Kataluniari entzute handia emoten deutso Europan. Hor datoz Parisko eta Londresko izparringi zabalduenak Camboren hitzaldiaren barri emoten, eta zelan jarten dabon Katalunia eta Espainiaren arteko auzia euren irakurleei esaten.

Halan dakie alde guztietan Kataluniak auzia daukala Espainiagaz; herri bi dirala, gaur legetik alkarregaz baten egon arren.

Garrantzi handia emoten deutso gizon horrek Kataluniari. Eta hori, agokadarik jaurti barik.

Behintzat, oingoan autonomia eskatu dau (eskatu leikena) eta eskakizuna egin dau gogor, zemaikunezko¹⁶⁶ hitzakaz.

Beste gauzea, askatasun osoa, gizon horrek ez dau inoz eskatuko; bere aberriarentzat gura badau, eta erea badauka, HARTU egin behar dala esan eta hartu egingo dau.

Autonomia eskatu leike, askatasun osoa eskatu barik hartzen da, ahal danean.

Askok uste dau, batez be espainiar zuhurrak, Cambo azpitik edo barrutik askatasun-zale bete-betekoa dala; baina ez dauela agertzen, gizon zolia izanik, igarten dauelako hori egiteaz Kataluniari kalte ekarriko leuskiola, eta horregaitik isilik gordetan dauela, eta espainiar kartakaz jokutzen deusiela Kataluniaren askatasunaren alde.

Eta uste hori ez dakigu holan dan, baina antz handia badaukala bai.

1923-I-10

¹⁶⁶ [Amenazozko].

ESAN DOZU? ENTZUN BEHAR DOZU

Banengoan atzo eguerdi ostean neure lan hau hasteko, hagin artean abestuten nihardula

“Ze-ze-na dooo... zu,
Corr-i-a dooo... zu,
Gaiz-to-a dooo... zu,
Harrapetan bazaitu, harrepetan bazaitu
Beee... rtan beee... rtan hilgo zaitu”.

Sartu jatan gelara adiskide bat, eta ikusirik nire gogaldi zabala harrituta esan eustan:

—Edo gibel handia dozu edo ez dakizu izparringi honetan dinto-
tsuna (Eta *Aberri* erakutsi eustan, lehengo astekoa).

—Zelako gibela dodan neuk be ez dakit; baina hor dinostenaren
barri badakit.

—Orduan irakurten dozu ingi hau.

—Bai zera! Lelokeriak irakurteko astirik ezin egin izaten dot
behin be; baina lehengo larumbatean etorri jatan adiskide gaztetxo
bat, eta erakutsi eustan.

—Eta ez deutsu bape ardurarik?

—Bapez, esaten dana letxe.

—Baina badakizu gero hemen esaten deutsuena? Ondo irakurri
ete zendun gero?

—Zer da, ba, ipinten dauen hori?

—Hara: “... un desgraciado que no merece contestación sino el
desprecio de las personas honradas y decentes”.

—Eta “desgraciado” neuri esaten deuste, ezta?

—Bai ba.

—Euskeraz hitz horrek esan gura dau “gizajoa, zoritxarrekoa”, ez da halan?

—Bai, baina...

—Hori *Aberri*-n idatzi dauena ez da kristinau handia; bada Kristo geure Jaunaren jarraileak, “gizajoari, zoritxarrekoari” errukia euki behar deustie, ez desprezioa.

—Ba, hori idatzi dauena neuk susmoa hartzen dodana bada, berori dozu ba kristinautasunean aurrenengoa. Uuuuuufa! Eleizako santu guztiak iruntsi beharrez dabilena da ba-ta.

—Izango da zeuk dinozun lez; baina hor ipini dauena “gizajoari, zoritxarrekoari” desprezioa egitea eta beste batzuei be desprezio hori irakastea, ez dator ondo Kristo geure Jaunaren dotrineaz.

—Ba, eleizatiko handia bada ba.

—Hori eta bera lako hor dabilen aldratxo horretakoak, euren esanez, eurak dira gauza guztietan aurrenengoak, bai kristinautasunean eta bai eusko abertzaletasunean, nor eurak lakorik? Aurrenengoak gero! Eta zoaz eta aztertu egizuz euren egitadak esanai jaramon barik, eta beti aurkituko dozuz buztenaren azkenengo punta aldean.

—Tira, ez naz horretan sartzen baina zuk esan deutsezunaz oso dira hasarre.

—Hortxe da ezagun egiak ukutu deustie, egia baino errega-riagorik ez da inoz ezagutu eta.

—Zuk esaten zeuntsena egia da gero?

—Ondo agiri dago egia dala. Ez balitz, behar dan lez erantzun-go eben, esanaz argi eta garbi, etxea *Aberri* egunerokoa egiteko emon dauena “es el señor Don Fulano de tal, que no es piper-pote”.

—Izan be, horixe isilik ixten dabe.

—Eta, egin-eginean horixe da ba argi ipiniño ebena, guk hemen guzurra esan bagendu.

—Eurek dinoe holako gauzak eguneroko izparringi baten ez litzatekezala atara behar.

—Jakina, euren kaltez doan gauzarik ez litzateke behin be egunerokoetan atara behar, ez ba. Ezta gure kaltez doan gauzarik be ez litzateke atara behar beste izparringietan. Baina atara egiten dituez eta bakotxak bere txandan zaparradak hartu behar, eta horretara danok bustita, danok lege bat, ez eurok gura leukien lez, lege bat, zabala eurentzat, eta beste lege bat, estua, besteentzat. Joko ederra dok hori, beti hogeta hamaika eskutik!

—Bai, esaten dauenak entzun be egin behar dau.

—Gure irakurle guztiek esan dagiela, eusko abertzale batek ikusiko baleu, Balparda, esaterako, bere etxe bat ixten *Aberri* egunero-koa atarateko, ikaratzeko izango litzateke eusko abertzale horrek pentsetea *zeozer*?

—Ez ba, neuk be hori balitz ez neuskio usain onik hartuko.

—Espainiaren aurka egiteko izparringi bati ezin emon leio etxerik ez ezer Balpardak; eta ixten badeutso, ez da izango Espainiaren aurka egiteko.

—Ondo argi dagoana da hori. Baina Balparda da etxe hori emoten deutsena?

—Ez da Balparda; baina bai Balparda ainako piper-potea, Jelen arerioa, Espainiaren aldeztaille amurratua eta Euskadiren izenik be entzun gura ez dauena.

—Nor da ba?

—Urlia dala zabal da Bilbao guztian. Hemen izenik ez dogu ipini gura. Aberristak eurek izen hori esan dagiela.

—Zuk dinozun hori ez ei da jabe bakarra, hori eta beste bat ei dira.

—Eta beste hori ez al da piper-potea? Eta zuk uste dozu Urliak eusko abertzaleai deutsen amurruaz, berak bere etxe-jabekideari itxi-ko leuskiola *bizkaitarrai* etxea emoten? Ezta!

—Gauza bakana bada izan zuk dinozuna, piper-pote zintzoak etxea ixtea abertzalerik zintzoenai (eurek dinoenez).

—Horixe ezkontza txarra da.

—Hasarre dira ba zugaz aberristok.

—Izango dira, baina ez dabe biderik, bide zuzenik behintzat hasarre izateko. Eurok ahora etorri jaken guztia esan dabe gure kaltez, beti be bai, baina berariz behinola gure izparringi honek Bilbao-ko beste batzukaz batu beharra izan ebanean heriotzatik igesteko, baina Jel inoz itxi barik. Orduan zelakoak esaten ebezan? “Traidoretik” hasita beherantza pentsau ahal leiken guztia. Guk hemen esaten doguna ez da ezer be eurek orduan esan ebenaren ondoan. Beraz, atzo bertan euretariko batek gure idatzia “una canallada” dala esan ebanari, euskotarren ele hau baleki esango geunskio eurek orduan idazten ebena gure izparringi honen kaltez “cien canalladas lo menos” dirala. Eta “canallada” asko esaten ohituta dagoanak ez daukala eskubiderik zarataka ibilteko berari “canallada” bat (bere ustez) esan deusiela-ta. Ikasi, ondo ikasi, eta hobeto bete Kristoren legea, eta euskotasunaren legea, horixe danok egin behar dogu, bestelan gure aberri Euskadi honen gaizkatasuna eta askatasuna fit!

Nire “diskurtsu” hau nire adiskideak isil-isilik entzun eban eta amaitu nebanean isil-isilik alde egin eban eta nik barrero ekin neutsan hagin artean erdi abeska:

“Ze-ze-na dooo... zu,
 Gorr-i-a dooo... zu,
 Gaiz-to-a dooo... zu,
 Harrapetan bazaitu, harrepetan bazaitu
 Beee... rtan beee... rtan hilgo zaitu”.

1923-I-23

BATASUNA, INDARRA

Gu hemen orain hasiko bagina inon diran filosofokeriak ataraten batasuna beti indarra izaten dala eta banatasuna barriz indarrrik eza eta hondamena eta heriotza dala adierazoteko; atarako bagenduz hemen egi argi horren aldez Urlia jakintsu eta Berendia jakintsu eta Sendia jakintsuen eretxiak; eta azkenez, batasunaren indarra argiro ipinteko ohi izaten dan lez, atarako bagendu hemen zaldiaren buztaneko zurden ipuina eta egur mehe txortearen ipuina, askok didar egingo leuskigüe:

—Ei, Kirikiño! Zer darabilzu! Hor dinozun guztiori estula bairzen zaharra izanik, danok jakinaren jakinaz ia erdi ahaztuta badaukagu?

Horrexegaitik ba, erdi ahaztuta edo guztiz ahaztuta dagoalako, alde batetik; eta bestetik, egi argi eta jakin-jakin hori ez balekie lez jente asko agertzen dalako, ondo da barrero esatea, eta esanaz, barrero gomutara ekartea, batasuna barik aberri-arerioak eroango gaituela udagoiengan hego-haizeak orbela hartu gora-goraketan eta eroaten dauen lez.

Eusko abertzaleok, alde guztietakoak bat eginda ibili gara, danok batza bat eginda. Batza honek, Jaungoikoa eta Lagi Zaharra, Sabin maisuak itxi deuskun ikurritz hori bete-betea hartuta daukalako, Jelbatza dau izena.

Jelbatzak bere batzar orokorrak egiten ditu noizik noizera, bertan bereburu izan diranen egikuntzea azterkatu eta erabagiteko, eta bertan nortzuk buru izango diran haututeko hurrengo batzar orokorra egingo dan arte.

Batzar orokor bi horreen bitartean, Jelbatzan sartuta dagoan abertzaleak Jelbatzako Buruaren esanpean egon behar dau, eta zere-sanik badauka hurrengo batzar orokorrean agertu behar dau, eta hantxe eskatu berak deritxon zigorra Buru izan diranentzat. Batzar-rak erabagiko dau bata edo bestea, eta erabagi horren aurrean abertzale onak bere burua makurtu behar dau, BATASUNA hausi barik.

Abertzale batek edo bik edo gehiagok Jelbatza-Buruaren esanik egin gura ez badabe, bere aurka jagiten badira, eta beste abertzale-batza bat eginik, haren aurka eta kaltez badabilz aberri-arerioei lagata, abertzale horreek Jelbatzaren BATASUNA hausten dabe, Jelbatza edo Jeltzale-Batza makaltzen dabe eta heriotzara daroe.

Eta abertzaleen Batza heriotzaratuaz, aberria heriotzaratuten dabela ondo argi dago.

Nok, ba, abertzaleak baino, atara daikie gure aberria bere heriotza-bidetik? Abertzale barik zelan aberria gaizkatu eta askatu? Eta abertzaleek hori zelan egin daikie BATASUNA barik, danok bapat eginda aberri-arerioen aurka egin beharrean, batzuk besteen aurka eta kaltez badabilz, aldra edo batza baten egon beharrean bi edo hiru edo bost edo gehiago aldratan bananduten badira eta alkarren hasarre eta gorrotoz?

Bidebagakeria honen aldez, notin tarteko ikusiezinak itsututa, hitz egiten daben abertzaleak badira; baita hortik hasita, esaten dabenak aberriaren edozein zatik eskubidea daukala bereburu oso-osoa izateko, eta beraz beste aberri zatiakandik alde egin, eta berak bere buruagaz berak gura dauena egiteko; baita hortik jarraituta, notin batek berak be eskubidea daukala aberriagandik aske izateko, eta bere buruagaz berak ondoen deritxona egiteko.

Uste eta siniste horretatik birrintasuna datorrela argi ikusten da, eta birrintasunak hondamena dakarrela be bai.

Oldoztu, ba, apur bat honeek gauzok abertzale, eta berehala igarriko dozu, aberria bizi-izateko eta sendotzeko eta aurrera atarateko ezin dauela inok euki, nahiz notina dala nahiz aberri zati bat dala nahiz abertzale-batza bat dala, eskubiderik BATASUNA hausteko.

Batasun hori hausten dauenak, berak uste izan ez arren, bere aberriaren arerio kaltegilea da, atzerritarrak baino kalte txarragoa egiten dauena.

Gogoratu egizue gudaroste bat arerioen aurrean. Gudaroste horretan, aldra bat edo gehiagok esango baleu eskubidea daukala gudaroste-buruaren esanik ez egiteko eta berak gura dauena egiteko; eta beste buru bat izentau, eta lehengoaren aurka jarri eta guda egiten hasiko balitz, guk esan beharrik ez dozue jakiteko gudaroste hori txirikilan behetuko dauela arerioak.

Gure gudarosteak, aberri-gudarosteak irabazi dagien gura dabenak, etorri, ba, **BATASUNERA**, indarra batasunean dago eta.

1923-III-28

HAUTU ZINTZO

Irakurle: bihar agertuko jatzuz zeure autarki edo botoaren eske ahaldungei¹⁶⁷ bitzuk.

Geure herriko, Euskal Herriko gauzen alde dagozanak, batzuk. Erbesteko, erdelerriko gauzen alde dagozanak, besteak.

Lehenengoak gura dabe eta aspaldion ahaleginetan dabilz horretan: Euskal Herrian edozetarako, enpleoetarako eta langilerako, baita bertan agintzeko, inor baino behinago izan daitela bertako seme euskalduna, bertako jatorriduna.

Bigarrenak gura dabe eta ahaleginduten dira eurena lortuteko: Euskal Herrian erdelduna, erderaz ondo dakialako eta mihim labana daukelako, guztitarako inor baino behinago izan daitela danean, agintzen eta bizilekuetan.

Lehenengoak dira jeltzaleak, hau da, Jaungoikoa eta Lege Zahar-raren alde dagozanak, eta jenteak, erdeldunen esakunai jarraituta, *bizkaitarristak* deituten deutsienak.

Bigarrenak dira hemen jenteak piper-poteen izenagaz ezagutzen dituanak, eta euskaldunei kintak eta kontribuzinoak ipintea ontzat daukenak.

Lehenengoak dozuz zeure lagunak, irakurle. Bigarrenak dozuz zeure arerioak.

Lehenengoak agintzen badabe Aldundian¹⁶⁸, euskaldunak sartuko dira bertan euren etxean lez.

¹⁶⁷ [Candidato].

¹⁶⁸ [Diputazioan].

Bigarrenak agintzen badabe Aldundian, euskaldunik nekez sartuko da aurrerantzean, eta sartuta dagozanak be laster izango dabe kalera bidea.

Lehenengoak agintzea zeuk agintzea lez da, euskaldunek agintzea da eta.

Bigarrenak agintzea motzak agintzea da, eta motzak agintzen daben lekuan gu beti kanpora.

Lehenengoai lagunduaz zeure Euskal Herriari laguntzen deutzazu.

Bigarrenai lagunduaz erdelerriari laguntzen deutzazu.

Euskal Herriari lagunduaz, zeure buruari, zeure andra eta umei, zeure etxeari, zeure herriari, zeure lurrari eta laguntzen deutzazu.

Erdelerriari lagunduaz, zeurea dan guztia hondatuten dozu, zeure kaltez zoaz.

Emon, ba, zeure autarki edo botoa, zeuretarrai, euskaldunai, jeltzaleei.

Ez emon autarkia, Jainkoarren!! erdeldunen aldekoiei eta zeure kaltez dabilzanai.

Badakie eurok euskaldunak eurentzako autarkirik ez daukela, eta horregaitik poltsak diruz beteta joaten jatzuez zeuen buruak erosten.

Gizonak izan zaitezte; ez egizue saldu zeuen burua eta zeuen sendia eta zeuen herria.

Gizonak ez dau behin be autarkia saldu behar.

1923-VI-9

EZ GAITU KANKARREKOAK
BILDURTZEN.
GERTU GAGOZ BESTE BATERAKO.
GEURE BEHARKUNA BETE DOGU

Harainegun, geure aberri Euskadiren arerioen aurrez aurre jarri ginan hemen, Bizkaian, jeltzaleak.

Euskadiren areriook irabazi deuskue.

Ez da ardura.

Geuri jagokuna bete genduan, aberri Euskadiren aldeztetua.

Beste baterako be hemen gagoz jeltzaleak gertu, beti lez.

Ekingo deusegu hil arte, semeak amaren aldeztetua ekin behar dauen lez.

Autarki asko euki dau gure Ama Euskadik. Gure autarkiak garbi-garbiak izan dira; ez da dirurik emon, ez da ezer eskini. Autarkia Jel-aldeztetua emon dauenak bere gogoalantxe izan dalako emon dau.

Milakak izan dira Bizkaian. Gora zuek gizon garbiok!

Beste asko izan dira euren autarkia piper-poteei saldu deustienak, ogerleko batzukaitik.

Honeek, aurrerantzean, zeresanik¹⁶⁹ eukiteko Bizkaiko arazotetan ez dauke eskubiderik. Guztion ganera etorriko dan harria, eurek ekarri dabe eta.

¹⁶⁹ [Kejarik].

Beste askok, euren eta guztion aberri Euskadi piper-poteakandik jagon beharrean, edo bestela baitakoan arerioari lagundu deutsie, edo burruka-lekutik alde egin dabe, edo burla egin dabe (zitalak!) aberriaren aldez genbiltzanok piper-poteen azpian ikusirik. Saldukeria deungea!

Ligari saldu deutsiez, batzuk euren burua, beste batzuk Jel berbera.

Jaungoikoa ez dago alperrik. Berak emongo deutso bakotxari bere saria edo bere zigorra.

Gipuzkoako gure anai maiteak zorioneko dagoz, eta hemendik bialtzen deutsegu bihotzetiko zorion-agurra.

Barriola, Errezola (Aniketa) eta Eizagiire atara ditue.

Ederto, oso ederto.

Hor ez daukazue hemengo sarnea. Holantxe irauin beti Jaungoikoak lagun.

Naparran be abertzaleak zorioneko dagoz, Irujo jauna Lizarran aldun urten dalako.

Geure zorionak hareei be.

Orain, geure ahal guztiakaz jaso daigun geure aberria, bakotxak ahal dauen bidetik: ele, edesti, ogasun, erti, kirol, eta abar eta abar.

Geure beharkuna bete dogu, eta Jaunak lagunduko deusku geure bidean.

Ez bildurtu, ez kikildu, ez lurra jo ezegaitik.

Orain arte lez, edo orain arte baino hobeto, Jaungoikoaren aldez eta geure aberri Euskadiren aldez. Gora Jel!

1923-VI-12

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauazeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterri maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mípuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratzaillea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etkezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbelbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikuluak*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizioa: Igone Etxebarria

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

22. BERBALAUIAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. BERBALAUIAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. EUSKALDUNAK MADRILEN
Jose Basterretxea *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. EUSKAREA NIRE BIZITZAN
Karmelo Etxenagusia
Testuaren ardura: Igone Etxebarria
26. NI KAZETA-EGILEA NAIZ.
ARTIKULU, BERRI, ISTORIO
Jean Hiriart-Urruti
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. HAURGINTZA MINETAN
Mikel Zarate
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. KRESALA
Domingo Agirre
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. ZORIONA. 31 ETA ESKU
Xipri Arbelbide
30. ABARRAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. IZARTU EUSKALDUNAKI
ELANTXOBETAR BATEN OLERKIAK ETA
ARTIKULUAK
Gorgonio Renteria
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone
Etxebarria
32. ABERRIAREN ALDE
ARTIKULU POLITIKOAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Sarrera: Cesar Gallastegi



LABAYRU IKASTEGIA

bbk 2011



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saia
Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura

ISBN 84-89816-21-2



9 788489 816213